

A. LUIS VILLASANTE

EUSKARAREN AUZIAZ

EUSKARAREN AUZIAZ

*Serie «Luis Eleizalde»
sobre unificación del euskera escrito
Fascículo 9
«Luis Eleizalde» saila
euskara idatziaren batasunaz
9. liburukia*

LUIS VILLASANTE

EUSKARAREN AUZIAZ

Depósito Legal: NA. 1.232-1988
ISBN 84-7240-141-3
Fotocomposición: Cometip, S. L.
Imprime: Gráficas Lizarra
Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

Aurkezpena

Euskal Herria hizkuntza berezi baten jabe da. Mirakuiluzki, edo ez dakigu zuzen nola, baina gaur artio bizirik iraun duen hizkuntza baten jabe. Inguruko hizkuntzekin ahaidetasunik nabari ez zaiona, gainera. Itxuren arabera, mendez-mende lurralde honetan beti kokatua egon dena.

Bada hemen, alajaina, nor bere plazerera ametsetan egoteko moduko gaia. Baina agian amets egiteko grinari ateak zabal-zabalik uztea ez da on, eta arriskugarri ere gerta daiteke. Hobeko dugu, beraz, buru hotzez eta zentzuz gauza hartu.

Dena den, eta gertatua gertatu, hor dugu euskara.

Egia da, bestalde, aje askorekin iritsi dela gure egunotara. Gutti landua, gutti erabilia, gutti trebatua. Beronen iragana iluna eta gaizki ezaguna zaigu. Literatur oroitgailuak urri eta oso berandukoak ditu.

Aita ezagunik gabeko hizkuntza da, ahaide eta senide gabekoa. Hizkuntzek, familia bereko direnean, bata besteari laguntza eska eta eskain diezaioke; euskarak, aldiz, bakarti izanik, laguntza-eske auzora zer joanik ez du; gehienetan edo anitzetan ez, behintzat.

Hiztunen kopurua murrizta du (seirehun mila). Euskaldunak, euskotarren artean % 25 izatera ere ez omen dira heltzen. Gainera, euskaldun horiek euskalki eta azpieuskalkitan banatuak ageri zaizkigu.

Eta oraindik larriagoa dena: euskarari bere eremua bi kultur hizkuntza boteretsuk hartua diotela.

Hizkuntza honen iragana izan den bezalako izan delako, gaur eguneon tresna, ibilgailu edo adierazpide jator izateko, gaurko zibilizazio eta kulturaren mundu korapilatsuko gauzak taxuz azaltzeko, halako moztasun edo gaitasun eza nabari zaio.

Joan-mendeetako euskal apologistak mintzaira honen bikaintasunen kontenplazioan eztitan bezala egon ohi ziren, nahiz eta bitartean erdaraz idatzi. Baina Axular-ek aspaldi adierazi zigunez, tresnak erabiliaren erabiliz fintzen dira: «Zein burdina [da hobe], zokoan datzana, ala erabiltzen dena?». Eta erantzun hau ematen du: «Segur da guztiak erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz ontzen, argitzen eta fintzen direla» (1). Argibide sinple honetan ikusten dut nik auzi honen gora-behera guztia.

Eta pixka bat gorago, euskararen auzia berariaz eta espresuki ukitzen duenean, berriz ere gauza bera esaten digu Axular-ek: «Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak» (2).

Bai. Mintzaira hau sail askotan eta jakintza-maila eta arazo-mueta askotan erabili ez izanak edo gutiegi erabili izanak ekarri dio esandako moztasuna (3).

Beste aldetik, ordea, gaur kontzientzia bizi-zolia nabari da euskaldunengan —zenbait euskaldunengan bederen— hizkuntza honen balioari buruz. Mintzairak, herritasunaren lokarri den aldetik duen balioa, gogotik eta barne-barnetik sentitzen dute; eta orobat euskarak duen kultur balioa, antzinatasun-balioa etab. Nahi dute, beraz, hizkuntza hau bere kenka larritik egoera hobego batera altxa, bizirik atera, indarberritu eta aitzinatu, eta ahal dela, galdu dituen sailak berreskura ditzan.

Batzuengan halako errasumin bat ere nabari da. Badirudi dena nahi luketela behingoan egin, etapa guztiak errez, presaka, bortxaz, inposaketa bidez. Baina hor ere arriskuak egon daitezke.

Beste batzuk, aldiz, beste muturrean daude, eta ez ditugu ahantzi behar. Unamunoren kasua ez da bakarra. Horientzat, guk nahi ez nahi, euskarari hiltzea beste biderik ez zaio gelditzen. Hauen ustez, alfer-lana da horretan indarrak hingatzea. Tresna ezteusa omen da euskara,

ezertarako ez dena, intrinsekoki desegokia; alferretan aritzea da, beraz, hura gai bihurtzeko egin daitekeen guztia. Egin bekio ehorzketa ohoragarri bat, eta kito (4).

Horra bi jarrera puntako euskarari buruz.

Unamunok dioena —euskara intrinsekoki ezgai dela— txorakeria da, noski. Axular-ek esan digunez, tresnak erabiltzeaz fintzen dira, eta orobat hizkuntzak.

Beste muturrekoen errasumin horretaz ere hitz bat esan beharra dago. Une honetan, sekula baino gehiago, buru hotza eta begi erneak behar ditugu. Amodio batzuek, maite den gauzari mesede baino kalte gehiago dakarkiotela esan ohi da, eta egia.

Begira gaitezen estrapolaziotan erortzetik. Orain baino lehen ere gertatu da gaitz hori eta eskarmentua behar genuke.

Herri baten ona den euskara ez dadila ideologia politiko batzuei lotua ager; bestela zatiketa gertatuko da eta euskara bera aterako da kaltiar.

Tamala da behin eta berriz behaztopa-harri berean jotzea. Zuhurtziaz, buru argiz eta jakitatez egin beharko den lana da. Bestela nekez izango du atarramentu onik.

Euskararen salbamendua! Horra obra bat berez ona, justua eta beronen alde lan egitea merezi duena. Badira, bai, arrazoi errutsuak helburu honen alde lan egiteko (5). Atsolutu ez dena atsolutu bihurtu gabe, setakeria gabe, besteren eskubideak eta erizpideak errespetatuz. Obra zaila izango da. Egitekorik aski emango diguna, baina egitea merezi duena. Aitzingibel asko dituen problema, bestalde.

Problema honen alderdi guztiak liburuki honetan ukitzerik ez dago.

Badira euskara salbatzeko noraezeko diren eta guk hemen ukituko ez ditugun gauza asko eta asko: agintarien atzekaldea eta babesa, komunikabide eta prentsan, administrazioan etab. sarrera izatea. Gu ez gara gauza horietan artez sartuko, inoiz iragaitzaz zerbait esango badugu ere.

Zein da, bada, azterkizunaren eremua? Arextian aitortu dugu euskarak badituela, bere egungo egoeran, aje batzuk. Horiei —edo horietako batzuei— kasu eman nahi diegu. Aje horiei erremedio edo sendabide nola eman dakiekeen bilatu, alegia. Tresna bera barnetik nola trenpa, treba, gai eta indar daitekeen aztertu. Xede hauek lortzeko zer behar den ikusi. Izan ere, xede hauek lortu gabe, nekez eraman ahal izango da aurrera euskararen salbamenduko obra hau.

Segur aski, euskarak ez ditu sekula izan gaur dituen bezalako aukerak. Edo eroak gara edo buru argiz jokatu beharra daukagu. Setakeriek eta itsumendiak dena lardaxka dezakete. Bihurgune larri baten aitzinean gaude. Bide zuzena hartzten asmatzea hil edo biziko gerta daiteke euskararentzat. Hizkuntza honi azken abagunea galeraz geniezaioke.

Auzi korapilotsu honetan argitasun zerbait egin nahirik, saio hau prestatu dugu. Hemen esaten diren gauza asko eta asko orain baino lehen ere hor-hemen esanak ditugu, bide nabar eta gaingiroki baino ez bada ere. Baina hemen pixka bat hedatuki eta aproposago eta «corpus» batean bilduak eskaintzen dira.

Izango ahal da dena, hainbat dihoakigun auzi honetan zuzen ikus dezagun, okerbideak uxa ditzagun eta saihestetik begira gaitezen!

Saio-gisako liburuxka hau egiteko lehen burutazioa Deban 1981eko Apirilean erne zitzaidan Dialektologi ikastaroko egun gogoangarri haietan. Agerian zegoen ordurako euskararentzat aro berri bat, egoera berri bat zabaltzen zela, esperantza berriekin, baina baita problema eta katramila berriekin ere. Orduz geroztik asmoa aurrera eraman dut, baina etenaldi askorekin, zeren —besteak beste— gure artean hain maiz gertatu izan diren gertaldi lazgarriek

bihotz hildua uzten bainindu ten eta segitzeko gogo gabe. Dena den, utzi eta berriro har, azkenenean buru eman diot. Zerbait lagun dezakeelako ustean agertzen dut.

Jose M.^a Sanchez Carrionek oharterazi digunez (6), hizkuntzen auzi honek badu Ekologiaren auziaz antz edo idurika handia. Gaur sentikortasun aparta nabari da bazterretan Ekologiaren alderakotzat, eta arrazoiz. Gizonak mundua du bizileku eta nahi du mundu hori ez diezaioten honda. Ibai, mendi, oihan, egazti, zuhaitz, landare, arrain, itsaso, zeru-sabaia, animaliak, dena garbi manten dadin, zeren, azken finean, horiei kalte eginez, gerok ateratzen baikara galtzaile. Eta gaurko zibilizazioak mesedeak ugari egin dizkigula ukatu gabe, Ekologi alde honetatik arrisku nabariak pilatzen ari zaizkigula buru gainera ohartzen hasiak gara.

Munduko hizkuntzen auzi honek eta Ekologiaren auziak badute, bada, elkarrekin zer ikusi handia. Mundua ezberdin diren hizkuntzez beterik dago. Batzuk handiak —mintzatzaileen kopuruari begiratzen badiogu—, beste batzuk ttipiak. Bakoitzak badu bere berezitasuna, bere nortasuna. Denen artean gizadiaren altxorra osatzen dute. Baina zer gertatzen da? Bada glotofagia dei dezakegun hori ere: handiak ttipia irentsi nahia, eta, zinez, mendeetan barna franko galdu direla badakigu.

Hizkuntzak munduaren altxorreko zerbait direnez gero, badirudi zerbait egin behar litzatekeela denek bizirik iraun dezaten (mintzatzaileek hartako gogo baldin badute behintzat). Hizkuntza ttipien salbamendua: horra Ekologi-suerte bat gaur eskatzen zaiguna. Agian behiala baino bide gehiago ere bada gaur —eskola, entzun-ikusizko tresna etab.— horien alde lan egiteko (7).

Hor da, ordea, Babelgo torrearen istorioa (8). Oroit naiz fraide lagun batek —hila da jadanik— erdi txantxetan-benetan esaten zidanaz: «Bibliatik dakigu hizkuntzen ugaritasuna Jainkoaren zigor edo kastigu bat besterik ez dela, eta zuek, euskaltzaileok, zigorra arindu beharrean, astunagotzen ari zarete. Ez ote da hobe munduarentzat batasunerantz jotzea?»

Batasunerantz jo beharra dago, noski, baina ttipiak eta handiak elkar errespetatuz.

Babelgo kontraeraren esanahia ez dago, itxuren arabera, glotofagia-zaleen alde, kontra baizik. Han madarikatzen dena zera da: gizonen megalomania batzuk. Gizonak behar du bere neurrien berri jakin. Eta edozein modutan ere, Mendekostez eta Testamentu Berri osoan esango zaigu behar dela gizonen artean batasuna egin, baina ez hizkuntzak hondatuz, aintzat hartuz baizik (9).

Dagoeneko eta haste-hastetik, ordea horra bereizkuntza bat gure ustez egin behar dena, nahiz eta gutitan egiten den. Hizkuntzak eta populuak —hau da, etniak— gauza bat balira bezala hartzen dira, eta ez. Bi gauza hauek sinonimo bezala erabili direla askotan ez da dudarik. Halaz guztiz, zehazki mintzatuz, bi gauza dira, eta, gainera, askotan, ez doaz batera.

Frankotan etniek beren hizkuntza aldatu egin dute edo etniaren zati batek beste hizkuntza bat hartu du eta beste zati batek lehengoaz segitu du, etab. Adibidez, euskara Pireneoetako eguzki aldera, eta bai Akitanian ere, antzina oso hedatua egon zela dirudi; hala ere, euskaldun haiek ez dirudi etniaz euskotar zirenik; eta alderantziz, Nafarroako erriberan badirudi, baskoiak izanarren, ez zirela euskaraz mintzo, zeltiberoz baizik. Etnia eta hizkuntza ez datoz, bada, beti bat. Auzi honetan hau kontuan eduki behar da; bestela nahastetarako bidean sartzen gara.

Beste bereizkuntza bat oraino, guretzat axola handikoa dena: hizkuntzen artean batzuk normalduak dira eta beste batzuk normaldu gabeak. Bereizkuntza honekin zer adierazi nahi da, preseski? Horra laburzki esana: hizkuntza batek idatzizko zereginetarako, irakaskuntzarako eta beste holako arazoetarako balio dezan, bir-moldaketa bat jasan behar izaten du. Behar du *basilekto* edo hizkera estandard deitzen den hori moldaturik izan. Horrelakorik ez duten hizkuntzak ez dira zeregin horietarako egokiak izaten.

Egia esan, normalkuntza hori eginik duten hizkuntzak, besteekin konparaturik, ez dira gaur artio, oso ugariak izan. Gaur, berriz, zibilizazioa eta kultura orotara zabaltzen den ber eta hizkuntzen alderakotzat sentikortasuna gehitzen ari den neurrian, gero eta ugariagoak dira

beren hizkuntzen normalkuntza-lan hau egiten ari diren herriak. Eta horietako bat da gure euskara.

Gaur eta hemen bere normalkuntza eginik ez duen hizkuntza nimiño batek ez du irauteko eta bizirik irteteko ahalbiderik.

Zer dira, baina, hizkuntzak bere izatez eta eitez? Gizonek elkar ulertzeko eta beren gogoetak elkarri adierazteko erabili ohi dituzten ikur edo ezaugarri batzuen sistemak, aho-mihiz ahoskatutako adierazkailuak, alegia. Tresna batzuk, beraz.

Hori Mitxelenak ezin hobekiago adierazten digu ondoko lerrootan:

«Hizkuntza bat, gurea nahiz inorena, ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea besterik. Ona da, beraz, elkarrekin mintzatzeko eta elkarri gogoetak adierazteko delarik, mintzatzeko eta adierazteko balio duelako; horrexegatik beragatik da ona haizkora zorrotza, ebakitzeko sortua delarik, eta haizkora amutsa, berriz, txarra. Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza amutsik, horrelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorrotzu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez.

Bitartekoa da hizkuntza, ez ontzia: ez du deus barrenen eta zernahi izan dezake. Adieraz ditzake, bada, asmakizun argiak eta kirtenkeria «itzelak», gogoeta zoragarriak eta totel-esaldi baldanak, garbiak eta lizunak, lirinak eta gordinak. Ez batzuek ez besteak ez ditu «hizkuntzak» esaten, ez baitu, beste norbaitek edo zerbaitek bezala, horretarako «nortasunik»: mutu da, ez baitu ez ahorik ez eztarririk, are gutxiago bururik. Hizketan dakitenak beste norbaitzu dira: eztarridunak, ahodunak eta (hala-holako) burudunak, haren bitartez, hura dela medio, mintzatzen direnak. Garbitasuna eta zikinkeria ere hauen aho-buru-ertzarrietan datza, ez hizkuntzak ez dituenetan» (10).

Hizkuntzak, ordea, bizi ahal izateko, noraezeko du giza-komunitate bat, gizatalde bat, tresna hori erabil dezantzat. Giza komunitatea da hizkuntzaren sostengu, oinarri eta haz leku. Hori ez duen hizkuntza, hila da. Komunitate jakin batean txertaturik egon ohi da gizona, eta komunitate honetatik hartu ohi du hizkuntza, eta komunitatean eta komunitatearen bidez helarazten zaio hurrengo gizaldiari. Besteri helarazte-lanak huts egiten badu, orduan etena gertatzen da eta hizkuntza hura ez da gehiago hizkuntza bizia, hizkuntza hila baizik.

Beraz, ezin besteko edo ezin utzizko da hizkuntzaren jabe edo erabiltzaile den gizatalde bat egon dadin, nahiz handia, nahiz ttipia, baina gizatalde trinko eta iraunkor bat. Hori gabe ez dago hizkuntzarik. Eta gizatalde horrek beharko du bere mintzaira hori atxikitze nahia izan (nahia, ez nahikundea xoilki). Ikus Axular-ek bi hitz horien artean egiten duen bereizkuntza (11).

Giza nahiak, ordea, asko dezakeelarik, baditu bere mugak, halere. Ahalbide mugatuak ditu. Gizataldeak hizkuntza gorde ahal dezan, baliakizun batzuk ere behar ditu bere eskuan. Nahia, beraz, eta zenbait baldintza.

Hizkuntzen eskubideak ere aipatzen dira inoiz. Baina ez dakit. Hizkuntzak tresna batzuk besterik ez badira, hobeko dugu hiztunen eta populuen eskubideez mintzatu. Joan Paulo II.a «Sollicitudo rei socialis» Entziklikan, berariaz mintzo da honetzaz, hots, herriek beren nortasuna eta kultura berezia atxikitze duten eskubideaz (12). Beti, jakina, kasuan kasuko zertzeladak, ahalbideak eta baldintzapenak ikusiz. Eta nahia eta baliakizunak izanik ere, helmuga ez iristea gerta daitekeena da. Ez dut uste, gainera, edozein preziotan iristekoa denik.

Gure saio honetan euskararen salbamendurako geure ustez bultzatu eta bideratu behar diren zenbait gauza azaldu nahi izan ditugu. Ez dugu gaia alde orotarik inguratzeko ahalmenik ez gogorik. Beti geldituko dira franko gauza ukitu gabarik eta aipatzen direnak ere, segur, osatu eta hobetu beharrean egongo dira. Baina batek hasten duena bestek osa eta burura dezake.

Liburuan badira han-hemen errepikaketa batzuk. Balioko ahal dute zenbait gauza premiatsuren garrantzia barnetikago har arazteko!

Arantzazun (Oñati, Gipuzkoa), Apirilak 6, 1988.

Oharrak

1. Ax 23.
2. Ax 10.
3. Ez ditzagun, ordea, gauzak diren baino beltzago jar. Gutxi landua izan bada ere, zerbait landu da. Euskarak badu literatura bat, xumea nahi baduzu, baina bere xumean eta murriztean ere, aintzat hartu behar duguna.
4. UNAMUNO, *La cuestión del Vascuence*, 1902. IÑURRITZA (Salbatore Mitxelena), *Unamuno ta Abendats*, 1958. UGALDE (Martín de), *Unamuno y el Vascuence*, 1966.
5. Ikus *Euskararen Liburu Zuria*, Euskaltzaindia 1977 (elkarlanean).
6. *Un futuro para nuestro pasado*, S. Sebastián 1987; p. 86.
7. 2.500 eta 3.500 artean omen dira gaur munduan dauden hizkuntzak. Ikus SOCIETE DE LINGUISTIQUE DE PARIS, *Les Langues du Monde* C N R S, Paris 1952, p. XXIX.
8. Ikus Gn 11.
9. Ikus Act 2, 3. Ikus, baita ere, Apokalipsian zenbat aldiz agertzen diren izendatuki hizkuntzak Kristoren erreinuko osagai bezala: Ap 5, 9; 7, 9; 10, 11; 11, 9; 13, 7; 14, 6; 17, 16...
10. MITXELENA «Pro Domo» in *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor 1972; 213 orr.
11. Ax 28, 29, 30, 31, 111, etab.
12. Ikus n.º 32.

Lehen Kapituluua. Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak

Laburpena

Zer den hizkuntza, zertarako den, eta bizi ahal izateko zer behar duen.— Hizkuntzen adinaz edo zahartasunaz.— Hizkuntzen artean batzuk bikain eta beste batzuk zarpail ote diren.— Hizkuntza handiak eta hizkuntza ttipiak.— Hizkuntzaren eskubideez.— Nahia eta nahikundea.— Giza-nahiaren mugak.

Gizonak, bere ekintzetan porrot egin nahi ez baldin badu, egia oinarritzat hartzen eta auzien planteaketak zuzenki egiten ahalegindu beharko du. Eta gure auzi honetan bada berariazko arrazoirik printzipio hau hemen kontutan hartzeko. Izan ere, euskarari buruzko kondairan apologistek, ideologiek etab. eragin bat izan dutela, ez da dudarik. Horiek sortutako indarrek neurri bateko mesedea egin diotela euskarari aitortu behar da, baina, luzarora begira, gezurrean edo erdizkako egietan oinarritzen den ekintzak ez ohi du atarramendu onik (1).

Izan dira —eta badira oraino— gure artean, eta auzi honi gagozkiola, hain zuzen, uste edo aburu okerrak. Aurre-eritzi batzuk, alegia, itsu-itsuan edo kritika gabe irensten direnak. Gure ekimenaren gidaritzat hartzen baldin baditugu, badakigu nora eramango gaituzten: porrot egitera. Horregatik liburuska honen atarian bidezko dirudi honelako uste oker eta erdizkako egiak salatzea, zenbait argitzapen eta zehazpen eginez.

Hizkuntza bat zer den ez jakitea, edo bederen kontutan ez hartzea, egon ohi da gehienetan uste oker horien etorburuan, eta hori auzi honetan huts larria da.

Sebero Altubek *La Vida del Euskera* liburuan honelako uste okerrak salatzen ditu. Uste oker horiek bere garaiko euskaltzale eta abertzale askorengan nabaitzen zituen berak.

Hona hemen pasarte bat —orduko idazle baten pasarte bat— berak hitzez-hitz aipatzen duena:

«Emoidazube neuri azkatasuna, euzkerearen aztarrenik bape eztaukadala be, ta urte gitxi-barru euzkerea biurtuko dautzubet sendo-sendo, zindo-zindo, indartsu, bixirik. ¿Bakixube zer biar dodan mirari ori egiteko? Iztegi bat (*diccionario* bat) eta euzkel-izti bat (*gramatica* bat)» (2).

Lerro horiek idatzi zituenarentzat aski da hiztegia eta gramatika baten jabe izatea, hizkuntza berpizteko, nahiz eta herrian zeharo galdurik eta hilik egon; jakina, herri horrek burujabetza izatekotan.

Gauzak, ordea, ez dira hain sinpleak eta hemen behar dugu buru hotza izan, arazoa den bezala ikusteko.

Herritik desagertua eta zeharo itzalia den hizkuntza askatasunaren edo abertzaletasunaren indarrez berpiztuko dela uste izatea, ameskeria hutsa besterik ez da. Inoiz kontrara ere gertatu izan dira gauzak. Esan nahi dut: independentzia edo askatasuna lortu izanak, lagundu beharrean, kontra egin diola hizkuntzaren berreskuratzeari.

Hala kontatu zigun X. Kintanak esan ziola berari irlandar batek. Hitz hauek esan omen zizkion: «Guri burujabetza lortu izanak mesede baino kalte gehiago egin digu hizkuntza berreskuratze-lanean. Lehen, ingelesez menpean geundenean, gure nortasuna erakusteagatik saiatzeko ginen irlandera ikasten eta erabiltzen; geroztik, independentzia dugun puntutik, arrangura hori moteldu egin da, ez gara gehiago axolatzen». Beraz, ingeles hizkuntzak segitzen du han jaun eta jabe. Eta jakina denez, jende asko joan ohi da Irlandara, baina ez

irlandera ikastera, ingelesa ikastera baizik. Gobernua saiatzen da, bai, irlandera irakaskuntzan sartzen eta irlandarrek, beti ere, han, bihotzean, tokitxo bat izango dute beren hizkuntzarentzat, baina hori gora-behera, egunoroko bizitzean, ingelesak du aginpidea. Beste hitzez esanik, irlandarrek ez du bururik jaso (3).

Hor dago Ameriketako kasua ere. Hango Estatuetan ingelesa, espainola, portugesa eta frantsesa dira nagusi, hots, Europatik hara eramandako hizkuntzak, eta burujabetzak ez du egoera hori kolokarazi. Haatik, badira han bertako hizkuntzak, hots, amerindioen artean mintzo direnak, baina horiek eskuratzeko, lantzeko eta biziberritzeko ez da gogo handirik nabari. Eta ez da, noski, Estatu horietan askatasunik edo abertzaletasunik ez delako.

Baina badakigu zein den dagoeneko eta hitzetik hortzera atera ohi den esenplua: Israelgo kasua, heberkeraren berpiztearena. Bai. Hauxe da, segur aski, egundaino gertatu den kasu bakarra: hilik zegoen hizkuntza eta berriz piztu ahal izan dena. Baina jakin behar da han bateratu diren indar eta aitzingibelak ohi ez bezalakoak izan direla, eta beste inon nekez gertatuko dira berriz.

Jakin behar da, alegia, Ben Yehuda heberkera berpiztera jarri zen garaian, zer egoeratan zeuden gauzak Palestinan. Turkiak agintzen zuen han; turkoa zen hizkuntza ofiziala, baina hizkuntza ofizial hori ia inork ere ez zuen ezagutzen eta erabiltzen, salbu eta funtzionarioek. Hango jendea arabe hizkuntzaz mintzo zen. Hizkuntza honek badu, bai, literatur-tradizio bat, baina garai hartan eta lurralde haietan berekasa eta bertan behera utzia zegoen. Eskola eta irakaskuntza ere guztiz atzendurik zeuden. Horiek hola, horrelako egoera batean errazago da hizkuntza berri batentzat leku egitea. Gainera, heberkerak ahaidetasun hurbila du arabe hizkuntzaz.

Hori alde batetik. Eta gero, eta bestetik —eta hau izan da zalantza gabe indarririk eragileena— aberria sortzera zetozen juduak alde guztietakoak ziren eta bakoitza bere tokiko hizkuntzaz zetorren. Horrela ez zen posible aberria sortzea. Nahi eta ez, bat behar zen, eta asabena, hots, heberkera hartzea erabaki zuten. Eta bai lortu ere. Hemen gaineratu behar da heberkera hori guztiz hila ere ez zela. Hor zegoen Biblia. Hor errabinoak, hizkuntza hau beti estudiatzen zutenak; sinagogetan heberkeraz otoitzak egiten ziren, etab. Izan ziren, bada, baldintza batzuk asmo honen gauzatzea posible bihurtu zutenak (4).

Baina gatozen harira. Orainsu esan dugunez, gure auzi honetan zabaltzen diren uste oker askok hizkuntza zer den ez jakitean dute etorburua.

Zer da, bada, hizkuntza? Ikur edo zeinu batzuen sistema, zeinen bidez gizonek beren ideiak, sentipenak eta nahikariak elkarri adierazten baitizkiote. Sistema hori nolabait giza-multzo baten akordioz onartua eta erabilia da komunikabiderako. Hortik segitzen da axola handiko gauza bat, eta da: hizkuntza gizarte-gertakari bat dela eta beronen azpian edo oinarrian giza-komunitate bat egotea galdegiten duela (5).

Giza-komunitate bat, horra noraezeko baldintza hizkuntza bizi dadin. Hizkuntz-komunitatearen galtzarrean ikasten eta belaunaldi berriei aldatzen edo pasarazten da.

Hizkuntz-komunitatea, esan dugu. Bai. Hizkuntza handik hartzen dugu. Egina ematen zaigu. Tradizioz hartu eta hurrengoei pasatzen diegu.

Tradizioak, komunitateak, gizarteak gizonaren bizitzean pisu eta garrantzi handia duela, ez da dudarik. Antzinatean, Erdi Aroan etab., hori garbi ageri da. Giza banakoa komunitatean murgildurik bezala bizi zen, handik hartzen zuen dena, hark babesten zuen, etab. Gehiegizkoa ere bazen, noski, komunitateak orduan banakoaren gain zuen itzala eta aginpidea. Gero, Aro Modernoan, erreakzioz, nonbait, banakoa, indibidua sobera esten da, tradizio eta komunitatearen kaltetan. Banakoak bere buruz egin beharko luke dena. Tradizioa eta komunitatea aro ilun eta atzerakoietako kontuak bezala hartzen dira. Poliki-poliki, ordea, ikasi dugu behiala gehiegikeriak alde batetik egiten baziren, gero bestetik egin ohi direla.

Edozein modutan ere, gizakiak tradizio eta komunitatearen beharra du gauza askotan: hizkuntzan, erlijioan, etab. Ez du balio esatea: «Ez zaio hurrari deus irakatsi behar; gero,

handi dadinean egin ditzala bere buruz ikasketa eta aukerak». Hain zuzen, handi dadinean aukerak egin ahal ditzan ere, beharko du lehendanik zerbait hartua izan. Gaur bada tentazioa haurrak ondasun beharrez gabetuak uzteko, beren nortasuna errespetatu behar delako aitzakiaz.

Gizonak, ordea, dena edo ia dena gizartetik hartzen du. Hutsaren pare da berak bere buruz aurki dezakeena. Komunitatea da ondare edo altxor baten begiraile eta partitzaile, nahiz eta komunitate horrek ematen dituen gauza guztiak beti onak ez izan.

Guzti honek aparteko modu batean hizkuntzarentzat balio du. Hizkuntz-komunitatean murgildurik bizi izanez, eta ez bestela, ikasten da arruntki hizkuntza. Giza multzo trinko eta bildu bat ez badago —hizkuntza hura darabilen gizatalde bat, alegia—, hizkuntzak ez du bizi ahal izateko eta irauteko behar duen sostengurik. Komunitatea da, bada, hizkuntzaren sujetua. Ezer guti balio du hemen gramatika eta hiztegiak, beste hori ez baldin badago. Eta hain zuzen, hori —komunitatea— galtzeko zorian dago euskara. Oroz gain horri beharko zaio kasu eman, bada.

Hizkuntz-komunitatea ala, areago, lurraldetasuna? Bi-biek zer-ikusi handia dute elkarrekin. Baina artez eta zuzenean hizkuntz-komunitatea da hemen interesatzen zaiguna.

Hizkuntzaren eiteari dagokion zerbait da, beraz, giza-komunitate bat egotea, hizkuntza horren erabiltzaile dena. Gizonak indibidualki hizkuntza ikasteko egin dezakeenak guti balio du eta guti esan nahi du hizkuntzaren iraupenerako. Komunitate bat egoteak, aldiz, asko, edo ia dena.

Hizkuntza bere eitez zer den, nola bizi den eta irauten duen jakiteak gure kontuko asko balio baldin badu, ez da joan-etorri ttipiagokoa zertarako den jakitea. Badirudi hau denok dakigula eta ez dagoela horretaz zer esanik. Hala ere maiz ahantzi da hori, pratikan behintzat, euskarari buruzko auzian.

Esan dugunez, hizkuntzak zeinu-sistemak dira, gizonak elkarri beren burutapenak adierazteko erabiltzen dituztenak. Beraz, beren eitez eta izanez, tresna batzuk dira. Honelako tresnak eurrez daude munduan. Euskara horietako bat da, ez gehiago eta ez gutiago. Zer esan nahi ote dugu horrekin? Euskararen *tresnatasuna* —nolabait esan— oso kontutan hartu behar dela auzi honetan.

Baina gure artean bada tentazio bat nabari-nabaria, hots, euskara helburu bihurtzekoa. Bide dena, helburu eta xede egitekoa, alegia. Hori modu askotara gertatzen da. Adibidez, toki sakratu bat han bihotz-hondoan euskararentzat gordez, baina mintzabide, tresna eta adierazkailu bezala erdara hartuz. Edo itxurarako bakarrik euskara erabiliz, erakustokian jartzeko, alegia. «Idioma heráldico» esan zuen inoiz irriz Krutwig jaunak. Paparrean eramateko erabiltzen den domina. Pertsona-izenak eta herrien izenak erabat autoktonoak eta garbiak izan daitezela; ageri dena, ofizial dena, jende aurrekoa dena, hori ere, pitintxo bat bederen, euskaraz egin kanpotarrak lilurarazteko, baina erreminta arrunt eta egiazkotzat erdara erabili. Bide txarra da hori.

Tresna baten alde lan egiten da noiz eta tresna hura erabiltzen baita, baina ez gertakari bakan eta ospetsu batzuetan bakarrik. Askok hitz egin ohi da euskarari buruz, ikerketen objektu bezala hartu ere bai, eta ongi da, baina tresnari esker ona emateko modua berau erabiltzea da, gizonak dituen esanbeharrekoak adierazteko erremintatzat hartzea.

«Baina hizkuntza ez ote da, gero, tresna huts-soila baino besterik?», galdetuko du zenbaitek. «Ez ote du gizonak hizkuntzan beste balio batzuk ere aurkitzen? Ez ote da gure identitatearen ezaugarri nagusia, gure arimaren odola, etab.?». — «Bai, nahi baduzu. Bere

eitez eta izanez, ordea, hori da, tresna. Eta beste balio horiek erantsiak dira, gainteko bat bezala dira, hots, gehigarri ematen zaizkionak, baina hizkuntzaren berezko zertarakoak huts egin baleza, beste horiek neurri handi batean galduak lirateke.

Badakigu giza-komunitate batek hizkuntzan bere nortasunaren ispilu edo irudia ikusi ohi duela eta herri-kontzientzia pizteko alderdi eraginkorrenetakoa dela mintzaira. Hori hala da. Eta hori ere ez dut esaten baztertu behar denik. Baina alderdi hau berezian eta bakarrik bilatzen denean, hizkuntzak bere eitez duen xedeaz kontu guti eginik, ez goaz bide onetik. Azkenean esku hutsik gelditzeko bidea hartzen dugu. Iturriaga alegilariak aspaldi esana datorkit gogora: Beleari gertatua gerta dakigukeela, alegia: Azkenean harroputz eta gazta gabe gelditzea (6).

Euskara hizkuntza oso zaharra dela, antigualekoa, bere inguruan dituen guztiak baino lehenagokoa, askotan entzun izan dugu, eta hau da, zalantzarik gabe, hizkuntza honen ohoretan eta euskaldunon harrokeriarako erabili izan den lelo bat. Zer ez dute esan eta idatzi euskararen apologistek: Parabisuko hizkuntza edo, gutinaz, Babelgo torrekoa, Tubal-ek Mesopotamia aldetik honera ekarria, etab. dela?

Zahar-zaharra dela, behintzat, begien bistakotzat jotzen dugu... Ez ba. Hori ere hizkuntzalariek, harrokeriarako bide hori ere, kendu digute. Edozein hizkuntza eboluziopean omen dago etengabe; orduan besteak baino bat zaharragoa dela esateak ez omen du sentidurik.

Hau ulertzeko, kontutan hartu behar dira hizkuntzaren, edozein hizkuntzaren, bi berezitasun, neurri batean elkarren aurkakoak diruditenak. Hizkuntza, alde batetik, egina ematen zaigu; baina, beste aldetik, etengabe eboluziotan dago, beti aldatzen ari da, alegia (7).

Gizona mintzatzen hasi zenetik, mintzaira aldatuz eta zatikatuz joan da, bada. Hainbeste menderen buruan hizkuntzek aldakuntzak ezagutu dituzte; beraz, eta aldakuntzen ondorioz, hizkuntza bat noiz hasten den existitzen eta noiz hiltzen den erabakitzea, ez da gauza erraza. Hemen gertatzen dena da hizkuntza batzuek mendeetan barna jasan dituzten aldakuntzak hobekiago ezagutzen ditugula literatura luzea izan dutelako; hori da, esate baterako, latinaren eta beronen ume bezala hartzen diren hizkuntzen kasua. Euskarak, ordea, literatura oso zaharrik utzi ez duelako, beronen aldaketek oso guti dakigu; baina aldaketok gertatu direla ez da dudarik.

Beste hitzez esanik: Oraingo euskara eta orain bi mila, lau mila urte toki hauetan bizi ziren asabena, hizkuntza berberatzat jo behar ote dugu? Edo gure euskara eta haiena hizkuntza desberdintzat hartu behar ote dira, latina eta gaztelania bi hizkuntzatzat hartzen diren bezala?... Erantzuna zein den berez igartzen dela esan behar.

Hala ere, eta atsolutuki euskara beste hizkuntzak baino zaharragoa dela ezin esan badaiteke, egiaz eta oker egoteko zalantza gabe sostenga daiteke, ordea, *gaur toki honetan* bere aldameneko beste hizkuntzak baino zaharragoa dela. *Toki honetan zaharrena*, alegia (8).

Hizkuntza batzuk beren eitez bikain eta beste batzuk ezgauza direla, batzuk goimailatakoak eta beste batzuk zarpail eta beren baitatik, hau da, berenez desegokiak: horra beste esamesa edo irudipen bat bazterretan arras zabaldua egon dena eta euskararen auzi honi

ukitu izan diona. Zenbaiten ustez, sailkapenaren aurrenengo sailean legoke euskara, beste batzuen aburuz bigarreanean. Baina ez bat eta ez beste. Bitaratze honek ez du oinarri sendorik. Ez da zuzena. Joan-mendeetako euskal apologistek (Larramendi, Erro, Astarloa eta beste) mila bikaintasun eta dohain ikusten zuten euskaran, inguruko beste hizkuntzak akasdu, ezgauza, ezerez, eta zarpailtzat jotzen zituzten bitartean; baina berek tresnatzat zarpail horiek hartzen zituzten. Eta jokabide honek gaur artio dirau.

Barkakizun zen, neurri batean, euskaldunak beren Hizkuntzaz zaletzeko, hizkuntza honen abantailak agerian jarri nahi izatea, baina lelo honekin urrunegi joaterik ez dago. Gainera, alienazio bati zabaltzen zaio atea, hots, euskara kontenplazio-objetu huts-soila bihurtzen da eta, tresna izateko, ustez zarpail diren horiek hartzen dira. Azken finean, gorespenekin euskaldunen burua tontotu eta bitartean gazta bestek kentzen digu.

Gero, erreakzioz edo, etorri ziren beste aldera jo zutenak, hala nola, Unamuno. Honek ere, Jespersen-i jarraikiz, dirudienez (9) hizkuntza batzuk bikaintzat jotzen ditu —indoeuropar familiatakoak, noski—. Beste batzuk, berriz, ezteus eta desegokitizat, eta hauen artean sartzen du euskara. Hizkuntza trakets eta markets hauek halako ahulezia bat ezin sendatuzkoa izango lukete, eta zer egingo zaio!, horrek ez du erremediorik. Ez dute balio, ez dira gauza, eta kito.

Baina punta bateko apologistak oker bazeuden, berdin daude oker beste puntako mendratzaile hauek ere.

Ezin esan daiteke, beraz, hizkuntza batzuk berenez edo beren eitez bikain eta handi-kastako direla eta beste batzuk ezteus eta desegokiak. Tresnak diren aldetik, denak dira berdin. Honako hau, ordea, bai, egia da: inguruko baldintzapenez baldintzaturik egon direlako, moztasun edo atzerapen batekin aurkitzen direla batzuk besteen aldean, eta hori da euskarari gertatu zaiona; baina behar diren gaurkotze edo egokitzeak egin ditzakeela, ez da dudarik (berriz ere hartako baldintzak izatekotan). Hemen bai balio duela Axularrek dioena: «Eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak» (10). Haatik, agian honako hau gaineratu beharko litzateke: «euskaldunek eta inguruko baldintzapenek».

Hizkuntzak, tresna diren aldetik, denak direla hobagarri, gaur frogatutzat ematen dute hizkuntzalariek Sapir-en ondotik (11). Beste kontu bat da egokitze-lan hori ez dela beti denen alkantzuan, hartako behar liratekeen baldintzak falta direlako edo lan horrek pena merezi duela uste ez delako, etab.

Hizkuntza handiak eta hizkuntza ttipiak: horra, azkenik, beste sailkapen bat. Hau, bai, kontutan hartzekoa da oso. Hizkuntza handia eta ttipia diogunean, ez dugu sailkapen hau egiten hizkuntzaren bere baitako bikaintasunari begiratu. Hizkuntza handiak dira mintzatzaileen kopuruagatik (edo inguratzen duten lurraldeagatik) handi direnak, hala nola txinar hizkuntza, ingelesa, espainola etab.; eta baita, mintzatzaileen kopurua oso handia ez izanarren, kultura aberats baten adierazkailu izan direnak eta bai hitz-altxor joria dutenak ere.

Hizkuntza ttipia da, aldiz, gizatalde urri edo ttipi batek erabiltzen duena eta kultur-tresna bezala ere, halako ekoizpen edo emaitza handirik eman ez duena.

Azken sailkapen hau, bai, kontutan hartzekoa da. Begien bistan da hizkuntzen egoera mundu honetan, guk nahi ez nahi, handi/ttipi horretatik neurtzen dela. Gauza jakina da eta egunoro ikusten dena, hizkuntza ttipien mintzatzaileak hizkuntza handi-zabal horietako bat ikasi beharrean egoten direla; hizkuntza handi baten jabe direnek, aldiz, ez dute hizkuntza ttipien beharrik somatzen. Horregatik, hizkuntza zabal baten mintzatzaileak elebakar edo monolingue izan ohi dira, hizkuntza ttipietakoak, aldiz, bilingue, hots, elebidun. (Horrek,

ordea, badu bere alde ona ere: elebidunak, dirudienez, errazago ikasten baititu hizkuntza berriak).

Ez dakigu etorkizunean zer gertatuko den. Europa bateratzen baldin bada, gerta daiteke hizkuntza handi-zabal horietako bat denen gain jartzea, eta besteak, nahiz eta berenez hain ttipiak ez izan, azpian gelditzea.

Israelgo Estatuan, entzun dudanez, heberkeraz gainera, israeldar bakoitzari irakasten zaio hizkuntza handi edo zabal horietako bat, behar duenean balia ahal dezan. Badakite eta, heberkeraz soilki ezin joan daitezkeela inora.

Euskaldunok alde honetatik ez dugu zer harroturik. Hizkuntza ttipia da euskara, xumeenetakoa, nimiñoa. Ez da, bada, mirestekoa euskaldunak beste hizkuntza zabalago bat jakiteko beharra beti somatu badu. Elgoibarko emakume batek bere haur ttipiari erdaraz egiten omen zion. Emakume hura euskalduna zen. Norbaitek, harriturik, galdetu zion ea zergatik egiten zuen hori. Eta haren erantzuna: «Zertarako balio du euskarak? Elgoibartik Altzolara joateko?»

Batzutan aipatzen dira hizkuntzen eskubideak ere... Baina ez dakit. Gizona, hezur-haragizko gizaki konkretu hau da, soilki, eskubideen sujetua. Hizkuntza ez da pertsona, tresna bat baizik. Azken Kontzilioak esan digu gizona dela lur honetako izaki bakarra Jainkoak berberagatik maitatu izan duena (12). Ideologiek badute, bai, halako joera bat gizon konkretuaren lekuan gizon abstraktua jartzera, eta egiazko Jainkoa alde batera utzirik, gezurrezko jainkoak moldatzera, dela nazioa, dela arraza edo hizkuntza edo gizarte-maila, eta horiei eraikitzen dizkiete aldareak, bertan gero egiazko gizona ez salbatua, baina errea eta akaatua uzteko. Azken finean, hizkuntza gizonarentzat da, eta ez gizona hizkuntzarentzat.

Ez ditzagun atsolutu bihur atsolutu ez diren gauzak. Lagun bati entzuna datorkit gogora: «Eta euskara galduko balitz, zer? Ez ginateke horregatik mutu bihurtuko. Izango genuke beste tresnaren bat behar diren gauzak adierazteko». Hori hala dela, ezin uka.

Joan-mendeetan (antzinata, erdi aro etab.) ez dirudi gizona hizkuntzez asko axolatzen zenik. Zenbat hizkuntza ez diren sortu, hil, aldatu...! Bakoitzak zekiena hitz egiten zuen, berria ikasi-beharrean gertatzen bazen, ikasi egiten zuen, eta itxuraz ez zen deus gertatzen. Antzinako kondairagileak, orduko jendakiez mintzo direnean, gehienetan ez digute deus esaten haien hizkuntzei buruz. Badirudi xehetasun honek ez zuela berentzat halako garrantzi handirik.

Oroit naiz behin, Euskaltzaindia Uztaritzeko Landagoienen bildua zegoelarik (maileguzko hitz berriei buruzko jardunaldietan uste dut), Tolosako —Frantziako Tolosa— Unibertsitateko afrikar eta asiarrak multzo bat suertatu zela han gurekin. Eta gero jakin nuenez —ni ez bainintzen gertatu elkar hizketa «informal» hartan—, beltz haietako batzuek gogor eraso zieten euskaldunei: «Zer? Hizkuntza bat duzuela eta, hainbeste espantu? (Segur aski, Etaren berri zekiten). Zoraturik al zaudete?».

Hala ere, eta behar diren mugapen guztiekin, ekimen honek badu arrazoi sendorik eta ongi oinarriturik beronen alde zentzuz eta gogoz lan egin dezagun. Azken hitza, ordea, herriaren nahiak, baina benetako nahiak, ez itxurazkoak, izango du.

Benetako nahia, aldiz, hitzekin baino areago, obrekin egiaztatzen da. Eta ez dezagun ahantz Axular-ek nahia eta nahikundea bereizten dituela (13).

Jakin behar da, gainera, giza-nahiak badituela bere mugak, arazo honetan batez ere. Gizonak asko dezake, baina eremu eta baldinkizun batzuen barnean ari denean bakarrik.

Hortaz kanpora eta bere indarren gaintetik dauden gizartearen mugimenduen kontra ari denean, deus guti edo ezer ez (14).

Bada euskal esaera zahar bat eta hartaz oroitzeak agian mesede egingo digu gure jokabideak gidatze eta zentzarazte-kontuan. Honela dio: «Txikiak handia bentzi leidi asmuz ta jakitez» (15).

Oharrak

1. Ikus A. TOVAR, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madrid 1980.
2. Ikus *Euskera* (1933), 383.
3. Irlandarari buruz ikus Jon Miranderen *Idazlan Hautatuak*; Gero 1976.
4. Heberkera israeldarren jatorrizko hizkuntza ote da gero? Hori ere ez jakin. Batzuek uste dute israeldarrak Ejiptotik irten eta Kanaango lurrera joan zirenean, hango biztanleengandik hartu zutela heberkera, lehenago zuten hizkuntza utzirik. Eta Ejiptora joan zirenean, auskalo ez ote zuten lehenagokoa utzi eta ejiptoarrena har. Horrelako bitxikeriez bete da hizkuntzen kondaira. Ikus *Les Langues du Monde*, Paris 1952; p. 153.
5. Ikus F. SAUSSURE, *Cours de Linguistique Générale*, chap. 1, p. 29ss; Paris, 1955.
6. Ikus J.I. LASA «Iturriaga, adelantado de las artes pedagógicas sobre el vascuence» BAP (1965), 188.
7. SAUSSURE, o. cit., 24.
8. Ikus MITXELENA, in *Ser Vasco*, p. 228.
9. Ikus MICHELENA, *Lengua e Historia*, p. 151.
10. Ikus Ax 10.
11. Ikus MICHELENA, in *Ser Vasco*, p. 227; *Lengua e Historia*, p. 197.
12. «Gaudium et Spes», 24.
13. Ikus Ax 30.
14. Hala ere, eta gaur diren teknika eta ahalbide berriekin, badirudi lehen baino gehiago dezakeela. Hala erakusten omen du Soziolinguistikak. Ikus Jose M.^a SANCHEZ CARRION «Txepetx», *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*; San Sebastian, 1987.
15. Ikus *Egan* (1986, 1-2), 157. Armari-idazkune honi buruz ikus Juan San Martinen oharra aipatu-tokian.

II. Kapituluua. Premiarik premiazkoena: hitz egin

Laburpena

Nola galtzen diren hizkuntzak.— Gutxi hitz egin ohi da euskaraz: zergatik gertatzen da hori?— Hizkuntza biziari eusteak duen garrantzia.— Panazea enganakorrak.— Sebero Altuberen teoria eta pratika.

Gure komentu bateko errefektorioan (jantokian) idazkune hau irakurtzen da —azken urte hauetan jarria, noski—: «Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitzegiten ez dutelako baizik».

Ederki esana. Hizkuntzak, oroz gain, hitzegiteko eginak dira, ezpainetan erabiltzeko eginak. Hitzegiteari uzten zaionean hizkuntza hura hilobirako bidean sartu da.

Aje edo ahulezia hau du, nabariki, euskaraz: gutxi hitzegin ohi dela. Eta sendabidea sustraitik ipini nahi baldin bada, hortik hasi behar.

Ez dut ukatuko azken urteotan euskararen alde sortu den «boom» honekin zerbait irabazi ez denik, baina ez naiz gehiegi fido. Denborak esango du axaleko moda ote zen edo zenbaterainoko gizentasuna zuen joera berriak. Alferrik da itxurak egitea: hitz solte batzuk erabiltzea, euskararen aldeko manifestapenak antolatzea, idazkuneak paretetan jartzea, etab., gero egunoroko bizitze arrunta erdaraz egiten baldin bada. Eguneroko bizitze isil eta arruntaren ur-jolean irabazi eta galdu ohi dira hizkuntzen arteko guduak.

Euskaraz gutxi hitz egin ohi dela esan dugu.

Euskaraz dakitenak gutxi direlarik, mintzalariak ere gutxi izan behar, nahi-eta-ez. Baina hori baizik esan nahiko ez bagenu, tautologian eroriko ginategi. Ez. Besterik da esan nahi duguna, hots: euskaraz dakitenek ez dutela —edo ez dugula— hizkuntza hau behar den beste aldiz erabiltzen. Behar bezain sarri edo usu ez direla euskaldunak euskaraz mintzo.

Eta gaitz hau larria da. Hortik hasten da hizkuntzen gainbehera eta bai hilobiratzea ere.

Azter dezagun hurbilagotik zergatik gertatzen den fenomeno hau gure artean. Euskaraz gutxi mintzatzearren arrazoiak, besteak beste, hauek direla esango genuke:

1) Euskaldunak, are euskotarren artean ere, urri izatea: % 25 doi-doi (1). Orduan urlia edo sandiarekin topo egiten duzunean, ez dakizu zuzen euskaldun den ala ez, eta badaezpadan erdarara jotzen duzu.

Lagun-kuadrila batean gehienak euskaldun izanarren, aski da euskaraz ez dakien bat edo beste egotea, eta, beste gabe, denak erdarara lerratzen dira. Zenbat aldiz ez da hau gertatzen!

Gogoan dut, behin, Euskaltzaindiko batzarrera proposamen bat aurkeztu zela —Francoren denboran zen—: euskaldunek eraman beharko luketela paparrean ezaugarri bat euskaldunak direla esanez, eta orduan, elkarrekin topo egitean, beti euskaraz hitzgingo luketela. Baina ez zen aintzat hartu. Erremedioa gaitza baino galgarriagoa gerta zitekeen. Euskaldunak garen baino urriago garelako uste izateko bidea bihur zitekeen ezaugarri hori, konplejoei atea zabalduz, etab.

Ez dakit. Baina euskaraz mintzatzera bultzatzeko zerbait beharko litzateke asmatu, zeren hil edo biziko gauza baita hizkuntzarentzat, eta hori gabe beste erremedio guztiek jai daukate.

2) Euskalki, azpieuskalki eta abarregatik ere gertatzen da hori frankotan. Euskaraz —edo euskaraz— eskolatua izan ez den euskaldun arruntak herabe du gehienetan —ez beti, baina askotan gertatzen dena da— bere eskualdeko ez diren euskaldunekin euskaraz mintzatzera.

Bere herrian edo eskualdean egiten den euskara-moldetik irten orduko, dena bihurtzen zaio problema: hitzak direla, doinua eta azentua dela, ebakera eta laburdurak, aditz jokoa, zuka eta hikako adizkiak, etab. Eta orduan, jakina, erdara zabal eta batura jotzen da. Badakit salbuespenak direla, baina maiz gertatzen dela hori, ezin uka. Kasu asko eta asko kontu nezake.

3) Erdarara jotzen badu, horrek esan nahi du euskaldunak normalki erdaraz ere badakiela. (Hegoaldean gaztelania izango da erdara hori, eta Iparraldean frantsesa).

Euskalduna, beraz, elebidun da, hots, bilingue. Gainera, bere ikasketa eta eskolak erdaraz soilki egin ditu arduenean. Irakurtzen dituen liburuak ere erdaraz daude. Mintzagai batzuek errazago mintza daiteke erdaraz. Tresna bera, erreminta, alegia —hots, hizkuntza— egokituago eta trebatuago aurkitzen du erdara horretan. Hala aitortzen da Nafarroako euskararen egoeraz ari den liburu batean: sail edo eremu batzuetan, alegia, erdarara lerratzeo tentazioa egon ohi dela (2).

4) Gehiegizko Purismoa, horra, azkenik, euskara biziaren beste etsai bat. Etsai hau maltzurrenetakoa da, gainera, zeren euskararen garbitasuna gorde nahirik eta euskararen adiskide-itxura harturik, hargatik da salatzen zailagoa.

Hain barneraino sartu da herrian erdal itxura edo erdal jatorria duen hitzik euskaraz ez dela erabili behar, non hizkuntza zikinduko ote den beldurrez erdarara jotzen baita. Gezurra dirudi, baina horretaraino heltzen dira gauzak. Eta horrela, euskararen alde egin nahi lukeen joera, hizkuntzaren hiltzaile eta galgarri bihurtzen da.

Hasten zara hitzegiten, mihipuntara datorkizu hitz bat, ohartzen zara ez dela behar bezain garbia, eta atzera jo behar; etortzen zaizu beste bat, eta berdin... alde orotarik trabak, «portuak hartuak» (3). Zer egin? Erdarara jo. Han ez dago horrelako istilurik. Horra nola gelditzen den hizkuntza, purismoagatik, beso eta zangoz lotua, elbarriak joa. Purismoak euskara maite du, eta maitasun horren ondorioa: maiteñoa hiltzera galtzea. Bitxikeria tragikoak! (4).

Hizkuntza biziaren erabilera galerazten duten arrazoiak bilatzen ari gara. Hizkuntza biziari eusteak zenbat balio duen jakinik, horren etsaiak ezagutu eta salatzea behartuak gaude.

Egia da, bestalde, gaitz honetaz ez daudela euskaldun guztiak berdin ukituak. Aitzitik, euskaldun arrunta, euskarari buruz teoriarik edo eskola berezirik ikasi ez duena, konplejorik gabe mintzo da euskaraz, hitzen etorkiaz kontu guti eginik —juxtu, beste mintzairerako hitzunek egin ohi duten bezalaxe—; baina gure artean, euskaldun soil izateaz gainera, euskaltzale, euskalari edo abertzale den oro, guti asko kutsatua egon ohi da; eta halako enraginak ondorio nabariak ditu euskara biziaren egoerarentzat.

Hizkuntzak hitzegiteko dira, ezpainetan erabiltzeko. Mintzo ez den hizkuntza, ez da ezer.

Hitzegiten ez den hizkuntza, nahiz eta Erakustokian ohorezki jarria egon, ez da deus, ez da ezertarako, hila da. Arrisku horretan dago euskara, eta horren kontzientzia hartzeak mesede baizik ez digu egingo.

Ahal den guztietan erabil dezagun euskara, mintza gaitezen euskaraz. Badakit honetan gehienok garelako hobenduri.

Gurasoek beren umeei irakats diezaietela euskara. Zein euskara, ordea? Dakitena, noski. Honetan ere izaten dira konplejo kaltegarriak. Tolosako euskara dela ona; norberak dakiena, aldiz, txarra, eta azkenean, hobe beharrez, bat ere ez. Horrelako txorakerietan ibili gabe, lot gatzaizkio axola guztia duenari: euskara bizia gordetzeari. Izan ere, hizkuntza bizia gal baledi, dena galdua legoke.

Gizaldien arteko katea ez dadila eten. Mintzatzetik gelditu den hizkuntza, hila da, eta hila hil; hura berpiztuko duen indarrak ez da.

Hitzegitearen jokoa gimnastika baten bidez, mekanismo automatiko batzuen bidez ikasten eta bizirik mantentzen da. Horri eutsi beharra dago. Ahoz-ahoko transmisio bizia ez dadila eten. Bestela gureak egin du.

Gainera, hiztegi, gramatika eta liburuak dena biltzen eta ematen digutela pentsatzea, txorakeria da. Hizkuntza biziak badute arima bat, jeinu bat, gramatika eta liburu-bidez soilki nekez ikasten dena. Transmisio biziaren bidez zurruputzen eta itsasten da guzti hori.

Askotan asmatzen eta barreiatzen ditugu panazea enganagarriak euskararen auzi honi irtenbide bat bilatu nahirik. Horietakoa da hau: «Kulturak salbatuko gaitu». Uste dugu, alegia, anitz liburu euskarazko eginez, beste gabe, berez bezala, bizirik aterako dela euskara.

Uste honen okerra agirian jartzeko Sebero Altube jaunak latinaren kasua aipatzen zuen. Kultura egin da, bai, horraitio, latinaren bidez, inoiz egin baldin bada! Nekez aurkituko da beste hizkuntzarik honetan latinari abantail eramango dionik. Eta zer? Kulturak salbatu ote du latina? Bai zera. Mututu zen betiko, eta liburuak gora-behera, hilik dago.

Liburuak ez dute indarrak aski hizkuntza hil bati bizia emateko. Gainerakoan, honekin ez dugu liburu eta kulturaren garrantzia, den gutiena ere, gutietsi nahi.

Euskara hilotzik gelditzeko arriskutan delako, hain zuzen, honetan ez dugu amore eman behar. Ahal den guztietan erabili behar dugu.

Gauza guztiek, ordea, muga bat dute. Ez nuke gaizki ulertua izan nahi. Gizartean bizi nahi baldin badugu, elkarrekiko har-emanak behar ditugu, eta horiek diren bitartean, erdarara jo beharra maiz gertatuko zaigu. Gizalegeak, elkarri zor diogun errespetuak, beharrak, etekinak etab., erdarara joaraziko gaitu. Muga horiek errespetatzea bidezko dela dirudi. Honetan ere gehiegikeria eta nabarmenkeria batzuk, neurritz kanpoko inposaketak etab. egon daitezke, eta, zinez, ez ditut maite. Gainera, gehiegikeriek kontrako indarrak bultzarazten dituzte. Ez dezagula zentzua gal.

Honetan Sebero Altube dugu gogoangarri. Ahal zuen guztietan, beti eta edonon, euskaraz mintzatzen zen. Euskararen bizitzeaz (5) inor kezkatu egon baldin bada, hori Altube jauna izan da. Dirudenez, oso goiz piztu zitzaion euskararen kezka, hizkuntza hau galbidean zihoalako kezka. Berak kontatzen digu nola aitabitxiak aurpegira bota zion inoiz arazo hau (6). Euskarak zekarren ahuleziaz goiz ohartu zen, nonbait, eta bere bizitzeko ekintza nagusizat hartu zuen gaitz horri sendabidea bilatzea.

Zer egin zuen horretarako? Behar bezalako jakintzaz bere burua jantzi: hori lehenik. Hizkuntzak zer diren, nola indartzen eta mazkaltzen diren zehatz ikasi, alegia. Eta gero, buru hotzez, zentzuz, alderdikeriak eta aurre eritziak alde batera utzirik, euskararen bizitza sendotzeko balio lezaketan argibideak orotara zabaldu, aspertzeke errepikatu, inoiz edo sarri hortik nahigabeak bilduagatik.

«Izkuntz-jakintzia ta euskeriaren bizitzia»: gai hau erabili zuen Altubek Euskaltzaindian sartzeko bere hitzaldian. Euskararen bizitza bera dago arriskutan. Hori hala delarik, horri eusten higitu behar ditugu geure indarrak. Hizkuntz-jakintzak ematen dituen argibideak gidari hartuz, euskararen bizitzeari zer bidek lagun diezaiokeen nahi du erakutsi (7).

Bizitza bera arriskutan delarik, horretxek berak, eta ez bestek, eman behar liguke kezka: hauxe da Altuberen pentsakera.

Kapitulu hau bukatzeko, sarrera-hitzaldi horren hasiera eta bukaeratik pasarte bana aipatuko dugu:

«Euskerearen bizitzia: esan bearrik eztala dirudi, baina bada: euskaltzaleok, euskerea maite dogula diñogunok, euskereari dagokon gauzeetatik gorengotzat, beiñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasuna, beroneri buruzko geure eretxi-meretxijak eta enparau guztija, eztira ezer ere; bazterrera jaurti bear dittugu, euskeriaren bizitzia bera, laguntasun eske, oiuka, deika, erostaka ikusten dogunean» (8).

«Asmo bat baiño eztaigun izan danok: euskeria eztaittela il. Zelako eraz bizi behar daben? Bere oraingo erderiaz inguratutako egokera estu orretatik, garbijago ala loijago, ederrago ala itxusiago urtengo daben? Ezteigun orrezaz larregiko ardurarik izan; bizirik urten daijala, eztaittela il, izkereen eriotzia betiko eriotzia da-ta. Guk bizirik emon daiogun geure urregoko gizaldijari, eta au edo urregokoagoak gu baiño era obean aurkittuko al-dira euskeriaren osasuna zainduz gaiñera, al-daiten bestean berau garbittu eta edertzen ekitteko» (9).

Oharrak

1. Ikus «Estudio Sociolingüístico del euskara», Siadeco-k, Euskaltzaindiaren aginduz eta Lan Kide Aurrezkiaren laguntzaz, egina.
2. SANCHEZ CARRION (José M.^a), *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra* (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo; Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra, Pamplona 1972.
3. Cf. Ax 384.
4. Esan behar da, halere, azkenaldi honetan, erreazioz beharbada, beste muturrera jo dutela urek: bai hitzegitean eta bai idaztean zabarkeria hutsez noiznahi eta nolannahi hitzak kanpotik hartzen baitira, eta beti zuzenean erdara jakin batetik, hots, gaztelaniatik. Hori ere ezin onartua da, bistan da. Hizkuntzek —eta bereziki hizkuntza ttipiek— beren nortasuna zaindu behar dute.
5. Hizkuntza baten biziaz hitzegitea ez da beharbada guztiz egoki, zeren hizkuntza ez baita izaki bizidun bat eta ez baita existitzen mintzo diren mintzatzaileetan baizik. Baina guztiok dakigu zer esan nahi den eta honelako irudi batzuetara jotzea noraezeko gertatzen da. Ikus SAUSSURE, *Cours*, 19.
6. ALTUBE, «La Unificación del Euskera Literario», *Eusko Jakintza* (1949), 185.
7. Esan lezake hemen zenbaitek: Linguistikari, berez, bost axola zaio hizkuntzen bizitzeaz, eta zuzenean horretarako den sendagailurik nekez eman lezake. Bai, agian Altuberen jarreran bada estrapolazio bat. Baina hizkuntzak zer diren, horien bizi-legeak zein diren etab. jakite hutsak gure jokaerak zuzentzeko lagun diezaguke. Eta hori nahi zuen Altubek. Izan ere, hori jakin gabez egundoko disparateak egiten zirela egunoro ikusten zuen.
8. *Euskera* II (1921), I zenbakia, 3-4 orr.
9. Loc. cit., 48 orr. Ikus baita ere. ALTUBE «La vida del euskera. Divulgación de los principios de la lingüística general aplicables a su defensa», *Euskera* (1933), 299-397. Eta *Sebero Altube* liburua, VELEZ DE MENDIZABAL-ek prestatu eta Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak argitaratua.

III. Kapitulum. Purismoaren alde ona eta alde txarra

Laburpena

Gure arteko Purismoaren erroak: 1) euskararen apartekotasunaren harridura eta 2) hizkuntzei buruz ideia ez zuzenak.— Euskal idazleen purismoa XVIII, XIX eta XX. mendeetan.— Gehiegikeriak alde bat utzirik, zergatik on den eta behar den neurri batzuen barneko purismo-suerte bat.— Linguistika jakintzari sortzea eman zion Franz Bopp-en aurkikundea.—Eboluzio-legeak zer eragina duen hizkuntzetan.— Indar zatikatzaile hori baretzeko edo moteltzeko, nola hizkuntza landuek sortu ohi duten beste indar bateratzaile bat.— Bi indarron arteko oreka gorde-beharra.

Beldurgarriak izaten dira erabateko plangintzen zaleak, hots, planifikatzaile amorratuak, dena zehatz-mehatz, orokorki, xeheki, goitik behera eta alde guztiz erabakirik utzi nahi izaten dutenak. Gizonaren (edo, hobeki esan, zenbait gizonen) tentazioa izaten da hau. Ingurumarian azaltzen zaigun errealitatean desordenu gehiegi ikusten dute, nonbait, eta orduan dena zuzentzera jartzen dira. Horrelako gizonak nonahi ikusten ditugu: bai politikan, bai soziologian, bai eta Elizan ere. Benetan beldurgarriak dira. Azken finean, zer lortzen dute? Gehienetan negarra eta triskantzak beren inguruan pilatzea, eta gauzak ziren baino okerrago uztea.

Gizonari arrazoimena eman zaio bere premia eta beharrei erremedio bilatzeko, baina arrazoiketa urrunegi eraman nahi denean, gauditua gelditzen da, gainezkatua.

Euskararen barrutian ere joera honek arrasto nabariak utzi ditu. Zenbat ameslari eta planifikatzaile! Hobe beharrez ibili dira, dudarik gabe, baina hondamenak eta txikizioak pilatu besterik ez dute egin, gehienetan behintzat.

Hizkuntzak diren bezalakoak dira. Gizonaren nahikariak ahalmen ttipia du beroien gain. Zeozer ahal dezake, bai, gauzak alde honetara edo hartara joan daitezen, baina ez gehiegi.

Euskararen erreformatzaileek zorioneko *logika* aipatzen zuten beti: logikaren izenean erreformatu nahi zuten hizkuntza. Kontua da haiek gogoan zuten logika, eta hizkuntzak izan ohi duen bere baitako logika ez dabiltzala bide beretik. Euskara maite baldin badugu, hobe izango da den bezala har dezagun. Hizkuntzan zor zaion errespetuak horrenbeste eskatzen digu. Honekin, bestalde, ez dugu ukatu nahi, muga batzuen barnean, gizonaren nahimenak baduela zereginik aski hizkuntzaren arloan.

Behin agindu omen zioten Azkueri Soloeta-Dimaren *Ensayo de la unificación de dialectos baskos* liburuaren kritika egitea. Baztanga pasatu dutenak izaten omen dira aproposenak gaitz honetaz kutsatuak tratatzeko, eta horregatik uste du —hala dio— eman ziotela berari kargu hori. Azkuek gaztetan *Euskal Izkindea* delakoa argitara zuen, eta orduan. gaitzak joa zegoela aitortzen du (1).

Azkue berak *Txukuneria* deitzen dio gaitz honi (purismoaren gaitzari, alegia) (2). Grekozko izena eman nahi izatez gerotan, *katarinitis* behar lukeela dio (katharós = garbia).

Zein zen, ordea, Soloeta-Dimak zerabilen asmoa?

Euskal aditza leheneratu nahiz zebilen Aita Soloeta-Dima. Aditz horrek antzinatean zer forma zuen eta oraingo euskal aditza orduko formara bihurtu nahi zuen.

Honetan hiru bekatu larri egiten ziren: 1) antzinatean (zuzen ez dakigu noiz) euskara bere osotasunean egon zela eta geroztikako guztia desbiderapen eta okertzea izan dela pentsatzea,

2) adimenaren amets hutsez hasierako euskara horren formak zein ziren erabakitzea, eta 3) oraingo euskara baztertu, eta horren lekuan amets egindako hizkuntza sartu nahi izatea. Hamaika honelako egin da gure artean (3).

Gure erreforma-zaleen amets eta asmoen azpian beste zerbait ere bazen: hizkuntza baten eitea, izakera, sortzea etab. nolakoak edo zer moduzkoak izan ohi diren ez jakitea, horretaz ideia faltsoak izatea. Gainera, ikusten zuten euskara guztiz zela inguruko hizkuntzak ez bezalakoa, eta ikuspegi horretaz erasanak gelditzen ziren. Aita Larramendik euskararen gramatika deskubritu zuenean, txunditurik gelditu zen gramatika honetan ageri zen ordenantza miragarriaz. Eta honako ondorio hau atera zuen: euskarak artez eta zuzenean Jainkoa bera duela egile; Jainkoak, alegia, Babelgo torrean edo, Tubal-i hizkuntza hau isuri ziola —zeharo egina eta osatua, noski—.

Beste aldetik, ordea, gaurko euskara hasierako perfekzio horretatik guti-asko hastandua zegoela iduritzen zitzairen, zeren euskararen hiztegia —herriak egunoro erabiltzen duen hiztegia— maileguzko hainbeste hitz baitaude, albo hizkuntzetatik hartuak. Joskeran, era berean, inguruko hizkuntzetatik garraiatutako itzulika, juntagailu eta perpaus-motak nabari ziren, etab.

Horiek hola, normala zen tentazioa: mendetan barrena euskarari itsatsi zaizkion zikinkeriak oro ken, eta hizkuntza hau lehenera bihurtu.

Euskal purismo edo garbizaletasunak ikusmolde horietan ditu sustraiak.

Zernahi gisaz, joera honek erro sakonak bota ditu gure artean. Bai. Gure artean apologistak, etimologi-zaleak etab. ugari izan ditugu. Euskararen dohain eta bikaintasunez maitemindurik ageri zaizkigu. Baina funtsezko jakintasun gabez, horien eraikuntzek ez dute oinarri sendorik eta ezin dute zutik iraun. Jakite zuzen eta egiazkoaren gainean oinarritzen ez den ekintzak ez du helburu onik.

Purismoa gure artean ez da atzo goizekoa, nahiz eta beronen agerpen nabarmenenak aski berriak diren. Esan behar da, halere, idazle zaharretan badela makina bat, purismoaren eragin-zantzurik nabari ez zaionik. Idazle horiek bat ere konplejorik gabe idazten dute, euskaldunak arruntki darabiltzan hitzak enplegatuz.

Eta inoiz esango zenuke beste aldera zela orduko grina, hots, dotoreriatzat jotzen zela erdal hitz arrotz batzuk sartzea, eta herriak berak joera hori begi onez hartzen zuela. Esate baterako, Olaetxea bizkaitarrak herri xehearentzat egindako liburua (4), hainbeste aldiz argitaratu zena, erdal hitzez josirik dago. Berdin Otxoa de Arin (5), etab.

Oihenart-en kasua aipatzen da halako salbuespen bat bezala, XVII. mendean. Baditu olerki batzuk —adibidez Zalgiz jaunari eskainitako hamalaukuna—, XX. mendeko purista batek eginak diruditenak (6).

Baina XVIII. mende hondarrean, eta geroztik, gaur arte, nagusituz doa purismoaren joera. Batez ere erdal hitzak premia gabe erabiltzeari atea hersten zaio; garbikeriak gero jo dituen mugak jo gabe, ordea.

Ubillos-ek, esate baterako, 1785. urtean ateratzen du bere liburua (7). Liburuari jarri dion hitzaurrea notatzekoa da:

«Hizcunz bacoitzac ditu, hitzeguiteco, berezco, ta bere echeco hitzac: gure eusquerac beinzat bai. Onez aterontzeko guienac besterenac ditue. Ezpere beguira Erderari, ta ecusico dezu, guienac latin-hitzcunzarenac dituala, ta oez gañeracoac, noc daqui nongoac, ta norenac. Berezco hitz oec, hizcribitcean, ta esatean, ezarri bear dira, bacoitzari dagocan, toquian. Eusqueraz darausquizunean, eusquerazko hitzac ez badarabiltzatzu, zure erausia hitzunea, edo

barbarismoa dala esango dizue; ta hitz bacoitza, dagocan toquian sartzen ez-padezu, zure hitz-jarioari araututsa, edo *Solecismoa* dala deituko dioe. Bost onelaco enzuten degu eusquerazco sermoietan!» (8).

Hitzunea eta *araututsa* Larramendiren hiztegitik hartutako hitzak dira, noski, eta euskal irakurleak nekez ulertuko zituenak. Katekista, sermolariek etab. beren herriko hizkuntza apain, jori eta jator erabili behar dutela frogatzeko, teologo baten —Laurentius a Villavencio— pasarte aipatzen du gero Ubillosek. Hizkera jator hori ikasteko nora jo behar da, ordea? Aipatutako teologo horrek honela dio: «Puritatem sermonis patrii non haurias, nisi vel ex familiari convictu eorum, qui tersissime et nitidissime illum sonant, vel ex libris commendatissima Dialecto editis». Hau da: Zeure herriko hizkuntzaren jatorrasuna ez dezazula edan bi iturburu hauetatik baizik: edo garbi eta jator mintzo direnengandik (beroiekin har-eman izanez), edota ontzat hartua den hizkeran egindako liburuetatik.

Begien bistan da Ubillosek ondo gogoan dituela abisu hauek. Zeozergatik jarri ditu bere liburuaren ataburuan. Kezka hau bera ezagun da Mendibururen obretan ere.

Baina denak ez ziren kezka honen partaide. Zarauzko Mixiolarien komentua —XVIII eta XIX. mendeetan— euskaltzale fin askoren mintegia izan zen (9). Aita Añibarro eta Aita Zabala baitan euskara txukun eta jator horren kezka garbi azaltzen da, eta orduko beste mixiolari batzuen predikuetan ere bai. Etxe-komentu berean bizi zen, ordea, Aita Jose Kruz Etxeberria ere, haiek baino gazteagoa eta euskal idazlea, baina honi ez zaio kezka honen zantzu handirik antz ematen.

Bere *Devociozco vicitzaraco Sarrera* liburuari (10) hitzaurre moduko bat jarri dio honek ere. Eta hara zer dioen hitzaurrean: Liburu honetan «curiosoac» palta asko topatuko dituztela: hitzak ez direla behar bezain garbiak, etab. Baina erantzuten du haurkeriak direla horiek, haurren kontuak, eta abisatzen dio irakurleari: Utzi bada haurkeriai; eta begiratu sustanziari.

Abisu hori jarriagatik, ordea, ez zen zigorretik libratu.

Bazekien Aita Etxeberriak bere idazte-modua zuzenesten ez zutenak bazirela. Nola ez zuen jakingo, bere komentuan bertan zeuden eta? Aita Zabalak Aita Etxeberriaren idazmoldeari ez ziola ongi erizten jakiteko, badugu seinale bat gertua eta segurua. «Noticia de las obras vascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi» zerrenda baten egile dugu Aita Zabala (11). Bibliografi lan honen hasieran ohar bat jartzen du Zabalak: Liburuaren egilea bizi denean, ez duela balio-epairik emango, salbu eta epai ona merezi duenean. Eta bi idazle uzten ditu arrazoi honegatik epaitu gabe: Jose Kruz Etxeberria eta Iztueta. Garbiago ezin ager zezakeen idazle horiekiko zuen eritzi txarra. Hitzen kontuan axolakabea zen Aita Etxeberria. Haurkeriatzat jotzen zituen gauza horiek; baina epailariak ez zion barkatu.

Kontua da apurka-apurka purismoa indarra hartuz joan dela eta gure mendearen hastean muga guztiak gainditzearaino heldu dela. Hizkuntza bat erabat garbia behar zen, bere hitzetan erdararekin inolazko antzik ez duena. Aingeruen hizkuntza, ez gizonena. Prozesu edo eboluzio hau conprenitzeko beste zerbaiti ere kasu eman behar zaio, hots, euskararen mitifikazio-prozesu bat egon dela. Eta arriskutsua da hori hizkuntzarentzat, zeren horrela hizkuntza bere zeregin arruntetik ateratzen baita. Paparrean eramateko, museoan jartzeko balioko du, baina ez bizitze arrunterako. Eta hori da, azken finean, euskarari azken tiroa ematea bezala. Erdarak euskarari bere lekua kentzeko ezin asma zitekeen joko abilagorik. Ez dut esaten asmo horrekin egin zela, baina helmuga horretara darama bide horrek.

Bi puntu edo sailetan azaldu da batez ere garbizaletasuna, hots, lexiko edo hitz garbien sailean, eta sintaxi, edo zehazkiago esateko, hitzen ordenazioan, joskera deitzen dugun horretan, alegia. Behin baino gehiagotan aipatu eta gomendatu da beste purismo-suerte bat ere, hots, itzuliken purismoa («purismo del giro y del modismo»). Hau zen Larrekok, esate baterako, maite eta gomendatzen zuena (12). Baina, egia esan, aurreneko biak izan dira gure artean ildorik sakonena utzi dutenak.

Bai. Gure literaturan purismoak leize bat zabaldu du. Leize horren sakona eta zabala neurtzeko, gure euskal liburuak eskutan hartu besterik ez dago: alde batetik (eta urrunago joan gabe), XVIII eta XIX. mendeetako euskal liburuak, eta, bestetik, gure mendekoak. Eman dezagun, konparaziorako, Kardaberaz edo Gregorio Arrue, eta gure mendeko Txomin Agirre, Lizardi edo Orixe. Zahar haien eta berri hauen artean leize ikaragarria dela ezin uka.

Garbizaletasunak egiten du leize hori, hitzen eta joskeraren garbizaletasunak (eta konparazioa egiteko ez ditut puntako kasuak hartu). Euskara bat mila aldiz garbiagoa, puristagoa darabilte gure mendeko idazle horiek. Ez dugu uste, ordea, joera hau nagusitzearekin dena irabaztea izan denik. Euskaldun arruntarentzat irakurtzen zailago bihurtu dira euskal liburuak. Beste hitzez esanik, euskal literatura «elite» batentzat gelditu da eta orduan herriaren bide zabala erdarak hartu du. Trukaketa negargarria benetan.

Azter dezagun, ordea, purismoaren auzia orokorrean harturik eta hotz-hotzean.

Purismoak badu alde bat ona eta onargarria. Hau ezin ukatua da eta lanoki aitortu behar da. Izan ere, zer nahi du purismoak berez eta neurritz kanpoko ertz horietara heltzen ez denean? Hizkuntzaren nortasuna eta identitatea zaindu, gehiegizko nahaste eta aldaketatik hizkuntza gorde.

Honelako joera bat hizkuntzan guztiz da gomendagarri, behar den neurritik pasatzen ez den bitartean. Gutxi asko, joera hau hizkuntza guztietan aurkitzen da; bizitze normalez bizi diren hizkuntza guztietan. (Aagian esan beharko da, halere, hizkuntza ttipietan, mehatxupear daudelako edo, nabarmenago ageri dela joera hau; osasun sendoz bizi diren hizkuntzei, aldiz, ez zaie hainbeste axola hitzak handik edo hemendik hartzeagatik. Baina bego).

Purismoa, neurri batzuen barnean, on da, bada. Baina neurri horien berri ere jakin behar da. Horretarako hizkuntzak zer diren zuzen jakitea bezalakorik ez dago. Izan ere, gure artean erabili ohi diren jarreraren azpian zera dago: ideia faltsoa hizkuntzari buruz, eta, bereziki, euskarari buruz.

Axular-en *Gero*-n bertan pasarte hau aurkitzen dugu. Gure autore handiaren ikusmolde edo ustea salatzen digun pasarte: «Aitzitik badirudi ezen bertze hizkuntza eta lengoia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baina euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela» (13).

Pentsakera honekin, goizago edo beranduago, logikaren indarrez etorri zenak etorri behar zuen. Azken ondorioetara heltzea eta ondorio horiek praktikara eramanez nahi izatea gertatuko zen, eta gertatu zen. Inguruko hizkuntzak nahasiak eta kutsatuak baldin badaude, eta euskarak, soilki, hasierako izakera sotlean badirau, orduan bistan da zer egin behar den: inguruko hizkuntza horietarik itsatsi zaizkion elementu denetarik euskara garbitu, eta bere hasierako izaera horretan gordetzen ahalegindu.

Esan dezagun berriz ere: hizkuntza bat zer den zuzen ez jakitea, hori dago hemen. Aspaldiko jaun haiek uste zuten hizkuntzak Jainkoak zuzenki erabat eginak ematen zizkiela gizonari, eta behin betiko eginak, gainera. Beraz, behar zuten oro bazuten hizkuntza horiek: hitzen altxorra, gramatika bere legeekin, etab. Sortzeko edo hasierako ondare horri leial egotea besterik ez zen behar.

Baina hizkuntza batzuk besteekin nahasi eta horrela kutsatu egin zirela ikusten zuten, edo hala iruditzen zitzaizkien, behintzat. Euskara, aldiz, nahiz eta nahastura zerbait eduki, ez zen horietakoa; axaleko kutsadura kendu eta hasierako bere sotlean agertzen zen. Larramendiren obrak irakurri besterik ez dago ideia faltso horiek hizkuntzei buruz orduan nola onartzen ziren

ikusteko. Hizkuntza matrizeak —horien artean bat, euskara— Jainkoak zuzenki asmatuak dira eta Babelgo Torrean gizonei emanak. Hizkuntza horiek beren erabateko perfetasunean emanak izan ziren

Pentsakera honekin, bistan da, hizkuntzak ez du ezertan aldatu beharrik, bere hasierako izaera gorde baizik. Aldaketak oro desbiderapenak dira.

Ondorioetara, eta, beraz, purismorik erradikalenera heltzea, denboraren lana izango zen.

Baina gauzak ez dira hala, oso bestela baizik. Ezin aldatuzko esentziarik ez dago. Hizkuntzetan ez, behintzat. Hizkuntzak oro eboluzioaren legepean bizi dira.

Hemen, gainera, gizonaren lege nagusienetako bat ahaztutzen da, hots, gizonaren, giza ezagupenaren eta hizkuntzaren dimentsio historikoa. Bestela esan, historikotasuna, historizitatea. Lege honek neurtzen du gizonarekiko oro.

XIX. mende-hasieran aurkikunde harrigarria gertatzen da. Aurkikunde honi zorko dio Linguistikak bere sorrera. Historian barna hizkuntzei buruz egon diren uste eta eritziak mugarrri batez bezala banatuko ditu gertakari honek: beronen aurrekoak eta ondokoak erabat bestelako izango dira, alegia.

Franz Bopp ohartzen da sanskrito delata greko eta latinaren arbasoa, eta, urrats bat gehiago emanaz, aurki agirian jarriko da European mintzo diren hizkuntzarik gehienak jatorri edo familia berekoak direla, hots, indoeuropar familiakoak. Hasieran bat izanik, gutxika-gutxika, eboluzioz, aldatuz eta zatikatuz joan dira, gaur diren bezalakoak izatera etortzeraino. Hori hala bada, bistan da hizkuntzak oro bilakaera, eboluzio edo aldakuntz lege baten menpean daudela. Eboluzio horren gora-behera eta nondik-norakoa nola den ongi ez dakigu, baina gertatzen dela, bai.

Eta euskara ez da salbuespen bat. Lege honen barnean sartzen da. Euskararen ere bilakaera hori gertatu dela guztiz segurua da. Gertatzen dena da hizkuntza honek idatzizko lekukotasun zahar guti duela. San Millango glosak dira euskal esaldi zaharrenak (orain dela mila edo ia mila urte idatziak). Guztiz laburrak dira: «guc ajutu ez dugu», «izioqui dugu». Euskara direla agirian da. Zer esan nahi dute, ordea? Ez dago bat ere garbi. Orain mila urteko esaldiok guretzat ulergaitz badira, zer izango ote zen Historia aurreko gizonen euskara (euskara dei badakioke). Nork daki! (15).

Indoeuropar familiaren aurkikunde honek ekarri du berekin Linguistikaren jaiotza. Ordura arte zegoena, gramatika zen soilki. Gramatikariek hizkuntza jakin batean ongi idazteko (batez ere, idazteko!) erregelak ematen zituzten. Kontuan eduki *gramatika* izena, *grammatik* datorrela; eta *gramma*, grekoz, letra da eta letrak hizkera idatziaz du zer-ikus. Izan ere, hizkuntza idatzia zen gramatikariek aintzat hartzen zutena. Gramatikarari haientzat idatziz lantzen ez ziren hizkuntzak ez balira bezala ziren.

Gaztelaniaz, esate baterako, hizkuntza honen idazle klasikoen gisa idatzi nahi izan dutenak ez dira falta izan, are XX. mendean ere: Juan Mir bat, esate baterako; Moreu, guk mutikotan erabili genuen literatur testuaren egilea, etab.

Ikusmolde honetan badira presupostu faltso batzuk; izan ere, gauzak zientifikoki hartuz, mende bateko hizkerak ez du beste mende batekoak baino hobea izateko arrazoirik edo titulurik. Hala ere, ikuskera hau, zorrozkiegi hartzen ez denean, hizkuntzarentzat onuragarri izan ohi da. Esan nahi dut: gauzak halako malgutasun batekin hartzen direnean.

Konbentzionalki egingo bada ere, on da hizkuntza batentzat urrezko mendea, maisu-lan batzuk edo aro klasikoa izendaturik edukitzea (jakina, horretarako maisu-lan horiek nonbait beharko dute egon, ezen ez dagoen lekutik ezin atera daitezke). Mugarrri antzo eredu batzuk

edukitzea eta zurruntasun gehiegi gabe hizkuntza onaren maisutzat horiek hartzea, on da hizkuntzarentzat. Hori da, beste hitzez esanik, garbizaletasunak alde on batzuk badituela aitortzea.

Hizkuntzek, bere kasa utziak daudenean, zatikatzen dute joera, aldatuz eta ganbiatuz doaz; eta indar zatikatzaile horri zerbait galga jartzeko, on da kontrako indarra ere sortzea. Nola egin hori, ordea? Joan den mende bateko hizkera eredutzat hartuz. Orduan halako tirabira bat sortzen da aldanahizko indarraren eta indar egonzalearen artean. Era horretara, halako oreka batera heltzen dira gauzak. Hizkuntzak bere berdintasuna edo identitatea nolabait atxikitzen du. Eboluzioaren indaritsu hori ez da osoki geldiarazten, baina bai pixka bat baretzen.

Baina hizkuntza beti mende klasikoan tinkaturik ezin egon daiteke. Aho-hizkeraren eboluzioa aurrera doa beti. Idatz-hizkerak, aldiz, aro klasikora soilki begiratzen badiu, badakigu zer gertatuko den: etena. Hizkuntza biziaren eta idatziaren arteko etena. Eta denborakin, bi hizkuntza zeharo desberdin izatera hel daitezke.

Latinari gertatua gogoan hartu besterik ez dugu. Latin bizia, hitzegina, mendez-mende eta tokiz-toki aldatuz joan zen, zatikatuz, eta hortik etorri dira latinaren kume diren hizkuntzak (italiarra, frantsesa, gaztelania, gaskoina, portugesa, katalana, errumaniarra, etab.). Bitartean, berriz, gramatikari eta erretorikoak aspaldiko latin klasikoa beti irakasten saiatzen ziren, herriak erabiltzen zuen hizkera txartzat joaz.

Halaz guztiz, Erdi Aroan oraindik, idazteko erabiltzen zen latina, hizkera mintzatutik hurbil mantentzeko ardura hartzen zen. Gero, berriz, Pizkundean (= *Renacimiento*) Erdi Aroko latin hori barbarotzat jotzen da. Nahi da zubia egin eta mila eta gehiago urteren gain Zizeronen hizkuntzara itzuli. Eta zer gertatu zen? Hain zuzen, hori izan zela latinari tiro ematea. Gehiegizko purismoak akaatu zuen latina.

Hizkera biziak zeharo urrundu zen puntutik, tresna hura ez zen gehiago egokia. Latina alde batera utzi eta hizkuntza berriak hartzea beste biderik ez zen gelditu. Jakintza-gauzetarako hizkuntza internazionala izan zen latina Erdi Aroan; baina latin klasikoa eskatzen zen mementotik, ez zuen gehiago balio. Gauzen ironia: maitasun gehiegiak maiteñoa akaatzen du. Erdi Aroko denbora ilunek egin ez zutena Aro Moderno argituak, gauzak bere ustez hobeki egiten zekienak, egin zuen. Beraz, aro klasikora itzuli nahi horretan ere mugak dira.

Latina hobetu eta berpiztu ustez akaatu egin zuten garbizaleek. Honelako aldrebeskeriak gertatzen dira gauzak bere onetik ateratzen direnean.

Beste esanplu bat oraino gauza bera frogatzen diguna: heberkerak hizkuntza bizia izateari Jesukristo jaio baino hirurehun urte lehenago uzten dio. Babiloniako atzerriratzea etab. gaintu ondoren, gero porrot egiten du. Eta hain zuzen, hori gertatzen den mementoan, jende eskolatuak, puristak, herrian gertatzen denaz kontu guti eginik, noiz eta orduan ari dira heberkerarik garbiena idazten! (16).

Norbaitek esan du *garbitu* euskaraz hil arazi edo akaatu dela, eta garbizaleek horixe egiten dutela. Egia. Hizkuntzen historian maiz egiztatzen da bi gertaera hauen arteko zer-ikusia.

Zer da, bada, bere izatez eta eitez, hizkuntza? Lehen ere esan dugu: zeinu-sistema bat. Zeinu-sistema horren bidez gizonek bata besteekin —eta norbera bere buruarekin ere bai— elkar ulertzen dute. Irudi akustikoari esker gertatzen da mirari hori. Ahoskatuz ebakitzen duzun zeinuari esanahi bat dagokio, besteak entzumenaz jasotzen du zeinu hori, eta beronen esanahia dakielako, konprenitu egiten du.

Hizkuntzarik ez dago, bistan da, mintzatzaileen multzo edo mordo bat ez badago. Eta mintzatzaileen mordo edo multzo hori, bai geografikoki (horizontalki) eta bai historikoki

(bertikalki) neurtzen da. Hizkuntza, esan dugunez, aldakorra izanik, zeinu-sistemak aldean eta aldean —geografian eta historian— gora-beherak eta aldaketak izan ohi ditu (17).

Hizkuntza ez da izaki bizia, hots, berez bizi dena. Gizonagan soilki bizi da. Gizonak eboluzionatzen duen ber —historikotasuna da gizonaren neurri edo lege nagusienetako bat—, hizkuntza ere aldatuz doa. Baina hizkuntzaren aldanahi hori pixka bat baretzeko, on da hizkuntzaren eredu bat edukitzea eta hari kasu ematea. Era horretara hizkuntzaren aldakortasuna ez da geldiarazten, baina bai baretzen. Eta horrela zeinu-sistemaren iraupenari laguntzen zaio.

Baina, jakina, guzti hori egitean muga batzuk daude. Muga horiek errespetatzen ez badira, nahi denaren kontrakoa lortzen da eta zeinu-sistemak ez du gehiago funtzionatzen. Bi indar jartzen dira tirabiran: dinamikoa (aldatzera jotzen duena) eta estatikoa (lehenera begiratzen duena), eta bion artean halako oreka bat lortu behar da. Horrek esan nahi du biek zerbaitetan amore eman behar dutela. Bestela, lehenaren indarrak beregana gehiegi tiratzen badu, orekarik ez da egongo, bakoitza bere bidetik joango da, zeinu-sistema apurtu egingo da eta berria sortuko: hizkuntza berria jaioko da, alegia, lehengoaz zer-ikusi handirik ez duena, latinetik hizkuntza berriak jaiotzen bezala. Izan ere, hizkuntzek aldatzera duten grina hori ezin geldituzkoa da.

Bi indar hauek, gainera, ez daude maila berean. Bata, dinamikoa deitu duguna, itsua da, naturala, betikoa, nonahikoa. Bestea, berriz —estatikoa—, zibilizazio-hizkuntzetan gertatzen da soilki, gizonak jakinaren gainean berariaz sortarazten du, eta eskola eta hezkuntzaren bidez mintzairari eragiten dio.

Oharrak

1. AZKUE *Euskal Izkindea*, Bilbao 1891.— Itziar LAKA «Euskal Izkindeako Aditza. (Hiperbizkaieraren historiaz II)» ASJU (1986), 705.— Inés PAGOLA «Resurrección M.^a de Azkueren Dotrina argitaragabea», ASJU (1987), 163.
2. AZKUE «Txukuneria», *Euskera* VI (1925), II-III zenb., 4-21.
3. TOVAR (A.) *Mitología e ideología sobre la lengua vasca. Historia de los estudios sobre ella*; Madrid 1980.— URQUIJO (Julio de), «Estado actual de los estudios relativos a la lengua vasca», *I Congreso de Estudios Vascos*, Bilbao 1919; 403.
4. *Dotrina Cristiana*, 1763.
5. *Doctrina Christianaren Explicacioa*, 1713.
6. Ikus *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, Etor 1972; 233 orr.
7. *Christau Doctriñ berri ecarlea*. (Hordagok faksimilez bir-argitaratua; Euskal Klasikoak, 3).
8. Pasarte honetan bada halako kontradizio bat. Lehenengo esaten du hizkuntzek badituztela beren hitzak; gero, badirudi euskarari bakarrik aitortzen zaiola dohain hori, zeren besteek kanpotik hartzen baitituzte. Erdal hitzen etorkia gehienetan ezaguna zaigu, euskal hitzena ez; baina guk jatorria ez ezagutuarren, horrek ez du esan nahi euskal hitz franko ere kanpotik hartu ez direnik.
9. Ikus orain Karmelo ITURRIA «Euskal literatura Zarautzen» in *Zarautz-ko gorabeherak Historian zehar*, 1987; 19-94.
10. Tolosa, 1821. San Frantzisko Saleskoaren Filotearen euskal itzulpena da, noski.
11. Bonaparte Printzeak argitaratua; Donostia, 1856.
12. «Nafarroako euskal esakerak» in *Prosistas Navarros contemporáneos en lengua vasca*, Pamplona 1958 (Aingeru Irigaray-ek egindako bilduma), 155 orrialdean.
13. Cf. Ax 11. Pasarte honek Ubillosenarekin antz handia du. Gertatzen dena da ideia teorikoak guztiz zuzenak ez izanarren, badela gizonagan *zentzu* bat idazlea pratikan gidatzen duena.
14. Jusef Egiategi zuberotar idazlea ere pentsakera horretakoa dugu. XVIII. mendean bizitu zen eta dudarik gabe Larramendiren bidetik dabil. «Lengua matriz» esateko ama-mintzoa esan ohi du berak. Honentzat ere garbi dago euskara «Jinko Jaunaren obra dela». Txoriak bere kantua eginez bezala, guk ere euskara gordez Jainkoari goresmen egiten diogu. Ikus orain Jusef EGIATEGI *Lehen liburua edo Filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*, Txomin Peillenek prestatua; Euskaltzaindia, «Lekukoak» sorta, 6, Bilbao 1983.
15. Ikus San Millango glosei buruz L. MICHELENA, *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid 1964, 41 orr. A. IRIGOYEN, «Done Miliaga Kukullakoa eta euskara», *Euskera* (1975), 161 orr.

16. Ikus *Les Langues du Monde*, CNRS 1952, 114.

17. Ikus F. SAUSSURE, *Cours de Linguistique générale*, Paris 1955, 112 orr.— Lázaro CARRETER, *Diccionario de términos filológicos*.

IV. Kapituluua. Tresnatasuna eta tresnakeria

Laburpena

Zer den tresnatasuna eta zer tresnakeria.— Euskararen kondairan nabari den tresnakeria.— Pluralismoa errespetatu-beharra.— Euskararen inguruan denen indarrak bil.— Zatikatzaille den oro euskaragandik ken.

Tresnatasun hitzaz zer esan nahi dugun adieraz dezagun lehenik.

Hizkuntzak tresna batzuk direla esan dugu. Eta tresnak, noiz eta tresnatzat hartzen baitira, orduan daude beren lekuan eta orduan eta hala betetzen dute beren betebeharra. Tresnatasun hau ona da, beraz, eta euskararen auzia bideratzeko, beharrezkoa. Askotan hori ahaztu egin dugu, ordea. Euskara hartu izan dugu itxurakeria egiteko, paparrean eramateko domina bezala edo erakustokian jartzeko pitxia bailitzan.

Tresnak, gainera, erabiliaren erabiliz fintzen eta trebe bihurtzen dira. Hori aspaldi gogoratu zigun Axular-ek:

«Zein zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta manaiatzen dena? Zein untzi, kostan dagoena, ala itsasoan dabillana? Zein ur, geldia ala lasterra? Zein burdina, zokhoan datzana, ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz ontzen, argitzen eta fintzen direla, eta bai alfer eta geldi egoiteaz ere, galtzen, desegiten eta herdoiltzen. Bada haur beror gerthatzen da alfer dagoena baithan ere» (1).

Baina bada beste tresnatasun-mota bat txarra dena, hizkuntzari, luzarora begiraturaz, mesede baino kalte gehiago dakarkiona. *Tresnakeria* deituko genuke. Noiz dugu tresnakeria? Hizkuntza tresna bezala, bai, nahi baduzu, baina ez bere zeregin propioa betetzeko, baizik eta beraren bidez beste zerbait lortzeko hartzen denean. Hizkuntzaren ofizio propioa bete beharrean, hizkuntza hartzen da, alegia, beste zerbaiten bandera, arma edo aitzakiatzat, dela politika, ideologia edo berez hizkuntzaren bere baitako eiteaz zer-ikusi ez duen beste zerbait.

Eta hau modu askotara egin daiteke: Ideologia batek, politik alderdi batek, konfesio batek, halako uztardura egiten du bere interes partikularren eta euskararen artean, non ezin hautsizko batasun bat gertatzen baita bien artean. Hau tresnakeria da, eta euskararentzat kaltegarria.

Zergatik da txarra tresnakeria? Ideologia edo alderdi horrekin bat ez datozenak euskaratik alde egin beharrean jartzen dituelako.

Hizkuntza herri baten ondasuna da, guztion ondarea. Orduan ez du inork beretzat eskusiboki hartu behar, beronen jaun eta jabe balitz bezala. Aukera eta ikusmolde partikularren ginetik dago hizkuntza. Pluralismo bat dagoen herrian euskara ezin lot daiteke partikularismo batekin. Euskara zinez maite duenak ahaleginak egin behar ditu guztiona dena beretzat bakarrik ez hartzeko; ez luke honetan hainitsu izan behar. Zoritxarrez, beldur naiz itsutasun hori gure artean zabaldugegi ez ote den.

Mila aldiz entzun dugu herritik keja hau: Holakok eta halakok euskara beren politikarako hartu dutelako, guk, horrexegatik, utzi egin dugu. Aitzakia ere izango da batzutan, baina halere...

Arrazoi honi erraz erantzun dakiokela badakit: «Guk eta gutarrek euskara bultzatzeaz ez diogu besteri hori bera egitea galerazten». Are gehiago: politikan maiz gertatu da hau: aukera

bat indarge uzteko, darabilen arma nori nolabait eskutik kentzen zaio, besteak ere arma hura bera erabiliz.

Bai, hala da. Baina gizonen erreakzioa badakigu gehienetan nolakoa izaten den. Aurreko espaloian dagoenak zer egiten duen ikusi, eta bera beste muturrean jartzen da. Euskara gaxoarekin maiz gertatu dela hori ez da dudarik eta ordua da zentza gaitezen. Ez dezagun guztion den euskara zati batena bihur.

Zenbaitek usteko du borrokak dakarrela aurrerapena. Neurri bateko borrokak mesede egin dezake, nahi dut; baina neurritz kanpokoak ez. San Paulok aspaldi esan zuen: «Elkarri hozkaka eta elkar irentsi nahirik bazabiltzate, azkenik elkar hondatuko duzue» (2). Eta Kristok: Bata bestearen aurka erdibiturik dagoen erreinuak ezin du iraun (3). Elizak ere batasuna jotzen du on gorengotzat (4).

Jainkoaren amorioarren, ororena dena ez dezagun talde baten monopolio egin. Hori euskararentzat hilgarri gerta daiteke. Behaztopa-harri horretan maiz jotzen dugu.

Bai. Euskarak tresnakeriarik asko jasan behar izan du, eta gehienetan bere kalterako.

Hori frogatzeko, aski dugu hizkuntza honen kondairari begiratu bat ematea.

XVI. mendean gero, zer ikusten dugu? Eliza dela euskaratik arduratzen den gizarterakunde bakarra (eta Eliza ere ez gehiegi, baina tira). Trentoko Kontzilioaren aginduz eta apaizek beren eliz-zereginak betetzeko behar zutelako, eliz-gizon batzuk euskara lantzen eta adierazkailutzat hartzen jartzen dira. Hau oraindik ez da tresnatasun txarra, ona baizik.

Frantziako Iraultzarekin (1789), ordea, bihurtune berri batean sartzen gara. Errejimen zaharra: Erlijioa, Monarkia, Fueroak alde batetik; eta Frantziako Iraultzatik heldu diren aburu eta ikusmolde eta antolaketa berriak, bestetik. Bitaratze bat gertatzen da, alegia, are gure herrian ere.

Lehenbiziko aukerak euskara berekin nahiko du; eta bigarrenak, gehienetan behintzat eta salbuespenak salbu, arrazoi horrexegatik berberagatik —besteok hartu dutelako, alegia—, arbuiatu egingo du.

Orain, bai, *tresnakeria* hasten da. Alternatiba batek hizkuntzaren jabegoa hartuko du eta hori hizkuntzarentzat kaltegarri baino ez da. Orduan eliz-gizonak konturatuko dira euskara harresi bat izan daitekeela, herria kanpoko pozoitik begiratzeko. Segur da intentzioa ez zela txarra, baina hala ere, tresnakerian gaude.

Oñatiko Arrazola etxeko esku iskribuetan, lerro tartean, ikuskera hau nabari da. Euskal Herri bat amesten da han, izurritetik salborik gorde nahi dena, antzinako ohituretan sendo finkatua, eta, jakina, horretarako euskara ere ederki baino ederkiago zetorren (5).

Karlista eta liberalen arteko gerra sortzen denean, kar-listek lehen aukera esleituko dute, liberalek bestea (6).

Gure herria, ordea, zatiturik zen. Ulibarri Galindez-ek —bera karlista zen— bere Gutunliburuan Bilbogatik zera esango du: Uri au da gure galgarria. Donostia ere liberalen alde agertu zen. Ez dut esaten liberalen aldean euskaltzaleak egon ez zirenik, baina euskararen bandera besteek hartu zuten. Egoera honek ia gure egunok arte iraun du. Gure herrietan baziren errepublikano, sozialista etab., baina gehienetan euskara alde batera uzten zuten, arma hau besteen eskuetan ikusten zutelako, noski. Txomin Agirre-ren *Kresala*-n ere badatoz amerikano baten hitzak: «*Parese mentira!*... Abadeak daukie kulpea, abadeak» (7).

Beste tresnakeria bat, hosina eta leizea oraindik handiagoa egitera etorriko dena, abertzaleekin sortzen da. Horiek euskararen bandera karlistei kentzen diete. Euskararen auzia aukera politiko jakin batekin bat egiten da berriz ere. Baina berriz ere esango dut: benetan

beldurgarriak dira bat egite hauek. Alde batetik begiratur, une batean lagun diezaiokete hizkuntzari, baina luzarora begiratur, laguntza baino kalte gehiago dakarte, ideologia hori onartzen ez dutenak euskara arbuizatzen lerratzen direlako.

Bitxia da gure herrian pasatzen dena. Gure idazle zaharrak irakurtzen baditugu (Garibai, Poza, Erro, Larramendi, Perochegui, geroagokoak aipatu gabe, hots, Unamuno etab.) euskaldunak espainiar jator eta huts-hutsak dira. «Gu Español puru-puruak», esango du Aita Kardaberazek (8). Baina badator Arana eta hark esaten du euskotarrak ez direla espainiarrak. Zertan gara? Zeinek du arrazoi? Gauzak nola hartzen diren. Ikusmoldeak. Ez dezagun lot euskararen auzia eztabaidagarri diren ikusmoldeekin. Euskararentzat hilgarri gerta daiteke.

Zuzen ditzagun begiak Euskal Herriko hedadura osora. Orain ere gure herriko zati handi batzuk euskararentzat zaputz badaude, ez ote da hori euskararen auzia berek onartzen ez dituzten ikusmoldeekin bateratua azaldu zaielako?

Onart dezagun Pluralismoa, hor dago eta. Aniztasuna. Eta hizkuntza, guztiona denez gero, jar dezagun alderdikerietatik kanpo. «Politika, zatikatzaile da, berezle» esan ohi zuen Dassancek. Ez dezagun euskara zatikatzaile diren indarrekin lot.

Gaur, erreazioz edo, beste tresnakeria baten zantzuak ere inoiz nabari dira gure artean. «Lehen Elizaren edo apaizen jabegoan egon bada euskara, orain bazter ditzagun horiek». Baina hori da berriz ere harri berean behaztopatzea. Pluralismoak eskatzen du eta euskarak behar du, elkar errespetatuz eta elkartasunean biziz, euskal arloan indarrak batera ditzagun.

Labur: euskarak ez du izan behar ez fededunen, ez jainkogabeen, ez ezein alderdiren bandera. Herri baten ondasuna da; guztiona izan behar du, beraz. Hala atxikitzen ahalegin gaitzen. Indar egin behar dugu inork ere beretzat har ez dezan edo tresnakeriaz erabil ez dezan.

Oharrak

1. Cf. Ax 23.

2. Gal 5, 15.

3. Mc 3, 24.

4. Jo 17, 21.

5. Ikus Jerardo Elortza «Oinatiko Arrazola etxeko manuskritoak», *Euskera* (1975), 529-530; (1976), 179-197. Ikus, baita ere, Pío MONTOYA, *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles 1820-1823*; San Sebastián, 1971. Lizardik ere badu artikulu guztiz jatorra euskaltzaleok euskarari buruz dihardutenean erabili ohi dituzten gezurrez: «ama» euskara dela fedearen eta ohitura onen zaindari, etab. Ikus «Egia ikus dezagun, Ama!», in *Itz-lauz*, Donostia 1934; 51. orr.

6. Salbuespenak ere izan ziren, noski. Bilintx uste dut liberalekin ibili zela. Iturriaga karlisten ihesi joan zen Iparraldera, etab.

7. *Kresala*, XVI «Alderdi argaletik». Ikus, baita ere, Agirregabiriaren eskutitza, *Euskera*-n agertua (1978-1), 356.

8. *Eusqueraren Berri Onac*, Eusebio Lopezek Tolosan 1898. urtean egindako argitalpena; 42. orr. Aita Kardaberaz-ek emakume donostiar baten ahotan ipintzen du esaldia.

V. Kapituluua. Euskararen hitzak (1)

Laburpena

1. Hitzen kontua, problema larria euskararen aldeko mugimenduan.— Euskal hiztegian sortu diren nahasteak.

2. Larramendi, Arana, Azkue.— Exenpluak.

3. Latinaren eragina euskararen.

4. Altuberen hitzaldia Eusko Ikaskuntzaren III. Batzarrean.— Erdal hitza eta erdaratiko hitza.— Euskaltzaindiak euskal hitzei buruz 1959. urtean emandako agiria.

I

Hau da, segurik, euskal literaturaren mugimenduak dituen auzietan larrienetako bat. Hots, zein den euskal hitza erabakitzen asmatzea. Hobeki esateko, gauza printzipioz erabakirik dago, baina pratikan ondorioak ez dira beti ikusten. Izan ere, nahaspila izugarria darabilgu euskaltzaleok arazo honetan.

Mondragoeko herriak, bere seme Sebero Altube goratu nahirik, plaza bat eskaini dio. Eta idazkunea honela ezarri diote: «Sebero Altube enparantza». Hori ikusi nuenean, esan ere egin nuen neure kolkorako: «Hau dek hau! Gizona eta gizonaren irakaspenak goratu nahi diren unean berean, traizio egiten zaie...».

Euskaldun arruntaren aho-mihitan *plaza* hitza entzuten dugu. Euskal literatura zaharrean ere maiztasun handiko hitza da. Hor dugu Detxepare lehen poetaren oihua: «Heuskara, ialgi adi plazara!» Axularren *Gero* eskutan hartzen baldin badugu, han *plaza* hitzaz topo egiten dugu (2). Euskaldun arruntarentzat oso ezagunak dira *plaza* hitzetik sortzen diren beste hauek ere: *plazaratu*, *plaza-gizon*, *plazatxo*, *Plazaola*, etab.

Orduan, gurea den hitza zergatik bota behar dugu kanpora eta horren lekuan *enparantza* sartu? Honekin ez dut esan nahi beste hitz hau, enparantza, ez dela gurea, baina beude biak, bakoitza bere tokian. Batak ez du besteari lekua zer kendurik. Enparantza hitzak ez du gure hizkuntzan *plaza* hitzak duen bezalako sustrai eta eremu zabalik; ez da, gainera, bestearen ordain egokia. Eta *plaza* hitzetik sortzen diren beste kimu horiek —arestian aipatu ditugun horiek— nola esango dira? Zinez, bide horretatik joaz, zer egiten dugu, hizkuntza erkindu, pobretu eta kolokarazi baizik? Eta azkenik, zer irabazten da erdaratiko hitz bat kenduz, horren truk sartzan dena era berean erdaratikoa baldin bada? (3).

Zergatik ez baketan utzi hitzok, bakoitza bere tokian eta esanahian, Altubek aspertzeke aldarrikatzen zuen bezala?

Zer zoraldi edo oker-adituk garamatza euskaldunok geure hizkuntza, garbitu ordez, lardaskatzera?

Arrazoia (sasi-arrazoia), garbi dago: guk badakigu erdaraz, eta erdaraz *plaza* hitza erabili ohi dela ikusten dugu. Enparantza hitza, aldiz, erdaraz ez dugu entzuten (nahiz eta nafar-aragoitar erromantzean eta katalanez ezaguna izan). Orduan, bistan da, gaztelaniazko hitzetik ihes egin nahiak egiten du hori.

Baina gure hizkuntzako auziak erabakitzeko, erdarari begiratu behar badiogu, eta ez euskarari, ederki gaude gu! Bide hori ez da bat ere ona. Guri zer axola digu plaza hitza

erdaraz erabiltzen delako gertaera horrek? Guk euskaraz erabiltzen dela jakin behar dugu, eta ez besterik. Euskaraz aurkitzen dugunari leial egon behar dugu.

Bestela jokatzuz, erdarari jokoa egiten ari gara, erdararen kolonialismoan jartzen dugu euskara, hark jotzen duen soinuaren arabera dantza egiten ari gara. Bai. Ez gara ohartzen erdaratik ihes egin nahi hori, haren morroi izateko modu bat besterik ez dela. Izan ere, zer den euskara jakiteko, erdara hartzen dugu metrotzat. Euskarari begiratu beharrean, erdarari begiratzen zaio: delako hitza erdaraz erabiltzen bada, orduan euskaratik kendu behar da; erdaraz erabiltzen ez bada, orduan gurea da. Baina zer txorakeria da hau? Nola ez gara ohartzen horixe dela erdararen morroi izateko eta agertzeko modurik irragarriena? Eta guretzat galgarriena?

Azken batean, jokabide horrekin zer lortzen dugu? Euskara murriztu, kaskartu, indargabetu eta maxkaldu, besterik ez. Horrela kanpora botatako hitzek hutsune agiriak uzten dituzte hizkuntzan. Hutsune horiek nola hornitu ohi dira gero? Hitz haien egokitasuna inondik inora ez duten hitz arraro batzuekin.

Esate baterako, *plaza*-ren ordez *enparantza* jarri nahi da. Haren erroztapen, zabalera, maiztasuna eta deribatuetan joritasuna inondik inora ez daukan hitz batekin, alegia.

Enparantza-ren adibidea erakuskari bat besterik ez da. Hainbeste eta hainbeste hitz daude kasu berean edo antzekoan. Euskararen erro sakonak eginak dituen hitza kentzen da (edo kendu nahi da), erdal hitz batekin ahaidetasuna duelako; eta haren lekuan sartu nahi da beste bat, euskararen gizentasun eta zabalera eskasa duena (hori kasurik onenean). Horrela jokatzuz, ez zaio hizkuntzari bat ere mesederik egiten. Sendo ezarririk dauden hitzak, sendotasunik ez duten eta maiz besteak bezalaxe erdaretatik etxeratuak direnekin trukatu. Hori bai dela «sator-tratua» egitea! (4). Sistemaren irmotasuna kolokarazteko bide hoberik ezin hauta daiteke.

Edonork daki gure artean amaigabeko eztabaida aspergarriak egon direla, eta daudela oraindik ere: garbizaleak direla, mordoiloizaleak direla, etab.

Anekdotak kontatzen hasiko bagina, ez genuke bukatuko.

Urliak dio *zapata* ez dela esan behar. Galdetzen badiozu zergatik, erantzungo dizu gaztelaniazko «zapato»tik heldu delako hitz hori. Galdetzen badiozu nola esan behar den, *oinetakoa* esan behar dela esango dizu. Baina *oinetakoa* orokorra da, *zapata*, berriz, konkretua eta oinetako-klase bati mugatua. Denerako *oinetako* erabili behar baduzu, hizkuntza pobretu egiten duzu. Baina alferrik da hori esatea. Garbizaleak esango dizu horrela hizkuntza garbitu egiten dela. Zorioneko garbitasuna, hizkuntza desegokitu eta gauzaeztandu egiten duena.

Sandiak, berriz, irakurtzen du idazkunea: *Aireportua* (= Aeropuerto). Eskuak burura jaso eta: «Jesus! Hau disparatea!» Alferrik esango diozu halakoari bi hitzok (*aire* eta *portu*) euskaldunak etengabe eta nonahi erabiltzen dituenak direla, eta autoreek —behintzat zaharrek— berdin; Axular-ek, esate baterako, bai *aire* eta bai horren deribatua den *airatu* ere erabiltzen duela, eta berdin *portu*: dena alferrik.

Bi hitzok erdarazko «aire» eta «puerto» dakarte gogora, eta ez dago bueltarik. Beti erdara gure metroa!

Portu-ren ordez *kaia* esan behar omen da. Baina *kaia* ez da «puerto», «muelle» baizik, eta dirudienez, frantseseko «quai»rekin du zer-ikusi.

Euskaldunok besteak ez bezala izendatu behar baditugu gauza guztiak, ez dakit zer mintzamolde asmatu beharko dugun.

Joan den astean autobus batean irakurri nuen: «Aire acondicionado» = *Haize egokitua*. Euskaldunarentzat, halere, gauza bat da *aire* eta beste bat *haize*. Baina, jakina, *aire* gaztelaniaz berdin esaten delako, ezin onartuzkoa da, nahiz eta denon ahotan ibili. Hitz batek nola hartuko ditu beste hitz baten zereginak, bere-bereak dituelarik? Zer da hori euskara kaxkartzea eta bazterrak nahastatzea besterik?

Gaztelania eta euskarak gauza batzuk berdin izendatzen badituzte, guri zer axola digu horrek? Euskarak bere hitzak zein diren jakiteko, bere-bereak dituen iturriak arakatu behar ditu, ez besterenak.

Baina ez. Gure hitzek erdarakin ez dezatela antzik izan: hor ipintzen da kontu guztia.

Erizpide horrekin hizkuntza ikaragarri pobretzen ari gara.

Zenbait hitz gelditzen zaizkigu gure iduriz garbiak direnak —erdaraz horien antzekorik ikusten ez dugulako—, eta beti horietara jotzea beste biderik ez zaigu gelditzen. Honelakoak dira: *batzar*, *biltzar*, *berezi*, *arau*, *agiri* eta beste. «Concilio» esateko, adibidez, *Eliz batzar nagusi* esango dizute. Zergatik ez *Kontzilio*? Hitz hori erdaraz erabiltzen delako... «Parlamento» esateko, *Lege-Biltzarra*. Hala ere, bai Kontzilio eta bai Parlament ere Axular-ek aspaldi erabili zituen. Baina alferrik. Gure artean maisuen erabilerak ez du autoritate-fitsik...

Galdera bitxiak egiten dira inoiz gure artean: Nola esan behar ote da euskaraz «chocolate», «tomate», «tabaco», etab.? Dogmatzat hartzen da erdaraz ez bezala esan behar direla gauza guztiak, eta orduan dena bihurtzen zaigu problema. Hitzok, jakina denez, amerindioen hizkuntzetakoak dira. Hauengandik hartu zituzten espainolek eta gero noranahi zabaldu dira. Besteek bezalaxe guk ere zergatik ez ditugu erabili behar?

Fraide batek kontatu zidan behin berari gertatua: sermoian *inportantzia* hitza jaulki omen zitzaion. Gero, lotsaz, fraide zaharragoek jipoituko zuten beldurrez, ez zen bazkalondoko kafea beste fraideekin hartzera joaten ausartu...

Eta *kafe* hitza aipatu dudanez gero, mundu osoan zabaldurik den hitz hau, eta euskaldunak ere besteek bezalaxe erabili ohi duena, ez ote digute galerazi eta horren orde *akeita* ez al digute sartu nahi izan?

Jainkoaren amorioarren, hizkuntzari errespetua zor zaio. Ez dezagun jostailutzat har!

Beste fraide bati gertatua hau ere: Jaunaren Antz-Aldatze edo Transfigurazio-eguna zen. Sermoa egin eta sakristiara sartzean, sakristauak esaten dio (erdaraz): — En el sermón ha dicho V. una palabra castellana: Transfigurazioa.

Eta besteak erantzun:

— Y no ha oído Vd. la que he dicho inmediatamente antes con *edo* (*Antz-Aldatze*)?
Bai zera. Ulertu zuen bakarra bestea zen, eta hura aurpegira bota behar...

Jokabide horrekin nora goaz, ordea? Euskara anti-erdara egitera. Hizkuntza erabilgarri ez den eran jartzera. Beste hitzez esanik: hizkuntza hilobira bidean jartzera.

«Abyssus abyssum invocat» esan ohi da (5), hots, amiltegiak beste amiltegi bati dei egin eta hura erakarri ohi duela. Eta halaxe gertatu da hemen ere. Jokaera horrek beste muturrekoari eragin dio. Joera hori gainditu nahirik, beste puntakora jotzen da: erdarakadak eta erdal hitzak beharrik gabe, nunahi eta nolana sartzera.

Azken batean dena da orobat, gaitz beraren agerbide dira bata nahiz bestea. Beti erdararen inguruan eta erdararen soinura dantza egiten eta haren morroi izaten.

Noiz bilatu behar dugu geure bidea, geure-geurea, beti erdarara begira egon gabe?

Gainera, erdarakaden zale horiek beren jokoaz berriz ere arrazoia ematen diete garbizaleei, eta beti hala gabiltza, hots, muturretik muturrera, erizpide zuzenaren faltaz. Orain mutur batean, gero bestean, eta behar den tokian behin ere ez. Gurpil zoroan beti.

Bila dezagun geure bidea, ez alde batera ez bestera saihestu gabe.

2

Mitxelenak esan du ez dela erraza izango gurea bezalako beste kasu bat mundu zabalean aurkitzea, hots, hiztegi-kontuan horrelako nahasterik duen hizkuntza aurkitzea; errealitate eta irudipenaren artean, egiaren eta fantasiaren artean horrelako nahaste eta mataza bihurri-nabarrak topo egitea (6).

a) Lehen nahastekaria Aita Larramendi izan genuen, noski. Honek 1745. urtean bere Hiztegia agertu zuen: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín*. Erdal-euskal hiztegia da berau. Erdal Akademiaren hiztegia hartzen du oinarri, hots, han datozen hitzen euskal ordainak bilatzen ditu, nahiz herritik hartuz nahiz asmatuz, baina asmatu duenik ez du aitortzen. Aitzitik, hitzaurrean bera ez dabilela asmaziotan esango dizu.

Etimologikeria hezurretaraino sartua du Larramendik. Frogatu nahi du gaztelaniak, latinak eta euskarak hitz berdintsuak dituztenean, haiek euskaratik hartu dituztela hitzok, eta ez alderantziz.

Badirudi Larramendik atzerritarrentzat egin zuela bere hiztegia etxekoentzat baino gehiago, hots, erdaldunei euskararen oparotasuna eta bikaintasunak erakusteko (7).

Euskal hitz jatorrak eta sasikoak, denak nahastean eta inolako berezkunde gabe hiztegian jartzean, nahaspila izugarria sortu zuen euskaldunen artean. Gorago aipatu dugu Ubillosen pasarte bat, zeinetan Larramendik asmatutako bi hitz aurkitzen baitira. Larramendirekin hasten da, bada, hitz berrien lehen bolada, Hau ere esan behar da, ordea: haren ondoko gizaldiaren idazleetan ez dela nabarmenegi nabari Larramendiren hitz berrien arrastoa. Hiztegegile eta itzulpenetan, bai, gehiago nabari da (Añibarro, Aizkibel, Novia de Salcedo, Iztueta...) (8).

b) Hitz berri-asmaturen bigarren bolada Arana eta Aranatarren gizaldian gertatzen da. Ordurako Larramendiren hiztegiak erreka jo du, hots, haren prestijioa itzali da. Larramendik sortutako hitz berriak ez daude jadanik estimutan, guti batzuk izan ezik. Larramendik ateratzen zituen argudioak latinak eta gaztelaniak beren hitz asko euskaratik hartu dituztela frogatzeko, ez dira gehiago sinesgarri. Egia beste aldetik dela badakite oraingoek: euskara izan dela, alegia, beste horiengandik hartzaile. Beraz —hau da Aranatarren pentsamoldea—, erdaretatik sartu zaizkion hitz guztiak, euskarak kanpora bota behar ditu. Eta horiek utzitako zuloa betetzeko, hitz berriak behar dira.

Hemen ere, agi denez, etimologikeria dabilkigu nagusi. Hitz baten jatorria kanpoko hizkuntzetan dela somatzen den bezain laster, hitz hari debekua jartzen zaio, eta haren orde z beste bat sortzen da. Orduan dugu sasi-hitzen bigarren uholde edo bolada.

c) Hirugarren nahastekaria —esatea mingarri bazaigu ere— Azkue bera izan da. Aurrekoen nahasteei erremedio ipini nahirik, ez zuen bide zuzena hartu, eta hala, gogoz kontra baina, nahasteen iturri bihurtu da bera ere.

Euskarak baditu, noski, kanpotik hartutako hitzak —beste hizkuntzek izan ohi dituzten bezala—. Horien aurrean zer jokabide hartu? Horra Azkuek, bere Hiztegi handia egiterakoan, bere buruari egiten dion galdera. Taiu honetako hitzei zenbaterainoko sarrera eman behar zien hiztegiari? Problema zaila zela aitortu behar da. Edozeinek daki euskaldunak bere hizkera arruntean kanpotiko hitz-mordo galanta erabili ohi duela. Horiek denak sartu behar ziren hiztegiari? Batzuk bai, beste batzuk ez? Baina berezkuntza egiteko, non zegoen metroa, printzipioa, erizpidea? Hori bilatu behar zen.

Azkuek, bada, printzipio hau ezartzen du: Bi baldintza hauek betetzen dituzten hitzak onartuko dira: 1) delako hitzaren ordain jatorrik euskaran ez egotea, eta 2) delako hitza euskaran sustraiturik egotea, etxeko bihurturik egotea (9).

Bigarren baldintza ongi jarririk da. Printzipio horrekin erabakitzen da auzi hau hizkuntza denetan. Azkuek ere ez zuen behar besterik auzia behar bezala erabakitzeko. Baina Azkueren ustez lehenbizikoa ere behar zen, eta horrekin dena okertu zuen.

Beraz, Azkueren ustez, erdal jatorria duen hitz bat hartzeko ez da aski hitz hura euskaran sustraitua dela ikustea. Horretaz gainera, behar da ikusi ez ote den euskaran esanahi bereko eta euskal sustraizkoa den beste hitzen bat. Eta baldin badago, hau onartu eta bultzatu behar da, eta bestea kanpora bota.

Zenbat aldrebeskeria ez dira egin gure mendean printzipio oker hori dela eta! Hor ibili dira (Azkue bera lehenik eta haren ondotik beste asko), ihiztari eran, euskal hitz autoktonoen peskizan. Zoko izkuturen batean halakorik aurkitu uste zutenean, hura ohoretan jarri eta bestea kanpora egozten zuten.

Baina printzipio honek ez du balio. Hiztegi gilea ez da nor, hizkuntzak hartuta duen hitz bat beharrezko duen ala ez duen esateko. Hizkuntzan erroak egin bada, hizkuntzarena da, eta kito.

Pentsamolde horren azpian aurre-eritzi oker bat dago, gainera. Pentsamolde horren arabera, hizkuntza bakoitzak badu kutxa bat eta kutxa hartan gorderik daude hizkuntzak behar dituen hitz guztiak. Bestela esan, hizkuntza bakoitzak badu bere gordailu propioa, osoa, itxia, betirako dena, eta horrekin aski du. Inoiz edo behin, salbuespen gisa, kanpoko hitzen beharra egotea onartzen da, halere.

Baina gauzak ez dira bat ere hala. Munduko izakien artean mugak ez daude beti hain garbi. Horregatik hizkuntza batetik bestera ordain zehatzak ere ez dira beti egoten. Hizkuntza batean hitz batek duen eremua eta beste batean haren ordainak duena, ez ohi da berbera. Hitzaren esanahian ñabardura bereziak egon ohi dira hizkuntzatik hizkuntzara. Hitz sinonimoak ere hor dira, hots, esanahiz antzeko, bai, baina hala ere matiz edo kutsu berezi horregatik zeharo berdin ez direnak. Hori hala delarik, hiztegi gilea ez da nor euskarak etxekotua duen hitz bat

—eta hau usariotik, maiztasunetik, eremuaren zabaleratik etab. neurtzen da— hizkuntzatik kanpora botatzeko, euskarak horren ordaina baduela eta beste gabe.

Berak ipinitako baldintzei jarraituz, horrelakorik asko egin zuen Azkuek, bai Hiztegian eta bai bestelako idazkietan ere.

Adibide bat: *fede* hitza Azkueren hiztegian alferrik bilatuko duzu: ez dago. Euskarak etxekotua duela hitz hori, erro sakonak dituela euskarari, ez da dudarik. Hori hala izanik, besterik gabe, euskal hiztegian egon behar zuen, baina ez dago.

Zergatik ez dago? Lehen esandako bi baldintzetatik bata betetzen ez duelako (Azkueren ustez). Euskarak hor du —Azkueren ustez, berriz ere— hitz horren ordaina: *sineste*, *sinesmen*; beraz, bestearen beharrik ez du, eta hala hitz hori kanpora egotzi du. Baina hori da, hain zuzen, hiztegiak ezin egin dezakeena.

Izan ere, nondik daki Azkuek *sineste*, *fede*-ren ordain jatorra dela? Bi hitz horiek sinonimoak dira, noski, baina alde guztiz berdinak ez dira. *Fede* hitzak baditu ñabardura batzuk, beste horiek ez dituztenak. Eta biak hizkuntzan sustraiturik daudenez gero, bientzat dago euskarari tokia. Zein noiz erabili, hiztunak edo idazleak ikusi beharko du kasu bakoitzean.

Printzipio oker horren eraginez Azkue ere purismo-eskola baten sortzaile bihurtu zen euskal literaturan.

Purismo-mota honen jarraitzaileek aranatarren neologismoak ez zituzten onartzen, baina hor zebiltzan beti hitz jatorren bila —beren ustez jatorrak—. Aurkitzen bazuten euskarari baduela erdaratik hitz baten ordain jatorra, nahiz eta zabalera eta sustrai tipikoa izan, hura hartuko zuten eta bestea baztertu. Eta gehienetan gertatzen zen baztertutako hitzak zabalerarik handienetakoak eta euskarari sustrai gizona dutenak zirela. Horrela bota nahi izan da kanpora *kolore*, eta *margo* hartu; *gorputz* hitza bota, eta *soin* hartu, etab.

Olabide izango da, noski, garbizale-eskola honen segitzaile argienetako bat. Orixe, Zaitegi, Andima eta beste askorengan ere joera hau bera nabari da.

Euskara garbitu nahian dabilta. Kanpotik sartu zaizkion elementuetatik nahi dute garbitu euskara. Horretarako zer egiten dute? Hitz asmatuetara jo? Ez. Euskarari bertan kanpotiko hitzaren ordain jatorrik ote den bilatu; horrelakorik baldin badago, hura hartu eta bestea kanpora jaurti. Horrela ikusi dugu sustrairik handienak dituzten euskal hitzak kanpora bota nahi izan direla, eta beroien ordeztatu nahi zirenak gehienetan ezezagunak eta izerdigabeak zirela, eta askotan —gero jakin denez— horiek ere erdaratikoa! Garbizaletasunak beti garamatza harri berean behaztopatzera!

Euskal hiztegian dauden nahaspilak ez dira oraindik zeharo garbitu. Orotariko Euskal Hiztegi horrek argitzen lagunduko ahal digu!

Euskara biziak bere baitatik duen ahulezia kenduz gero, nekez izango da gure hizkuntzan hiztegiarena baino problema larriagorik. Zein diren gure hitzak behar dugu jakin. Zentzuz egindako hiztegiak behar ditugu, alegia. Euskarari irmo erroztatuak diren hitzak oro baketan utzi, gureak dira eta.

Honekin ez dago guztia eginga, baina bai zati handi bat.

Auzi hau axolarik handienetako delarik, zilegi izan bedi solasa pixka bat luzatzea, argia egiteko asmoz.

Izan ere, zail egiten zaio euskaldunari (hobeki esan, euskaltzaleari) bere burua ikuskera honetatik jareitea. Eta zailtasun horren arrazoiak eman daitezke: 1) erdararen —hots, gaztelaniaren— aurrez-aurre aurkitzen delarik, erdarak irentsia izateko arriskutan delarik,

alegia, bere burua zaintzearen, harengandik ihes egiteko jarrera hartzen baitu. Gorago esan genuenez, jarrera hau berez bidezkoa izan daiteke, noiz eta muga batzuk gainditzen ez diren; 2) Etimologikeria. Hitzen etimologia jakin nahi izatea berez gauza zuzena da, eta zientzia bat da, gainera. Baina hitz bat erdaretatik datorrela eta beste gabe, etxetik kanpora jaurti nahi izatea, hori da inork egiten ez duena eta guk ere egin behar ez duguna, ezen hizkuntza guztiek dituzte elkarrekiko har-emanak; 3) Euskarak hiztegi bat osoa, behar diren bezain beste hitzez hornitua eta, beraz, bukatua duela pentsatzea. Hots, gordailu autoktonoaz denerako aski dugula uste izatea. Jende xeheak, bai hemen eta bai hemendik kanpora ere, pentsatzen du hizkuntzak horixe direla, nomenklaturak, izakien etiketak, munduko izakiak izendatzeko izen-piloa edo zerrenda. Hizkuntza bakoitzak du —uste honen arabera— berari dagokion izendegia, eta hortik ez du irten behar. Baina munduko izakien artean mugak ez dira hain garbiak izaten eta hitzen ordain zehatzak ez dira beti hizkuntza batetik bestera egoten. Gainera, hizkuntzen artean hitzen trukaketak egotea, berriak sortzea etab., egunoro gertatzen den gauza da. 4) Euskal Herria eta euskara beti hermetikoki kanpotarrei itxiak egon direla eta orain ere hala behar duela pentsatzea. Uste hau, ordea, okerra da eta Historiak eta hizkuntzak berak gezurtatzen dutena. 5) Euskara beste hizkuntzak ez bezalakoa dela pentsatzea eta bestelakotasun hori azpimarratu nahi izatea. Aitor dezagun berezitasun bat baduela euskarak aldameneko hizkuntzen artean: hori egia da; baina, gainerakoan, munduko hizkuntzen artean bat gehiago da eta Linguistikak ezagutzen dituen legeez neurtzen da, beste hizkuntzak bezalaxe. Nahikoa berezi da, bestalde, euskara, eta berezitasun hori gehitu eta urrunegi eramaten ibili beharrik ez dugu.

Arestian esan dugunez, hizkuntza guztiek dituzte elkarrekiko har-emanak, eta bata bestetik hitzak eta gaiak hartzen dituzte. Hizkuntza guztiek sentitzen dute beren hiztegiak guti asko berritzeko joera, premia eta gogoia. Honetan euskara ez da salbuespen bat.

Gure artean euskara ikasteko erabili diren gramatika, hiztegi eta metodoek gehienetan euskara murriztu bat eskaintzen digute, hots, garbizaletasunaren eraginez murriztua (10), eta herriak erabiltzen duenetik guti asko urrunda. Esan nahi baita: herriak egunoro eta oso jator erabiltzen ditu hainbeste hitz, metodo horietan alferrik bilatuko dituzunak. Horien ordez, beste hitz batzuk sartuko dizkitzue, hala-holakoak eta herriarentzat bitxi eta arrotz direnak. Hortik sortzen diren nahaste, oker-aditu, ez jakite eta ondorio txarrek ez dute akaburik (11).

Adibidez, Zuberoako kanta edo *kantoriak* (eta berdin hemengo herri-kantak) entzuten dituzunean, aurki oharitzen zara gauza batez: zenbat hitz ez daude horietan gure hiztegi eta metodoetan ageri ez direnak! Gure idazle zaharren liburuak pixka bat agurtu dituenak, gauza bera esan dezake.

— Ba, erdarakadak —esango dizute garbizaleek—. Guk euskara garbitu nahi dugu.

Baina ez da hori; beti ez, behintzat. Erdaratiko hitzak izango dira, nahi baduzu; hitz horiek, ordea, euskarak beretakotuak ditu; beraz, euskararenak dira. Hitz horiek gureak dira, beraz. Lotsarik gabe aho-mihitan hartzekoak dira.

Gainera, erdaratik hitzak, euskarara pasatzean, askotan esanahi eta kutsu guztiz berezia hartu dute, erdaran ez duten bezalakoa. Arrazoi horregatik ere gure marka dute eta bi aldiz gureak dira. Horiek baztertzearekin euskara erreala, historikoa, bizi den bakarra, ez ulertzeko arriskutan jartzen gara.

Exenplu guti batzuk ipiniko ditugu. Horien bidez zer esan nahi dugun hobeki ulertuko da.

Hor da Lapurdiko kantu bat, Hegoaldean ere oso ezaguna eta aipatua: *Itsasoa lano dago*. Iratzeder-ek oharterazi zidan Hegoaldekoek ez dugula esaldi hori ongi ulertzen. Eta, jakina, gero erabili ere gaizki erabiltzen dugu.

Guretzat esaldi honek esan nahiko luke itsasoa goibel, haserre, ilun eta lainatua dagoela. Utz dezagun alde batera gramatika-aldetik bitxia izango litzatekeela esaldi honen egitura, hala ulertu behar balitz (itsasoa *lainoz* edo *lainatua* dagoela esan beharko luke eta), baina tira.

Zein da, ordea, esaldiaren esanahi jatorra? Lapurtarrek badute hitz bat, adjetibo-balioaz erabiltzen dutena eta esanahiz erdarazko «llano, plano»ren ordaina dena. Beraz, esaldi horrek esan nahi du itsasoa bare-bare dagoela. Guk uste dugunaren kontrakoa!

Baina zoaz gure hiztegiatara. Azkuerenean alferrik bilatuko duzu hitz hori (nahiz eta «sencillo» edo «cándido» adiera ematen duen). Aita Lhanderen hiztegian, bai, badator (12).

Beste exenplu bat: *berde* hitza (13). Oraingoan ezin esan dezaket Azkuek ez dakarrela hitz hau bere hiztegian. Bai, badakar. Baina ikus zer-nolako eraskina jartzen duen: «Choca que siendo extraña esta voz, como lo creen todos, no haya otra que designe este color tan común, que su variante *ferde*».

Eta erdaratikoa delako, hor ibili dira hitz horren ordainak asmatzen: *musker*, *orlegi*, etab. Eta ez dute batere lotsarik izan gurean hain erro sakonak dituen hitza kanpora jaurtitzeko.

Harrigarri iruditzen zaio Azkueri hain arrunt den kolorea izendatzeko euskaran hitz berezirik ez egotea. Baina lehengora goaz: izakien arteko mugak ez dira hain garbi egoten. Koloreak ere ez dituzte herri eta hizkuntza guztiek berdin bereizten. Txillardegik lan polit bat egin zuen horretaz (14).

Euskarak baditu koloreak izendatzeko izen berezi batzuk: *urdin*, *hori*. *Urdin* hori zer den ez dugu ongi jakiten. Nik Arantzazuko baserritar zahar bati (Ladislao Odriozola) galdetu nion ea zer zen *urdin*. Eta erantzun zidan: «Urdin da zuri nahastua». Segur asko antzinako euskaldunen artean *berdea* ez zen bereizten, eta horregatik ez zuen izenik; *urdin* eta *hori*-ren artean, hor nunbait kokatua zen, baina aparteko izenik gabe. Erromatarrekin har-emanetan sartzean, haien berezketak eta izenak sartu ziren. Orduan bai *berde* eta bai *more* ere hartu ziren. Koloreen espektroa aldatu egin zen, eta geroztik *urdin* hori hor gelditu da toki jakinik gabe. «Azul» esateko erabiltzen dugu, baina beste balio batzuk ere hartu izan ditu. *Ilea urdinu* esaten da zuri-beltz jartzen denean.

Dena den, *berde* hitzak dituen bezalako erro sakonak ikusiz, txorakeria baizik ez da hitz hori kanpora bota nahi izatea.

Kolore hitza: horra beste hitz bat Azkuek bere hiztegian sartu ez duena, nahiz eta euskaran orokorra izan. Arrazoia zein den badakigu: Hervás-ek *margo* omen dakar eta Azkuek uste du hau izango zela antzinako euskal hitz autoktonoa... Teoria hutsa, hipotesia, ameskeria. Gainera, guk zer dakigu antzinako euskaldunek kolorea izendatzeko hitz bereziren beharrik ba ote zuten ere? Erromatarrekin har-emanen sartu zirenean sentitu zuten premia eta hitza ere handik hartu zuten seguraski.

Beste kasu bat *gorputz* hitza da. Azkuek ekarri badakar bere hiztegian, baina gero *soin* hitza aipatzean «cuerpo» adiera ematen dio, eta hortik sortu da *soin gorputz* hitzaren ordain jarri nahi izatea. *Soin*-ek *gorputz*-en adiera ez du inondik ere euskaraz, eta honelako nahasteekin hizkuntza lardaskatu besterik ez dugu egiten.

Beharbada antzinako euskaldunak ez zuen hitzik *gorputza* izendatzeko, eta ez horren beharrik ere. *Gorputz*aren zatiak izendatzeko, bai: *besoa*, *eskua*, *burua*, *oina* etab. Kristautasunak, ordea, *arima*-ren kontzeptua eta hitza ekarri zuenean, orduan oposizioz, *gorputz* hitzaren beharra ere somatu zen, eta bai bata eta bai bestea ere latinetik hartu ziren.

Dena dela, bai gorputz eta bai arima, euskaran sendo finkaturik daude eta, beraz, gure-gureak dira.

Berdin esan behar da *bekatu* hitzaz ere. *Hoben* sartu nahi izan da haren lekuan. Baina bistan da ez direla gauza bera eta bientzat dela tokia hizkuntzan. Bekatuaren kontzeptuak eta hitzak kristautasunaz du zer-ikusi; nolana den, hitzak erro sakonak ditu euskaran. Berdin *penitentzia*-k eta beste hainbeste hitzek.

Hor dago beste hitz bat, *familia*, maiztasun eta erro handikoa euskaran. *Ama familiako bat*, esaten du Joannateguy-k (15). Hitz hori ere kanpora egotzi nahi izan da eta horren lekuan asmakeria bat sartu, *sendi*. Baina *familia* da, noski, euskal hitza, eta ez beste hori, euskaldunak nonahi eta noiznahi hori erabiltzen duenaz gero. Ez da egongo Mendebaleko kulturaren hizkuntzarik hitz hau ez duenik; eta euskara ez da salbuespen bat hizkuntza horien artean.

Loria (= gloria) hitza Azkuek oraindik badakar hiztegian, baina bi interrogazio-markekin. Gaur, ordea, *aintza* sartu nahi da eta bestea zokoratu. Berriz ere herri-hizkeraren eta euskal literatura zaharraren kaltetan. Ezaguna da herri-bertso hura: *Aita San Migel Iñurrietako / zeru altuko loria*. Eta Beobideren liburua: *Asisko Loria* (= la Gloria de Asís) (16). Gregorio Arruek, berriz, San Alfonso Ligorioaren obra famatua itzuli zigun: *Mariaren Gloriak* (17). Ez dakit nola ibiliko zen gajoa *aintzak* esan izan behar balu.

Hitz asko eta asko dago euskaran, guk baztertzan ditugunak, nahiz eta hizkuntzan sendo sustraiturik egon. Eta arrazoa beti berbera da: erdaratik hartuak direla. Kontxo! Orduan beste hizkuntzek duten eskubidea euskarari bakarrik ukatu behar ote zaio?

Bedeinkatu ere kendu nahi izan da, eta horren ordez *onetsi* sartu. Baina *onetsi* eta *gaitzetsi* beste zerbait dira. Utz ditzagun hitzok baketan, bakoitza bere lekuan.

Beste hitz bat, baztertu nahi dena: *parte*. Euskaran sustrai eta zabalera handikoa dela bistan da. Ikus *Axular-en Hiztegia*. Donostiarrek ere ongi ezaguna dute beren hiriko *parte zaharra*. Baina hitz hori gaztelaniaz erabiltzen delako, guk ez dugu erabiltzeko eskubiderik!

Beste kasu bitxi bat: *kantu* eta *kantatu*. Azkuek badakartza, bai, baina bi interrogazio-markekin. Eta *oihu* hitzean adiera hau jartzen du: «canto», gehigarri honekin: «No sé si es voz popular, por lo menos es muy propia». Hemen ere ikusten da hitz jatorraren bila dabilela, bestea kanpora jaurtitzeko. *Eresi* hitzean berriz esaten digu Azkuek *oihu* dela «canto» esateko hitz egokia. *Eresiri* buruz Sabino Arana ere mintzo da (18) eta hortik sortuko du, osagaiak guztiz arbitrarioki bateratuz, *abesti* eta *abestu* (19). Oker ez banago, *eresi*-ren testigantza Garibay-ek ematen digu. Gizon ospetsu bat hiltzen zenean, haren gorpuaren aurrean, gauez, emakumeek *eresiak* kantatzen zituzten, hildakoaren dohainak etab. goresiz. Nolanahi den, sustrai meheko hitza da euskaran. Hala ere, *Orduen Liturgia* darabilenak badaki txitean-pitean agertzen dela han *eresi egin*. Baina ez *abestu*-k eta ez *eresi egin*-ek ez dute hizkuntzan *kantu* eta *kantatu*-k duten bezalako sustrai eta pisurik.

Beste hitz bat kanpora bota nahi dena eta gure-gurea dena: *soldadu* eta, honekin batean, *gerra* edo *gerla*, nahiz eta bai bata eta bai bestea ere, gure-gureak izan. *Soldadu* hitzaren sustraiaz jabetzeko, ikus, adibidez, *Axular-en Hiztegia*. Hor dago, baita ere, Gandiagak Araotzen jasotako kanta zahar zoragarria: «*Soldadu sartu nintzan / zazpi bat urteko...*». Azkuek, jakina, hitz hau baztertu egin du. Beronen ordez *gudari* zabaldu nahi da, eta *gerra*-ren ordez *guda*. Baina *gudari* herriak sentidu konkretu batean erabiltzen du, eta orduan bientzat dago tokia (*soldadu*, *gudari*). *Guda*, berriz, ez dakit nondik sortua den. *Gudu*, bai, ezaguna da (Ikus *Axular-en Hiztegia*), baina *gudu* eta *gerra* ez dira gauza bera. *Gudu* «batalla, combate» edo horrelako zerbait da.

Frutu (edo *fruitu*) hitza ere ez dator Azkueren hiztegian, nahiz eta zabalera eta sustrai handikoa izan euskaran (Ikus *Axular-en Hiztegia*). Horren ordez badakigu zer sartu zigun Azkue-k: *arnari*. Mendigatxaren eskutitz bat oker adituz, han aurkitu uste izan zuen hitz autoktonoa *frutu* esateko; iratxo bat baizik ez da, ordea (20).

Eskola, horra beste hitz bat Azkueren hiztegian bi interrogazio-markekin markatua datorrena. Edonork daki erroztapen handiko hitza dela euskaran. (Ikus, berriz ere, *Axular-en Hiztegia*). Beronen ordez sortu nahi izan da *ikastola* (Ulibarri Galindez-ek *ikasola* esaten zuen, Larramendigandik hartuz). Zorionean, hemen ere halako partiketa bat egin da: *eskola* bere lekuan gelditu da eta *ikastola* zerbait berezi eta konkretua izendatzeko erabili ohi da.

Erromes, horra beste hitz bat Azkueren hiztegian interrogazio-markarekin datorrena. *Erroma*-tik dator, noski, erromesak Erromara joan ohi zirelako edo. Gehienetan pobreak izaten zirelako, *pobre* esanahia ere hartu zuen hitzak. Urbiako artzainen hurrekin hizketa eginez ohartu nintzen haien ahoan beste sentidu batera ere lerratu zela hitz hau: hots, udan Urbian azaltzen diren mendizale eta turistei *erromes* deitzen zieten. Lerratze honen arrazoia, segur aski, hau da: lehenago Urbian azaltzen ziren arrotzak egiazko erromesak izaten ziren, hots: edo Arantzazura edo Aizkorriko gurutzera zihoazenak. Eta gero, bestelako arrotzak agertzen hasi zirenean, hauei ere izen berbera ezarri zitzaizkien. Exenplu honek erakusten digu nola hitzen esanahiak laban egiten duten batetik bestera.

Exenplu edo adibideak emate honetan ez goaz aurrera. Adibidetegi honekin esan nahi izan duguna hau da: gure hiztegi, metodo, liburu eta abarretan eskaintzen dena ez ohi da, ardurenean, euskara bere osotasunean hartua. Euskara murriztu bat, herriaren eta euskal tradizioaren euskaratik guti asko aldentua izan ohi da. Garbizaletasunaren erruz kriterioa okertua eta gaiztatua dugulako gertatzen da hau. Eta gaitz hau larria da.

Gorago ere esan dugu, ordea: euskara garbitu nahizko joera, neurri baten barnean, ona da. Neurriak gaintzen direnean —eta gure artean hau da kasua— oso txarra. Orduan hizkuntza, bizitzetik atera eta Museoko bitrinara eramateko bidean jartzen duzu, hots, hilobira bidean. Gauza ez dena, bihurtzen duzu.

3

Planteaketak oker egiten direnean, ondorioak gaizki irten behar. Ekintzak behar den bidetik joango badira, argia eta egia behar dituzte gidari. Baina egiaren ordez, mitoak, aurre-eritziak eta uste okerrak sartzen baditugu, ezin inola ere xedera heldu.

Euskararen orijinaltasunaz txunditurik, mila txorakeria eta uste oker sartu zaizkigu buruan euskaldunoi (edo agian hobe, euskaltzaleoi). Euskara beste hizkuntzak ez bezalakoa dela, besteekin bat ere zer-ikusirik ez duela. Euskal Herria beti aparte eta besteekin har-emanik gabe bizi izan dela... Baina horiek gezurrak dira.

Beste alorretan sartu gabe ere, hizkuntzak berak ematen digu argibiderik aski ustekizun horiek gezurtatzeko.

Linguistek aztertu dute zenbaterainokoa izan den latinaren eragina euskarari, eta harriturik gelditu dira. Berek diotenez, latinaren kume diren hizkuntzak kenduz, ez dago European beste hizkuntzarik, euskarak adina latinetik hartu duenik. Eta hori hala izanik ere, horrek ez dio euskarari kalte egin, ez dio bizitzea eta irautea galerazi. Ez dio bere nortasunetik den gutiena ere kendu (21).

Rohlf's jaunak esan du, bada: «Ninguna otra lengua prerromana ha completado con tan gran insistencia el propio léxico con la abundante terminología de la cultura romana» (22).

Eta zer kalte ekarri dio horrek euskarari? Entzun diezaiogun berriz ere Rohlf's jaun berari: «Pero sorprende todavía el encontrar en el vasco esta enorme cantidad de palabras latinas sin que por esto se haya debilitado la fuerza vital de la lengua indígena» (23).

Agud jaunak ontzien euskal izenak aztertu ditu. Horra azterketaren ondorioak: % 22, latinetik datoz; % 27 gaskoinetik; % 25 gaztelanietatik. Euskal jatorriko direnek % 5,02 osatzen dute (24).

Gogoan dut zer zioen Otxoluak (Garrok), euskal hitz askoren jatorriari buruz Gorostiagak zioena entzutean: «Bide horretatik joaz, narru gorrian gelditu behar dugu!» Aztoraturik zegoen gizajoa. Baina gauza honek ez gaitu bat ere kantitu behar. Gauzak diren bezala dira eta ez guk balira nahi genituzkeen bezala (25).

Hiztegia da hizkuntzaren zatirik aldakorrena, suntsikorrena eta axaletikoena; hizkuntzaren muinari gutienik ukitzen diona. Gainera, kanpotik hartutako hitzak edukitzea ez da desohogarri. Aitzitik, zibilizazioaren seinale da. Hitz horiek ez dute hizkuntzaren bizitasuna bat ere galerazen edo moteltzen.

Hor dago, adibidez, albaniera (Albaniako hizkuntza), antzinako iliriotik heldu den hizkuntza; baina hiztegiari bagagozkio, egungo albanierak % 10 hitz edo, izango ditu iliriotik gelditu zaizkionak; gainerakoak latinetik, turkotik, eslabotik eta grekotik hartu ditu (26). Errumaniera ere, jakina denez, latinetik dator, baina inguruko hizkuntza eslaboetarik hartutako gaiez goitik behera josirik bizi da (27).

Euskarari antzera gertatu zaio, eta horrek ez gaitu lotsatu behar. Izatekotan ere, zibilizazioaren hartzaile eta ez basati hutsak izan garelako seinale da.

Latinaren eragina euskarari ez da hitz-kontuan bakarrik nabari. Beste eremuetan ere ezagun da: Morfologian, Sintaxian etab. René Lafon jaunak aztertu du egungo euskal aditzaren moldaketa. Jaun honek uste duenez, gaurko aditz-jokoa, neurri handi batean, latinaren eta gure aldameneko hizkuntzen eraginez taiutua da. Hala sortu omen da Subjuntibo Modua (lehen euskarak ez zuena), Futuroko aldia, laguntzaile aditz-joko osoa, etab. Eta hori denori egin ahal izan du euskarak bere nortasunari uko egin gabe eta bizi-beharrak galdegiten zionari erantzunez (28).

Honek esan nahi du euskalduna har-emanetan izan dela aldameneko herri eta hizkuntzekin, eta har-eman horien ondorioz hizkuntz aldaketak egin beharrean gertatu dela, alegia. Eta hala egin ez balu, segur aski euskarak ez zuen iraun ahal izango.

Hartutako hitz eta gai horiek gaur geureak ditugu, euskarak beretakotu dituen gero. Lotsarik gabe erabil ditzakegu, beraz.

Erromatarren denboran bihurtu handi baten aintzinean gertatu zen euskara. Badakigu Euskal Herriko bazter batzuk hizkuntza zaharra utzi eta erromatarrena hartu zutela. Besteek beren hizkuntzari eutsi zioten, baina behar zituzten hitz eta gaiak etxera ekarri.

Ez dugu ezeren sobrarik, geuretakotak ditugun gaiak etxetik kanpora jaurtitzeko.

Bestela badakigu zer gertatzen den: beti zenbait hitz, hitz guti batzuk, gure ustez garbi direnak, beti berberak, erabiltzen ibili beharra.

Hitz berberari hamaika enplegu ematen badizkiogu, hortik, jakina, zehaztasun-falta segitzen da eta orduan hizkuntzak ez du ezertarako balio (29). Jakitekoa litzateke jendeak askotan zergatik nahiago izaten dituen erdarazko hitzaldiak euskarazkoak baino. Segur aski, hau da arrazoiak: gauzak adierazteko erdaraz hitz ugariagoak, egokiagoak eta zehatzagoak erabiltzen direlako, gauzak hobekiago konprenitzen direlako, erdaraz gauza interesgarriagoak esaten direlako, etab. Neurri dexente batean, aipatu ditugun gauzetatik zenbait iturri edo sustrai honetatik datoz.

Gaitz larria da hau, eta hil edo bizikoa euskararentzat. Ez dezagun euskara pitxi bat edo jostailu bat bezala har. Kasu eman diezaigun funtzionaltasunari.

Narru gorrian utzi behar gaituztela zioen Otxoluak. Hain zuzen ere, puristek egiten dute hori: hizkuntza narru gorrian utzi, eta era horretara hizkuntza *garbitzen*, hots, akaatzen dute.

Orixek badu liburu bat: *Jainkoaren billa*. Aszetika-Mistikako gaiak darabiltza. Harritzekoa da zer-nolako itzul-inguruak hartzen dituen taiuzko izen zehatza, hitz teknikoak, hartarakoak, ezin utzizkoak ez erabiltzeagatik: kontenplazioa ez esatearren, adibidez, esango du *otoitz bikaña*, *mota bereiziko otoitza*, etab. «Oración mental» adierazteko, *otoitz ixilla*; eta badira han beste hitz asko bada-ezpadakoak: *xorraldiak* (= distracciones), etab.

Hortik joaz, zer moduzko kultura egin daiteke hizkuntza batean? Honelako tresneria eskas eta zehaztugabeaz, ezer gutxi, inolaz ere.

4

Joan den mendeko azken urteetan zerbait berri sortzen da gure artean. Dudarik gabe, Arana eta Aranatarren astinduaz kontzientzia berri bat pizten da. Hortik, ordura arte ez bezalako indarrak jarriko dira lanean euskararen alde. Abiadura honek lan gaitza egin du euskara goratze, normaltze eta ofizialtze-kontuan: hori ezin ukatua da. Baina hori esan eta —«amicus Plato, sed magis amica veritas»—, beste hau ere esan behar da: maiz sarri, hizkuntza-arloan, bide makurrak hartu zirela, hizkuntzaren beraren kontrara itzultzen direnak, alegia. Horrek erakusten digu amorio itsua ez dela aski, argia ere behar dela arazo hauetan zuzen jokatzeko.

Euskal hitzen arazoa ez da kasu bakarra, baina agian bai nabarmenatarikoa. Erdararik zetozen hitzak oro kanpora bota behar ziren, eta horiek utzitako zuloa hitz asmatuekin estali. Sortu zen nahaspila ez zen makala izan. Bai Urquijo, bai Unamuno, Karmelo Etxegarai, Ibar etab. aurki konturatu ziren hori zela midizinaz kontrara usatzea.

Azkuek ere aranatarren bidea ez zuen onartzen. Orixek idatzi du Azkue izan dela Arana-kukurik handiena (Antiaranistarik handiena) (30). Hitzen kontuan ere aranisten gehiegikeriei hesi bat, barradera bat jarri nahi izan zien.

Zoritxarrez, ez zuen asmatu. Purismo itsu bati atea hertsu nahirik, beste purismo-suerte bati zabaldu egin zion. Eta beste hau, moderatua delako itxuraz, bestea bezain galgarri bihurtu da.

Sebero Altube jauna izango da desbiderapen hauek salatzeri eta erizpide zuzena zein den erakustera etorriko dena. Altube Eusko Ikaskuntzaren III. Biltzarrean berariaz Azkueren kritika egitera mugatuko da, ezen honek, bere hiztegiaren prestijioaz, besteak baino kalte gehiago egin diezaiokeen euskarari.

Aitortu behar da auzi honi soluzio zuzena ematea, orduko giroan, ez zela bat ere gauza erraza. Euskararen iragana izan den bezalakoa izan delako, euskarak bizitze normala izan ez duelako, sekula santan ofizialtasunik izan ez duelako etab., aldameneko hizkuntzen eragin handia jasan du. Euskaldunak bere hitz-jarioan, itxuraz bat ere beharrik gabe eta axola handirik gabe, hartzen ditu hango eta hemengo hitzak. Horietako askok ez dute benetako sustrairik euskararen, beste batzuk, berriz, bai. Hemen ere mugak ez dira beti garbi egoten eta bereizkuntza egitea ez da beti erraza. Sebero Altuberen maisutza izango dugu hemen argitzaile.

Gainera —eta hau ere deskargu-gisa esan behar da—, honelako istiluak beste hizkuntzetan ere gertatu izan dira, hots, gurearen antzera galdu-gordean ibili direnetan; esate baterako, gorago aipatu den errumanieran (31).

Eusko Ikaskuntzak 1922. urtean bere III. Biltzarra ospatzen du Gernikan (32). Biltzar haretan lan bat aurkeztu zuen Altubek gai honi buruz (33). Bertan goitik behera aztertzen eta jorratzen du eremu hau eta zer jokabide hartu behar den garbi erakusten.

Azkueren Hiztegia ez du behin ere bere izenaz aipatzen, baina hura duela gogoan bistan da. Han ikusten duen desbiderapena salatu nahi du, alegia (34).

Egia esan, Altubek gogoaraziko dituen printzipioak hizkuntza guztietan onartzen dira, baina gure artean ez balira bezala ziren. Eta gero, jakina, euskarak pagatzen ditu gure setakeriaren ondorioak.

Hona hemen laburki Altuberen hitzaldiko puntu nagusiak. Hiztegi-lege hauek ez ditugu sekula behar adina errepikatuko, ezen guztiz beste aldera jokatu dugu eta jokatzen dugu oraino euskaltzaleok maizenik. Beste muturrera doazenengatik ere gauza bera esan behar da: harri berean behaztopatzen direla, alegia.

1. Hitzen kontuan garrantzirik handiena du hitzaren zabalgoak. Ez dira maila berean jarri behar zabalgo eta erroztapen handiko hitz bat, eta beste bat, ez zabalera handi ez sustrai gizenik ez duena. Hori gertatu eta gertatzen da askotan gure artean: sustrai handiko hitz bat, erdaratiko delata eta beste gabe, kanpora bota, eta sustrai eta hedadura ttipiko beste bat haren ordezt hartzen baita. (Hain zuzen, hau da Azkueren jokabidea). Horrekin zer irabazten da? Irakurgaiak ilundu eta zaingabetu. Gainera, sustrai handiko hitzen kontrako ahaleginak hizkuntzaren beraren kaltetan bihurtzen dira.

2. Erdaratiko hitzaren ordezt nahi dena gehienetan ez da izaten esanahiz berdina, antzekoa baizik, hots, sinonimoa. Sinonimoen ugaritasunak hizkuntza aberastu, eta horien bakanketak txirotu egiten du. *Bekatu* eta *hoben*, *Fede* eta *sineste*, *Arima* eta *gogo* ez dira gauza bera, antzekoak baizik. Beraz, sinonimoak direnean, bientzat da tokia hizkuntzan.

3. Ordeztkotzat hartu nahi den hitza, gorputzez txatxarra delako, mardultasun ezagatik beragatik ez da garaile aterako. Adibidez, *kanpo*-ren ordezt, *at* (Hau da Altubek dakarren adibidea).

4. Euskal hitz batek sarritan aldaerak ditu (varianteak). Orduan aldaera bat hautesten da esanahi bat adierazteko, eta bestea beste esanahirako. Esate baterako ontzi, *ontzi* = «vaso», *untzi* = «barco» (35). Baina hitzen artean alde ttipiegia izanik, nekeza da herriak banaketa horiek onartzea. *Utzi* eta *itxi*-ren artean diferentzia ttipiegia delako, ez ote du herriak berak *laga* hartu?

Gero hor daude hizkera berarizkoak. Lau mota aipatzen ditu Altubek:

1) Erljio, langintza, jolasgintza, etxe-arazogintzan erabiltzen diren hitzak. Handik edo hemendik hartuak izanarren, lotsarik gabe gorde eta erabili behar dira.

2) Atzerritik agertzen zaizkigun makina, tresna, soineko eta komertziotako arazoei dagozkien hitzak. Atzerriko gauzak dira eta atzerriko izenez hartzen ditugu. Hemen egin daitekeen gauza bakarra zera da: arrotz-hitzok euskaldun jatorren belarri eta ahoetarako egokitu, eta herriak zaintzen dituen fonetika-lege eta jokerei jarraitu. Legeok banan-banan aipatzen dizkigu Altubek (36).

3) Goi-jakintzei dagozkien hitzak. Altubek dio Mendebaleko beste herriek bezalaxe, eremu honetako hitzak latin eta grekotik hartu behar dituela euskarak. Ingelesaren bidea proposatzen digu berak. Aitortzen du orain arte euskaltzaleek bakar-bidetik eraman nahi izan dutela euskara, baina bide hori, noiz eta orain, inongo kalteginena izango litzaiokeela uste du.

4) Literatur-hizkera. Literaturarien esparrua da hau. Baina hauen lanek herriaren gain erakartze-indarra izan dezaten, beharrezko da haiek herri-hiztegia ongi ezagutzea eta sentitzea.

Dena hitz batean esateko, euskarak orain duen aberastasunari eutsi. Gaur eguneko bizirako behar duen gaitasuna lortu arte, euskal hiztegia aberastuaz eta zehaztuaz joan. Hau da bidea.

Altube izan da, gainera, bereizkunde zoriotsu hura bataio propioaz bataiatu zuena: gauza bat da, alegia, *erdal hitza*, eta beste bat *erdaratiko hitza* (eta, berdin, euskal hitza eta euskaratiko hitza). Euskarak baditu, erruz gainera, erdaratiko hitzak, hots, etorkia kanpotik dutenak, baina euskaran sustraituak edo erroak eginak daudenak: horiek erdaratikoak dira, baina euskal hitzak, halere. Ez dira, beraz, erdal hitzak. Etimologi arazoa beste kontu bat da. Etimologi arazoa etimologisten arloa da; baina hizkuntzak hitz bat berea duela jakiteko, hitzaren hedadura eta sustraiari begiratu behar dio, ez etimologiari. *Errege*, *eliza*, *zeru*, *arrimu*, *plaza*, *kantatu*, *kolore*, *familia*, *berde* etab., euskal hitzak dira, bada, nahiz eta

erdaratikoak izan. Erdaratikoak, bai, baina ez erdal hitzak. Euskal hitzak dira, eta gure hiztegieta sarrera eman behar zaienak (37).

Euskal hitzen barruti honetan zegoen nahaspila konpondu nahirik, Euskaltzaindiak, Bilbon egindako Biltzar agiri baten ondoren, Erabaki bat hartu zuen. Zein diren euskal hitzak, horra Erabaki honen funtsa. 1959. urteko Apirilaren 2an hartu zen Erabakia.

Zabaltzen hasi zen bezain laster, erruz heldu ziren protestak Euskaltzaindira, honek euskarari traizio egin balio bezala. Gogoan dut D. Nazario Oleaga zenak zer esan zuen, hartako eskutitzak batzarrean irakurtzen hasterakoan: «Esto va a traer más cola que el Manifiesto de Burgos...».

Haatik, oker-adituak argitzeko behar-beharrezkoa zen Agiri hura. Agiriaren muina hau da: euskal hitza da euskarak beretakotua duena, euskararen erroak egin dena. Etimologi-arazoak ez du hemen zer-ikusirik (38).

Artean Altube bizi zen eta oroit naiz zer esan zidan: «Ez duzue deus berririk esan. Nik beti irakatsi dut hori. Hizkuntza denetan onartzen den araua baino ez da».

Eta halaxe da. Baina lege hau denona izanarren, gurean ahaztuxea zegoen —eta dago—, eta hortik hasi behar zen.

Agiri horrekin dena ez dago eginik, noski, baina oinarria ipini zen, behintzat.

Printzipioak argi eta garbi edukitzea: hori da lehen, eta hori egin zen.

Hizkuntza elbarri, ezertarakoez, beso eta zangoz katigu geldi dakigun nahi ez badugu, hitzen arlo hau aparteko modu batez zaindu beharra daukagu.

Hizkuntza tresna bat da, gauzak adierazteko tresna bat, adierazkailu bat, alegia. Eta bere betebeharrak hori betetzeko balio ez badu, ezer ere ez da. Orain bada, gauzak adierazteko behar dituen, eta aspaldidanik etxekoturik dituen hitzak erabiltzea euskarari galerazten bazaio, orduan harenak egin du, ez da gehiago gai, eta bazterturik gelditzen da, guk nahi ez nahi. Horra nola garbizaleak, aski pentsatu gabe eta berek nahi luketenaren kontra, baina zinez eta benetan, euskararen hiltzaile gerta daitezkeen. Borondaterik onenaz ari dira —nik ez dut duda egiten—, baina hizkuntza bati egin dakiokkeen kalterik handiena egiten diote. Ezen hizkuntza esan behar diren gauzak esateko da, edo ez da ezer. Gernikan esan nuena bir-esango dut: «Gai ez den tresna denek botatzen dute bazterrerara» (39). Eta euskarari hori gerta dakioke bereak dituen eta behar dituen hitzak erabiltzeko bidea ixten bazaio.

Oharrak

1. Kapitulu hau *Orotariko Euskal Hiztegia (Diccionario General Vasco, alegia)* argitaratzen hasi baino lehen egin zen, noski. Koldo Mitxelenak (G.B.), bere lantaldearekin batean, burututako obra handi honek argia ibaika isuriko du, uste dugunez, euskal hiztegiko ilunguneak argitu eta hizkuntza honen lexikoak dituen katramilak bideratzeko.

2. Ikus *Axular-en Hiztegia*, sub verbo.

3. «Emparanza. Plazoletas que tenían frente a su fachada la mayor parte de las casas-torres del País Vascongado» (Araquistain, *Tradiciones Vasco-Cántabras*, Tolosa 1866; p. 42). Hortik zabaldu da, Azkueren hiztegia dela medio, hitz hau *plaza*-ren ordain jatorra delako ustea. Defentsarako teilape batzuk ziren berez. Eta hitzaren jatorriari begiratuz, erdarazko «amparar»ekin du zer-ikusi. Fr. Juan de Zumarragaren euskal eskutitzean dator hitza, baina ez euskarazko atalean, erdarazkoan baizik. Bermeon bada Enparan etxea, Azpeitian ere bai, eta Oñatiko Araotzen *Enparantza* baserria. Mondragoeko kanta zaharretan ere agertzen da *enpara* aditza, «amparar» edo «proteger» esanahiarekin. Ikus Mitxelenaren *Textos Arcaicos Vascos*, Madrid 1964; p. 82.

4. Ikus Azkueren hiztegian zer den satorraren tratua, *sator* hitzean.

5. Ps 41, 8.

6. Ikus MICHELENA, *Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue*, 1970, 25. orr.
7. Larramendik berak dioenez, hiztegia erdal-euskara izatearen arrazoia beste hau omen da: euskaldunek erdal liburuak ulert ahal ditzaten. Baina arrazoi hau ez dakit sinesgarri den. Adarra jotzea ere gustatzen zitzaien Aita Manuel-i.
8. Joseba Andoni LAKARRA, «Larramendiren hiztegitzaren inguruan» ASJU (1985) 9.— ID. «Berriz Larramendiren segizioko zenbaitez» ASJU (1985), 439.
9. Ikus *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Bilbao 1905, t. I, p. XV.
10. Bada, ordea, gure egunotan beste muturrera jo duen hiztegitik.
11. Aspaldi esan zuen Altubek: «Bear-bearra dogu erri-itx iztegi bat eraltzea; iztegi berarizko au Euskalerrri osuon zabalgorik geijen daben itzak (erderatiko naiz euskeratiko) zeintzuk diran jakiteko asmoz egin bear da; ez itz garbijak bakarrik (edo erdi-bakarrik) pillokatzeko asmoz, orain arte egin izan dan bezela», in *III Congreso de Estudios Vascos*, 87 orr.
12. Lhanderen hiztegiak bi hitz desberdin dakartza sarrera banatan: bata da *lanho* «brouillard», eta bestea *laño* «plain». Bigarren hau da, noski, herri-kanta honetan azaltzen dena. Baina nola bigarren hau erdarazko «plano, llano»tik datorren, ez du Azkueren hiztegian sarrerarik izan.
13. Ikus *Axular-en Hiztegia: Berde eta Berdetasun*.
14. «La structuration du champ sémantique de la couleur en basque», *Euskera* (1975), 221.
15. *San Benoaten Bicitzea*, Baiona, 1887; 61-62 orr.
16. Ikus Auspoa Liburutegia, 57-58.
17. Azpeitia, 1881.
18. *Lecciones de ortografía del euskera bizkaino*, 290 orr.
19. Ikus op. cit., p. 292.
20. Ikus MITXELENA, *Euskera* (1958), 5.
21. Ikus Gerhard ROHLFS «La influencia latina en la lengua y cultura vascas» RIEV (1933), 323-348.— Julio CARO BAROJA, *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca 1946.— Manuel AGUD, *Elementos de cultura material en el País Vasco (nombres de vasijas, recipientes y similares)*, San Sebastián 1980.— Américo CASTRO, «El elemento extraño en el lenguaje» en *Curso de Lingüística*, Sociedad de Estudios Vascos, 1921.— Hugo SCHUCHARDT «Vascuence y Romance», BAP (1959), 181-205.
22. Art. cit., p. 345.
23. Id. ibid.
24. AGUD, *Elementos de cultura material en el País Vasco*, 425 orr.
25. Erdaratiko hitzok, gainera, maiz, euskarara pasatzean, balio berezi bat hartu dute, erdaraz ez duten bezalakoa, hots, euskaldunak marka berezi batez markatu dituzten hitzok. Horregatik ere gure-gureak dira. Hamaika holako aipa daitezke: *arrimu*, *auskalo*, *armoni*, *alproja*, *patxara*, *emakume bandera*, *sesio*. Erdaratikoak izanarren, erdaraz ez duten balio eta esanahiak dituzte hitzok euskaraz. Euskalduntzean sartu duten itxura eta berariazko tankera ere arduraz gorde behar da: *imajina*, *zaku*, *botoi*, *titare*, *jaboi*, *orfeoi*... Zenbat aldiz ez da gertatzen, hitzok erdaratikoak direla eta, zapuztu ondoren, gero erdarazko hutsak hartzea! *Imajina* esan beharrean, *imajen*, etab.
26. Ikus Américo CASTRO, op. cit., 51 orr.
27. Id. ibid.
28. Ikus *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, II, p. 155 ss.
29. Adibideak erruz jar daitezke: *Aldizkari Nagusi* «Boletín Oficial», *Ikastetxe Nagusi* «Universidad», *Eliz Batzar Nagusi* «Concilio», etab. *Elkargo* batentzat izango da «institución», beste batentzat «alianza», bestearentzat «colegio»! Hizkuntza ezertarakoez bihurtzeko, bide hoberik ez da.
30. Ikus «Euskal literaturaren atze edo edesti laburra», *Euskal Esnalea* 17 (1927), 248.
31. Ikus Américo CASTRO, op. cit.
32. *III Congreso de Estudios Vascos*, Recopilación de los trabajos de dicha Asamblea; San Sebastián, 1923.
33. «Euskal-itx barriak. Eurok eraltzeko, erderaak zetara lagun egin behar deuskuen», aipatutako bilduman, 78 orr.
34. Ez da ahaztu behar artean sarberria zela Euskaltzaindian gure Altube, eta Azkue berak egin ziola ongiatorrizko hitzaldia. *Euskera* II (1921), 1 z., 50-62.
35. Adibide ugariak dakartza hemen Altubek. Ikus op. cit., 84 orr.
36. Ikus op. cit., 87 orr.
37. ALTUBE «Erderatiko itzak, itz barriak eta aintxiña itzak» *Euskera* I (1920), II. z., 44-54. Ikus ARANA MARTIJA «Seber Altuberen bizitza, musika lana eta bibliografia» *Euskera* (1974), 256-267.— Ikus baita ere VELEZ DE MENDIZABAL, *Sebero Altube*, Donostia 1979.
38. Ikus *Euskera* (1959), 214-217.
39. «Euskaltzainburu jaunaren sarrerazko hitzak» in *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak*, Iker-i, Bilbo 1981, 28.

VI. Kapituluua. Hizkuntzaren normalkuntza egiteaz edo euskara idatziaren batasunaz (1)

Laburpena

1. Hizkera estandard edo batua delakoa zergatik den beharrezko.— Euskararen kasuan ba ote da batasuna egiterik?— Egitekotan, nola eta nondik jo behar ote da?
2. Euskara batuaren historia laburra.
3. Orain arte eman diren urratsak: Ortografian, Deklinabidean, Aditz-jokoan, Hiztegian, Gramatikan.
4. Zertarako da euskara batua?— Euskara batua eta euskalkiak

I

Hizkuntza estandard delakoa —beste hitzez esanik, euskara batua— sortzearen asmoa eta ekintza izan da, segur aski, azken hogeitun urte honetan eman den urratsik emankorrena. Oldar honek arnasberria ekarri diola euskarari, ez da dudarik. Eztabaida, oker-aditu, kontrakarra eta alde bateko eta besteko gehiegikerien gainetik, leiho itxaropentsu bat zabaldu du ekintza honek.

Baina honetan ere zentzuz jokatu beharra dago. Euskara batu hori zer, zergatik eta zertarako den jakin beharra, alegia. Eta tresna hori ongi erabili beharra. Gauza zertarako den, eta hartan erabili beharra. Beronen mugak, eitea etab. ongi neurtu beharra. Aitzingibel askoduna da auzi hau eta ikusalde ugari eta ezberdinok gogoratzeko asmoz idatziak izan dira lerro hauek.

Euskara ez da leku eta mende denetan berdina. (Horrek, bestalde, ez gaitu gehiegi harritu behar, ezen gauza bera guti-asko gertatzen da munduko hizkuntza bizi denetan).

Hau da, beraz, kontua: desberdintasun edo diferentzia nabariak dituela euskarak tokitik tokira eta bai mende bate-tik bestera ere. Hori bazekiten aspaldiko euskal idazleek, eta hortik, idazteko orduan, istiluak sortzen zitzaizkien.

Leizarragak 1571. urtean honela dio: «Batbederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera ere minçatceco maneran zer differentia eta diversitatea den» (2).

Axular-ek puntu bera ukitzen du (3). Honek, gainera, desberdintasun hauen azken arrazoia eman nahirik edo, hara zer dioen: «Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent» (4).

Hau da, beraz, problema: Nola idatzi liburu bat guztiontzat, mintzalarien artean hainbeste mintzamolde desberdin dagoelarik? Idazlearen problema da, beraz, lehenik eta oroz gain (gero, eta bigarrenik, mintzalariena ere badela ukatu gabe).

Ikusi dugu euskara mintzatuaren desberdintasunak esplikatzeko, Axularrek eman duen arrazoia: «Zeren erresumak baitituzte diferent». Esplikazio hau ez da, segur, alde guztiz konplutua eta egokia, baina lehen kolpean dirudien baino egiazkoagoa da, inondik ere.

Kondairatik dakigunez, euskaldunak mendez-mende elkarrengandik zatikatuak bizi izan dira: erresumak direla, eskualdeak direla, Eliz barrutiak direla, etab. Hortik ere gertatu da euskara biziaren zatikatzea. Eta hortik, baita idaz tresnaren ugaritzea ere. Gaur arte euskarak ez du aukerarik izan denon artean lokarri izango den tresna batu edo guztion hizkera hori moldatzeko.

Sarako Etxeberrik XVIII. mende-hasieran *Escuararen Ethorquia* edo *Escuararen Hatsapenac* izena duen —edo ematen zaion— liburua idazten du. Hau ere kezka berberaz ukitua azaltzen zaigu: euskararen untiarentzat, mendez-mende galdu-ordean, arrokapean, uhuinpean gidari gabe dabilan honentzat, pilotu, buruzagi edo aitzindari bat bilatu nahi du. Bat eta bakarra, zeren asko-orduz hainitz aitzindari eta buruzagiren izatea baino, hobe bailizate osoki batere ez izatea (5).

Euskara idatziari batasuna emateko, Etxeberrik proposatzen duen bidea badakigu, bada, zein den: Idazle guztiek Axular buruzagitzat hartzea.

Beste bat dugu oraindik zaharretan aipagarri: Juan Antonio Mogel. Jakina denez, Xemein-Markinako erretorea izandu zen. Bere lehen liburua, *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*, 1800. urtean atera zuen. Liburu hau ez dago bizkaieraz, erdi aldeko gipuzkera zabal batean baizik. Baina hor dago Axularrek aipaturiko arrazoiak: «Zeren erresumak baitituzte diferent». Apaiz bizkaitarrak erostaka hasi ziren Bizkaiko euskalkia baztertua izan zelako. Orduan Mogelek, deskargua egiteko, beste liburuska bat atera behar izan zuen: «Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas para que se puedan entender ambos dialectos». Bertan dio gipuzkeraz egindako liburuak erraz eta samur ulert daitezkeela Bizkaian, bospalau hitzen esanahia ikasiz. Bertan kontatzen digu, halaber, liburua gipuzkeraz egin zuelako, nolako marmarrak egon ziren, eta bere buruaren deskargutan hauxe dio: «El autor podría dar razones poderosas de su proceder o de la atribuida predilección, si fuera del caso el publicarlas» (6).

Arazoia ez dizkigu ematen, baina berez ulertzen dira. Idazleak bere liburua zabal dadin nahi du, hizkuntzaren hedadura guztian edo gehienez irakur dadin. Orain bada, berak bazekien bizkaieraz idatziz gero, nekez irtengo zela liburua Bizkaitik; bestela, berriz, bai.

1803. urtean Gasteizen, eta oraingoan bizkaieraz, ateratzen du Mogelek *Confesino Ona*. Hitzaurrean esaten digu 1800.eko liburu hartatik mila ale zabaldu direla jadanik Nafarroa, Gipuzkoa eta Bizkaian zehar, apaiz askok elizetan eta apaiz ez direnetarik ere dexentek beren etxeetan irakurtzen dutela, etab. Zabalkundeari begiraturaz, bada, berea utzirik, beste euskalkia hautetsi zuen Mogelek, nahiz eta gero, apaiz bizkaitarren espari men eginez edo, bizkaiera lantzera lotu bazen ere. Bistan da, neurri handi batean behintzat, politikaz Bizkaia eta Gipuzkoa eskualde banatan egotetik heldu zitzaizola Mogeli maiseaketa hura.

Baina sorterreri eta administrazio-kontuak alde batera utzirik, idatz-hizkerak bere premia eta eskakizunak ditu. Berdintasuna eta zabalkunderako gaitasuna nahi eta behar du.

Idatzizkoan ere, ordea, badira muetak eta jeneroak. Beti egongo dira idazmueta batzuk, zeinetan egokiagoa baita euskalkia edo tokiko hizkera. Gabriel y Galán-ek baditu olerki batzuk Estremadurako hizkera berezian, beste batzuk gaztelania zabal arruntean. Baina salbuespenok egin eta, idazteak berdina izatea eta zabalkunderako egokia izatea galdegiten duela esan behar da.

Agian horrexegatik, bizkaiera pixka bat berezi eta besteetatik aldenduago delako, bizkaitarrek berek besteak baino bizikiago somatu dute tresna zabal, batu eta orokor baten beharra. Berak izan dira batasunaren eragilerik sutuenak. Diodanaren lekuko, hor dago Mogel bera, eta gure mendean hor dira Eleizalde eta Altube (gipuzkoarrak, noski, baina mintzoz bizkaitarrak), Azkue, Garitaonandia, Basterretxea («Oskillaso»), Krutwig, Aresti, Berriatua. Txomin Agirre berak ere *Kresala* bizkaieraz egin bazuen, gero *Garoa* gipuzkeraz eman zigun. Andima Ibiñagabeitia eta J. Zaitegi ere hor daude, etab. Ez da kontua beren

eskualdea maite duten ala ez. Kontua da idazteak bere legeak dituela eta horiei kasu eman behar zaiela.

Idazkuntzak berez edo bere baitarik dakarren gauza da, bada, hau: hizkuntzaren forma bat, konbentzionalki izango bada ere, bateratua edukitzea, idatzizko zereginetan erabiltzeko. Orok ulertzeko eta idaztean erabiltzeko gai izango den forma bat, alegia.

Horrek esan nahi du hizkera mintzatua eta hizkera idatzia ez direla zeharo gauza bera, eta batetik bestera aldea egon ohi dela, batzutan handiagoa, beste batzutan ttipiagoa, baina beti zerbait. Hor duzu, adibidez, Hoch Deutsch (aleman batua): hau irakasten da eskolan eta erabiltzen da liburuetan, administrazioan eta agerkarrietan. Baina aleman mintzatua ez dator beti bat horrekin. Eskualde batzuetan hortik aski urrunduak diren dialektoak daude.

Gaztelania oso hedatua dago Espainia eta Ameriketean, hainbeste erresuma edo estatutan hitz egin ohi da eta mintzatzekoan anitz desberdintasun dago tokitik tokira. Baina idaztekoan berdin idazten da toki denetan, eta horri esker salbatzen da batasuna, eta horri esker hizkuntza hori erabiltzen duten orok elkar ulertzen dute. Bakoitza hasiko balitz bere txokoa, erresuman edo eskualdean hitz egiten den moduan idazten, akabo batasuna. Eta hortik denentzat kaltea etorriko litzateke.

Hizkera idatzia eta hizkera mintzatua funtsean hizkuntza bera dira, hori bai, baina idatzizko zereginetarako forma batu bat onartzen eta erabiltzen da, eta hori ororen zerbitzutan dela esan behar da. Hizkuntzen munduan nahaspila gainditzeko ez da gaur artio beste biderik kausitu.

Hizkera batuak zergatik behar diren konprenitzeko, hizkuntzaren munduan gertatzen den lege bati kasu eman beharra dago: hizkera bizia aldakor dela, ganbiakor; zatikatuz doa, beraz. Poliki-poliki, nola eta zergatik ez dakizula, han-hemen, forma berriak sortzen dira. Zatikatu, xehatu, bestelakotuz doa, bada, hizkera bizia, berekasa utzia dagoenean batipat. Eta hortik dator denboraren buruan elkar ulertu ezina. Basatien artean, hizkera mintzatua besterik ez dagoen herrietan, sarri gertatzen da hau: lehenago hizkuntza bera zutenek, denbora baten buruan elkar ezin ulertzea. Eta hori gertatzen zaie lehen guztiona zen hizkuntza, gizaldi gutiren buruan, zatitan banandu eta desberdin bihurtu delako.

Gizonak, ordea, gizartean bizi delarik, komunikagailu bateratua nahi eta behar du. Tresna bat, alegia, berdina, orok onartua eta ulertua izan dena, hizkuntzaren hedadura edo eremu guztian erabiltzeko gai izan dena. Tresna batu edo berdin hau gizonek berek sortzen dute, hots, giza zibilizazioaren fruitua izan ohi da, ezen, berekasa utzirik, hizkera mintzatuak zatikatuz, eta ez batasunera, dute joera.

Zatikatzeko lege horri neurri batean erremedio ipintzeko, gizonek hizkera batuak sortzen dituzte. (Ez da erremedio osoa, noski, zeren hizkera batuek hizkera biziaren eboluzioa ez baitute geldiarazten, nahiz eta pixka bat baretzen eta moteltzen duten).

Hizkera batu horiek, lehenik eta oroz gain, hizkera idatziak izan ohi dira, idatzizko zereginetan erabiliak izateko sortuak, eskola bidez ikasiak eta orotara zabalduak. Bigarrenik, behar denean, hitz egiteko ere erabil daitezke. Zernahi gisaz, hizkera mintzatuaren gain ere eragina izan ohi dute.

Hizkuntza landu guztiek dute beren hizkera batua, hots, idaztekoan erabili behar den tresna bateratua. Konbentzionalki edo akordioz bateratua izan dena, noski, zeren tokian tokiko hizkera mintzatuaren arabera idatzizko balitz, kaosa eta nahaspila izango genuke.

Hizkuntza landu horietarik bakoitza zer moduz edo zein bidez heldu den bere hizkera batua egitera kontatzea, zaila eta luzea litzateke. Gainera, batzuen urratsak ez ditugu ongi ezagutzen, zeren prozesu hau antzina burutua izan baita eta ohartzeke bezala, anitz gizaldiren

buruan. Beste batzuenak, bai, aski ezagunak dira, guregandik hurbilago eta epe laburrean gertatu direlako.

Edozein modutan ere, hizkuntzen normalkuntza egitea edo hizkera batuen moldaera, giza zibilizazioa bezain zaharra da. Horrek esan nahi du gizartean bizi den gizonak, zibilizazio-maila batetara heldu bezain laster, tresna horren nahi-ta-ezko beharra somatzen duela. Eta, jakina, bere hizkuntza propioan horrelakorik ez badu, hori dagoen lekura joko du, zeren beharrezko baitu. Euskaldunek badakigu hori ongi (7).

Aipa ditzagun adibide batzuk. Hor dago Txina. Txinako hizkuntzaren eremua izugarri zabala da. Hizkuntza berbera mintzo edo hitz egin ohi da Txina osoan. Baina hitz egiterakoan desberdintasun itzelak daude eskualdeen arabera; hain haundiak, non iparraldeko eta hegoaldekoek ez baitute elkar ulertzen. Txino hizkuntzak, ordea, badu aspaldidanik bere hizkera batua, txino mandarinala deitzen dena. Jende eskolatuak hori ezagutzen du, eta, tresna horri esker, txino guztiek elkar uler dezakete; eskolatuak baldin badira, jakina.

Arabe hizkuntzaz gauza bera gertatzen da. Hizkuntza hau, mintzatuan, oso zatikatua dago. Baina badu bere hizkera batua, arabiera literala deitua. Hau irakasten da eskoletan eta horri esker egiten da batasuna.

Alemanari buruz gauza bera esan behar da. Modu askotara hitz egiten da, baina idatzizko zereginetarako bada aleman batua, eskolan ikasten dena, eta horri esker salbatzen da batasuna.

Askotan hiriburuaren hizkera mintzatua hartu izan da oinarritzat hizkera batu hori horren gainean eraikitzeko. Itxuren arabera, hala gertatu zen latinarekin. Erromako hizkera mintzatua —une edo mende jakin batekoa, noski— hartu zen oinarritzat, eta gero hori zabaldu zen orotara eta hori gelditu zen idazteko eta eskolan irakasteko.

Frantsesa ere Pariseko hizkera mintzatuaren gain eratua izan da. Katalan batuak ere Barcelona hiriburuko hizketa hartu du oinarri, neurri handi batean behintzat. Mitxelenak esan ohi zuen Bilbo euskaldun balitz, Bilboko hizkera mintzatua hartuko litzatekeela oinarri euskara batua eratzeko; Bilbo, ordea, ez da euskaldun, Gasteiz ere ez, Iruñea ere ez, Baiona ere ez, eta ez Donostia ere (oso maila apalean izan ezik). Beraz, bide hau itxia dugu.

Gaztelaniaren kasuan Errekonkistaren garaian Gaztelak izan zuen protagonismoagatik eskualde honetako hizkera orotara zabaldu eta berau hartu zen hizkera batutzat.

Frankotan gertakari literarioek soilki ekarri dute hizkera batuen sorrera. Hau gertatu da, esate baterako, italiar hizkuntzan. Hizkuntza honen hizkera batua Toscana eskualdeko hizkera mintzatuan oinarritzen da. Dante eta beste idazle batzuek hizkera honi eman zioten distira eta ospeagatik, italiar guztien hizkera batua bilakatu zen; baina idatzizko zereginetan erabiltzen da batipat, zeren, gainerakoan, eskualdeetako dialektoek bizirik segitzen baitute. Horregatik esan izan da italiar bakoitzak bi hizkera izan ohi dituela: bata liburu, hitzaldi, agerkari eta holakoetan erabiltzen duena, eta bestea etxean eta herritarren artean erabiltzekoa. Antzera gertatu zen alemanarekin. Horien batua, Hoch Deutsch deitua, Luterok itzulitako Biblia du oinarri, eta idazteko etab. erabiltzen da, baina gainerakoan dialektoek bizirik segitzen dute. Arabiera literalak ere Mahomaren Koran-a du oinarri, etab.

Hortik ikusten da hizkera batu guztiek ez dutela etorburu bera eta ez eite edo egitura bera ere. Batzuek idazteko eta idazmailako gauzetarako erabiltzen dira soilki, hala nola italiara eta alemana. Beste batzuek, idazteko lehenik, baina hitz egiteko ere bai, neurri handi batean behintzat (adibidez, frantsesa, gaztelania etab.). Lehenbizikoak ez dira dialekto mintzatuetsai, berez behintzat; besteak, bai (8).

Dena dela, bego hau garbi, notatzekoa baita: hizkera batuak, berez eta lehenbizikorik, hizkera idatzia dira, nahiz eta gero, gutiago edo gehiago, mintzatzeko ere erabiltzen diren. Hizkera mintzatua eta hizkera idatzia ez dira zeharo berdinak, nahiz eta biak hizkuntza beraren atal, zati edo agerpenak izan. Hizkera mintzatua belarritik sartzen eta ikasten da; hizkera idatzia, aldiz, begitik. Bietatik bakoitzak du bere xede eta helburua, bere dohainak eta bere legeak. Horrek esan nahi du hizkera idatzia ez dela osoki eta alde guztiz hizkera

mintzatuaren legeekin neurtu behar. Bestela esan, hizkera idatziak baduela bere nortasuna eta bere autonomia, eta ez datorrela beti bat hizkera mintzatuaren legeekin. Eta bat ez etortze hori noraezeko du, gainera, zeren hizkera idatziak, guztiontzat delako, alde guztietan berdin izatea galdegiten baitu, ahal den neurrian mendez-mende eta hizkuntzaren hedadura guztian finko eta aldakaitz izatea eskatzen baitu. Hizkera mintzatua, aldiz, tokitik tokira eta gizaldirik gizaldira, gutiago edo gehiago, desberdin da.

Ondo dakigu hori Euskal-Herrian. Euskalki beraren barnean ere zeintzuk desberdintasun! Oñatin mintzo ohi den euskara, bizkaiera dela esan ohi da, eta hala izango da, Markinakoa ere bizkaiera, eta bai Orozkokoa, Bermeokoa, Arrati, Txorierri, eta abarrekoak... denak dira bizkaiera, baina zoaz ikustera ea bata besteakin berdinak ote diren. Bai zera. Bizkaiera idatzia berdina da, baina zergatik? Hizkera batu bat delako, eta, beraz, toki jakin batean mintzo den euskara-modutik gutiago edo gehiago urrundua dago. Imanol Berriatuak *Itsasoa eta ni* liburuan Bermeoko arrantzaleekin egin zituen ibilerak kontatzen ditu, nola egiten zizkien predikuak, etab. Prediku horiek egiteko erabiltzen zuen tresnari buruz, hara zer dioen: «Igaz, Bizkaiko literatur euskaraz berba egiten nien; aurren, berriz, Bermeon egiten den bezalaxe, berdin berdin. Nire ustez, azken modu hau bestea baino askoz hobea da, norberaren herriko berba hobeto ulertzen eta bihotzean sartzen delako» (9).

Beraz, bizkaiera batua utzi eta tokiko euskaran egitera jarri zen. Zergatik? Entzuleen mintzamoldetik hurbilago egoteko. Har bezate hau kontutan euskalkia herriaren euskara eta batua artifizia dela diotenek!

Hizkera mintzatua eta hizkera idatzia, biak dira hizkuntza beraren zatiak, adarrak, osagaiak, biak errespetagarriak, biak kontutan hartzekoak. Gainera, gauzak diren bezala hartzen baldin badira, biek elkar laguntzen eta sostengatzen dute. Ez dira bata bestearen etsai. Bietatik bakoitzak du bere eragina bestearen gain eta bien artean egiten dute hizkuntzaren osasuna. Bata bestea gabe ezin dagoke zutik.

Hizkera mintzatua, hizkera idatzia, bada. Bietatik, ordea, zeini eman behar ote zaio lehentasuna? Bigarren kapituluan esan genuen hizkuntzak, berez, hitz egiteko, ezpainetan hartzeko eginak direla, eta mintzo ez badira, hilak direla. Baina idazkuntza asmatu zen puntutik, hizkera idatziak garrantzia hartu zuen, garrantzi hain handia, non ez baita gehiago bestearen morroitzo. Hizkera idatzi horrek bere lege eta arauak ditu.

Eskola-maisuek, antzinatek, hizkuntza ongi idazten ikasteari ematen zioten axola guztia. Bazirudien haientzat hizkuntza hori zela, hots, idatzirik agiri den eta begietarik sartzen dena. Hau ere gehiegikeria zen beharbada. Gero, erreakzioz, etorri ziren joan den mendeko hizkuntzalariak, eta hauentzat hizkera idatzia ez zen deus; mintzo ohi dena eta mintzo ohi den bezala, hori bakarrik behar zen kontutan hartu.

Baina gehiegikeriak aparte, hizkera idatzia aintzat hartze horretan, ez zeuden bat ere oker. Aipatzekoak eta kontutan hartzekoak dira Vendryès jaunaren hitzok:

«Algunos se inclinan demasiado a considerar la lengua escrita como la humilde sirvienta de la lengua hablada. Es una idea de los foneticistas o de los profesores de lenguas vivas, preocupados en reaccionar contra los excesos de los maestros de escuela, para los que la lengua escrita es, por el contrario, el todo del lenguaje. En resumen hay que decir: tal palabra escrita se pronuncia así; o: tal palabra hablada se escribe así. ¿Está la palabra en el sonido o en la escritura? Debemos contestar que para todo hombre civilizado está en uno y otra. Muchos civilizados se comunican con sus semejantes más por escrito que de palabra... En el espíritu del iletrado la palabra no tiene evidentemente más forma que la auditiva. Pero desde que el alfabetismo se desenvuelve y se impone a todos los niños de un país el estudio de la lectura, la palabra escrita toma una importancia cada vez mayor.

Hoy no concebimos el lenguaje sin la forma de la escritura. Las palabras se presentan a nuestro espíritu con la vestidura que les da la ortografía. Puede decirse que en este terreno el órgano ha creado la función; ¿y qué función? Tan tiránica que para algunos de nosotros, los llamados «visuales», el lenguaje escrito aventaja en claridad al lenguaje hablado...

Mientras se enseñe a los niños a leer y escribir, será preciso tener en cuenta los derechos de la lengua escrita, aunque a veces se opongan a los de la lengua hablada...

Es natural que se trabaje para reducir la distancia entre la lengua escrita y la lengua hablada. Pero no debe olvidarse que no se obtendrá nunca una equivalencia perfecta entre las dos, y como la palabra existe tanto en forma escrita como en forma hablada, no está mal quizá que una ortografía tenga irregularidades y defectos. Esto graba más profundamente en la memoria la fisonomía de las palabras. La singularidad del vestido designa mejor al pensamiento la idea que envuelven» (10).

Ildo beretik doaz Eleizaldeek Eusko Ikaskuntzaren I Kongresoan esan zituen hitzak ere. Hitz hauek orduko euskararen egoera marrazten dizkigute. Izan ere, euskaraz idaztean, sarritan tokian tokiko hizkera mintzatuari soilki egiten zitzaion kasu. Eta orduan zer gertatzen zen? Eleizaldeek hemen dioena:

«Consecuencia de esa falta de tradición literaria es que la única fuente de información, para los escritores euzkeldunes, es el lenguaje oral del pueblo. Se sigue de ahí que todas las diversificaciones populares en cuanto a dialectos, fonética, etc., se reflejan inmediatamente en el Euzkera escrito. Resulta, por ejemplo, que una misma palabra, de las que pertenecen al acervo común de todos los dialectos como caso más favorable, recibe diez, doce o más transcripciones gráficas distintas, según las variantes fonéticas, más o menos legítimas, que al escritor se le ocurran emplear. Esta situación me parece sencillamente insostenible, porque creo que es un postulado ineludible de toda literatura escrita que la transcripción gráfica de cada palabra sea en lo posible estable. En las lenguas muy cultivadas literariamente, las palabras escritas tienden cada vez más a ser signos ideológicos y a apartarse de su primitivo carácter de meras transcripciones fonéticas. Para la vista del lector ejercitado, la transcripción gráfica de cada palabra tiene su relieve especial, su perfil, diríamos su «fisonomía», que se percibe de un simple golpe de vista, que evoca al instante la idea correspondiente, según la sencilla experiencia que cada uno puede hacer en sí mismo. La verdadera facilidad de la lectura está ahí, y esa facilidad no puede existir en la lectura euzkérica mientras subsista la fantástica variabilidad de transcripción de las voces vascas» (11).

Labur: hizkera mintzatua eta hizkera idatzia ez dira zeharo berdinak. Hizkera idatziak bere eskakizunak ditu, hots, beti bat izatea eskatzen du. Hortik dator tira-bira bat egotea mintzatutik idatzira. Ongi da ahaleginak egitea bata bestetik gehiegi urrun ez daitezen, baina bien artean kidetasun osoa lortzerik ez dago.

Gatozen, bada, orain euskararen kasura. Euskarak bere baitako eta jatorrizko batasuna baduela, gaur pisuzko hizkuntzalariek aho batez aitortzen dute; eta uste dut aski dela euskara bere osotasunean pixka bat barnetik ezagutzea, horretaz jabetzeko. Hor dira, ordea, euskalkiak, denboraren joanean batasun horretatik sortuak, zuhaitzaren enborretik adarrak sortzen diren bezala. Euskalki hauek aspalditasun edo antzina-kutsu nabaria dute. Baina izan dezagun bekoki gauzak diren bezala esateko: euskalkien aurretik dago euskara bera, ez eman behar zaion garrantziagatik bakarrik, baita kronologiaz ere.

Euskara batuaren aurka maiz atera ohi da objekzio hau: euskara batua artifiziala dela, euskalkiak, aldiz, horiek direla egiazko euskara. Baina objekzio hau ez da egian oinarritzen eta, beraz, erdi ustela da. Euskarak batasunaren markak erraietan dauzka, euskalkien desberdintasunak gora-behera. Euskalkiak geroago etorriak dira eta euskararen batasun hori ez dute bere funtsean eta muinean ezabatu, gainera estali edo pixka bat ezkutatu badute ere. Orduan, euskara batua egitean egin nahi dena zera da, hots: guztion muin hori aintzat hartu, argi osotan ipini, eta muin horretan finkaturik euskaldun guztien hizkera batua moldatu. Euskara batuak duen muina, euskararen beraren muina da. Beraz, euskalkiak baino lehenagoko zerbait du oinarritzat.

Baduela zerbait artifizialki edo akordioz bateratua izan dena? Bai, baina hori euskalki literarioetan ere gertatzen da. Arextian esan digu Berriatuak zer leize dagoen literatur

bizkaieratik Bermeoko arrantzaleen hizketa-modura. Munduko hizkera batu guztiak dira neurri batean artifizialak (hobeki esan, konbentzionalak, gizonen akordioz bateratuak), baina beren muinean ez dira artifizialak, zeren benetako hizkuntza bat baitute zimendutzat. Hori gertatzen zaio euskara batuari eta gertatzen zaio, baita ere, literatur bizkaierari (12).

Beraz, euskara batuaren asmoa edo helburua ez da kokatu behar euskalkien atzetik, euskalkien eboluzioaren ondorioz etorriko den gauza bat balitz bezala.

Ez. Gauzak ez dira bat ere hala. Euskalkiak elkarren artean gonbaratzen dituzunean, laster ohartzen zara gauza batez: axaleko zenbait aldakuntza gora-behera, muin handi bat dutela orokorra dena, guztiotan bat-bera eta berdina den muina.

Uste dut auzi honetan euskarak bere baitako batasuna baduela azpimarratzea guztiz beharrezko dela. Euskara batuaren artifizialkeriaz mintzo direnak badirudi ez direla horretaz jabetu edo ikusalde hau ez ikusi egin ohi dutela.

Lehen ere esan dugu, hizkera batuak eratzeko edo moldatzeko, herriek bide bat baino gehiago hartu izan dutela. Kondairako gora-beherek izan dute hemen aginpidea. Denentzat ez dira egon aukera berberak. Herri askok segitu duen bidea guk segitzerik ez dugu (hiriburu euskaldunak ez dugulako, eskualde bateko euskalkia beste eskualdeetako euskaldunei inposatzea hauek nekez onartuko luketeelako, etab.). Orduan, gelditzen zaigun bide bakarra —eta gure kasuan hoherena—, honako hau dela dirudi: guztiok bat gatozen muin hori euskara batuaren giltzarri edo oinarritzat hartu.

Lehenik, ordea, kuestio bat baino gehiago dugu hemen erantzun-eske. Bi guttinaz: 1) Tresna horren beharra ote dugu, gero?, 2) Tresna hori ez ote dugu jadanik?

Horra, bada, lehen galderari erantzuna. Tresna honen baitezpadako, noraezeko beharra duela euskarak seriozki ezin ipini daiteke dudatan. Batasun hori eginik ere, nahiko lan izango du euskarak egungo bide-gurutze larrian bizirik irteteko. Baina hori gabe, inolaz ere ez da irtengo. Miloi erdi edo pixka bat gehiago mintzalari dituen hizkuntza batek —bi hizkuntza boteretsuz (gaztelania eta frantsesa) alde orotarik hartua eta erdi itoa dagoena—, nola iraun dezake, idazten den oro lau-bost edo gehiago eratara zatikatua agertzen baldin bada? Nola argitaratu liburuak, inprimeri-kostuei nola erantzun? Eta zer zabalkunde izan dezakete? Nola euskara eskolara eraman, bateratua ez badago?

Euskara bateratu horrek galera batzuk dakartzala berekin? Bai; ez da dudarik. Baina edozein gauza baliotsugatik prezio bat pagatu beharra dago. Lege honek ez du salbuespenik. Gogoangarria da horretaz Carlos Santamaría jaunak idatzi zuen artikulua: «El euskera como lengua escolar» (13).

Eta gero hor dago euskaldun-berriaren problema. Gaur horien pisua, euskararen auzian, ez da gutiestekoa. Zein euskara irakatsiko diozu euskaldun berriari? Euskalkia? Zein euskalki? Denak? Horrek ez du akaburik. Euskara ikasten zegoen batek esaten zidan lehengoan: «Lo malo del euskara es que tienes que aprender 40 modos de euskara, y esto no se termina nunca...».

Euskara huts-hutsik, hots, guztion euskara da euskaldun berriak nahi eta behar duena, hasteko behintzat; gero, ur handitan sartu nahi badu, hor ditu besteak ere.

Beraz, euskara batuaren beharra ezin ukatua da. Hil edo biziko gauza da hau euskararentzat.

Euskara batura heltzeko hor da, dagoeneko, oztopoa: euskalkiak.

Euskalkia aipatzen dugunean beti esan beharko genuke zertaz ari garen: euskalki mintzatuaz ala euskalki idatziaz, alegia.

Euskalki mintzatuak ez du berez batasunik. Gehiago oraindik: uste dut, gaur, linguistek horrelako izakirik ote den ere dudatan jartzen dutela.

Baina euskalki mintzatuak alde batera utzirik —horiek zer diren, noraino duten egiazko entitate bat, etab.—, gauza bat da ezin ukatzukoa, hots, euskarak badituela euskalki literario batzuk. Zer dira horiek? Hizkera batuak, noski, idatzizko zereginetarako erabili direnak eta gaur ere erabiliak direnak.

Euskaran pixka bat greko hizkuntzan antzina gertatu zena gertatzen da. Han ere lehenbizian dialekto literario batzuk sortu ziren. Geroago, berriz, *koiné* edo greko orokorra nagusitu zen. Gure artean ere literatur dialektoak daude. Lau guttinaz: lapurdiera, zuberokera, gipuzkera eta bizkaiera (14). Eta hemen dator bigarren galdea: Zertarako behar dugu tresna berri hori, lehendik baldin badaukagu?

Lau ditugu, ordea, eta bat behar: hor dago koxka. Bat, Euskalerra osoan onartua izango dena (eskualdeetako dialektoak ere zeregin batzuetarako onartu eta baliatu ahal izango direla ukatu gabe).

Lau euskalki literarioak ditu, bada, euskarak. Euskalki mintzatuak, berriz, auskalo zenbat diren. Bonaparte printzeak zortzi izendatzen zituen. Beste batzuek kontu hori murriztu edo gehitu izan dute. Horrek esan nahi du euskalkiaren kontzeptua bera ez dagoela bat ere garbi. Dena dela, guri hemen interesatzen zaiguna ez da euskalki mintzatuak, euskalki idatzia edo literarioa baizik.

Berrikitan esan dugun bezala, euskalki literarioak ere hizkera batu batzuk dira, gizonen akordioz edo hitzarmenez nolazpait onartuak, idatzizko zereginetarako tresnatzat hartuak. Bizkaiera literarioak Bizkaiko lurralde barnean izan du eta du onarpen bat, zuberokera Zuberoan bezalaxe (gogoan har dezagun berriz ere Axular-ek zioena: «zeren erresumak baitituzte diferent»).

Lapurdiera eta gipuzkerak euskalki mintzatuaren eremutik kanpoan ere izan dute sarrera. Deba-harroko herriak, adibidez, bizkaieraz mintzo dira, baina idatzizko zereginetarako gipuzkera literarioaz baliatzen dira. Hori bera gertatzen zaie Nafarroa beherekoei, hots, irakurri eta idazteko lapurdiera erabili ohi dutela, eta ez beren euskalki mintzatuak. Aspaldidanik dute ohitura hori, tradizioz hartua. Lapurdiera literarioa sartu diete, bada, benafarrei. Kulturaren kondaira honelako gertakariez betea dago. Ez diezagutela, bada, hemen aipa kolonialismoa, faszismoa eta honelako txatxukeriak.

Baina kuestioa da euskarak behar duela tresna bateratu bat, euskara erabiltzen den eremu guztian onartua izango den tresna. Eta orain arte ez du izan.

2

Ez dugu, gaur artio, hizkera batu bat guztiona dena, Euskal Herriaren hedadura guztian guztiok guztiona bezala har dezakeguna.

Baina horrelako tresnak gizonen eginak baldin badira, gerok geurea egin ezinik ez dugu. Ezin egon gaitezke esperoan Naturalezak erregalatuko ote digun begira.

Euskaraz horrelako tresna egiteko asmoa edo burubidea ez da guztiz berria, gainera.

Azkoitiar bat, Jose Frantzisko Aizkibel (1798-1864), uste dut izan zela lokarri honen beharraz, lehenbizikoz, espresuki mintzatu zena.

«Esto mismo quisiéramos que sucediera con nuestro Euskera, que poco a poco se formase un dialecto clásico o literario, que comprendiesen igualmente los habitantes de todo el país Vascongado indistintamente, como puede suceder muy bien, si el clero del país en su predicación y publicación de devocionarios y de obras de instrucción cristiana, usase de un lenguaje puro y escogido, arreglando para ello una gramática, que reúna los elementos primitivos de esta lengua en su mayor pureza, sin hacer caso de ninguno de los actuales dialectos, y atendiendo sólo a la verdadera y genuina restauración de la lengua,

aproximándose, cuanto se pueda, al estado que tenía en la época de su mayor pureza. Para esto es indispensable la formación de una *academia* compuesta de Vascongados, que hayan hecho estudios especiales sobre su lengua, o que hayan estudiado las lenguas orientales, o dedicándose a estudios lingüísticos, admitiendo igualmente en su seno a todo filólogo o lingüista extranjero que se dedique al estudio de nuestra lengua. Las autoridades del país deben proteger y contribuir para la prosperidad y buen éxito de los trabajos de esta corporación, que serían sumamente útiles para el país y para la ciencia filológica, llevando a cabo el gran pensamiento de nuestro adorado patricio, el Sr. Conde de Peñaforida, fundador de la Sociedad Vascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios. De este modo estaría unida esta nación con el tiempo etnográficamente, bajo un dialecto común literario, que al cabo de un siglo o dos predominaría, por la ventaja de ser comprendido en las siete provincias o distritos de diferentes dialectos, que hoy se conocen y no se pueden entender unos con otros, ya que es imposible reunir las políticamente, perteneciendo a dos naciones poderosas» (15).

Pasarte honetan esaten diren guzti-guztiak, hitzez-hitz eta dauden daudenean, agian ez dira onartzekoak, baina, euskara batuaren beharra eta bai nolabait beronen aurpegiera ere argi xamar deskribatzen dela esan behar da.

Gugandik hurbilago, hots, joan-mendearen azken aldean eta oraingoaren hasieran, hor dira Azkue eta Broussain-en arteko eskutitzak (16).

Broussain-ek, bada, eskutitz batean honela idazten zion Azkueri:

«J'estime en effet et je considère comme des axiomes les points suivants: 1.º L'euskara ne peut survivre que si, de l'état de patois dans lequel il végète actuellement, il devient une langue de civilisation, une langue cultivée, une langue appuyée sur une littérature.— 2.º L'euskara ne peut devenir une langue civilisatrice, à l'usage de tous les Basques, depuis Bilbao jusqu'à Mauléon, que s'il est unifié.— 3.º Cet euskara unifié ne peut être constitué que par un groupe de Basques connaissant bien leur langue, et dans lequel entreraient des représentants des principaux dialectes, quelque soit le nom que l'on donne à ce groupe: Académie, Conservatoire, Institut.— 4.º Cet euskara unifié et enrichi, ne pourra devenir, avec le temps, la langue nationale, la langue usuelle de tous les Basques, que si elle est enseignée dans les écoles, et principalement dans les établissements secondaires, afin de devenir au bout d'une ou deux générations, l'idiome unique de la bourgeoisie et du clergé (les classes laborieuses (paysans et ouvriers) adoptant tôt ou tard, fatalement, la langue des classes dirigeants).— 5.º Si les conditions énumérées plus haut ne se réalisent pas, la langue basque, progressivement et nécessairement, disparaîtra et dans 100, 150 ou 200 ans, mourra dans quelque village perdu de la Basse-Navarre, avec la dernière vieille femme ayant parlé l'antique euskara» (17).

Batez ere Azkuerekin izan zuen Broussain-ek adiskidantza eta har-eman handia. Eskutitz horietan, bada, bi kezka azaltzen dira nagusi: Akademia baten eta euskara batu baten beharra.

Bai Aizkibel eta bai Broussain bat datoz honetan: biek ikusten dute Akademia baten beharra eta biek Akademia honi egozten diote zeregin nagusi hau, hots, guztion euskara hori moldatzea. Gogoan har bezate hau, Euskaltzaindia, euskara batuaren gidaritza hartu zuelako, desbideratu egin zela diotene.

Beste urrats bat: 1918. urtean Eusko Ikaskuntzak Oñatin bere I Biltzarra ospatzen du. Eta Luis Eleizalde han irakurtzen ditu bere bi ikasgai famatuak: «Metodología para la restauración del Euzkera» (18). Han, jakina denez, hizkera batu horren beharra aldarrikatu zuen Eleizalde:

«Pero la cuestión batallona ha de ser, seguramente, la relativa a la necesaria unificación dialectal. Esa unificación, como la unificación fonética, no se pretende para el uso vulgar, sino tan sólo para el uso literario, y principalmente para el escrito. Tenemos hoy, para una población de medio millón de euzkeldunes, tres principales dialectos literarios. Es evidente que esto no puede subsistir, es evidente que llegará un momento, y deseo que sea muy pronto, en que la fuerza de las cosas nos obligue a elegir un solo dialecto como literario; de lo contrario nos vemos forzados a hacer triples ediciones de nuestros libros (lo que equivale a renunciar a toda literatura), a establecer triple sistema de escuelas, y a renunciar por tanto a toda labor educativa. La mayor parte de los vascos, por lo menos de los que han pensado algo en estas cuestiones, ven ya la necesidad de llegar a esa unificación; pero las divergencias de apreciación consisten en el modo de alcanzar la unificación deseada. Creen unos que la unificación deberá consistir en

la preponderancia que uno de los dialectos adquiera sobre los demás, por evolución natural si se nos permite decirlo así, por motivos del número y de la excelencia de las obras literarias que ese dialecto privilegiado produzca, y que lo hagan imponerse sin violencia a los demás. Y en apoyo de esta opinión aducen ejemplos conocidos de varias lenguas: el dialecto toscano en la lengua italiana, el castellano en la española, etc. En cambio otros, sin desconocer que ese es efectivamente el modo natural de selección de los dialectos en circunstancias normales, opinan que el caso del Euzkera se sale de esa normalidad, que es un caso verdadera y angustiosamente urgente, que necesitamos tener muy pronto una literatura completa, muy pronto las escuelas, y que como estas dos magnas obras —producción literaria y sistema escolar— están condicionadas por la unificación dialectal, la primera labor que se impone, y con mayor urgencia, es esta misma unificación. Personalmente me adhiero a la opinión de estos últimos» (19).

Euskaltzaindia sortu zenean, Sortarauetan beretan egotzi zitzaion ardua hau:

«Trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriéndose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común» (20).

Euskaltzaindiak, sortu bezain laster, txosten bat eskatzen die Campion eta Broussain-i gai honi buruz. Eta hauek beren lana aurkeztu zuten: «Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera» (21).

Txostengileek aitortzen dute Euskaltzaindiari gomendatu zaizkion zereginetan hauxe dela larriena. Esaten dute, gainera, hizkuntzaren historiari begiratuz, lapurtar zaharra hartu beharko litzatekeela oinarritzat; baina, egungo premiei hobeki erantzun nahirik, egungo euskalkietara jotzen dute. Beraz, egungo gipuzkera edo lapurdiera edo bien arteko antolaketa bat proposatzen dute. Eta eskatzen dute lehen-bai-lehen eta luzapenik gabe batzorde bat izenda dadila asmo hau aurrera eramateko, zeren batasun hori premia-premiazkoa baita.

Euskaltzaindiak, sorberri hartan, anitz batzarre ageri antolatu zituen, euskararen batasunari buruz eritziak etab. eskatuz. Dirudenez, herria girotu eta kontzientziatu nahi zuen. Hartu ziren txostenak Euskaltzaindiaren aldizkarian agertu ziren, hots, *Euskera*-n, 1922. urtean.

Baina gehienak batasunaren alde agertu baziren ere, bi jaun —eta ez edozein— gar hari ur hotza botatzera etorri ziren, hots, Urquijo eta Menéndez Pidal.

Julio de Urquijo euskaltzainak hitzaldi bat egin zuen Bilbon, 1919. urtean. Batasunaren asmo hau ez du begi onez ikusten. Hurrengo urtean, 1920. urteko azken egunetan, beste hitzaldi bat du Bilbon Menéndez Pidal jaunak. Artifizialkeriaren akatsa egozten dio euskara batuaren asmoari (22).

Aitortu behar da Urquijo eta Menéndez Pidal-en beldurrak ez zirela funsgabekoak. Aski da, horretaz jabetzeko, orduko ideia eta ikusmoldeei so egitea. Puristek hizkuntza berri bat, goitik behera ordura arte ez bezalakoa, egin nahiz zebiltzan. Urte haietan Soloeta-Dima eta bestek —Arriandiaga, Eleizalde bera etab.— sasi-hizkera asmatu baten ildotik sartu nahi dute euskara. Bazen, bada, oinarririk susmo txar horrentzat.

Horiek hola, Euskaltzaindiak konprenitzen du ezin daitekeela lasterregi ibil. Gainera, non zeuden eskolak hizkera batu hori irakasteko? Garai hartako Euskal Herria nekazari-giro batean bizi zen, bakoitza bere txokoari eta txokoko hizkerari lotua. Euskarak ez zuen sarrerarik eskoletan. Bistan da ezer guti egin zitekeela egoera horrek zirauen bitartean.

Hala ere, Sebero Altube, Euskaltzaindian sartzean, ausarki jarriko da batasunaren alde. Ikus Euskaltzaindian egin zuen sarrera-hitzaldia: «Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia» (23).

Eta Azkue, noski. Azkuek proposatuko du bide konkretu eta jakin bat hizkera batu hori moldatzeko, hots, «gipuzkera osotua». Ikus izen honekin idatzi zuen saioa (24).

Beraz, guztion euskara hau gipuzkeran oinarritua izango zen, baina gipuzkera horrek beste euskalkietatik hartutako osagaiz osatua eta borobildua egon behar zuen. Badirudi batasunerako formula hau —ez izana, presiski—, Victor Garitaonandiagandik hartu zuela Azkuek (25).

Nolakoa zen Azkueren gipuzkera osotu hori? Gaur badakigu zenbaitek, euskara batua arbuiatzeko, Azkueren gipuzkera osotua hartzen duela ahotan: hau izango litzateke onargarri, ez bestea. Baina esan behar da gipuzkera osotua eta euskara batua anaia bixkiak direla; senide hurbilak bai behintzat. Egia da gipuzkera osotuan ez zela «H» dontsua sartzen, baina gainerakoan antz handia dute biek. Hala aitortzen du Mitxelenak:

«Este guipuzcoano enriquecido y desdialectalizado en intención coincidía de manera notable, en contra de lo que reiteradamente se ha sostenido, con el *euskara batua*: a este simplemente se le buscarían los orígenes algo más hacia el Este (y, si acaso, algo más arriba en el tiempo) que a aquél» (26).

Azkueren gipuzkera osotua nolakoa zen jakiteko, Azkue berak hizkera horretan idatzitako lanak ikusi besterik ez dago. Esate baterako, *Ardi Galdua* elaberria, 1918. urtean aterea. Gainera, Euskaltzaindian bada argitaragabeko Azkueren beste lan bat, hots, Kempis-en itzulpena, gipuzkera osotu horretan egina. Dirudenez, Azkueren azken urteetako lana da. Gipuzkeran sustraitua, bai, baina gaurko gipuzkera arruntetik urrun samar gelditzen da.

Nolako arrakasta izan zuen Azkuek proposatutako bideak? Hala-holakoa. Jakin behar da Azkueren gauza izan zela, soilki, zeren Euskaltzaindiak, Euskaltzaindi denez, ez baitzuen deus erabaki. Olabide, Andima eta Zaitegi izango dira, segur aski, bide horretatik ibiltzen gehienik saiatu zirenak. Baina, edo Azkueren idaztanka elkor samarra delako, handik eta hemendik hartutako hitz, atzizki eta itzulika guti ezagunak sartzen dituelako, edo/eta orduko Euskal Herrian honelako asmo bati zabalbiderik ikusten ez zitzaiolako, giro faltaz edo, ez zuen arrakasta handirik izan.

Gero, badakigu, Espainiako gerra zibila dator, eta gerra ondoko urteak. Euskal gauzek isilune luzea ezagutzen dute. Eta berriz ere isilunearen ondoren zerbait argitara irteten hasten denean, euskalki biziari lotzen dira. Hala Salbatore, Manzisidor, *Egan* aldizkaria, etab.

Hala ere, eta oso goiz —1950. urte inguruan, alegia— hasten da jadanik Krutwig jauna auzi honen bir-planteaketa egiten. Krutwig jaunarentzat batasunaren auzia guztiz sinplea da: lapurtarrak Hegoaldeko euskaldunak baino askoz lehenago hasi ziren euskaraz idazten eta idazle handiak eman dizkiote euskarari: Leizarraga, Axular, Sarako Etxeberri... Horiek ditugu geure klasikoak. Beraz, haiek erabilitako hizkera edo euskara-mota, hori da euskaldun guztiek idatzizko zereginetarako hartu behar luketeena. Lapurdiera zaharra, beraz (27).

Euskal Herriak 1960tik 1970era bitarteko hamarkadan urrats handi bat egiten du. Orduan gertatzen da nekazari-girotik industri-girora aldatzea. Eta belaunaldi berriak orain arte ez bezalako arranguraz sentituko du problema honi lehen-bai-lehen soluzioa eman behar zaiola, Beti gerotik gerora luzatzen ibili gabe.

1962aren aldera Oskillasok —J. Basterretxea— auzian parte hartzen du. Hona hemen, mamiz, jaun honek zioena: Gipuzkera osotua zer bilakatu da? Gipuzkera huts-soila eta arrunta. Horrek ez du interesik gipuztzentzat izan ezik. Euskara osotua behar dugu, ez gipuzkera osotua. Eta berak euskara osotu horretan H ere onartzen du (28).

1964. urtean Baionako Euskal Idazkaritzak bilera batzuk egiten ditu batasunari buruz eta bai hartako liburuska edo agiri bat agertu ere. Epeka joateko erabaki batzuk proposatzen ditu.

Gabriel Arestiren *Maldan behera* poeman (29) eta olerkari beraren beste olerki batzuetan garbi nabari dira euskara batu baten hazpegiak. Baita Jon Miranderen prosagintzan ere. Alfontso Irigoienek eta *Anaitasuna*, Bilboko aldizkariak helburu horretarantz zuzentzen dituzte pausoak.

Bada bazterretan kezka bat, gero eta zabalduagoa. 1968an *Jakin* eta *Gure Herria* aldizkariak batasunari buruz txostenak agertzen dituzte.

Kezka hau aintzat hartuz, Euskaltzaindia euskara batu horren arazoan gidaritza hartzera jarriko da. Izan ere bada orain giro bat eta badira indar batzuk lehen ez zirenak. Hori da Mitxelenak «indar biologikoak» aipatzearekin esan nahi zuena. Izan ere, alferrik da batasunerako aurre-asmo edo plan bat egitea, gero asmo hori praktikara eramateko ez girorik,

ez biderik, ez indarrik ez baldin bada. Hori gertatu zen, neurri handi batean, Euskaltzaindiaren lehen urteetako batasun-asmoekin.

Baina orain beste giro bat eta beste indar batzuk somatzen ziren. Eta eskabideari erantzuna eman behar zitzaiola uste izan zuen Euskaltzaindiak. Izan ere, bere Sortarauetan agintzen zena egin gabe zeukan oraindik.

1968. urtean Euskaltzaindiak bere urrezko eztaiak ospatu zituen. Hori dela eta, Arestik eskatu zuen, batasunaren auzia erabakitzeko, Biltzar bat, berariaz gai honi eskainia, egin zezala. Euskaltzaindiaren aginduz txostenak eskatu ziren, baina Mitxelenari egotzi zitzaion batasunaren aurre-asmo orokor bat taxutzeko agindua.

Guztiok dakiten bezala, Biltzar hura Arantzazun egin zen. Eztabaida zaratatsuak egon ziren, batez ere ortografian H onartzeari buruz. Euskaltzaindiak erabaki zuen begi onez ikusiko zuela letra honi euskal ortografia arruntean sarrera ematea (30).

Ondoko hamar urteak (1968-1978) esperimentu-gisa hartu ziren. Ea H-aren erabilerak Hegoaldean erroak egiten zituen ala ez ikusteko, alegia. Bitarte horretan behin baino gehiagotan eskatzen zaio Euskaltzaindiari Arantzazuko agiri hura deusezta dezan. Euskaltzaindiak beti erantzuten du hamar urteko epe hori pasa arte ez duela deus egin nahi H-aren arazo honetan (31).

Behin baino gehiagotan esan izan da batasunaren alde jartzearekin —eta konkretuki, 1968ko Biltzar horrekin— Euskaltzaindia desbideratu egin zela. Hemen laburzki kontatu dugun aitzinaldia (Euskaltzaindia sortu aurreko, sortzeko eta sortu ondoko historia, alegia) aski dela uste dugu salakuntza horren funsgabea ikusteko.

Hamar urteak betetzen direnean, beste Biltzar bat ospatzen da Bergaran (1978). Estadistika-lanak agintzen dira Arantzazuko Agiriari zer-nolako erantzuna eman zaion neurtzeko. Estadistika horiek erakustera ematen dute, kontrakarrak gora-behera, erantzuna, oro har, baiezkoa izan dela. Orduan Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako bideari birrespena ematen dio (32).

Azkenik, hurrengo urtean H letraren ortografiari buruz arau zehatzak hartzen dira (33).

Euskara batua ez dago erabat eta alde guztiz egina, noski, urrats handi batzuk eman badira ere. Mende honen hasieran Pompeu Fabra jaunak katalan batua moldatu zuen, eta tresna honek katalanari izugarritzko barne indar eta gaitasuna ekarri dio. Pompeu Fabra-k 1913. urtean «Normes Ortogràfiques» direlakoak ateratzen ditu; 1918.ean, berriz, «Gramàtica», eta 1932.ean Hiztegia. Beraz, urte guti behar izan zituen obra haundi hau burutzeko (34).

Euskaran gauzak ez dira hain errazak eta hain laster egitekoak. Moztasun eta atzerapen handiaz harrapatu gaitu mende berriak. Nahi-eta-ez geldixeago ibili behar.

3

Ortografiaren bateratzea

Hemendik hasi behar zen eta hemendik hasi zen Euskaltzaindia. Izan ere, hizkera batuak hizkera idatziak dira batipat, hots, belarriz baino areago, begiz sartzen direnak. Orain bada, hizkera idatziaren soinekoa, jazkera, ortografia izan ohi da. Hizkuntzaren hedadura guztian ortografia bateratua, hots, berdina, egotea guztiz da beharrezko. Gainera, berdina izatean datza erraztasunaren sekretua. Hitz berberak bospasei modutara idazten baldin badira, hori da

hizkuntza hura sekula ez ikasteko bidea. Maisu gaxoak nola irakats diezaioke haurrari hizkuntza bat, idazmoldea sendo finkaturik eta bateraturik ez den bitartean?

Beste arrazoirik ere bazen ortografiatik hasteko, hots, esparru hau bateratzea errazagoa zela. Izan ere, gramatika eta hiztegian istilu larriagoak eta ugariagoak ditugu. Bidezko zen, bada, errezenetik hastea.

Gainera, ortografiaren batasuna ia eginik zegoen jadanik. Euskaltzaindiak bere sortze-egunean erabaki zuen ortografia, eta punturik gehienetan onartua izan da. Batasun osora heltzeko gelditzen zen oztopo ia bakarra, H letrarena zen. Esan behar da Euskaltzaindiak bere sortze-egunean ortografia erabaki zuenean, euskararen abezeko letren artean, han jarri zuela H ere. Baina pratikan bikoiztasun bat zegoen: Hegoaldekoek ez zutela H-rik erabiltzen, Iparraldekoek, aldiz, bai. Guztiok dakiten bezala, H-aren auzi honetan kokatu zen euskara batuari buruzko polemika. Badirudi gainditua gelditu dela jadanik. Euskaltzaindiak arau zehatzak eman zituen letra honen erabilerari buruz (1979). Ez gara hemen hasiko ortografia honen arazoak eta xehetasunak ematen (35).

H-aren erabaki honekin Euskaltzaindiaren sorreran idikitako prozesuari bukaera eman zaiola esan genezake.

Beste puntu bat, ortografiari dagokiona, bustidurena zen: zer neurritan gorde behar ziren bustidurak idazkeran. Horretan Eleizalde berak markatu zuen bidea (36), hots: esanahiaren aldaketa berekin ez dakarten bustidurak idazkeran ez jartzeko eskatu zuen; besteak, berriz, bai. Azkuek bide beretik jo zuen (37). Euskaltzaindiak ere bide hau hartu eta erabaki du (38).

Beraz, ortografiaren batasuna, Euskaltzaindiaren aldetik behintzat, bururatua gelditu dela esan genezake.

Zerbait gelditzen zen oraindik ortografiaren esparru honetan erabaki gabe, hots, kultur hitzen eta mailegu berrien ortografia, eta hori ere azken urteotan egin du Euskaltzaindiak; baina horretaz azkeneko kapituluan mintzatuko gara laburzki.

Apostrofo, marratxo, galde eta harridura-markak erabiltzeari buruz ere orientabide batzuk eman zituen Euskaltzaindiak (39).

Hiztegi-kontuan

Hiztegi-kontuan, egia esan, Euskaltzaindiak, Euskaltzaindi denez, gaur artio ez du askotzarik egin, zuzenean behintzat. Bazen oinarrizko puntu bat argitu beharrezkoa, hots, zer den eta zeri deitu behar zaion euskal hitza. Adibide bat jartzeko: *errege* eta *bakaldun*-en artean, biotatik zein da euskal hitza, aurrenekoa ala bigarrena? Horretaz Euskaltzaindiak 1959an eman zuen Agiri famatu bat: beroni buruz zerbait esan dugu aurreko kapituluan (40), eta ez goaz gehiago esatera.

Euskara batuaren premietarako hitzen aldaeren —hots, varianteen— artean halako hautespen bat ere egin zuen (41). Eta «Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia ere bai» (42).

Orotariko Euskal Hiztegia (Diccionario General Vasco) Euskaltzaindiaren aginduz Mitxelenak (G.B.), Ibon Sarasolaren laguntzaz, urte askotan zehar landu du eta funtsean bururatua utzi digu. Hiztegi hau ez da, noski, zuzenean batasunari begira egina, baina zeharka horretarako ere asko lagunduko du, euskal literaturaren tradizioa zein izan den erakutsiz. Honelako tresna baten noraezko beharra duela gaur euskarak agerian da.

Beste lan handi bat —bidetan dagoena hau ere— zera da: Ibon Sarasolaren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia*. Lan hau hartu zuen Ibonek Euskaltzaindiarekin har-emanetan zela eta bereziki Mitxelenarekin elkar harturik egiteko. Hiztegi hau, bai, zuzenean euskara batuaren premietarako kontzebetua da. Hitzen erabilerarako arauak dakartza: hitzaren kategoria gramatikala, adierak, maiztasuna, hitzaren maila (arrunta ala klasikoa den etab., zeren eta hitz guztiak ez baitira berdin egokiak noiznahi eta nonahi erabiliak izateko eta horretarako

hitzaren maila edo nibela jakin behar da), hitzetatik sortzen diren itzulika bereziak, etab. Honelako tresna bat ere zein beharrezkoa dugun, euskal gauzetan pixka bat sartua den edozeinek daki.

Gramatika-sailean

Azken urteotan urrats handiak egin dira arlo honetan. Hona eman diren erabakiak: Deklinabidea E (1968), 151; (1979), 633; Erakusleak E (1979), 627.

Urratsik handiena, ordea, aditzarena izan da. Bi ekinalditan egin zen lan zail eta korapilotsu hau: aditz laguntzailea lehenik (Ikus E (1973), 20); eta aditz trinkoak, gero (Ikus E (1977), 787). Euskaltzaindiko aditz-batzordeak ekintza hau burutzeko egin behar izan zituen bilerez, erabili zituen erizpideez etab. Patxi Altunak idatzi du (43).

Aditz-kontuan euskalki bakoitzak bere sistema duela, funtsean bat hartzea beste biderik ez zen ikusten, eta bat hori gipuzkoarra izan da. Funtsean esan dut, ezen azaleko zenbait gauzetan besteetatik ere hartu da. Eta gipuzkoarra hartu da zeren gaur-egun hizkuntzak hor baitu indarrik gehiena, euskal literatura hor lantzen eta saltzen baita gehienik.

Azken urteotan, berriz, Euskaltzaindia bere-berea duen Gramatika taxutzen ari da. Lan haundia hauxe. 1985. urtean agertu zen lehen liburukia (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*) eta bidetan daude besteak.

Hemen galde bat ez da alferretan egina izango. Euskara batu hori lehengo idatz-hizkera zahar batean ala oraingo euskara mintzatuan oinarritzen ote da? Bi aukera hauek disiuntzio erara aurkeztu ohi ziren behiala (adibidez, Champion-Broussainen txostenean): bat ala beste. Gaur, berriz, bat eta beste erantzun behar dela pentsatzen da. Izan ere, idatz hizkeran badira mailak, badira estratuak edo nibelak. Nibel arrunterako ongi heldu diren hitz eta itzulikak, gaizki heldu dira nibel hotz, larderiatsu eta ospetsurako; eta alderantziz. Honelako aldrebeskeriak egiten dira, bai, euskaraz. Sermoi batean, esate baterako, ez dira egoki honelako hitz edo esaerak: «Kaxo!», «Ez zaigu kaskoan sartzen», «Sartu hori kolkoan» etab.

Hizkuntza landuetan bada nibel klasikoa deritzana, hizkera zaharretik hartua eta hizkerari halako goratasuna eta ospea eman ohi diona. Zahar kutsuak hizkerari, ardoari bezala, balioa ez kendu, baina gehitu ohi dio. Jakina denez, frantses oso klasikoa erabili ohi zuen de Gaullek bere hitzaldietan. Nolanahi den, euskara batuak bietatik behar du. Azken finean, hizkuntzarentzat aberasgarri dira biak. Noiz eta zer neurritan erabili bata eta bestea, hori norberak beharko du ikusi eta ikasi (44).

4

Eta azkeneko galdea: Zertarako da euskara batua? Ezen euskalki literarioak ere hor dira.

Euskara batua dugunez gero, beste horiek balio gabe eta usariotik baztertuak gelditu behar ote dute? Ez, noski. Baina goazen emeki.

Hizkuntza landuak behar-beharrezko du hizkera batu bat edukitzea. Bat eta bakarra, hizkuntzaren hedadura guztian onartua.

Hizkera hori idatzizko zereginetan erabiltzen da batez ere (horrek ez du esan nahi mintzatzeko balio ez duenik, guztiz ere mintzatzailleak besterik ez badaki). Hizkera hau eskola-bidez ikasi beharra dago eta lokarri bat da hizkuntzaren erabiltzaile guztien artean.

Baina euskarak hori euskalki literarioak ere: bizkaiera, gipuzkera, lapurdiera, zuberera. Horiek ere euskara batu batzuk dira, euskalki bateko hizkera bizian guti asko oinarrituak.

Honek problema bat sortzen du: Zer erlaziotan dago euskara batua euskalki literario horiekin? Euskalki literarioak ere bistan da idazteko eginak izan direla, eta badute beren literatur kondaira, beren idazleak, hots, beren atzekalde edo tradizioa.

Euskara batua dugula eta, ukatu behar zaizkie horiei eskubide guztiak? Ez, noski. Euskaltzaindiak nahi du horiek ere lant daitezen. Gehiago oraindik: idatz-jenero edo mota batzuetarako —ipuina, elaberria, teatroa—, sorkuntz literaturan erabiltzeko etab., egokiagoak izan daitezke oraingoz euskalkiak, euskara batua bera baino. Oraingoz, esan dugu; gero zer izanen den ez dakigu. Izan ere, gaurkoz euskara batua hizkera aseptiko bat da, orokorra, halako kolore edo zapore berezirik ez duten idazmoldeak egiteko ona. Bestelakoetarako, berriz, sorkuntz literaturaren lanetarako, trebeago eta hartarakoagoak dira euskalkiak, tradizio literario baten jabe direlako.

Hala aitortzen du Mitxelena berak: «... poner a la lengua vasca escrita, y más a la destinada a la enseñanza y a la administración que la propiamente literaria, en vías de unificación» (45).

Euskaltzaindiak Agiri berezi bat eman du gai honetaz: «Euskara batua, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak» (46). Eta beste bat oraino: «Euskara batua eta euskalkiak irakaskuntzan» (47). Pedagogi lanean kontutan hartu behar dela haurren ahozko hizkera, hori dio azkeneko honek.

Aipatutako Agiri horretan (lehenbizikoan), mamiz, hauxe esaten da: Euskaltzaindiak nahi duela euskalkiak (eta tokian tokiko hizkerak) lant daitezen, baina bi baldintzekin: ortografia orokorra zaintzea (zeren ortografiak bat behar baitu izan hizkuntza osoan), eta hizkuntzaren azpiegitura edo oinarri batua ere zaintzea. Ez du nahi, euskalkien aitzakiaz, euskaldunen artean leize eta banaketak geroago eta handiago bihurtzea.

Bizkaian eta Zuberoan, hots, bazterretako euskalkietan, sentitzen da gehiago norbere euskalkiaren atxikidura, eta konprenitzekoa ere bada neurri batean, zer euskara batutik urrunenik horiek baitira. Horregatik ere euskalki berezia lantzeari ez zaio atea itxi behar. Beste aldetik, ordea, hau ere ez da ahantzi behar: bizkaitarrek (mintzoz bizkaitar direnek) sentitu dutela gehienik tresna orokor eta batu baten beharra eta beroiek egin dutela lanik gehiena horren alde. Bi jokaera hauek, elkarren aurkakoak badirudite ere, badute esplikazio jator bat.

Zernahi gisaz, eta bukatzeko, hau esan daitekeela uste dut: euskara batuarena izan dela Euskaltzaindiak azkenaldi honetan beregain hartu duen obrarik handiena eta euskarari indar eta arnasberri gehien ekarri diona. Horrek ez du esan nahi akatsak egon ez direnik, gizonaren obra denetan egon ohi diren bezala.

Oharrak

1. Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztua eta onartua izan da berriki tesi bat euskara batuari buruz. Beronen egilea, Koldo Zuazo. Ez dugu tesi hori ezagutzeko aukerarik izan.
2. *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*; Heuscalduney; Hordago, Euskal Klasikoak 18.
3. *Ikus Gero*; Ax 8.

4. *Gero*, 1643; Ax 8.
5. URQUIJO (Julio de), *Obras vascongadas del doctor labortano Joanes d'Etcheberri*, Paris, 1907; p. 59. Euskal testuari buruz duda izpirik bada, latinezko itzulpenak kenduko digu: «Propterea igitur huic nostro Cantabrisimo tutore orbato, per tot saeculorumque curricula, inter rupes, fluxus et refluxus maris, quasi in extremo versanti agone unum solum Auctorem, et Duces pervestigare vellem: unum dixi, et illum solum, quia saepe congruentius esset omnino carere, quam pluribus abundare» (Esku iskributik hartua).
6. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*; n.º 234.
7. Honekin ez dugu esan nahi euskarak orain arte ez duela honelakorik bat ere izan. Hor dira euskalki literarioak. Baina, alde batetik, horiek ere berri samarrak, eta, bestetik, gehiegixto ere bai, zeren hizkuntza orokorki batu beharrean, zatikatu egiten baitute, lau ataletan bereizten baitute.
8. Ikus J. VENDRYES, *El Lenguaje. Introducción lingüística a la Historia*, Barcelona 1943; 4.ª parte, cap. III «Las Lenguas Comunes», p. 345 ss.
9. *Itsasoa eta ni*, 56. orr.
10. VENDRYES, *El Lenguaje*, 5.ª parte, Cap. 2.º, p. 450-452.
11. ELEIZALDE (L. de) «Metodología para la restauración del euzkera», *I Congreso de Estudios Vascos*, p. 434-435.
12. Uste dut gaur batzuek *basilekto* deitzen diotela hizkuntza batuaren oinarri izateko hartzen den hizketa-moduari.
13. *Euskera* (1979), 465.
14. Gogora dezagun Campionen Gramatikaren tituluak: *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*; Tolosa, 1884.
15. *De la lengua euskera o de los bascongados*, Madrid, 1856, p. 218.
16. *Resurrección M.ª de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa (1897-1920)*. Piarres Charrittonek paratua; Euskaltzaindia, Iker-4, Bilbo, 1986.
17. O. cit., 315-316 orr. (1919ko Martxoaren 10ean egindako eskutitza).
18. *I Congreso de Estudios Vascos*, 428.
19. O. cit., p. 436-437.
20. *Euskaltzaindiaren Sortarauak. Estatutos de la Academia de la Lengua Vasca*, Bilbao 1920, art. 6, p. 3.
21. Cf. *Euskera* (1922), 1 zenbakia, 4-17.
22. Julio de URQUIJO, «Lengua internacional y lenguas nacionales. El euskera lengua de civilización» *Riev X* (1919), 164-180. Ramón MENENDEZ PIDAL «Introducción al estudio de la lingüística vasca» in *Curso de Lingüística*, Sociedad de Estudios Vascos, 1921.— L. VILLASANTE, «D. Julio de Urquijo y el problema de la unificación del euskera literario» *ASJU* (1971), 25.
23. *Euskera* (1921), I zenbakia, 3-49.
24. *Euskera* (1934-1935), 288. Ikus MICHELENA «La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco» in *Lengua e Historia*, 213.
25. Ikus AZKUE «Primer Apéndice de la Morfología Vasca», *Euskera* (1933), 222.
26. Prólogo de Michelena in VILLASANTE, *La H en la Ortografía vasca*; p. 9.
27. Ikus VILLASANTE, *La H en la Ortografía vasca*, p. 28. Villasanteren Sarrera-hitzaldia Euskaltzaindian: «Literatur euskara, laphurrtarr klasikoaren gain eratu» BAP aldizkarian 1952. urtean agertua.— Itziar MITXELENA «La literatura religiosa labortana del s. XVII» *Muga* n.º 17, año II (1981), p. 62.
28. Ikus *Kurloiak*, Zarautz 1962.— «Ihardespen bat Mitxelena jaunari», *Egan* (1963), 162-181; «Batasunerako urhatsak», *Euskera* (1963), 378ss.
29. Ikus *Euskera* (1960), 189-234.
30. Ikus *Euskera* (1968), 250.
31. Ikus *Euskera* (1974), 391; (1977), 213.
32. Ikus *Euskera* (1978), 866.
33. Ikus *Euskera* (1979), 693.— VILLASANTE, *La H en la Ortografía vasca*, 980 (Serie Eleizalde).
34. Ikus Joan VENEY CLAR «Fabra i els dialectes», *Lluc* aldizkarian (Abril 1968), 9-10.
35. Ikus VILLASANTE, *La H en la Ortografía Vasca*, 1980; Serie Eleizalde, 7).
36. Ikus *I Congreso de Estudios Vascos*, p. 436.
37. Ikus *Ardi Galdua* p. VI nota 5.— IRIGOIEN «Ene eritzia zenbait euskaltzain eta laguntzailek finkaturikako gutun urriko batzarrean tratatuko denaz eta ene erabaki proposamendua» *Euskera* (1977), 208.
38. Ikus «Kontsonante busti-palatalen grafiaz Euskaltzaindiaren agiria», *Euskera* (1979), 91.
39. Ikus «Idatz Arauak» *Euskera* (1971), 143-159; (1972), 168-177.
40. Ikus 90. orr.
41. Ikus «Batasunerako Hiztegia», *Euskera* (1968), 251-265.
42. «Zortzi urte arteko Ikastola hiztegia», *Euskera* (1975), 7-153.
43. «Aditz laguntzaile batuaren gora-beherak», *Euskera* (1977), 667-672.

44. Euskara batuaren murrizte bat delako, badirudi aipatu behar dela hemen Oinarrizko Euskara ere. Jakina denez, Imanol Berriatuak (G.B.) —hobeki esan, Euskaltzaindiko batzorde batek, hura buru zela— prestatu zuen euskara oinarrizko eta mailakatu hori. Imanol Berriatua maiz zebilen euskararen auzi honen zehaztasun eta xehetasunez kezkatua: Euskal-Herria deitzen dugun herri honek bi miloi biztanle ditu. Horietarik euskaraz hitz egiten dakitenak miloi erdi eta zerbait gehiago dira. Horietarik euskaraz irakurtzen eta idazten dakitenak, zenbat izango ote dira? Hamabost mila? Gure herria euskaldundu nahi bada, batez ere pertsona helduentzat noraezekoa da metodo bat bilatzea, estruktura zailak eta hain beharrezko ez direnak baztertuz. Hala egin du berak *Hitz Egin* metodoan. Zer sartzen den metodo horren hiru mailetan jakiteko, ikus Berriatuaren txostena: «Oinarrizko euskararako batzordearen azalpena», *Euskera* (1981), 481.

45. Ikus VILLASANTE, *La H en la ortografía vasca*, Prólogo, 5.

46. Ikus *Euskera* (1979), 101.

47. Ikus *Euskera* (1979), 697.

VII. Kapituluua. Euskaltzaindia

Laburpena

Hizkuntz Akademia baten premiaz, guztiz ere euskararen kasuan.— Joan mendeetan behar hori sumatu zutenak.— Euskaltzaindiaren sorrera noiz eta nola gertatu zen.— Euskaltzaindiaren xede eta helburuak.— Iker Saila eta Jagon Saila.— Euskaltzaindiak azken aldian bultzatu dituen lanak.— Euskaltzaindiari artez eta zuzenki dagokiona eta berak bakarrik egin dezakeena: hizkuntzari buruz arauak eman.— Ikerketa eta erabakien arteko lokarria.— Arau gidari batzuk behar-beharrezkoak dituela hizkuntza landu batek.— Arauok ematea ez dagozkiela Gobernu edo alderdi politikoei.— Euskaltzaindiari eskatu behar ez zaizkionak.

Beste lelo askoren artean honako hau ere entzun behar izaten dugu noiz behinka: «Akademiarik gabeko anitz hizkuntza da munduan, eta osasun onaz bizi dira, gainera. Eta ez basatietan bakarrik, baita herri landuetan ere».

Esango dizute, adibidez, ingelesak ez duela Akademiarik, etab. Bego.

Begien bistan da horrekin zer esan nahi duten: euskarak ere ez duela Euskaltzaindiaren beharrik.

Baina mira ditzagun gauzak hurbilagotik. Hizkuntza landuek ez dutela ezein edo inolazko Akademiaren beharrik? Um! Jakina, hauen zeregina beste nolazpait betetzen baldin bada, ez, noski.

Eta ohart honi, auzi honetan garrantzi handiko xehetasuna baita: badira hizkuntza batzuk beren literatur tresna —hots, beren hizkera batua edo normalizapena— poliki-poliki, soseguz, ezarian edo igarri gabe bezala moldatu baitute. Hizkuntzaren bizia ez zen arriskutan. Halako presarik ere ez zen ikusten eta hala beren erreminta gizaldietan zehar trenpatu ahal izan dute. Hizkuntza horiek gure arora iritsi dira dena edo ia dena egina dutelarik. Horietan Akademia baten behar handirik ez egotea konprenitzen da (1).

Behiala gauza hauek presa gabe, lehia gabe eta berez bezala egin ohi ziren. Baina behialako neurriekin gaurko bizi moldea neurtu behar ote da? Gaur ere gauza hauek bere denbora behar dute, noski, baina lehen baino epe laburragoan egin behar izaten dira, bizitzearen martxa bera lasterragoa bihurtu delako, eta hori aparteko modu batez gertatzen da hil zorian, guztia beharrean eta bestek itoa izateko zorian dagoen hizkuntzaren kasuan.

Akademiaren beharrik ezak gure kasuan balio lezake? Ez dut uste. Hizkuntza bat bere kasa utzia, inoren jabetasunik gabea, babesik eta laguntzarik gabea, kultur zentzurik eta lantzailetalderik bat ere edo oso guti izan duenik baldin bada munduan, euskara izan da. Kenka larrian dagoelarik heldu da gure mendera arte. Baina heldu da moztasun handiz, on-behar, eskas eta errumes. Gauzak hotz-hotzean eta diren bezala hartuz, nola esan daiteke, bada, euskarak ez duela Akademiaren —edo horren ordezkotzat— beharrik?

Bai. Aita Larramendi polemikari azkarrak esan zuen inoiz horrelakorik. Ez dakigu ziur zergatik: edo egiaz hala uste zuelako, edo Real Academia Españolako hizkelzainei adarra jotzeagatik.

Larramendiren aburuz asmatzaile jakintsu baten obra da euskara, eta, beraz, hain da konplutua eta egin-eginekoa, non ez baitu konpontzaile beharrik (2). Asmatzaile hori Jainkoa

da, noski. Larramendirentzat euskara Jainkoak artez eta zuzen-zuzenean egina da. Haren obra hobe daitekeela pentsatzea txorakeria eta are biraoa ere bada.

Haatik, mundua ere Jainkoak egina da, baina Jainkoak ez ote du gizonaren eskuetan utzi, honek ere lant eta burura dezan?

Zernahi gisaz, Larramendik hori XVIII. mendean zioen. Eta hurrengo mendean, XIX.ean, euskarak Akademia bat behar duela, geroago eta usuago entzungo dugu.

Ulibarri Galindez perratzailearen Gutunliburuan bertso jakin batzuk datoz, egileak 1832. urtean Novia de Salcedo jaunari zuzenduak:

Ogeta lau gizon
bear dira izentau
Gernikako batzarrean
euskeraren ganean
egiteko alegin au (3).

Beraz, Akademia edo talderen bat, 24 gizonez osatua, nahi zuen Ulibarrik euskararen arazoa bideratzeko.

Aizkibel-en lekukotasun argia honen aurreko kapituluan aipatu genuen. Ez goaz, bada, berriz aipatzera.

Duvoisin kapitainak ere Antoine d'Abbadie-ri egindako eskutitzetan behin eta berriz ukitzen du gai hau: euskal Akademia bat behar dela, alegia (dirudienez, Abbadie beraren asmoa zen hau, gero Duvoisinek bereganatua eta suharki sustatua) (4).

Manterolaren kantutegian ere Akademia bat ez egotetik sortzen den mozkeria deitoratzen da (5).

1886. urtean Durangoko Euskal Jaietan Aristides Artiñano jaunak lau haizetara zabaltzen du euskal Akademia baten aitzin-asmoa. Asmo huts-soila baino gehiago da, gainera, zeren Arautegi eta guzti eratua aurkezten baitu (6).

Broussain-en eskutitzetan, Azkueren eskutitzetan etab. maiz aipatzen da Akademia dontsuaren beharra eta asmoa (7). Urrats batzuk ere ematen dira Akademia hori sortzeko, baina ordukotz alfer-lan gelditzen dira.

Agintarien babesa behar zela garbi ikusi zen. Hori gabe, horrelako Erakunde bat sortzea ezina zen. Izan ere, Erakunde publikoa eta autoritatez hornitua nahi eta behar zen. Bere egitekoa betetzekoan autonomia izango zuena, hori bai, baina agintari legezkoek sortua eta sostengatua.

Euskal Herrian garai hartan lau probintzietako Diputazioak ziren aginte legezko horren sujetuak. Eta azkenik, eta zorionean, 1918. urtean, horiek hartuko dute erantzukizuna auzi honetan.

Cosme de Elgezabal eta Felix de Landaburu jaunek eskatzen diote Bizkaiko Diputazioari, beste euskal Diputazioekin elkarturik, har dezala bere gain Euskararen Akademia sortzearen ardura. Bere aldetik baietz esan ondoren Bizkaiko Diputazioak eskea egiten die beste hiruei (Araba, Gipuzkoa eta Nafarroakoari). Lauek ontzat hartzen dute eta Akademia sortzea eta babestea erabakitzen dute.

Nola urte hartako udan Eusko Ikaskuntzaren I Kongresoa Oñatin egiteko baitzen, hari egotzi zioten arazo nau aztertu, mamitu eta bideratzeko ardura. Eta Eusko Ikaskuntzak ederki baino ederkiago bete zuen bere egitekoa.

Oñatiko Kongresoan bazen hizkuntzaren saila. Bertan aztertu zen auzia, eta erabaki zen baietz; behar zela Erakunde bat sortu, autoritatez hornitua, euskararekiko arazoak nolabait gidatzeko. Eta Erakunde honen hazpegiak ere bertan marraztu ziren.

Luze eztabaidatu zen Oñatin ez ote ziren, baten ordean, bi Erakunde sortu behar: bata euskara ikertzeko eta bestea zaintzeko (ezen ikertzaile hutsak ez omen dira euskararen biziaz axolatzen, eta, bestalde, euskararen biziaz kezkatzen direnek ikerketaz axola guti omen dute). Azkenean erabaki zen Erakunde bat bakarra sortzea, baina bi sailez osatua: Iker saila eta Jagon saila. Erakunde honen Arautegia (Estatutuak) ere Eusko Ikaskuntzak egin arazi zituen.

Lehen euskaltzainen (akademikoen) izendapena ere Eusko Ikaskuntzaren ardurapean egin zen. Aurrengo lauak Oñatin bertan izendatu ziren: Azkue, Eleizalde, Campion eta Urquijo. Gainerako zortziak, berriz, Donostian 1919. urtean (8).

Interesgarri da jakitea nortzuri eman zitzaizkien ahala zortzi euskaltzainok hautatzeko, hots: Oñatin aukeratutako lauei eta aldi hartako euskal aldizkariaren zuzendariei. Bai. «Compromisario» gisa, euskal aldizkariaren zuzendariak izan zuten izendapen horretan botu emateko eskubidea. Aldizkari horiek ziren *Eskualduna*, *Euskal-Esnalea*, *Irujarrenko Prantziskotarra*, *Jesusen Biotzaren Deia*, *Jaungoiko Zale*, *Euskal-Erria*, *Riev* eta *Euskal-Erriaren Alde*. Eta aukeratuak izan zirenak: Domingo Agirre, Pierre Broussain, Adema (gaztea), R. Inzagaray, J. Agerre, J.B. Eguzkitza, R. Olabide eta P. Lhande (9).

Urte asko geroago, Juan Carlos Espainiako Erregeak, 1976ko Otsailaren 26an, Onartze-Dekretua ematen du Euskaltzaindiaren alde. Autonomiako Estatutuan ere aholku emaitzat hartzen da Euskaltzaindia.

Hauek dira Euskaltzaindiaren jatorrizko eta legezko oinarriak. Erakunde publiko bat da, beraz. Agintariek sortua, babestua, eta xede edo eginkizun jakin baterako sortua eta hartarako autoritatez hornitua.

Azter dezagun pixka bat sakonkiago zein den xede hau edo eginkizun hau. Estatutuetan Iker saila eta Jagon saila hitzok inguratzen da dena. Beraz, hau da eremua. Eremu bikoitza. Baina eremu hau guztiz da zabala eta askotariko zereginetara zabal daiteke eta zabaltzen ere da.

Inoiz bota izan zaio Euskaltzaindiari aurpegira beste Akademiek egiten ez dituzten gauzetan sartzen duela sudurra. Eta egia. Baina sortzez eta egituraz ere bi eremu nahiko desberdin eta guztiz zabalak ditu: hizkuntza aztertzea eta zaintzea. Eta euskararen egoera ere ez da gaztelania, frantsesa eta beste horrelako hizkuntzena bezalakoa. Euskara guztia beharrez dago. Egoera normal batean egin beharko ez lituzkeen zenbait gauza egin beharrez gertatu izan da askotan Euskaltzaindia, eta egin ere ditu. Beste inork egiten ez zituelako eta egin beharrekoak zirelako. Eta ezin esan daiteke horiek egitean, bere helburuetatik kanpo zebilela, zeren Iker saileko edo Jagon saileko gauzak izaten baitira (10).

Adibidez aipa daiteke Alfabetatze-ekintza, Ricardo Arregik sortua eta Euskaltzaindiak babestua (11). Bere babespean hartzekotan, Euskaltzaindiak erregela eta baldintza batzuk jarri zituen, ordea (12). Euskaldunak, nahiz eta euskaraz hitz egiten jakin, ez daki gehienetan euskaraz irakurtzen eta idazten. Horretarako jarri zen ekintza hori. Egungo egoeran bere babesik gabe ere ekintza hori egin daitekeelako, Euskaltzaindiak utzi egin du bere eskutik (13).

Antzekoa izan da irakasle-titularen arazoa (14). Euskarak, salbatuko bazen, noraezekoa zuela, hil edo biziko zuela, alegia, eskolan sartzea, garbi ikusten zen. Baina nondik eta nola hasi? Irakaslerik gabe eskolarik ez, eta eskolarik gabe irakaslerik ez. Beste inork egiten ez zuen bitartean, Euskaltzaindiak pentsatu zuen berak hasi behar zuela hartako ikastaroak antolatzen, etsaminak egiten eta agiriak ematen.

Baina arazoa normaltzen den ber, prest dago zama astun hau bere gainetik kentzeko, eta kendu ere du.

Jagon-saila Euskaltzaindiaren barnean denez gero, guztiz normala da, premia denean eta aitzingibeleg eskatzen dutenaren arabera, euskararen aldeko zenbait ekintza Euskaltzaindiak eragitea (ez edozein gauza haatik! Instituzio bati dagozkionetakoak beharko dute izan beti ere).

Euskaltzaindia sortu zeneko lehen urteetan Euskal Egunak antolatu (Durangon, Donezteben) eta berrietan irakurritako lanak liburutan agertu zituen. Literatur sariketak ere antolatzen zituen, euskal etsamintara ordezkariak bidali, etab. Lizarrako Estatutuan Euskaltzaindiari egozten zitzaizkion ardurak ikusi besterik ez dago gure Akademia, alde horretatik, bere gisakoa dela jakiteko. Eta beharko izan, euskararen egoera ere bere gisakoa denez!

Gerra ondoko urteetan Euskaltzaindiak, ahal izan zuen neurrian, antolatu zituen euskararen aldeko ekintzak, hala nola, literatur sariketak, bertsolarien txapelketak, idazle zaharren oroitzapenezko ospaketak, euskal Gramatika eta Hiztegi-auziak aztertzeke Biltzar ageriak, etab.

Bistan da: Jagon-Saila bere baitan duenez gero, horrelako zereginak, batez ere premia denean, eskubide osoz har ditzake bere gain Euskaltzaindiak eta maiz hartu ditu.

Euskaltzaindiak bere hasiera edo sortzetik du agerkari ofiziala, *Euskera*, bere agiriak, erabakiak eta lanak argitaratzeko. Aldizkari honen Aurkibideak zenbaki berezi batean 1980an agertu ziren.

Azken urte hauetan hiru liburu-sortari hasiera eman die: 1) «Lekukoak»: bertan idazle batez ere zaharren edizio kritikoak azaltzen dira (15). 2) «Iker», euskarari buruz ikerketalanak argitaratzeko sorta. 3) «Jagon» euskararen bizitzeaz zer-ikusi duten lanak argitaratzeko sorta. Eta berriki «Onomasticon Vasconiae», Onomastikari eskainitako liburu-bilduma martxan jarri du.

Liburu-bilduma hauek sortu aurretik *El Libro Blanco del Euskara/Euskararen Liburu Zuria* agertu zuen, euskararen aldeko ekintza honek zer-nolako arrazoiak dituen bere alde adierazteko. Eta Siadecori agindu zion «Estudio Sociolingüístico del euskara» (XII tomotan, multikopiaz) (16). Atzerriko Euskalarien Jardunaldiak ere antolatu zituen eta hartako liburua Iker-sortan agertu zen.

Euskara batua bultzatzea izan da, duda gabe, azken ur-teotako ekintza edo asmo nagusia.

Euskalkien eta tokian tokiko hizkeren bilketa eta azterketak ere bultzatu nahi ditu. Horretarako 1981an Deba-n Dialektologiako ikastaroa eratu zuen (17) eta Euskaltzaindi barnean Dialektologi Batzordea sortu ere bai (18). Geroztik Donaixti-Ibarren, Markinan, Gasteizen etab. jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi hauen xedea izan da jendea prestatzea tokian tokiko euskararen bilketak egiteko, Euskararen Atlas burutzeko. Gaur asmo hau martxan dago Jaurlaritzaren laguntzaz.

Ikusten denez, mota askotako lanak. Eta horietako asko eta asko bestek ere egin zezakeen (teorian behintzat).

Bada, ordea, zerbait Euskaltzaindiari artez eta zuzenki dagokiona, berak bakarrik egin dezakeena, ezin utzizkoa duena, bere zeregin hautatua eta propioa duena. Beste hitzez esanik, galde dezagun: Euskaltzainditasuna, nolabait esan, zertan da?

Erantzuna ez da zaila: hizkuntzari buruz arauak ematea. Horretarako dauka autoritate bat, eginbide eta eskubide bat, berari bakarrik eman zaiona. Hizkuntzan beharrezkoa da honelako autoritate bat egotea, honelako arauak emateko. Baina bat bakarra. Eta autoritate hori Euskaltzaindiak du. Horretarako Euskal Herriak berak, bere ordezkari jatorren bidez,

mandatua eta autoritatea eman zion. Hizkuntza idazte eta erabiltze-kontuan arau gidariak emateko, alegia.

— Zuk juridismo hutsean oinarritzen duzu Euskaltzaindiaren autoritatea, eta hori ezin da onartu —esan dezake norbaitek—. Irakaspenen kalitateaz soilki frogatzen da autoritatea.

— Horrekin ere bai, noski, baina hemen beste zerbait ere behar da, hots, Instituzio publikoak publiko izate horretan du titulu bat bere saileko gauzetan erabaki errutsuak hartzeko. Bere lan hori guztiz desegoki eta gaizki egingo balu, autoritatea galduko lukeela ez da dudarik. Baina hori epaitzen duena nor den ere ikusi beharko da. Guztiok dakigu auzi hauetan nor bere betaurrekoen koloreaz ikusi ohi dituela gauzak; alderdikeriek eta setakeriek maizegi ikusbide zuzena galerazten dutela.

Nolanahi ere, hizkuntzari buruz arau emate lan hori, arau-emaile gisako Hiztegia eta Gramatika taxutzean gorpuztu edo mamitu ohi da. Bai. Euskararen Hiztegia eta Gramatika taxutzea: horra Euskaltzaindiari zuzen-zuzenean dagozkion lanak. Eta oraindik neurri handi batean egin gabe dituela aitortu behar. Baina martxan daude.

Izan ere, gauzak ezin zitezkeen egin harik eta euskara batuaren lerro nagusiak marrazturik egon arte. Gainera, guztiok dakigu Euskaltzaindiak urte guztiz txarrak igaro behar izan dituela, ozta-ozta irau ahal izan duela, eta egoera normalean bestek egin beharko lituzkeen asko gauza egin behar izan dituela, hizkuntzari eusteagatik.

Uste dugu gauzak normaltzen diren ber, pixka bat zeharka heldu zaizkion gauzez libre geldituko dela eta berea denari artez lotuko.

Arauk ematea esan dugu dela Euskaltzaindiaren zeregin propioa. Baina hori behar bezala egin ahal dezan, azterketak egin behar dira aurretik. Azterketak, berriz, ez dira Euskaltzaindiaren monopolioa, normahik egin ditzake eta hobe egingo balitu. Hain zuzen, aztertze edo ikertze-lan hori hizkuntza-arloan atzeratu samar dagoelako, Euskaltzaindiaren arau-emaile lana ere ez dabil behar litzatekeen agudotasunaz. Hemen gauzak kateaturik daude, elkarrekin loturik. Gramatika-ikerketak bultzatzeko batzordea 1980an jarri zuen Euskaltzaindiak (19). Eta Hiztegi-batzordea 1981ean.

Euskaltzaindiak ez du, bada, monopoliorik nahi euskararen aldeko lanetan: ez ikerketan, ez literaturan, irakaskuntzan etab. Aitzitik, nahi du guztiok lan egin dezagun. Sobra ere badaiki langile gutiegi dela euskal eremuan. Baina badu zeregin bat bere-berea duena eta ezin utzizkoa dena: euskararen erabilkerarako arauak ematea. Hori berari bakarrik dagokio, legez hartako sortua eta jarria denez gero. Herriaren ordezkariengandik hartua du mandatua.

Euskara bere hedadura guztian hartzen du Euskaltzaindiak, bere galtzarrean euskalki eta eskualde guztietako ordezkariak dituelarik. Ordezkaritzak ditu Euskal Herriko hiriburuetan. Erabakiak hartzeko baditu bere erregelak, Arautegian garbi eta zehatz jarririk daudenak.

Badakigu auzi hauetan denak eritzi bateko izatea ez ohi dela beti gertatzen. Baina, beste aldetik, hizkuntza erabiltzeko orduan zenbait gauza erabakiak eta bateratuak egotea derrigorrezkoa da, eta gauza horiek erabakitzeko autoritatea norbaitek eduki behar du, eta hori duena, hain zuzen, Euskaltzaindia da.

Egon daitezkeen eritzi desberdinak errespetatu beharko dira, baina horrek ez du esan nahi arrazoi horregatik hizkuntzak eskatzen dituen arauak beti eman gabe egon behar duela Euskaltzaindiak, ezen orduan bere egitekoa ez luke beteko. Eta hori bete dezan sortu zuen batipat gure herriak Erakunde hau. Badira, bada, jokoaren erregela batzuk, Arautegian zehazki ezarriak, eta horien arabera hartzen dira erabakiak.

Zilegi izan bekik Trentoko erabaki bat hemen gogoratzea, gure gaiarekin duen antzagatik. Bibliaren itzulpenak —latinera egindako itzulpenak— ugaritu egin ziren XVI. mendean. Elizkizunetan, eta baita Elizako zenbait agiri eta idazkietan ere, Bibliako pasarteak aipatzerakoan, batek itzulpen batera jotzen zuen, beste batek beste batera etab., eta hortik nahaspila sortzen zen. Nahaspila hori Elizatik kentzeko, Kontzilio hark zer egin zuen?

Itzulpen bat bakarra, Vulgata, autentikotzat jo eta Elizak ofizialtzat hura soilki erabil zezala agindu (20).

Zer esan nahi du, ordea, «autentiko» deklaratzeko horrek? Itzulpen bezala Vulgata hori guztiz ona dela? Ez, noski. Beste itzulpenak baino hobea dela? Ezta hori ere. Kritika aldetik akatsik gabea dela? Hori ere ez.

Hizkuntza baten normalkuntzan zerbait antzeko gertatzen da, bada. Hizkuntza gizartearen lokarria da. Gizarteak, bere har-emanetarako, behar du lokarri hori bateratua egon dadin. Hizkuntza, ordea, bere kasa utzirik denean, zatikatua egon ohi da; baditu mila hari-mutur aidean, han hala eta hemen hola. Egoera horretan dagoen bitartean, lokarri-ofizioa betetzeko ez da gai izaten; batez ere idatzizko zereginak betetzeko. Orduan norbaitek, autoritate batek, alegia, behar ditu puntu horiek erabaki, ez itsu-itsuan, noski, literatur tradizioari, gaurko erabilerari etab. begiratu baizik.

Hala ere, eta arrazoiak gora-behera, eritzi desberdinak egon daitezke eta egoten dira. Urliak nahiago luke honela erabaki, berendiak horrela... Zer egin? Hartako propioki eta berariaz izendaturik dagoen autoritateari utzi erabakitzeko kargua. Horrela, eta horrela bakarrik, egin daiteke batasuna. Bestela, zenbait buru, hainbat aburu.

Teorian aukera bat baino gehiago egon daiteke, pratikan, ordea, bat behar da, eta bat hori aukeratzeko zuzena norbaiti aitortu behar zaio. Eta gure kasuan hartako autoritatea duena Euskaltzaindia da eta ez besterik. Eta autoritate bakarra behar da, bistan da, zeren bestela helburua ez baita irixten. Horregatik zioen Carlos Santamaría jaunak: «Bi Akademia ezin izan daitezke, bi Jainko ezin izan daitezkeen bezalaxe».

Hori bere erara eta aspaldi esana zuen Etxeberrri Sarakoak, hots, aitzindari bat behar zuela euskarak, bat eta bakarra, «zeren asko-orduz ainitz aitzindari eta buruzagien izatea baino hobe bailizate osoki bat ere ez izatea» (22).

Ezin aldatuzkoak eta hutsezinak dira orduan erabakiok? Hori ere ez. Denborakin erabaki batzuk alda edo hobebeharra ikustea gerta daitekeena da, baina beti hartako autoritateak aldatu beharko ditu.

Zenbaitek esan lezake: Autoritate hori behar dela aitortzen dugu, baina zergatik Euskaltzaindia? Zergatik ez Gobernua? Zergatik ez alderdi politiko bat? Alderdi bat ez inondik ere, zeren ez baititu euskaldun guztiak hartzen eta haren aukera politikoa ere ez baita denona. Joera edo aukera politiko batekin euskarak bere burua bat egingo balu, hori euskararen eta Euskal Herriaren kaltetan izango litzateke.

Gobernua ere ez da horretarako gai eta ez egoki. Ez dira haren saileko arazoak. Gainera, Gobernua orain alderdi baten eta bihar beste baten eskuan egon daiteke, eta, esan dugun bezala, alderdiak, herri baten puska eta zati dira, eta euskara herri osoaren ondasuna da. Politikoez, herriaren eta hizkuntzaren onagatik, ez dute uztartu behar euskara beren aukera politikoez.

Euskaltzaindia, ikusi dugun bezala, herriko agintariek, hots, lau Diputazioek, sortu zuten, baina autonomia osoz, euskal eremuko gauzen ardura har zezan. Bera da, bada, sail honetan autoritatez jantzirik dena.

Euskaltzaindiaren izenean Lehendakari jaunari euskaltzainburuak egindako txostenean hala aitortzen da: «Okerreko bidea hartuko genuke euskal kulturaren gidaritza alderdien eskuetan utziko bagenu edo haien irizpideak kulturaren dogmatzat ezarriko bagenu. Edo zinezko euskal kulturarik ez da sekula egonen —behintzat izen hori merezi duen kulturarik— edo kultura horrek autonomia bat beharko du bere zeregina libreki aurrera eraman dezan.

Dauden instituzioei lan egiten utzi, lagundu, baina ez inolaz ere aurre iritziak inposatu. Hori uste dut dela bidea» (23).

Behar-beharrezkoa da Euskaltzaindia eta euskara aukera politikoen gainetik mantentzea eta gordetzea. Barkatuko naute abertzaleek ohar bat egiten badiet: Euskara eta Euskal Herria zinetan maite badute, ez ditzatela horiek beren ideologiarekin uztar. Eta hori, maite duten horren onagatik. Itsu egon behar da uztartze horretatik sortzen diren kalteak eta arriskuak ez ikusteko. Uztartze horretatik segitzen da, besteak beste —eta horrelako asko ikusiak gara— ideologia hori onartzen ez duten euskaldunek euskara bertan behera uztea edo arbuizatzea. Jokaera honekin, azken batean, guztiona dena alderdi baten barrutiko gauza bihurtzen da.

Inoiz entzun dut Alsazia Lorenan gertatua. Han alemanez mintzo zirela eta, hortik aitzakia hartuz, Alemania eskualde hartaz jabetu zen. Frantziari eskualde hori kendu eta Alemaniari erantsi zitzaion, eta hori guti balitz, alemanek alemanez mintzatzea inposatzen zuten. Eta hain zuzen, inposaketa hori izan dela han alemana hilerazi duena. Gauza hauek ez dira txantxetakoak, guztiz larriak baizik.

Eta, gai honi bukaera emanez, badira, noski, Euskaltzaindiari eskatu behar ez zaizkionak, haren eremukoak ez izanik. Esate baterako, erabaki dezala nola idatzi behar diren euskal deiturak (abizenak), edo pedagogi arazoak, etab. Eta abar luzea...

Oharrak

1. Berez Akademia bat ez da noraezekoa hizkera normalizatu bat molda dadin. Indar sozial bat egon dadila, hori behar da. Eta hau ez dagoenean Akademia huts-soilak guti egin dezake. Indar sozial hori dagoenean, Akademiarik gabe ere, mirari hori egiten da. Modu batera edo bestera, denbora gehiago behar izanik, baina egin ohi da. Eta hizkuntza askok egin dute hori hola.
2. LARRAMENDI, *De la antigüedad y universalidad del Bascuence en España...*, Salamanca 1728.
3. Gutun liburua. Ikus 1975ko argitalpena, Gasteizen faksimile-modura egina.
4. Ikus *Sobre la Real Academia de la Lengua Vasca* liburua, I Euskaltzaindi bat sortzeko asmoaren kondaira tipia.— «Breve historia de la Academia» (Euskaltzaindiaren argitalpena).
5. *Cancionero Basco* 1880, serie III, XIII. orrialdean.
6. Ikus *Euskal-Erria* aldizkaria (1886), 428, 449, 481.
7. Ikus, baita ere, Karmelo Etxegaraik Serapio Muxikari egindako eskutitzak orain berriki Telletxea Idigoras jaunak agertuak.
8. Hasieran 12 ziren euskaltzainak; gaur, berriaz, 24. Ikus Euskaltzaindiaren Arautegi eta Barne-Erregelen liburuxka, 1982an aterea.
9. Ikus batzarre hartako agiria E (1971), 15.— VILLASANTE, «Relaciones entre Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaindia», E (1979), 705-710.
10. Horrek ez du esan nahi Jagon saila duela eta, euskararen aldeko edozein ekintzatan sar daitekeela. Beti ere instituzio gisa jokatu behar du, alderdikieretatik urrun egonez, etab.
11. Ikus E (1981), 159-169.
12. Ikus E (1972), 218-219.
13. Ikus E (1981), 761.
14. Ikus E (1972), 220-225.
15. Ikus E (1978), 343.
16. Beronen laburpena da *Conflicto lingüístico en Euskadi* liburua.
17. Ikus E (1981), 719.
18. Ikus E (1981), 764.
19. Ikus E (1981), 127.
20. Denzinger-Schönmetzer, 1506.
21. Printzipio dogmatikoetara joaz, badakigu ofizialtasun hutsa baino zerbait gehiago duela berekin Trentoko aginduak. Baina geure auzirako ez dugu horra jo beharrik.
22. *Obras vascongadas del doctor labortano Ioannes d'Etcheberri*, Paris 1907; 59. orriald. Latinezko itzulpenean: Unum dixi et illum solum, quia saepe congruentius esset omnino carere quam pluribus abundare.
23. Ikus *Euskera* (1981), 460.

VIII. Kapituluua. Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra

Laburpena

Oraindik neurri batean prosa egiteko dago.— Berau da euskarak duen eskasiarik handienetako bat.— Hizkuntzak gaur bi hankadun behar du izan.— Idatz-hizkeraren beharra.— Nola sortzen dira idatz-hizkerak.— Hitz egiteari ala idazteari eman behar ote zaion garrantzia.— Idatz-hizkeraren berezitasuna.— Sartaldeko hizkuntzen prosa.— Prosa egiteko tresna hori geure tradizioan dugu.— Euskal idazle zaharrak.— Purismoaren eraginez eta herrizaletasunaren izenean tradizio hori hautsi egin da eta berreskuratu beharra dugu.— Itzulpenaren auzia.— Prosaren barnean diren idazmota ugariak.— Nola elkarlotu gaurkotasuna eta tradizioa.— Axularren prosagintzari buruz tesia.

Behin baino gehiagotan aipatu dugu J.A. Mujikak inoiz *Zeruko Argia*-n idatzi zuena: «... Prosa... egiteko dago oraindik, neurri handi batean behintzat. Eta, haatik, beharrezkoa dugu, poesia bera baino beharrezkoagoa beharbada. Gaur, euskera literarioaren inguruan dabilkigun borroka honetan, nahi eta ezkoa dugu prosazko tradizio sendo bat osatzea» (1).

Prosa egiteko tankera, prosa egiteko moldea. Horra problema. Batzuek, haatik, hor problema bat egon daitekeenik ere ez dute ikusten. Artetxe jaunak aitortu zidan behin berak Fr. Luis de Granada irakurriz ikasi zuela erdaraz idazten. Eta horrek berak gero ez zuen ulertzen zer arraiotarako behar genuen Axular... Eta zenbat holako gure artean!

Bai. Euskarak behar du prosa egiteko moldea ongi fin-katua eta trenpatua izan. Hau da, segur aski, euskarak duen premia gogorrenetako bat. Hori duen egunean, euskara be-re bizkar-hezurraz horniturik izanen da. Eta hori ez duen bitartean, tresna alferra izango da, gai ez dena, zeregin askotarako balio ez duena.

Euskara hizkuntza bizia izan dadila: horra gure mintzairaren premietan lehenbizikoa; baina horren hurrengo, prosa egiteko tresna moldaturik edukitzea da, ene ustez, bigarrena.

Mitxelenak orain dela urte batzuk idatzitako artikulu batean zera galdetzen zuen: ea guztion euskara arrunt bat joan mendeetan egon ote den. Berak baietz uste du. Euskara arrunt bat euskaldunen arteko har-emanetarako sortua eta erabilia, alegia. Urrun xamar kokatzen zuen gertaldi hori, Bisigotoen denboran edo. Berak uste zuen hizkera batu horren aztarnak nabari direla oraindik gaurko euskaran (2).

Zernahi gisaz, idatzizko zereginetarako tresna bat guztiona edo ororena izango dena behar dugula, ikusi dugu jadanik aurreko kapituluetan.

Hizkera hau batez ere idatzizko zereginetarako izaten da, eta bera ere hizkuntza idatzia izan ohi da batipat, mintzatua baino areago.

Baina berriz ere esango dut. Idazteko molde berezi bat egon daitekeenik ere, gure artean zenbaiti ez zaio burutik pasatzen. Txorakeria edo egundoko dispartea iruditzen zaie hori esatea (3).

Ez dugu esan nahi hizkera mintzatua eta hizkera idatzia bi hizkuntza desberdin direla. Ez; funtsean hizkuntza bat bera dira. Baina hizkuntzaren arrimu edo moldadura berezia izan ohi dira idatz hizkerak.

Beste hitzez esanik, gaur hizkuntza batek, oso eta erabatekoa izateko, bi hankadun behar du izan, hots, bai mintzatzeko eta bai idazteko egokia. Eta mintzatzeko hutsetik, beste gabe, ez da bestea sortzen.

Hanka-bakarra den hizkuntza, mintzatzeko hanka soilki duen hizkuntza, gaur eta hemen, erren eta on-behar gelditzen da. Osasunez biziko bada, bigarren hanka ere beharko du sortu edo moldatu.

Hau da, bada, kuestioa: bigarren hanka hori, idaztresna hori, nola sortzen eta finkatzen da?

Idatz hizkerak literatur tradizioz eratzen, osatzen eta sendotzen dira, hots, idazleek bata besteari jarraikiz. Izan ere, idazleek, normalki behintzat, ez dute idazten berek edo beren txokoko jendeak hitz egiten duen bezala, beren aurretik egon diren idazleei jarraikiz baizik. Egia da denetarik egon ohi dela, eta batez ere gure artean eboluzio normal bat egon ez delako, tradizio hori hautsi, ahaztu, berriz hartu eta gora-behera asko gertatu dela; baina funtsean tradizio-bidez sortu eta osatu ohi dira idatz hizkerak. Horrek ez du esan nahi, bestalde, hizkera mintzatuari edo biziari idatz-hizkerak ez diola deusik hartzen. Halako oreka bat lortzen da biziaren eta tradizioaren artean.

Jakina da Vendryès-ek dakarren irudia: ur bizia eta ur izoztua (4). Aho-hizkera ur bizia bezala da, eta idatz hizkera ur izoztua bezala.

Vendryès jauna mintzo da oraino idatz hizkeraren garrantziaz. Idatz hizkera ur izoztua bezala denez, iraunkor da eta orotara zabaltzeko trebe, eta hortik eta horregatik heldu zaizkio aho-hizkerak ez dituen dohaitasun eta gaitasun batzuk.

Eta zein ote da garrantzitsuago: aho-hizkera ala idatz-hizkera? Liskar edo eztabaida luze-zaharra dago gauza honi buruz eskola-maisu eta hizkuntza biziaren irakasleen artean. Eskola-maisuek betidanik eman diote lehentasuna idatz-hizkera irakasteari (5).

Eskola-maisuarentzat gauzarik inportanteena izan da beti ongi idazten irakastea, hizkuntza nola idatzi behar den irakastea, alegia; horretan ipini izan du axola guztia. Besteentzat, hizkuntza biziaren irakasleentzat, berriz, hitz egitea da lehen. Zeinek du arrazoi?, galdetzen du Vendryès-ek. Eta erantzuten: Biek.

Aho-hizkera eta idatz hizkera ez dira gauza bera, eta biak dira bata bestea bezain garrantzitsu eta beharrezko.

Herriko jende ez jakin edo guti ikasiak beren modura jabetzen dira horretaz. Luma eskutan hartzen duteneko ohartzen dira zeregin horren apartekotasunaz. Badakite, alegia, idazterakoan erabili behar duten hizkera bere gisakoa dela.

Bai. Akordioz ezarritako hizketa-modu bat da hura, gehiago edo gutiago egunoroko hizketa arruntetik aldentua. Akordioz edo hitzarmenez sortzen da eta gizarte-ohiturak baliarazten du.

Idatz-hizkeraren barnean prosa da guri hemen axola diguna. *Prosa* hitz horrekin zer adierazi nahi dugun konpreniarazteko, ez dut ezagutzen Mitxelenak Arantzazuko batzarrean azaldutako txostenaren zati hau bezalakorik:

«Maila edo mota bat baino gehiago daude euskera idatzian. Poesi-mintzaera landua dugu aspaldidanik eta orain ere lantzen ari zaizkigunak baditugu; bide bat baino gehiago baditugu sail horretan eta ez zaio inori debekatzen bide berrietan barrena abiatzea. Orobat esango nuke, hainbestean ez bada ere, elkar-izketari dagokionez, aho-mintzatzeari lotuago ageri den elkar-izketari: teatroak, ipui-eleberriek erakutsi digute zer den eta zer izan ditekean.

Euskaldunik gehienak, hoberenak ez badira ere, M. Jourdain-en antzera mintzaten geranez gero izkribuz eta geure iritziak, zuzenak nahiz okerrak, elkar-izketarik gabe agertzen ditugularik, euskal-prosa arruntaren izatea, egoera eta huts-beteak aztertu nahi genituzke, «gramatikatasunean» landaturik baina «gramatikatasun» soilean oinak itsasten ez zaizkigularik.

Nolabait esan, bi errenteriar desberdin aipatzea zilegi bazait, askozaz ere hobeki zekien euskeraz Xenpelar-ek nik baino: Xenpelar-en hizkerak, haatik, hain egokia izanik, ez du neretzat balio. Bestela eta erabatago esanik, sartaldeko hizkuntzetako prosa zenbait bidetan barrena ibiltzen ikasia eta trebatua da, latinaren ondo-tik, jakina, goragokorik aipatu gabe. Era berean, hainbeste ez bada ere, geure hizkuntza.

Ibilaldi horiek hizkuntza, edozein hizkuntza, arinago, zailuago, malguago bihurtu dute. Euskaldunok ez dugu, herri-gaietan izan ezik, kultura berezirik: mendeko gara, kultura-barruti horretan bizi gera. Ezin izan dezakegu, beraz, askatasunik hizkuntzaren aldetik: askatasun hori erdiets zitekean VIII-garren mendean, XIII-garrenean ere, bai oraindik, agian, ez ordea, oraingoan eta are gutxiago hurrengoan.

Latinaren, eta erabat sortaldeko hizkuntzen (6), kutsua geure bekokian daramagu. Aitor dezagun, eta goazen aurrera bide horretarik.

Egungo prosa, gaiak bereizten ez duenean, ez da hizkuntza batekoa eta batena, nazio-artekoa baizik: B.L. Worf-ek «standard average European» deitu zuena. Euskal-idazlerik gehienek ere ez dute bestela jokatu. Ezin bazter eta arbuia dezakegu zor diegun hizkuntzaren lantzea, beti irabazle izan ez bagera ere.

«Euskal-usaia», «euskal-kutsua» deritzatena ongi dago, noski, euskal-gaiak darabiltzagunean, Euskal-herriko mendi-giroa irakurleari sumarazi nahi diogunean. Hortik kanpora, ordea, badirudi ur garbiaren pare behar duela izan behar bezalako prosak; inongo usairik, kolorerik eta zaporerik gabea. Euskal-kutsua badario, barren-muinetarik dario, ez axaleko edergarrietarik» (7).

Hemen dugu geure gaia ezin argiago azaldua: prosaren auzia, alegia. Sartaldeko hizkuntza landuetan bada prosa bat guztiona dena, hots, nazio-artekoa. Euskal tradizioa ere hortik dabil eta, zinez, ez zaigu beste biderik gelditzen. Mitxelenak dioenez, prosa hori ur garbiaren pare da, inongo usairik, ez zaporerik ez kolorerik ez duena. Labur, nazio-artekoa. Arrunta. Guztiona. Gurea ere bai, beraz.

Prosa egiteko tresna hau behar-beharrezkoa dugu. Hori gabe hizkuntza ez da trebe, ez da erreminta egokia. Eta tresna hori tradizioz moldatzen da. Euskararen kasuan esan behar da, gainera, euskarak baduela tradizio hori. Kuestioa da gaizki ezagutzen dugula geure tradizioa. Joan den mende-hondarrean eta oraingoaren hastean eten bat gertatu zen, haustura bat. Txartzat jo zen lehengo dena. Hutsetik dena berriro egiten hasi nahi zen, eta tradizioari gibela eman zitzaion.

Gorago hiztegi-kontuan salatu gaitzaz —purismoaren gaitzaz— topo egiten dugu berriz ere. Euskara guztiz berezia eta bestelakoa delako aitzakiaz, denera eraman nahi da «euskal usai» dontsu hori. Euskararentzat gauza denetan bakar-bidea nahi da: hitzetan, syntaxian, orotan. Ordura arteko idazleek erabilitako prosan kutsadura besterik ez zuten ikusten. Beraz, baztertu behar ziren. Etxe zeharo berria oinarrietatik egin behar zen.

Beste hitzez esan: Lehengo tradizioa, nazio-arteko prosaz bat zetorrena, zokoratua, madarikatua eta ahantzia izan da. Hegoaldean batez ere hartu zuen indarra joera honek, baina hemendik Iparraldera ere pasatu zen, Lafittek Arrasateko Kongresoan (1979) lanoki aitortu zuenez.

Adibide edo erakusbide bezala aipa daiteke hemen Patricio Orkaiztegiren liburuska: «Observaciones para hablar y escribir tolerablemente en nuestro idioma euskaru» (8).

Jaun honentzat —eta jaun honek agertzen duen ikusmoldea orduan indarra hartuz zihoan, Arana, Azkue, Eleizalde, Olabide, Arriandiaga, Eguzkitza eta beste askoren eraginez—, jaun honentzat, bada, gure idazle zaharrek egindako prosa kutsaturik zegoen. Kutsaturik, zeren aldameneko hizkuntzen eragina jasan baitzuten.

Eragin horren aztarna idazle zaharretan ikustea ez da zaila. Kuestioa da ea euskarak, kokatua dagoen toki eta aldian, besterik egin zezakeen. Eta orain ere besterik egin dezakeen. Ikusi dugun bezala, nazio-arteko prosa bat dago, guztiona dena. Eta guztion hori gurea ere Bada, eta horren beharrean gara, gainera.

Hala ere, esan behar da garai horretan bertan Urquijo jauna —eta bai Azkue bera ere neurri batean— hasi zela gure tradizio zaharren lekukoak biltzen, bir-argitaratzen edo lehen aldiz kalera ateratzen. Horrelako edizio asko Riev aldizkarian agertu ziren. Urquijok bazekien liburu zahar eta mezprezatu horietan zegoela hizkuntzaren tradizioa, prosa egiteko moldea, eta hortik jo beharko zuela euskarak, inoiz indarra hartuko bazuen (9).

Egia esan, purismoaren giroagatik Urquijoren ahaleginek ez zuten orduan eskerron eta arrakasta handirik aurkitu. Gehienek ez zuten konprenitzen zertarako nekatzen zuen burua eta sakela hustutzen, horrelako liburuak, euskara kutsatua daukatenak, argitaratzen.

Baina poliki-poliki Urquijoren ahaleginek beren fruitua ekarri dute eta tradizio zaharra berriz estimatzen hasiak gara. Oraindik, ordea, gaizki ezagutzen dugu. Prosagintzarako erabilia izan den tresna, esan nahi dut. Autore zaharrek nola muntatu ohi zituzten perpausak

etab. Eta guzti hori jakin gabe, euskarak behar duen bezalako Gramatika egiterik ez dago. Morfologia aski ondua dago, baina Sintaxia ez, inola ere.

Hemen ezin da Altuberen izena aipatu gabe utzi. Bera izandu zen hitzen purismoaren aurka gehien gudukatu zena, baina gero, zer da eta, bera izandu zen sintaxiaren purismoa beste inork baino gehiago, bultzatu zuena. Hala esaten zuten Salvatore Mitxelenak. Alfontso Irigoienek «kompensaziozko zerbait» ikusten du Altuberen jokaera horretan (10). Eta Altube berak urrunegi joan zela aitortuko digu geroago (11).

«Herria»: horra beste bandera bat, gure artean asko puztua izan dena eta maiz-sarri ikusbide zuzena galerazten diguna. Herri-bidetik jo behar omen dugu. Baina oker-aditu asko pilatzen dira «herri» dontsu hori dela eta ez dela. Krutwig jaunak behin Euskaltzaindiko batzarre batean eskatu zuten Euskaltzaindiak herria zer den erabaki zezala...

Herri-zale izan behar duela idazleak, herriaren ikasle etab., nork uka dezake? Baina eta idazleak ere ez ote dira, gero, herri horren zati? Gure artean badirudi «herria» esaten denean gizartearen beheko maila bakarrik hartzen dela kontutan, eta, konkretuki, baserritarra. Hark, ordea, ez du idazten. Eta idazleari agintzen zaio baserritar hutsak hitz egin ohi duen gisa idatz dezala. Ez ote da hori bitxia?

Ez nuke esango oraino zerbaitetan eta muga batzuen barnean hori ere gomendatzekoa ez denik. Baina ez dezagun ahantz aho-hizkera eta idatz hizkera ez direla gauza bera. Idatz hizkerak bere premiak, bere dohainak, bere legeak, helburuak, bere eskakizun eta baliakizun propioak dituela.

Gorago aipatu dugun pasartean Mitxelenak ez ote digu aitortu Xenpelar-ek berak baino hobeki zekiela euskaraz; Xenpelar-en hizkerak, haatik, ez duela beretzat balio?

Eskoladuna eta eskolagabea bide beretik ibilarazi nahi izatea ez da on eta ez posible ere. Krutwig jaunak gogor jorratzen du herribide delako hau gure literaturaren izurri bat bezala. Zertan egon daitekeen zuzen eta zertan oker mugatzen saiatu naiz (12).

Honekin erlazionaturik dago Larrekok zioena, hots, hitzen purismoari baino kasu gehiago egin behar geniokeela itzuliken, hau da, esaeren purismoari, idiomatismoei, euskaldunen mintzamolde jatorrei (13). Arrazoi du neurri batean Larrekok, baina neurri batean bakarrik, esaeren munduari buruz mintzatzen garenean esango dugun bezala. Prosagintzako legeak ez ditugu baserritarren hizkeratik hartu behar. Hau beste eremu bat da.

Euskara idatziaren tradizioa ezagutu eta ikasi behar dugu, bada. Galdu duguna berriz eskuratu, alegia. Idatz euskararena esan nahi dugu, hots, prosarena.

Lau euskalki literario izan ditu euskarak: lapurdiera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Horrek esan nahi du lau horietan izan dela idazle-mordoxka, eta horiei esker bakoitzean sortu eta egituratu dela idazmolde edo prosa egiteko tresna.

Lau tradizio orduan? Bai, nahi baduzu. Baina kontuan har dezagun hau: Iparraldea berrehun urtez aitzindu zitzaiola Hegoaldeari, eta hori ere ez da ondorio gabe, zeren eta hizkera idatzia moldatzeko eta egokitzeiko denbora behar baita. Iparraldea XVI. mendean hasten da hizkera lantzen; Hegoaldea XVIII.ean. Gipuzkoan Larramendi eta honen

ingurukoak izan ziren bidea urratu zutenak (Mendiburu, Kardaberaz, Ubillos etab.). Bizkaian Mogel, Añibarro, etab.

Adibidez, Lavieuxvilleren dotrina (lapurtarra) (14) Mogelek bizkaierara egokitu zuen (15), baina bata eta bestea elkarrekin konparatuz, aurki jabetzen zara gauza batez: lapurtarrak darabilen tresna ongi trebatua eta egina dagoela; esteak, berriz, haztamuka, saio edo esperimendu egiten dabilenaren hizkera dirudi. Eta beharko ibili bide berriak urratzen zebilenez gero!

Dena den, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean ere, bakoitza bere euskalkiari jarraituagatik, gainerakoan —eta euskalkiak eskatzen dituen egokitzapen batzuk gora-behera—, sistema berbera nabari da prosagintzan.

Prosagintza-sistema hori, «*salvatis salvandis*», sartalde osoan hizkuntza landu guztiek erabiltzen duten berbera da, gainera.

Eta aitzin honetan esan dugun bezala, horrek ez gaitu gehiegi harritu behar. Izan ere, sartalde edo etzinalde guztian bada prosa egiteko modu bat, leku guztietan bat bera dena; xehetasun batzuetan hizkuntza berezien berezitasunari amore emanaz, hori bai; baina, hori gora-behera, egia da diogun hau, hots: prosa egiteko tankera berbera dela hizkuntza berezien gainera.

Prosa egiteko modu hori, Mendebaleko kultura bera bezala, Grezian sortu zen; gero latinak hartu zuen eta latinaren bidez Mendebaleko hizkuntza landu guztietara zabaldu da. Gure idazle zaharrek, euskalki guztietakoek, bide hori bera hartu zuten. Beraz, Europako beste hizkuntzetako idazleak bezalaxe jokatu ziren. Eta zinez, ez dugu beste biderik. Ez dugu euskara salbatuko bakar-bidetik ibilaraziz edo beste hizkuntzen errepidea alde batera utzirik.

Gai honek badu zer-ikus itzulpenekin ere. Gure hizkuntzatik besteetara eta beste horietatik gurera itzultzea: horra hizkuntza landu batentzat ezin utzizkoa den zeregina. Gaur bakarti bizitzerik ez dago. Baina Mendebaleko prosagintza onartzen ez badugu, nola egin behar ditugu itzulpenok? Oso neke eta gaitz da. Maiz-sarri, ezina.

Egon daitezke artista miraritsu batzuk prestidigitadore gisako jokoak eginez itzulpen antzeko hurbilketak egiten trebe direnak; baina ez da hori kontua. Itzulpen-lana hizkuntzaren zeregin arrunta da, eta, beraz, edozein ikasiren eskumenean egon behar lukeena. Baina nazio-arteko prosagintza hori zilegizat jotzen ez den bitartean, egundoko nekeak iragan behar ditu erdaratik euskarara itzuli nahi duen edozeinek.

Egia da, bestalde, itzulpen literarioa egin nahi denean, arazo guztia ez dagoela prosagintzan. Kasu eman behar zaie hizkuntza hartzailearen esanmolde eta itzulika bereziei. Hitzez-hitz baino areago, hitz-multzo bidez egin ohi da itzulpen jatorra; ikusiz, alegia, jatorrizko hizkuntzaren esanmoldeei nola aurkitzen zaizkien hizkuntza hartzailean esanahi beretsua duten beste multzo batzuk.

Baina hori esan eta, beste hau ere gaineratu behar da. Prosa egiteko tankera orokor hori —geure tradizioan etxekoturik duguna, gainera— onartzen ez badugu, nekez normalduko da gure artean itzulpen-lana. Itzulpen-lana, berriz, hil edo biziko kontua da euskararentzat. Hemen du euskarak oztopo handi eta nabari bat kultur hizkuntza edo ibilgailu izateko.

Latinaren ume ez diren hizkuntzak —hala nola alemana edo ingelesa—, prosa egiteko kontuan onartua dute latin eta grekoaren subordinazio eta koordinazio-sistema (nahiz eta bakoitzak bere berezitasunekin), eta, horri esker, itzulpenak egitea hizkuntza horietara ez da beste munduko lana.

Etxeberrri Sarakoak euskaraz eta latinez egin zuen bere obra nagusia, hots, *Eskuararen Ethorkia*. Elkarren parean jarririk dauzka bi testuak eta prosa egiteko tankeran kidetasun handia nabari da bietan. Hori bai: hizkuntza bakoitzaren itzulika eta esanmoldeak gordez.

Hona hemen adibide bat, beste askoren artean:

Euskaraz

Hemen gure Axular famatuac differentcia hau eracustearquin batean, ederqui, eta sothilqui emaiten darocu aditcera, hitcen arteco differentcia hunec nondic duen bere ethorquia, edo cer den hunen causa: eta hunen gainean dio, ceren Escualdunec Erresumac baitituzte different. Autor hunen arroçoinamenduaren eredura badirudi demborac ezuela bothereric Escuararen contra, ceren ezbaitu aippamenic eguiten demboraz, ceinari hambat gambiadura baitarraitzco.

Latinez

Hic celeber noster Axular hoc demonstrans discrimen, egregie et subtiliter nobis ostendit, unde haec vocabulorum disparitas proveniat, seu quaenam sit ejus causa: et super hoc ait quia Cantabri diversis gaudent regnis. Juxta hujus Auctoris ratiocinandi modum, tempus in Cantabrisimum vi carere videtur; quia temporis nullam facit commemorationem.

(Urquijo, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheverri*; Paris 1907; p. 53). Latinezko testua esku izkributik hartu da).

Adibide honetan bi gauza ageri dira. Lehena: Hizkuntza banatan idaztean, bakoitzaren itzulika edo esanmolde jatorrak erabiltzen dituela. Eta bigarrena: prosa muntatzeko tankera berbera segitzen duela bietan. Eta zinez, hau izango litzateke itzulpenak egiteko era.

Baina gu ez gara hemen sartuko itzulpenaren eremuko problematika berariaz aztertzen. Gainera, beherago ukituko dugu berriz auzia (16).

Prosa-barnean mota bat baino gehiago dago. Euskararentzat, berriz, gure mendean mota bat bakarra hartu nahi da, hura bakarrik zilegitzat hartuz. Badira idatz estilo batzuk esaldi motx eta laburrez baliatzen direnak; beste batzuk periodo luze eta korapilotsuez osatuak (17). Bada elkar hizketari dagokion estiloa, bada ipuin eta kontakizunetakoa, bada errefrau eta atsotitzena, bada azalpenetakoa, eta gero prozesu eta auzietan erabiltzen dena, administralgokoa etab. Euskarak, ahal dela, denak etxekotu behar ditu. Aitortu behar da Altuberen Erderismos-ek, bere merezi-mendu guztiekin, bide bakar, zurrun eta estuegia uzten diola euskarari.

Zernahi gisaz, guk geure tradizio zaharra ezagutu eta aztertu behar dugu eta harekin zubia egin. Hori eginez, Europako hizkuntza landu guztiekin har-emanetan sartzeko gara. Gaur, hemen, hizkuntza bakar-bidetik erabili nahi izatea suizidio-bidea hartzea izango litzateke.

Bukatzeko, hizkuntza-lantze arazoan bi ertz edo mutur azaltzen zaizkigu. Lehen kolpean behintzat, elkarren etsai diruditen bi ertz. Baina gauza ongi begiraturik, ez etsai, baina elkarren osagarri dira. Bata besteekin elkartu beharrezkoak, alegia.

Horra zein diren bi ertzok.

Bata: Oraingo eta tokiko hizkera bizia. Hizkera hau aldakorra da, iheskorra, suntsikorra.

Bere abantailak ditu, baina bai bere moztasunak ere. Bera bakarrik eta beste gabe, prosarako tresnatzat hartzeko ez da gai.

Beste ertza da tradizioz moldaturik dugun idatz hizkera. Hemen, bai, badugu oinarri bat. Oinarri honetan oinarriturik, eta tokiko eta gaurko hizkera bizitik ere zerbait —edo beharbada anitz— harturik, hizkuntza eraberritu eta denbora berean lehengo izaten jarraitzen du.

Ez dugu eskatzen zeharo hilik den zerbaiti loturik egotea. Baina hau da kontua: hizkuntza landuak behar du egitura bat iraunkorra, sendo finkatua, eta hori da mendez-mende eta tradizioz heldu zaigun idatz hizkera. Hartan oinarriturik eta mendeko eta tokiko hizkera bizitik ere gaiak hartuz, mirari hau lortzen da, hots, beti bat eta beti berri izatea.

Idazteko behar den bizkar-hezur hori geure tradizio propioan aurkituko dugu.

Baina euskaldunok geure tradizioa hobeki ezagutu eta baliatu beharra daukagu. Hori egin gabez, prosarako behar den tresna egin gabe dugu oraino. Edo —berdin dena— egina, bai, baina ez bagenu bezala.

Gazte batek galdetu zidan behin: Axular-en *Gero*-ri buruz nahi nuke egin neure tesia; baina *Gero*-ren zein puntu gomendatuko zenuke zuk aztertzea? Erantzun nion: Axular-en *Gero*-n ageri den prosa egiteko modua. Eta ez Axular bakarrik. Euskalki guztietako gure prosista zaharrak aztertu beharko genituzke, ahazturik dugun geure tradizio zaharra bir-aurkitzeko (18).

Oharrak

1. *Zeruko Argia*, 17-11-74.
2. Ikus «Lengua común y dialectos vascos» ASJU (1981).
3. Euskaltzaindiari Epaiketa, 165. orr.
4. J. VENDRYES, *El lenguaje*, Barcelona 2.^a ed., 1943; p. 366. VILLASANTE, *Hacia la lengua literaria común*, «Serie Eleizalde», I, 25.
5. VENDRYES, o. cit., 459 orr.
6. Sortaldeko. *Euskera*-n hala dator, baina badirudi *Sartaldeko* behar lukeela.
7. *Euskera* (1968), 218-219.
8. Liburuskak 106 orrialde ditu. Euskal-Esnalearen aginduz da egina. 46 erregela dakartza ongi mintza eta idazteko. Idazle zaharrei buruz hara zer dioen: «Nada de lo que encontramos escrito en baskuenze puede satisfacernos realmente, y cuanto más subamos para rebuscar obras antiguas (relativamente tales), mayor será nuestro desengaño. Bien desearía que alguno viniese con algo viejo a demostrarme lo contrario, pero lo que hasta hoy he podido ver me obliga a decir lo que queda ya dicho» (58-59 orr.) Andoaindarra zen Orkaiztegi eta gaztetan Arantzazun ikasia. Apaiza. Liburua egilearen izenik gabe agertu zen.
9. Autore zahar horien garrantziaz ikus, baita ere, IBAR, *Genio y Lengua*, Tolosa 1936; 255 orriald., orripeko oharra.
10. A. IRIGOIEN «Sebero Altube eta euskal hizkuntzaren pleguak», *Euskera* (1980), 335.
11. Loc. cit., 336. Honekin ez dugu ukatu nahi —bistan da— *Erderismos* liburuan oharpen baliotsurik asko dagoela.
12. VILLASANTE, «En torno al centenario de la aparición de *Peru Abarca*», *Euskera* (1982), 7.
13. Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n. 412.
14. Ikus «Lekukoak» liburu-bilduma, 11.
15. Ikus «Lekukoak», 14.
16. Ikus X. MENDIGUREN, «Itzulpenaren mundua eta euskal itzultzaileen oinarritzko prestakuntzarako eskola», *Euskera* (1981), 933-1.003.
17. Ikus, esate baterako, Ax 241.
18. Ikus VILLASANTE, *La oración causal en vasco*, Serie Eleizalde n.º 8, 1986.— ID., «Euskal Anaforikoak» in *Symbolae Ludovico Mitxelena oblatae*, II, 981.

IX. Kapituluua. Elebitasuna (1)

Laburpena

Euskal Herrian gertatzen den elebitasuna.— Kokaleku propio baten behar gorrian dela euskara.— Euskal Herri eta Euskadi izenez.— Hizkuntz-kontzientziadun multzo bat egoteak zer garrantzia duen.— Iraganeko eta gaurko euskararen egoera.— Gaztelania eta euskararen arteko ahaidegoaz.— Zergatik edo nola gertatu den euskararen atzerakada.— Elebidun izatea orotara zabaldu.— Norabidea erakuts diezaguketuen atzerriko zenbait kasu.— Araba eta Nafarroako euskararen atzerakadaz.— Erromatarkuntza eta horren on-dorioak.

Bilinguismoa —hots, elebitasuna— deitzen dugu bi hizkuntzen arteko elkar topatzea. Eta euskarari hortik sortzen zaio, agian, problemarik larriena.

Badakit bilinguismoa, berez, osin beltza dela, zaku zabala, zabalegia. Hitz horren azpian, alegia, gauza eta egoera guztiz desberdinak sartu ohi direla. Horregatik, kontzeptu jeneralen munduan gelditzea baino hobe izango da euskararen egoera partikularrari kasu ematea, ezen kontzeptu jeneralak erabiliz erraza da gure burua enganatzea, guztiz desberdinak diren errealitateei tratamendu berbera emanez.

Zein da, izan ere, euskararen egoera? Hizkuntza honi eremua, lurraldea jan egin diotela bi hizkuntza boteretsuk (gaztelaniak eta frantsesak). Ez duela jadanik lurralde bat bere-berea duenik. Kondizio horietan irauin ote lezake luzaroan hizkuntza batek? Kokaleku bat bilatu beharko zaio euskarari, hots, bere-berea izango duen gunea.

Hizkuntza batek irauin lezake, noski, toki bat, lurralde bat bere-berea duenean, nahiz eta beste lur batzuk beste hizkuntza batekin partzuergoan izan. Baina bere-berea duen eremu edo kokaleku bat inon ere ez baldin badauka? Are bere etxean ere lurra jan baldin badiote?

Euskarak, bizi ahal izateko, ez ote luke muntatu behar eremu edo gaztelu bat, nahiz eta ttipia izan, zeinetan bizitze osoa euskara hutsez egin behar bailitzateke?

Guttik sentitu dute euskararen arrangura Altube jaunak bezanbat. Eta hark, euskara salbatzeko, honelako eremu edo barruti bat behar zela ikusten zuen (2).

La Vida del Euskera-n hara zer dioen:

«Observando con atención el estado actual del euskera, su extensión geográfica, la importancia por el número de habitantes de los pueblos completamente euskaldunes, las regiones o zonas que por su situación ofrecen mayor resistencia a la invasión de los idiomas extraños, etc. etc., teniendo en cuenta todo ello, quizás pudiéramos hallar en la comarca denominada «Goyerri» de Guipúzcoa (más concretamente, en los valles dominados por el Izarraitz) núcleos de población con los que se pudiera formar uno de los baluartes de defensa más eficaz y prolongada, así como preparar el personal y demás elementos necesarios para una restauración y expansión futura del idioma» (3).

Altube jaunak hitz hauek idatzi zituenetik 50 urte paseak dira. Nik ez dakit gaur zeharo eta xoilki euskaldun den tokirik ba ote den, ez Goierrin eta ez beste inon. Zernahi gisaz, Altubek garbi ikusi zuen non zen auziaren gakoa: euskarak gaztelu bat behar zuela, lur-eremu edo barruti bat, zeinetan jaun eta jabe eta errege bakar izango baitzen, handik kanpora erregetza hori besterekin banatua izango bazuen ere. Eta horretan begi erne-zolia izan zuela aitortu behar. Hizkuntzak leku bat behar du han erro sakonak botatzeko, hizkuntz komunitate trinko

bat mantentzeko. Bere-berea duen leku hori gabe nekez iraun eta besteen erasoei aurpegi eman dezake.

1971an bilera batzuk egin ziren Iruñean «Simposio de lenguas vernáculas de España» prestatzeko asmoz (gero sinposio hori egin ez bazen ere). Eta gogoan dut Meliá jaunak han esan zuena: «No hay países bilingües; individuos bilingües, sí; pero países, no».

Jaun harentzat Kataluña ez zen herri bilingue bat, monolingue baizik. Hizkuntza bat du — berea—, eta hartaz baliatzen dira katalanak arruntki eta beti, nahiz eta gaztelania ere jakin eta kanpokoekin har-emanak izateko erabili.

«Hori egia baldin bada, lekutan gaude gu», esan nuen nik neure golkorako. Euskal Herria, Euskadi, País Vasco edo nolana deitzen dugun hau, bilingue edo trilingue dela nori uka dezake? Meliá-ren esan horrek salbuespenen bat ezagutu beharko du. Jakintsuek ikusi ohi duten baino izar gehiago omen dago zeruan, eta baita haiek kontatzen dituzten baino izaki gehiago ere munduan...

Euskal Herria —edo, nahi baldin baduzu, Euskadi, zehazkiago mintzatzeko—, bilingue (edo trilingue edo plurilingue) da. Herri bezala esan nahi dut. Eta hori ez bakarrik gaurko egoerari begiratuz. Aspaldidanik, eta Historiaren argipean dugun tarte guztian, halaxe ageri zaigu, gainera. Hau hala baldin bada, buruz eta zuhurtziaz jokatu beharko dugu euskararen aldeko plangintzak egiterakoan.

Jakina denez, Sabino Aranak *Euskadi* hitza asmatu zuen («z»kin idazten zuen berak, *eusk* sustraiari halako sorburu bitxi bat ezartzen ziolako). Polemikak eta eztabaidak egon ziren orduan: izen hori gaizki eratua zegoela, alferrikoa zela, *Euskal Herria* lehendik dugunez gero, etab. (4).

Baina guri axola diguna hau da: Zergatik asmatu zuen Aranak izen berri hau? Berberak esango digu (5):

«Así también *Euzkelerría* formado de *euzkel* y *erri* (pueblo), solo puede significar pueblo del euzkera, sean o no vaskas las familias que lo compongan. Un barrio de gitanos euzkeldunes, tales como los hay en Nabarra y Gipuzkoa, es *Euzkelerría*; y, por el contrario, no lo son las grandes porciones de población vasca erdelduna que hay en Bizkaya, Alaba y Nabarra».

Beraz, desegokitasun bat aurkitzen zion Aranak Euskal Herri hitzari. Hitz honek euskararekin du zer-ikusi, eta Euskadin jende-mordo handia dago euskaraz mintzo ez dena, eta hori ez da gaur eguneko edo atzo-goizeko kontua, aspaldidanik datoz horrela gauzak. Arrazoi berberagatik asmatu zuen *eusko* eta *euskotar*, zeren *euskaldun* hitzak berriz ere *euskararen jabe* esan nahi baitu.

Aitortu behar da honetan begi ernea izan zuela. Bikote hori beharrezkoa dugu nahasteak gainditzeko eta behar diren zehaztapen eta mugaketak egiteko.

Hau da kontua: Euskadi deitzen dugun lurralde honetan, euskaraz landara, badela beste hizkuntzarik, eta hori aspaldidanik, dakigunez. Eta alderantziz, Euskal Herria Euskaditik kanpora ere hedatzen da edo hedatzen zen behintzat. Leinua eta hizkuntza ez dira beti bat etortzen eta gure artean ere ez dira bat etorri, dirudienez. Euskarari buruzko planteaketak egiterakoan beharrezko da zangoak lur gainean edukitzea, errealitateak ematen dizkigun datuei leial egotea, alegia.

Gure herrian hizkuntz aldetik bitasuna, eta ez batasuna, dagoela, eta hori aspaldidanik: horra jakin behar dugun gauza bat, eta gauza hau oso aintzat hartzekoa da.

Baina honekin ez dago dena esana. Etorkiari begiratu, oker egoteko peril handirik gabe esan daiteke badela herri honen jatorrizko hizkuntza bat, eta hori euskara dela (6). Eta euskara hori gaur galzorian dago. Horregatik aparteko begiramena zor diogu. Baina beste hizkuntzari edo hizkuntzei ere errespetua eta eskubideak gordez. Gainera, inposaketak kontu honetan kaltegarri gertatzen dira.

«Txepetx» (José M.^a Sánchez Carrión) izan da, segur aski, gure artean elebitasunari buruzko auziaz gehienik arduratu dena. Jaun honen *El espacio bilingüe* liburutik pasarte hautatu batzuk aipatuko ditugu.

Gaztelaniak —eta Iparraldean frantsesak— irentsia izateko arriskuan dela euskara, ez da dudarik. Zer jokabide hartu behar da euskarari barne-indarra emateko, gatazka honetatik bizirik atera dadin? Horra problema. Ikus dezagun Txepetx jaunak zer dioen:

«La defensa del propio idioma, sobre todo si éste es minoritario, y no goza de las garantías de un estado (y a veces aún a pesar de estas garantías), está íntimamente ligada a la existencia de un grupo consistente de hablantes que desde ese idioma tenga una concepción cultural propia de ellos mismos y la proyecten hacia la comunidad idiomática propia haciendo surgir ese vínculo que imprecisamente se puede denominar auto-orgullo o conciencia lingüística» (7).

«... el bilingüismo casi generalizado de las pequeñas naciones es el resultado de compaginar el mantenimiento de la propia identidad con el intercambio internacional» (8).

«Sólo las comunidades lingüísticas que carecen de un espacio simbólico propio (de una concepción cultural de sí que provoque una conciencia lingüística) se ven abocadas al monolingüismo de uno de los idiomas mundiales de poder (bilingüismo sustitutorio versus monolingüismo)» (9).

«Llegamos, pues, a un punto que me parece muy importante, y que sin embargo proponerlo en toda su diáfana claridad, resulta hoy por hoy «escandaloso», dados los oscurantismos que encubren la postración real del vascuence. Y este punto es el siguiente: un idioma para pervivir, como vimos en el capítulo anterior, necesita un núcleo de gentes que piensen y se expresen predominantemente (o exclusivamente) desde él y *es este grupo de gentes quienes deben representar para ese idioma determinado la norma o la legitimidad lingüística*: la meta hacia la que los bilingües incipientes o avanzados deben apuntar. Y ello no en virtud de ningún apropiamiento político o institucional, sino en virtud de que son ellos los que mejor conocen en cada momento dado de la vida de una lengua las leyes internas de su idioma» (10).

Hitz mamitsuak eta, segur, zuzen esanak. Bi hizkuntzek elkarrekin topo egiten dutenean eta horietarik bata bestearen erasopean gertatzen denean, zer behar du ttipiak handiaren aurrean on edukitzeko? Hauxe: Hizkuntza ttipiak behar du gune bat izan, hots, mintzatzaileen multzo bat hizkuntzaren «*harrokeria*» (nolabait mintzatzeko), sentitzen duena, hizkuntza horren balioaren kontzientzia zolia duena, hizkuntza hori beti edo ahal den guztietan erabiltzen duena, laritzen duena, etab. Baina kasu! Ez gaitezen engana. Itxurakeriak gerta daitezke: *Agur*, *-tar* eta hitz bakan batzuk nunahi barreiatu, eta gero beti erdaraz hitz egin eta idatzi...

Euskarak azken mendean Nafarroan atzerakada izugarria egin badu, batez ere multzo hori egon ez delako izan da. Gizartean euskara hizkuntza meziprezatua, gutietsia, prestigiorik gabea zelako, alegia.

Nik izan nuen ahaide bat Bilbon bizi eta hil zena. Beti erdaraz mintzatzen zen eta oso berandura arte ez nuen jakin eta ez susmatu ere euskaldun ohia zela. Berak aitortu zidan hori. Elorrion jaioa eta gazterik Bilbora joana. Euskaldun hutsa izanik, «aldeano» deitzen zioten

lagunek. Hargatik hain higuin handia hartu zion euskarari, non arras eta erabat ahaztu baitzuen...

Baina, lehen esan dugun bezala, ez gaitezen engana. Sánchez Carrión berak gogoaraziko digu:

«En cualquier caso debemos de evitar a la hora de analizar los procesos caer en la sibilina trampa de confundir lo que las lenguas son en sí, de las funciones que tienen en sus hablantes... Un sujeto puede al mismo tiempo considerar al castellano como "lengua extranjera", y sin embargo el castellano funcionar en él como lengua de intimidación... La pérdida de categoría social de un idioma es un síntoma de regresión, como su revalorización social es el primer paso para revitalizarlo. Pero en última instancia los idiomas viven o mueren en el sujeto: en cada sujeto» (11).

Sánchez Carriónek ongi dioenez, hizkuntzek badute, hor barrenean, nortasun-gunea edo identitate-gunea dei dezakeguna, eta horren gaintik azalekoagoak diren mailak. Barreneko ganbara hori galdu denean, dena galdu da. Birreskuratze-prozesoa ere mailaz-maila joan beharko du azken gune horrezaz jabetu arte.

Beharrezko ote da, euskara salbatzeko, gauza denetan hizkuntza hau erdararen parean jartzea eta honek bete ohi dituen zeregin guztiak euskarara aldatzea? Hori ere ez, agian. Gainera, galdetzekoa litzateke hori posible ote den, errentagarri ote den etab., gure aitzingibelak, eta ingurumaria kontutan hartuz (12). Ez dugu ahantzi behar badirela munduan hizkuntza batzuk beren zabalergatik edo hedaduragatik pixka bat orokor bihurtu direnak; beste batzuk, aldiz, ttipiak, hots, hiztun guti dutenak. Munduko har-emanetarako, jakintza-ikerketak adierazteko, nazio arteko komunikabide eta lokarri bezala, hizkuntza handiek badute gaitasun bat, ttipiek ez dutena. Hori ere lanoki aitortu behar da.

Honekin esan nahi dut euskaldunek hizkuntza zabalago baten beharra beti izango dugula. Ez dugu pentsatu behar, alegia, euskararekin zeregin eta premia guztiak bete ahal izango ditugula, eta, beraz, erdararik ez dela behar. Euskararen aldeko plangintza egiterakoan buruz beharko dugu joka eta gauzak diren bezala har.

Sarri-askotan planteaketa erradikalen zale izan ohi gara: edo dena edo deus ez. Batzuek nahi lukete gaztelania Euskaditik errotik erauzi eta haren ordezkari euskara landatu, eta eremu, langintza, sail, zeregin eta premia guztietan euskara soilki erabili. Baina honelako asmo eta plangintzek bildur naiz ez ote duten porrot egingen. Ez dezagun, arren, zentzua gal. Estrategia burutsu baten bidez beharko dugu euskararen bizitzea segurean jarri, ameskerietan eta abentura eroetan ibili gabe.

Egin diren estatistikek erakustera ematen dute Euskadi deitzen dugun honetan (Nafarroa eta Iparraldea barne direla) euskaldunak —hots, euskaraz mintzo direnak— populazioaren % 25era ez direla heltzen (13).

Datu hauek hor daude eta ez ditugu ahaztu behar. Eta ez du balio esatea: «Bai, baina Estatu zentralista baten inposaketaz heldu dira gauzak horretara, gurea den hizkuntza kendu eta haren ordezkari arrotza sartu digute. Orain alderantziz egin behar dugu». Inposaketa ere egon dela ukatu gabe, baina gauzak ez direla hain sinpleak jakin behar da. Edozein modutan ere, gaztelania (eta Iparraldean frantsesa) sustraitik erauzi eta hizkuntza bakar bezala euskara Euskadi guztian jar dezakegula pentsatzea, txorakeria da.

Eta Euskadi honen izaeraz eta iraganaz bat ez datorren gauza, gainera.

Agian hobe izango da, esan nahi duguna argitzeko, beste nonbaiteko esanplua aipatzea. Lerida-ko probintzian dago Aran-go Harana (Valle de Arán). Orain kexu omen dago han

jendea, katalanek haran horretan katalana «inposatu» nahi dutela eta. Katalana ez, baina okzitanoa da eta izan da hango hizkuntza propioa. Okzitanoz mintzo dira orain ere. Eta mendeetan gora igoko bagina, segur-aski lehenago euskaldun izan zirela aurkituko genuke, baina hori oso urrun gelditzen zaie. Eta berea duen hizkuntza herrialde bati ken diezaiokegu eta beste bat har arazi? Horrek ez du gehienetan ondorio onik izaten.

Adibide honek guretzat ere balio du. Euskadin ere bada, agian, euskara oso antzina galdu duen edo eta sekula ezagutu ez duen eskualderik. Aitortu behar da oso gaizki ezagutzen dugula geure herriaren iragana alde honetatik, baina antzinatik dela herri hau bi edo hiruzpalau eledun, hori, bai, badakigu.

Erromatarrek bereizten zuten, nonbait —Pliniori esker dakigu hau— «saltus vasconum» eta «ager vasconum», hots, Baskoien mendialdea eta lur zelaia. Alde batean baso-oihanak ziren nagusi eta bestean gari eta mahasti-lekuak. Dirudienek, «ager vasconum» deitzen zen hori oso goiz erromatartu zen, latina harturik; eta lehenago ere, ez euskaraz, baina zeltiberoz mintzo ziren, antza. Horrela ditugu oso antzinatik, bai Nafarroan eta bai beste alderdietan, euskaraz mintzo ez diren eremu aski zabalak; zenbait toki beharbada sekula ez dira euskaldun izan. Mitxelenari entzun izan genion Santurtzin (eta Bilboko ateetan dago) orain mila urte ere erromantzez mintzo zirela, eta aitzinago zer mintzo ziren, ez jakin... (14).

Eta antzinako kontuak alde batera utzirik, populu batek berea bezala erabiltzen duen hizkuntza hura du berea eta hizkuntza horri errespetua zor zaio. Lehenago bestek beti gurekin errespetu hori gorde ez badu, ez dezagun guk orain oker hori bera egin.

Bernardino d'Arezzo, Kaputxinoen Ministro Jenerala 1693. urtean Nafarroan barna ibili zen. Bere bidaiaren berriak utzi dizkigu, italieraz idatziak. Hara zer dioen: «Da Tafalla in qua comincia il linguaggio Biscaglino...», hots, Tafallan hasten dela euskara (15).

R. Ciervidek egin duen azterketatik ateratzen da XIII. mendean Olite-n erromantzea zela nagusi (16). Badirudi mende-erronka luzean hor egon dela muga, Tafalla eta Olite bitartean, alegia.

Nola daiteke hori horrela?, galdeginen du zenbaitek. Ez ote dakigu Olitek euskal izena duela: *Erri berri*? Bai, Oihenart-i esker dakigu hori; baina kuestioa da nola ulertu behar den izen hori. Herri, berez, eta bere jatorrizko adieran, lurralde da, hots, «país» (17). Beraz, (*H*)*erri berri* horrek esan nahi du, itxuren arabera, han, Olite-n, hasten zela lurralde berri bat, beste herri bat, hizkuntza aldetik bestelakoa zena. Beraz, Olite izango zen Euskal Herriko muga edo Extremadura (18).

Gaizki ezagutzen dugu euskararen egoera eta gora-beherak joan-mendeetan. Badirudi Erdi Aroan nahaste handia egon zela hizkuntz aldetik gure herrian eta jendeak ez ziola jaramon handirik egiten arazo honi. Idatzizko zereginetarako etab. hor zen latina, baina gainerakoan bat bedera bere tokiko edo zekien hizkuntzan mintzo zen. Herriko hizkuntzek atzera-aurrera asko ezagutuko zituzten, baina horregatik inor ez zen gehiegi kantitzen. Bizkaiaren eta Gipuzkoaren barnean euskaldun ez ziren multzo batzuk egon zirela, toki-izenetarik ere froga daitekeela dirudi: Bermeo on-doan hor dira Albóniga, Demínibus, etab.; Donostia eta Donosti inguruan gaskoinen kolonia bat zela badakigu, bai historiatik eta bai utzi dituzten toki-izen eta izkribuetarik ere...

Eta alderantziz, J.B. Merino Urrutia eta bestek frogatu dutenez, Errioxan eta Burgos-aldean —ia Burgos hiriko ateetaraino—, eta Aragoi aldean eta Pirinioetan eta Akitania aldean euskara zabaldua egon zela badakigu.

Gaztelania bera euskaldunen sorketa dela dioenik ere bada. Hots, euskaldun batzuk erromatartu eta sortu zutela erromantze-molde berezi hau, eta hargatik erdara honek bere erraietan daramatzala euskararen kutsu, aztarna eta berezitasun asko.

Iparraldean, berriz, antzeko zerbait gertatu bide da gaskoinarekin. Jakina denez, gaskoinak ere euskarakin muga egiten du, eta, iduriz, honek ere, azpian, euskararen eragipenez argitzen diren berezitasun asko dauzka (19).

Beraz, eta dirudienez, euskarak zer-ikusi handia izan du bi hizkuntza erromanikoen sorreran: gaztelania eta gaskoinaren sorreran, alegia. Biak euskaldunek sortuak omen dira. Horregatik, eta aspaldidanik etxeko dugulako, esan zuen behin Mitxelenak Euskaltzaindiko batzarre batean: «Erdara ere hemengoa da, gero!». Denek isil-isilik entzun eta inork ez zion fitsik erantzun. Eta beste behin: Esaten denean 'Euskara da Euskadiko hizkuntza', badirudi mugaketa edo zehaztapen batzuk egin beharko genituzkeela, era honetara: Euskara da —eta izan da— Euskadiko zenbait tokitako hizkuntza, eta izan da, gainera, gaur Euskadi ez diren beste zenbait lekutakoa ere; eta, alderantziz, Euskadi osatzen duten zenbait lekutan gaur ez da euskararik egiten, eta, itxuren arabera, horietako batzuetan lehen ere ez...

Badakigu xehetasunetan sartuko bagina, mendeak, lekuak eta bereiztapen asko eta asko egin beharko genituzkeela. Euskara ere ez da beti atzeraka joan, maiz uste den bezala; lurak irabazi, galdu, berriz hartu etab. egin ditu. Egon dira Errepublikazioko euskaldunak (adibidez Errioxan) etab.

Beste aurre eritzi bat ere egoten da euskaltzale askorengan: Estatuaren inposaketaz gertatu dela euskararen atzerakada. Baina hori ere gauzak gehiegi sinpletzea da. Hori ere egon dela, batez ere azken mendeotan, ez dugu ukatzen. Baina, bai lehen eta bai gero ere, Bizi eta Heriok beren jokoa aski libreki egin dutela dirudi. Euskaldunak ere ez ziren gehiegi axolatzen gauza hauetaz, eta hala, pixkanaka, euskarari bere bazter-eremuak gero eta meharrago gertatu zaizkio.

Bortxa eta inposaketaz landara, beste faktore asko egon ohi da hemen tartean.

Gauza jakina da hizkuntza zabal eta orokorren jabe diren herrietako hiztunek ez ohi dutela beste hizkuntzarik ikasteko gogorik izaten. Iruditzen zaie aski dutela berenarekin; noranahi joateko balio duela, alegia. Hizkuntza ttipietako jendeak, aldiz, elebidun izan ohi dira; beren hizkuntzaz gainera, beste zabalago bat ere jakin nahi eta behar izaten dute. Horregatik, ahal badute, guttinez elebidun izan ohi dira. Jokabide edo portaera honek bere arrazoa du. Ttipiak handia behar; handiak, berriz, ez ttipia.

Zenbat gurasok ez dute beren haurrak erdarara lerrarazi! Beren portaera konprenitzekoa dela, esan behar. Berek, euskaldun huts izanik, beren haragian frogatu zuten zer mozkeria zen hizkuntza ttipi bat baizik ez jakitea. Hortik, batek baino gehiagok bere hizkuntza arbuiatu du, bere zorigaitz guztien errua hizkuntza horri egotzirik. Hortik, beren umeei erdara lehen-bai-lehen irakatsi nahia. Ikuste laburrekoak ziren, agian, baina gauza batean ez zeuden oker, hots, hizkuntza zabalago baten beharra nabaitzean.

Hastapen txarrek, printzipio okerrek ondorio txarrek ekarri ohi dituzte. Esan nahi dugu: auzi honetan planteaketa gaizki eginga baldin bada, hortik hartuko den jokabidea ere txarra izango da, eta ez gaitu inora eramango, porrot egitera ez bada. Euskadi hau elebidun edo ele askodun da, eta gertaera hori ez da atzo goizekoa, aspaldidanikoa baizik. Erdarak erro sakonak ditu Euskadin. Hori ukatzerik ez dago. Gorago esan dugunez, filologo batzuek uste dute, gainera, euskaldunak izan zirela gaztelaniaren (eta bai gaskoinaren) sortzaileak (20). Dena dela, etxeko ditugu eta, nahi ez nahi, aintzat hartu behar ditugu.

Euskadin erdaldun direnek euskaraz ere ikas dezatela, eta euskaldun direnek erdaraz ere bai: badirudi xede hori jarri behar genukeela helburutzat, elkarrekin anaikiro bizitzen ikasiz, bi hizkuntzetako hiztunen eskubideak zainduz. Hau izan bedi helburua edo ideala: bi hizkuntzoz ezagutza orotara zabaltzea. Bestela, berriz, euskaldunek erdaraz ere baldin badakite, eta erdaldunek euskararik ez, euskarak, bistan da, beti parterik txarrena izango du.

Badaude Euskadin hainbeste herri, erdaraz izen bat eta euskaraz beste bat dutenak. Biak errespetatu behar dira eta biak erabili: erdaraz mintzatzean erdarazkoa eta euskaraz hitz egitean euskarazkoa. Alde horretatik gaitzestekoa baino ez da, gaur geure errepedetan ikusten duguna: herrien erdal izenak ezabatuak izan dira eta euskarazkoak soilik irakurtzeko moduan utziak. Kanpokoei egiten zaien kalteaz gainera, etxeko askori ere iraina egiten zaie horrekin, eta nori da, bestalde, teatro egiten ibiltzea. Espantu horiekin ez dugu inor enganatu. Sobra ere badakigu erdarak gure herrietan duen indarra. Eta indar hori ez dugu erauziko honelako haurkeriekin.

Errealitatea den bezala ezagutu eta hartzea, hori da aurrengo gauza, kolpe huts egin nahi ez badugu. Gure herria bi eledun da. Bi hizkuntza horietarik bata handia da eta orokorra; bestea, berriz, ttipia. Euskadin bertan badira asko euskara hizkuntza propiotzat ezin har dezaketenak edo hartzen ez dutenak. Horiek hola, zer jokabide hartu? Biak errespetatzea, bien ezagutza orotara zabaltzen saiatzea.

Beste herri eta hizkuntza batzuen enenpluak aipatu ohi dira maiz gure artean. Bestetan zer gertatzen den jakitea, on da beti ere; baina aitzingibelak eta zertzeladak kasu bakoitzean bestelakoak izanik, ez dago hortik gehiegi ateratzerik. Esan nahi dut: guretzat ez dute asko balio.

Israelgo eta Irlandako kasuak alde batera utzirik (zeren horietaz gorago mintzatu baikinen) aipa dezagun beste nonbaiteko bat edo beste. Gales-en hizkuntza propioaren alde Irlandan baino gehiago egiten dela uste dut. Eta hor da Luxemburgo: herri guztia, oso-osorik, bi eledun omen da. Frantsesa eta alemana erabiltzen dira. Badirudi zeregin batzuetarako bata, eta beste batzuetarako bestea hobetsia dela. Baina, jakina, bi hizkuntzok, zein bata zein bestea, boteretsuak dira, zabalak eta orokorrak. Belgika eta Suiza ere aipatzen dira, baina ez dut uste gure kontuko balio dutenik, ezen erresuma horietan hizkuntza bakoitzak bere lurraldea edo eremua du eta eremu horretan bat baizik ez da erabiltzen. Ez dugu, bada, horietarik zer ikasi handirik. Gales eta Luxemburgo izango dira apika gure kasuaz antz zerbait dutenak. Sobiet Batasuneko zenbait errepublikatan gertatzen denak ere agian balio du guretzat. Baina bego.

Gipuzko eta Bizkaiko mutilek soldauzkan nafar euskaldunekin biltzen zirenean harriturik ikusten zuten nafar haiek berek baino erdara gutiago zekitela. Haatik, Araba eta Nafarroan batez ere, azken mendeotan, euskarak atzerakada handia egin du. Hori zergatik gertatu den aztertu beharko litzateke. Agian azterketa honek zerbait irakats diezaguke.

Eskualde horietako jendea ez zen bi eledun; hizkuntza bakarra zekien: euskara huts-hutsik. Euskara bat ahoz-ahoz eta gizaldiz-gizaldi ikasi eta erakarria; gainerakoan, euskal eskolarik ez zen, ez libururik ez idazlerik. Idazle kontuan basamortu gorria izan dira eskualde hauek. Baina, beste aldetik, etorkinen uholderik ere ez dute jasan!

Euskaldunak, eskualde hauetan, bere hizkuntza ttipi eta bakar horren presondegian preso ikusten zuen bere burua. Gainera, euskarak han ez zuen prestijiorik, ez zuen balio inora joateko, gizarte-mailan igotzeko, etab. Orduan erraza zen hiztunak hizkuntzari bere moztasun guztien errua botatzea. Eskola ikasteko eta bere burua janzteko ere oztopo besterik ez zen euskara. Izan ere, aitortu behar da euskaldun haiengan euskara inongo babesik gabe zegoela, guztiz on-behar. Eta ez da mirestekoa, erdararen eraso helduz zitzaien bezain laster, euskara laga eta hizkuntza berrira pasatzen baziren, beharbada sentimendu handi gabe. Euskaldun huts izatetik erdaldu huts izatera aldatu ziren. Nafarroan mendialdeko merindadeak ez du izan hiri bat merindade-buru izan zitekeenik ere...

Bizkaia eta Gipuzkoan beharbada egoera ez da berdina izan. Hemen ere euskaldun huts ugaririk izan da, noski, baina bi hizkuntzaren jabe zirenak ere ez guti! Hemengo euskaldun jendeak har-eman estuak izan ditu joan-mendeetan Gaztela, Andaluzia, Amerikekin etab. Beren kargu, jakintza, ospe eta ondasunakatik distiratu duten euskaldunak ugari izan dira. Orduan beste prestijio bat izan du hemen euskarak berak. Elebitasunari hemengo euskaldunak jarriak zeudelako eta euskarak prestijioa zuelako —nahiz eta ez beti—, hemengo euskaldunek barne-indar gehiago erakutsi izan dute erdararen erasoari aurpegi ematerakoan.

Hortik, agian, lezio bat atera dezakegu: bi hizkuntzaren jabe izateak mesede egin diezaiokeela euskaldunari euskara atxikitzeke; baldinkizun batzuk gordetzen badira, behintzat. Ez dela hobe, inoiz uste den bezala, euskaldun huts-hutsa eta soila izatea.

Euskarak ez du gaur lur-eremu bat bere-berea duenik, lurralde bat, alegia, kontrario gabe berak bakarrik erreginatzeke. Hau larria da. Horregatik, estrategia bat ongi pentsatu eta muntatuaren beharra. Bi hizkuntzen ezagutza orotara zabaltzea jarri dugu helburutzat. Baina hori ez da aski. Hortaz gainera, zeregin batzuetarako euskara hobetsi eta beharrezko bihurtu: horra noraezeko bidea.

Beharrezko ote da gauza denetan euskara erdararen parean jartzea eta jakingai denetan erdararen lekuan euskara erabiltzea? Agian ez, gaurkoz behintzat. Zeregin batzuetarako euskara ezin utzizko bihurtu: agian hori da bidea.

Euskarak mendeetan barna ekarri duen ibilbidea ulertzeko, erromatarkuntza edo erromanizazioa deitzen den gertakari horri so egin beharra dago. Erromatarrak Espainian 600 urtez agintzen egon ziren; eta Bisigotoak beste 300 urtez. Bitarte horretan lehenagoko hizkuntza guztiak itzali egin ziren eta latina orotara zabaldu; gero, berriz, latinaren eboluziotik erromantzeak sortzen dira. Beraz, katalanek hizkuntza propiotzat dutena zer da? Latinaren eboluzioz han sortutako erromantze bat; berdin gailegoa, etab. Euskaldunetatik ere asko erromatartu ziren eta beren erromantzeak sortu zituzten, baina ez denak; zati batek eutsi zion hizkuntzari, nahiz eta latinari mailegu asko hartuz. Euskaldunek Bisigotoekin ez zuten bakerik izan, eta beharbada hau da hemen erromatarkuntza erabatekoa ez izanaren arrazoia. Ez zen denborarik aski izan horretarako. Baina latina eta gero erromantzea etxe barnean geldituko zaizkigu euskararen ondoan.

M.T. Etxenik uste du, erromanizazioaren ondorioz, Euskal Herrian beti egon direla latinez edo latinaren ume diren erromantzez mintzatu izan diren multzoak; eta hori ez Araba eta Nafarroan bakarrik, baita Gipuzkoa eta Bizkaian ere. Euskarak, alegia, beti izan dituela —erromatarrak etorri zirenez geroztik— etxe barneko bizi lagun horiek. Hori suposatu gabe —dio berak— Euskal Herriko hizkuntz-historia ez da ongi ulertzen (21). Eta antzera D. Juan Gorostiagak.

Hori hala bada —eta badu itxura—, nolabaiteko elebitasunak erro sakonak ditu Euskal Herrian. Eta gerora ere hori kontuan eduki beharko da. Beharko da bilatu bi hizkuntzon errespetua, erabilpena, lantze eta zabal bideak segurtatuko dituen bizi lege bat.

Labur: Beharko da buruz jokatu.

Oharrak

1. SANCHEZ CARRION (José M.^a) *El espacio bilingüe*, Eusko Ikaskuntza, 1981.—ID., *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*; Institución Príncipe de Viana.— ID., «Bilingüismo, disglósia, contacto de lenguas» ASJU (1974), 3-79.— ID., *Un futuro*

para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas; San Sebastián 1987.— MICHELENA (Luis), «Sobre bilingüismo» in *Lengua e Historia*, col. Paraninfo, 1985, Madrid, p. 192.— EUSKALTZAINDIA, *Conflicto lingüístico en Euskadi*. Informe Siadeco. Resumen elaborado por Martín de Ugalde, 1979.— ECHENIQUE (M.^a Teresa), *Historia lingüística vasco-románica. Intento de aproximación*, San Sebastián 1984.

2. Beherago ikusiko dugu eremu hori geografikoa ez ezik, zereginen mundukoa ere izan daitekeela.

3. O. cit., Bilbao 1934; p. 92-93.

4. Ikus, esate baterako, CAMPION «Sobre el nuevo bautizo del País Vasco» *Riev* I (1907); II (1908), 271, 749.

5. «Formación de un nombre para el Pueblo Vasco», *Euzkadi* I (1901), 52.

6. Hori ere guztiz segurua ez dela, aitortu behar. Omecillo, Bayas eta Ebro bitarteko lur-zerrendan, Bizkaiko sartaldean, Araba eta Nafarroako franko tokitan hitz egin ote da inoiz euskaraz? Erromatartu baino lehen ez ote ziren zeltak? Guttinaz, ilun daudela gauza hauek, aitortu behar.

7. O. cit., p. 38.

8. Id. ibid.

9. O. cit., p. 38.

10. O. cit., p. 48.

11. O. cit., p. 157-158.

12. Euskal Mundu-Biltzarraren lehen egunean (1987-VIII-31), atzerriko jaun eta andere askoren artean Kataluñako jaun bat agurtzeko aukera izan nuen. Hauxe esan zidan: «Hizkuntz-auzi horiek ekonomiak erabakitzen ditu. Bost miloi mintzatzaile dituen hizkuntza ekonomiaren gaurko martxan, ez da gai behar diren komunikabideak, egunkariak etab. ordaintzeko. Hori mende honen hasieran oraindik posible zen; gaur ez». Katalanak ditu 5 miloi hiztun. Guk miloi erdi besterik ez!

13. Ikus SIADECO, *Estudio socio lingüístico del euskara*.

14. Jakina denez, Sánchez Albornoz, Schulten eta beste batzuek uste dutenez, hiru probintziok —Araba, Bizkaia, Gipuzkoa— Erromatarren garaian ez ziren ez euskotar eta ez euskaldun, zeltak baizik. Erromatar historiagileek —Strabon, Plinio, Pomponio Mela etab.— hemen kokatzen dituzten leinu eta herrien izenek ez dute euskal usairik bat ere. Gero, Bisigotoen garaian, Nafarro aldetik etorri zirena, euskaldundu ziren bazter hauek. Jakina, hipotesi hau beste batzuek ez dute onartzen.

Ikus Julio Caro Baroja, *Los Pueblos del Norte de la Península Ibérica*, Ed. Txertoa, 2.^a ed. p. 98. Zernahi gisaz, gorago esan dugun bezala, Euskadi deitzen dugun honetan, euskaraz landara, izan da eta bada beste hizkuntzarik. Nafarroan bertan zelten presentzia ez da gutiestekoa izan. Aurkitu diren idazkune edo inskripzioak hala erakusten dute.

15. Aita Anselmo de Legardak ezagutzera emana. Ikus *Geografía histórica de la lengua vasca*, 1960, col. Auñamendi; p. 140.— A. APAT-ECHEBARNE, *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*, Pamplona 1974, p. 84.

16. Ikus *Olite en el siglo XIII*, Pamplona 1980.

17. Euskal-Herri = País Vasco o País del Euskara. Alaba herrian (Ax 8) = en el país o tierra de Alava. Ikus panderu-joleen kanta hura ere: Arantzazutik gora / herri bat Araba...

18. Zenbaitek uste du, halere, Erriberri dela Oliteko zati baten izena, beranduago eraikitako auzunearena, alegia.

19. TXILLARDEGI «Specificité de l'évolution des langues romanes de la région pyrénéenne occidentale» *Euskera* (1976) 51-73.

20. «Romançe navarro-aragonés» delakoaz ere gauza bera esan beharko litzateke.

21. Ikus *Historia lingüística vasco-románica*, p. 63-64.

X. Kapitulum. Irakaskuntza

Laburpena

Gaitz honentzat ez dela hutsezin datekeen panazeirik.— Eskolaren beharra.— Euskal Herriko eskolak joan-mendeetan.— Orduan ere bazela gizon buru-argirik, baina ez zuten girorik aski aurkitu.— Mende haietako jende eskolatua eta euskara.— Ikastolen sorrera.— Eskolen bilketa edo konzentrazioak.— Zein den, iduriz, Euskal Herriko elebitasunari eman behar zaion irtenbidea.— Euskara erdi eta goi mailatako estudioetan.— Bestek liburu bat erdaraz egin duela eta, marmarka hasten direnak.— Hiztegi berezituak.

Jakina denez, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari jaunak Euskararen Aholku-Batzordea (Consejo Asesor del Euskara) sortu zuen, euskarari dagozkion gaietan berari aholku emateko. Hamabi bilkuren buruan batzorde honek agiri bat zuzendu zion Lehendakariari, hots, euskararen politikarako oinarrizko erizpideen dokumentua. Ez dugu gutuna bera ezagutzen, baina bai batzorde-idazkariak (J. Arregi) egindako azalpena (1). Azalpen honetan garbi asko aitortzen da ez dela ezagutzen bide gertu edo errezeta segururik euskararen etorkizuna segurtatzeko. Euskal Herriaren egoera zein den, argi eta garbi adierazten da azalpen honetan: erdaraz denek dakitela, alegia; euskaraz dakitenak, aldiz, % 25era ez direla heltzen. Horiek hola, gehigarriko esportzuak beharko dira egin eta ardura bereziak hartu hizkuntza honen alde, beronen normalizapena lortzeko etab., nahiz eta gizarte bat oso-osoko elebitasunean aurrera eramatea zaila ikusten den.

Bai, egia da. Errezeta segururik, hutsezinik ez dago hemen. Herriak berak nahi dezala, eta nahi hori benetako nahia izan dadila eta ez nahikunde huts-soila: hori da printzipala.

Baina aukerak, bideak eta tresnak ere eskaini beharko zaizkio euskarari. Horiek gabe ezin gaituzko oztopen aurrean gertatuko da. Adibidez, ez du balio esatea orain arte eskolarik gabe egon dela euskara eta hala ere iraun duela. Bai, hala gertatu da. Baina gaur eta hemen, kokaturik gauden Europako bazter honetan eta Historiaren bihurtune honetan, euskarak eskolaren laguntzarik gabe ezingo luke iraun. Eskola egonik ere ez dakigu iraungo duen, baina hori gabe ez, inolaz ere. Eskolako ateak euskarari zabaltzea baitezpadakoa da, noraezekoa.

Badakigu mendeetan barna euskarak ez duela eskolan sarrerarik izan, eta hala ere iraun du. Iraun. Baina nola? Atzeraka eginez, gaur ezagutzen dugun egoerara etortzeraino.

Aita Lasak eta beste batzuek idatzi dute Euskal Herriko eskolen iraganari buruz (2).

Handik ikusten da behialako eskola zer egoeratan egon den gure artean (guti gora-behera beste lekuetan ere antzera egongo zen, baina edozein modutan ere horrek ez du egoera aldatzen).

Ez Estatuak, ez probintziak eta ez udaletxeek ez zuten zer ikusirik eskola-kontuan. Herri bateko gurasoek berek garbitzen zuten auzia: maisu bat beren umeentzat behar zela, eta erabakitzen zuten zein aukeratu, zer ordaindu behar zitzaion, etab. Eskola emateko berariazko etxerik ez zen. Eskola hori maisuaren etxean bertan eman behar izaten zen gehienetan. Eskola-emaileak gaizki ordainduak egoten ziren. Maisuarenaz gainera, beste mila ofizio hartzen zituen maisuak, eta beharko hartu, biziko bazen. Maisu-titulurik ez zen eskatzen. Esan beharrik ez dago maisu haiek gehienetan guti zekitela eta gaizki prestatuak egoten zirela.

Garai haietan jende asko zegoen ez irakurtzen ez idazten ez zekiena. Gauzak buruz — memoriz— ikasteari garrantzi handia ematen zitzaion (memorismoa), baina hori konprenitzekoa da, ezen irakurtzen eta idazten ez dakienari zerbait irakasteko ba ote da beste biderik?

Irakurtzen irakasten izaten ziren lanak! Eta bitxia badirudi ere, irakurtzen ikasi arte ez zen idazten ikasten hasi behar. Askok eta asko, jakina, ez ziren sekula bigarren maila horretara iristen. Neskatoei, berriz, ez zitzaion idazten irakatsi behar, aski zuten irakurtzen jakitearekin... Benetan panorama hitsa.

Pixkaka (XIX. mendean) hasten dira maisu-tituluak. Probintziko agintariek eskua sartzen dute eskolak egoera hobeko batera jasotzeko.

Zer sarrera zuen euskarak gure auzo eta herrietako eskola haietan? Ezer guti. Kristau dotrina euskaraz ikasten zen, hori bai. Gainerakoan, arreta guztia ipintzen zen haurrek erdaraz ikas zezaten (eta hori gurasoen beren eskabidez). Gurasoek ikusten zuten erdaraz ikasi beharra zegoela; eta orduan, beren haurren onari eta geroari begiratu, horretan ipintzen zuten axola guztia. Hortik ez da segitzen euskara ez zutela maite euskaldun zahar haiek. Beren haurrek euskaraz bazekiten (etxean eta lagun artean ikasirik): hala pentsatzen zuten gurasoek. Beraz, zertarako behar zen eskola, bizitzarako behar den beste hizkuntza, hots, erdara, ikasteko ez bada?

Auziaren planteaketa txarra zegoen azpian; baina gauzak hala ikusten ziren orduan gure artean.

Izan ziren, bai, orduan ere gizon buru-argiak, planteaketa horren makurra zuzendu nahi izan zutenak, baina arrakasta gutirekin. Jaun buru-argi hauek erdara irakatsi behar dela ez dute bat ere dudan jartzen, hori ez; baina hori onarturik ere, kuestioa da zein den horretarako biderik onena: euskarari eskolako ateak ixtea, ala euskara bera hartu —haurrak dakien hizkuntza, alegia— eta horren bidez bigarren hizkuntza —erdara— irakatsi? Era honetara, eta bide batez, euskarari buruz ere eskolatuak izango ziren haurrak, zeren hitzegiten jakiteaz — eta hori ere nor bere txokoko erara— ez baitira bukatzen hizkuntza bati buruz jakin behar diren gauzak.

Abiapuntu, beraz, euskara; eta azken helburu, erdara. Hau zen, guti gora-behera, Astigarraga (3), Eguren (4) eta Iturriagaren asmoa. Jaun horiek sarbidea eman nahi zioten euskarari eskolan. Eta zinez, hori zen pedagogi biderik onena haur euskaldunari erdaraz irakasteko; eta bide batez, gainera, euskara bera haurraren izpirituan sendo erroztatzeko.

Ez zen erraza, ordea, guraso euskaldunei hori sinestaraztea.

Iturriaga izan zen, segur aski, asmo hau aurrera ateratzearen alde lan gehien egin zuena. Eskolak euskarari egiten zion kalteaz oharturik, ahaleginak egin zituen egoera hura aldatzeko. Iturriagaren arrazoiketa hau da: Zer irabazten dugu geure apologistek euskara hizkuntzarik ederrena, bikainena etab. dela esateaz, gero gu gerok eskolan euskara akaatzeko ahalegin guztiak egiten baditugu? Azeri eta belearen ipuina gogoratu, hau dio: «Nos vamos a quedar como el cuervo de la fábula: hinchados de vanidad y sin queso». Harrokeriaz puztuak gure euskararen bikaintasunak direla eta, eta aldi berean gaztairik gabe, euskara gabe geldituko gara, zeren eta gu gerok eskolan akaatzen baitugu (5).

Iturriagaren eskabide eta proposamenek ez zuten oihartzunik aurkitu.

Aita Kardaberaz ere (1703-1770) *Euskeraren Berri Onak* bere liburuxoan arrenkuratzen da arrazoi osoz euskarari herriko eskoletan ematen zaion tratu gaiztoaz (6).

Gero, berriz, Estatuak hartuko du aginpidea eskolen gain (salbu eta Nafarroan; han maisuak beti nafarrak behar ziren). Euskara berriz ere eta zati luze samar baterako, eskolatik kanpora geldituko da.

Gainera dezagun: euskara bigarren mailako irakaskuntzara egokitzeko ere zenbait saio egin ziren. Baina bertakoen axolagabekeriagatik ez zen deusik lortu. Euskal Herrian ikasketak berezi batzuk egin behar zituenak erdal herrira joatea beste biderik ez zuen gehienetan. Eta gero zer gertatzen zen? Erdal giroan bizi eta ikasketak erdaraz egin ondoren, herrira itzultzen zenean, gure gizona erdal zale eta euskal gauzen etsai bihurtzen zela. Jarrera hau norbere ezjakintasunaren erreakzio bat besterik ez zen, baina, zernahi gisaz, kultura eta ilustrazioaren izenean egiten zelako, euskaltasunarentzat guztiz kaltegarria zen. Iztuetak euskal dantzen kondairan garbi esaten du zergatik galtzen diren dantza horiek, euskal ohiturak eta euskara bera ere, hots, ikasketak kanpoan egin eta gero herrira itzulitako «señorito» horien burlengatik (7).

Bai. Señorito horiek, nahiz eta sortzez euskaldun izan, euskaldun ziren aldetik analfabeto hutsak ziren. Herrira itzultzean, euskaraz egiteko baldartuak zeuden eta beren erreakzioa gehienetan euskara eta euskal gauzak oro mendratzekoa izan ohi zen.

Peru Abarka-n ageri den Maisu Juan barberua ere aiurri horretakoa dugu, noski.

Eta J.A. Mogel, Peru Abarkaren egileak, gaitz honetzaz oharturik, obra hau egin zuen, hain zuzen, jende eskolatu honi —baina euskara-kontuan ezjakin zenari— euskararen dohainak erakusteko (8).

Horrela egon da mendeetan zehar gure Euskal Herri zaharra bitaratua bezala: jende eskolatu alde batetik, eta herri xehea bestetik. Bitaratze hauek zein kaltegarri diren esan beharrik ez dago.

Gaitz honi noizbait erremedio ipini nahi bazitzaion, Euskal Herrian, eta ahal dela euskaraz, ikasketak egiteko bideak jarri behar ziren.

Baina bigarren mailako irakaskuntza euskaraz emango bazen, tresnak ere behar ziren, hots, hiztegiak, gramatikak etab. Eta egon ziren, bai, lan horretan eskuak sartu zituztenak.

Sarako Etxeberrik latin ikasteko gramatika bat idatzi zuen euskaraz, eta hiztegi bat lau hizkuntzatan (euskara, latin, frantses eta gaztelaniaz). Liburuok ateratzeko, ordea, laguntza eskatu zion Lapurdiko Biltzarrari, eta honek ukatu. Antzekoa da Domingo Bidegarairi gertatu zitzaiona. Honek ere, gazteak estudioak egiteko kanpora joan ez zitezten, hiztegia (lau hizkuntzatan) eta beste obra bat egin zuen; horiek argitaratzeko Nafarroako Parlamentuari eskatu zion laguntza, baina alferrik (9).

Horrela, sail horietan erabili gabez, moztasun handiaz heldu da euskara gure egunotara.

Gure egunotan zerbait berri jaio da. Itxaropenez ernari heldu den zerbait, hots, *ikastola*. Egunen batean gertakari handi honen historia idatzi beharko da. Carlos Santamaríak ederki esan du:

«El subrepticio renacimiento de las ikastolas, allá en los años cincuenta, fue una gran empresa y nos comunicó a todos los euskaltzales de entonces una racha de optimismo, la única quizá, de que pudimos beneficiarnos en aquellos tiempos de represión lingüística. Gracias a las ikastolas empezamos a confiar, con cierta firmeza, en el futuro de la lengua vasca, que ya parecía casi completamente perdido» (10).

Ulibarri Galindez perratzaile arabarra (1775-1847) ordu onean ohartu zen ikastolaren beharraz (*ikasola* esaten du berak). Okondoko bere herrian horrelako zerbait ezagutu zuela dio, gainera (11).

Euskal eskolen sorrera bigarren Errepublika-garaian kokatu behar da (12). Baina bir-jaiotze indartsuago eta iraunkorragoa ezagutu dute gero. Noiz? Gezurra badirudi ere, frankismoaren garaian (13).

Behiala, erdara haur euskaldunari irakasteko aitzakiaz, euskaltzale eta pedagogo batzuek sarrera eman nahi izan zioten euskarari herriko eskoletan, ikusi dugunez. Asmo eta saio haiek ez zuten arrakasta handirik izan. Orain, ikastola berrien helburua eta jomuga bestelakoa izango da, hots, euskara bera irakastea; batez ere, haur euskalduna euskararen bidez eskolatzea. Haur euskaldunak, alegia, euskaraz irakurtzen eta idazten ikas dezala, eta horretaz gainera, zenbait ikasgai ere euskararen bidez ikas ditzala.

Autonomiarekin denbora berriak eta zoriontsuagoak heldu zaizkio euskarari. Hala uste dugu behintzat. Orain sarrera bidezko eta legezko bat izan dezake eta du euskarak herriko eskoletan. Euskararen etorkizunerako itxaropen handia pizten du honek.

Baina aitzingibel asko duen arazo korapilotsua da irakaskuntza, eta zentzuz beharko da jokatu. Oraindik euskararen atzerakada ez da gelditu.

Eskolen bilketa edo kontzentrazioek, esate baterako, euskara biziari kalte handia egin diotela esan behar. Lehenago haurrak, eskolak auzoetan zirenean, euskaraz mintzo ziren; orain, aldiz, kalera edo hirira eramaten dituzte eta orduan erdara nagusitzen da. Euskararen arazoa kontutan sartu gabe, baita beste alde askotatik ere eskolen bilketa hau kaltegarri gertatzen da: haurra etxeko girotik apartatzen delako, gurasoen lanbide, ohitura eta mundua arrotz bihurtzen zaizkiolako, heziera moral eta erlijiozko ondorio txarrak dituelako. Familia baldin bada etxeko eskola eta etxeko eliza, bistan da haurra etxetik eta familiaratik aldentuz, hezieraren alderdi asko eta asko galtzeko zorian jartzen direla.

Hitz batean esateko, ume deserrotuak ateratzeko bidea da hau, eta hori alde guztietatik begiraturaz, kaltegarri baino ez da.

Eta euskal eskolak porrot egitea nahi ez badugu, zuhurtzia handiz jokatu beharko da. Lehenago bidegabekeria egiten bazen haur euskaldunak erdara hutsez eskolatuz, ez dezagun orain gauza bera beste aldetik egin. Amaren hizkuntzan eskolatu behar baldin bada haurra, erdaldun diren hurrekin ere neurri bera gorde dezagun —erdal giroan bizi badira batipat—, traumak eta sesio-bideak sort ez daitezten.

Honekin esan nahi dut arazo hau ongi aztertu eta zentzuz eraman beharrekoa dela.

Hau da kontua: gure herrietan haur batzuk euskaldunak dira eta beste batzuk erdaldunak —erdaldun hutsak—. Zer bide hartu behar da? Badirudi gizartean elkarrekin anaikiro bizi eta bi hizkuntzok elkarren parean egotea nahi baldin badugu, honako hau litzatekeela jokabidea: haur euskaldunari lehen eskola euskaraz eman, eta, gero, bizitzerako beharko duen bigarren hizkuntza irakatsi. Haur erdaldunari, aldiz, beste aldera: aurrengo eskola erdaraz, eta gero, euskara, zeren eta gizartean hori ere beharko baitu. Xehetasunetan ez naiz sartzen, ezen ez naiz nor.

Eusko Ikaskuntzak Gernikan 1922. urtean bere batzarreak egin zituenean (Hizkuntza eta Irakaskuntzari eskainiak) Gales-ko ordezkaria mintzatu zen (14). Agian guk euskaldunok badugu zerbait ikasteko galesaren kasutik, ezen gureak badu harenarekin antz pixka bat.

Erdi eta goi mailako estudioetan zer sarrera eman behar ote zaio euskarari? Hor ere euskararen presentzia behar dela, bistan da. Nola, zer neurritan, modutan, etab., hori beste kontu bat da.

Batzuek nahi lukete Unibertsitatea zeharo euskalduntzea, gaiak oro euskaraz emanez, etab. Baina kuestioa da, alde batetik, Euskal Herrian euskaldun direnak ez direla % 25era heltzen, eta, bestetik, tresna bera edo mintzabidea —euskara— ez dugula mundu horretarako gaurkoz aski egokitua. Esperientzia pixka bat duenak badaki —hori aitortzea mingarri bazaigu ere—, zientzia-gaiak taxuz azaltzeko eta bai entzule eta irakurleei ulertarazteko ere, trebeago direla gaurkoz gure inguruko erdarak, euskara baino. Sail horietan erabilia izan ez delako eta inguruko hizkuntzetatik urrun xamar gertatzen delako, euskarak oraindik eragozpen handiak ditu. Horrek ez du esan nahi bide horiek urratzen saiatu behar ez dugunik. Bai, saiatu, bai. Baina denbora ere beharko da.

Urratsen mailakatzea nik honela egingo nuke. Lehenbizikorik, goragoko kapitulu batean azaldu genuen hura: prosa eraiki, prosa-molde bat, alegia, nazioarteko prosa amankomunetik hurbil egongo dena. Bigarren urratsa: gaurko hiri-giroan egunoro erabili behar diren hitzak hautatu eta finkatu. Hor kulturaren munduko hitz asko eta asko sartu beharra izango da. Bi urratsok, bai, presa dute eta presa handia, ezen gaur Euskal Herriko gizartea hiri-giro horretan bizi da.

Euskaltzaindiak Hondarribiko bilkuretan erabaki zuen Hiztegi hiritartu honen langintzan hastea (15). Guk nahi-ez-nahi, Euskal Herria Mendebaleko kultura-munduan murgildurik bizi da. Kultura honek baditu mila hitz eta ideia nazioarteko edo orokor bihurtu direnak. Hitz edo ideia horiek euskaraz nola esan eta idatzi behar diren jakin beharra dago, eta finkatu beharra, eta arazo honek presa du, noski.

Gaur batzuegan inoiz halako errasumina nabari da, zerbait erdaraz idatzia ikusten dutenean. Kontu eskatzera ere etortzen zaizkitzu. Hala etorri zitzaidan behin norbait. Zeozer erantzuteagatik, esan nion: «Euskaraz idatzi ditudanak irakurri dituzu?» Bai zera, ez zituen ikusiak ere, eta bien bitartean erdaraz zerbait agertu duzula eta, hori aurpegira bota behar. Halakoei gehienetan bost axola zaie liburuaren edo hitzaldiaren mamiaz. Bakarrik euskaraz ala erdaraz egina izan ote den. Baina gauzak horrela hartuz, nora goaz?

Jaun hauei puntu bat baino gehiago argitu beharko genieke. Bat, eta ez azkena, ekonomi arazoa. Gogoan dut Platonen liburu bat euskaratu eta argitara ondoren, Zaitegi jaunak esan zidana: «Behin urkatu dut neure burua eta ez noa berriro urkatzera...» (16).

Aita Larramendik ere bere garaian ukitu zigun arazoaren alderdi hau: «Habr a m as libros en vascuence si est as dispuesto a dar unas friegas a tu bolsa...» Gero hor dago irakurlegoaren arazoa, zabalkundearena etab.

Baina batez ere liburu batean azala eta mamia bereizten jakin behar da. Badira idazki-mota batzuk, zeinetan mami edo barrenak garrantzi guztia baitu, eta azalak edo gainaldeak guti edo bat ere ez. Literatura ederrean ez da hala, baina beste idazki-mota askotan bai, esate baterako Jakintza-gaietan. Hor idazleak bilatzen duena zera da: irakasgaia ahalik eta argien, zehatzen eta ulerterrezenik adieraztea eta irakurleari konpreniaraztea; eta horretarako oraino, gai askotan, egokiago da erdara. Mingarri zaigu hori esatea, baina hala da. Ez ote dugu, ordea, lan egin behar euskara eremu horietan ere gai bihurtzeko? Bai, egin behar da, noski. Baina inposaketa gabe; zer, noiz, nola idatzi bakoitzak ikusi beharko du. Jakintzen mundua beti ere barruti edo esparru berezia da. Eta norberak daki bere buruaren berri, zer-nolako baldintzapenak dituen, etab.

Gorago esan dugun bezala, gaur, Mendebalean behintzat, bada nazioarteko kultura-altxor bat, pixka bat guztiona bihurtu dena eta guk ere etxekotu behar duguna, eta horrek, bai, presa du. Hemen ere, ordea, bereizpen bat egin behar da: gauza bat dira hitzak, eta beste bat hitzokin adierazi nahi diren ideiak. Ideiak behar ditugu, noski, etxekotu. Ideiokin batera ea hitzak ere hartu behar ote diren (maileguzko hitzak) ala ideia horiek adierazteko euskal

gaiezko hitza bilatu edo asmatu behar den, hori beste kontu bat da. Horretan ere ate guztiak zabalik uztea izango da onena. Eta zenbaitetan bitariko hitzak egoteak ez digu kalterik egingo.

Jakintzen eta gaurko Tekniken Hiztegi espezializatuak edo berezituak ere behar ote ditugu euskaraz? Bai, noski. Kuestioa izatekotan izango da nork eta nola egiten diren.

Hor ditugu, besteak beste, *Uzeik* argitara dituen hiztegi gotorrak. Eta guztiok dugu gogoan, baita ere, Mitxelenak eta beste zenbaitek horretaz sostengatu zuten polemika. Ez naiz nor hiztegi horien kritika egiteko. Batetik, ez ditudalako sakonki aztertu, eta, bestetik, zientzia guzti horiek ere barnetik ezagutu beharko nituelako. Dena dela, saio bat diren aldetik, bideurratze bat eta behin-behinekoa, denborakin hoba eta osa daitekeena, uste dut beti ere laguntza estimagarria izan daitezkeela. Euskarak eremu horietan sarrera izan dezan laguntza zerbait presta dezaketeela, alegia (17).

Halere, Mitxelenaren kritikatik badugu zerbait ikasteko eta atxikitzekorik. Oker ez banago, Mitxelenak gogoratu nahi ziguna hau zen: egiazko kultura hizkuntzaren barnetik egiten dela, hots, gizon batek, bai euskara eta bai jakintza, bi-biak, barnetik ikasi eta jakingai hori euskaraz jator azaltzen saiatzen denean. Eta berak, Mitxelenak, halako mesfidantzaz hartzen zituen mimetismoz, alde zurretik eta kanpotik bezala proposatutako bataio edo izenak. Uste dut abisu hau kontuan edukitzekoa dela.

Mitxelenak nahiko lukeen bidea, ordea, onena izanik ere, luzea da. Luzeegia beharbada. Eta ez da ahantzi behar erasia hura: onena onaren etsai izan ohi dela sarri. Gainera, ez dut uste batak bestea galerazten duenik. Gure kasuan, agian bi bideok beharko dira elkartu.

Prentsa, Irrati, Telebista, hots, Komunikabideek, eragin handia izan dezaketeela eta dutela euskararen auzi honetan ez du inork ukatzen, begien bistakoa da eta. Baina guk ez dugu arlo eta zertzilidade guztietara jaisteko asmorik. Ez goaz, bada, gai horiek berariaz aztertzeraz.

Oharrak

1. Ikus *Deia*, Urriak 21, 1982.
2. Ikus *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco* (Col. Añamendi n.º 57, S.S. 1968).
3. ASTIGARRAGA y UGARTE (L. de) *Diccionario manual bascongado y castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa*, Tolosa 1825.
4. EGUREN (J.M.), *Diccionario manual o vocabulario vasco-castellano*; S.S. 1876.
5. Ikus J.I. LASA «Iturriaga, adelantado de las artes pedagógicas sobre el vascuence» in *Sobre la enseñanza primaria en el País Vasco*, p. 147ss. Ikus, baita ere, Iturriagaren omenaldiko lanak in *Euskera* (1978), 113-157.
6. *Euskeraren Berri Onak*; Auspoa 37; batez ere hirugarren kapitulua: «Ondo itzegiteko ta eskribitzeko molde edo artea», 70 orr.
7. IZTUETA (J.I. de), *Gipuzkoako Dantza Gogoangarriak* (edición bilingüe), La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1968; 2.ª parte, p. 95ss.
8. VILLASANTE (L.) «En torno al centenario de la aparición de Peru Abarca» *Euskera* (1982), 8.— Ikus baita ere orain aurrengo aldiz argitaratu den Mogelen Dotrinan datorren erdal hitzaurrea; *Euskaltzaindia*, «Lekukoak» 14, Bilbao 1987.
9. Ikus VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, n.º 99, 105.
10. «El euskera como lengua escolar», *Euskera* (1979), 468.

11. Ikus Ulibarriren Gutunliburua Arabako Diputazioak faksimilean 1979. urtean aterea. Ikus baita ere Daniel IBARGOITI, *Jose Paulo Ulibarri*, Ikastola liburutegia 2 (liburuxka).
12. Ikus «Escuelas Vascas origen de las ikastolas», *Kimu* aldizkarian, Novbre.-Dcbre. 1982, 23-26.
13. Hain zuzen, duela urte guti hila da Elvira Zipitria. Bera izan da ikastolen bir-jaiotze honetan gehien lan egin dutenetakoa. Ikus *Argia* (1983), Urtarrilak 9 eta Carlos Santamaría *El Diario Vasco*-n 1982-XII-29an eskaini zion artikulua.
14. Ikus Sir ALFRIED T. DAVIES, «El idioma galés. Su lugar en la educación en Gales», *III Congreso de Estudios Vascos*, 126 orr.
15. Ikus *Euskera* (1982), 271.
16. Liburu hura argitaratzeko, aurreraturik zeuzkan txanpon guztiak erre kara bota behar izan zituela esan nahi zuen, jakina; berriz eskuratzeko bat ere itxaropenik gabe, gainera. Goian aipatu ditugun hitzak esanarren, Zaitetik berriz ere urkatu zuen bere burua..., baina, jakina, hori ez dago inori eskatzerik.
17. Ikus MITXELENA, «Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia» *Muga*-19. Ikus polemika honi buruzko bibliografia *Jakin* aldizkarian (1982), Apiril-Ekaineko zenbakian, 121-126 orr., eta zenbaki horretan bertan J. Azurmendiren erantzuna Mitxelenari.

XI. Kapituluua. Esaeren mundua

Laburpena

Hizkuntza bat menderatzeko, gramatika eta hiztegiak landara, esaeren mundua ere behar dela ezagutu.— Idiotismoen mundu honen mugaketa.— Gure artean azaldu diren zenbait bilduma.— Idiotismoek zer-nolako garrantzia duten literaturan.— Neurriak gorde beharra, ordea.— Zein den idiotismoek betetzen duten zeregina.— Idiotismoen sailkapena.— Adibideak.— Idazlea eta idazki-mota nolakoak diren ikusiz, idiotismoek sarbide gehiago edo gutiago izan dezaketeela.

Aita Olabide, Eusko Ikaskuntzaren Oñatiko Batzarrean, 1918. urtean, honela mintzatu zen:

«Porque habréis observado cuantos de la afición platónica al euzkera habéis querido pasar a manejarlo como instrumento de expresión en la conversación, en el magisterio y en la prensa, que la voluntad más sincera y decidida se estrella desde los primeros pasos ante la imposibilidad de encontrar, a medida que las necesitáis, palabras para lo que queréis decir; ya porque desconocéis lo que existe en nuestro tesoro lingüístico, ya porque en lo que de hecho falta ignoráis los resortes del euzkera para llenar sus propios vacíos. Y ésta es la hora en que después de tanto conato en favor de nuestra lengua, continuamos atollados sin vislumbrar una salida, esterilizándose todos los estímulos extrínsecos con que pretendemos la reconquista del euzkera, por no atacar de una vez denodadamente la dificultad intrínseca, que la dispersión y el desconocimiento de nuestros materiales de construcción oponen a toda marcha, sustrayéndonos el suelo debajo de los pies» (1).

Aita Olabide euskaldun berria zen, noski. Hizkuntz komunitatetik kanpo hazia eta hezia. Euskara ikasiarren, hizkuntza hau mintzabide edo tresna bezala erabiltzeko eragozpenak aurkitzen zituen. Hark aitortzen duena, neurri handiagoan edo ttipiangoan, beste askori ere gertatzen zaiola aitortu behar.

Eta ohar honi: zailtasun honen erroa ez dago hitzen eskasian bakarrik.

Izan ere, hizkuntza bat menderatzeko ez da aski gramatika eta hitzak jakitea. Hor dago fraseologia, hots, esaeren mundua: lokuzioak, errefrau itxurako esapideak, etab. Esaeren mundu hau guztiz da berezia eta hizkuntzaren muinari hurbildik ukitzen diona. Arrotzarentzat santuario itxia gertatzen da, eta hortik —besteak beste—, hizkuntza erabiltzeko somatzen duen ezintasun edo nekea.

Károly Morvay, Budapesteko irakasleak aitortu duenez, atzerritarrek, gaztelania ikasi nahi dutenean, hor aurkitzen dute oztopo nagusia, hots, fraseologiaren munduan, eta oztopo hori gainditzeko tresna on guti dela dio. Mundu horretan ikaslea sarrarazteko ikasbide guti dagoela, alegia.

Hizkuntz komunitatearen barnean bizi denak gauza hauek berez bezala ikasten ditu, ohartu ere gabe. Baina aukera hori ez duena, nola moldatuko da? Gaztelaniaz dagoen tresnen urritasunaz arrenkuratzen bada Budapesteko irakaslea, euskarari buruz zer esan beharko dugu guk?

Idazle onak irakurriz —ez nolahi irakurriz, noski, puntu honi kasu emanez baizik— zerbait eta asko erremedia daiteke huts hau, baina lan neketsua da eta halako prestaera bat behar izaten da, irakurketa emankorra gerta dadin. Euskaldun huts-garbiekin har-eman estuak izatea dela biderik onena, esan beharrik ez dago. Baina hori ere denon eskuetan ez da egoten. Zernahi gisaz, hartako ikasbideak, hiztegiak, bildumak etab. gaur beharrezkoak dira.

Esaeren mundua gaizki ezaguna da, guti aztertua. Mundu horren barnean zer sartzen den, zer gelditzen den kanpoan etab. jakiteko, mugak ez daude beti garbi. Guk euskaldunok *esaera* hitzaz izendatzen dugu nolabait mundu hau (Hegoaldean behintzat), baina izen hori bera zehaztasun gutitakoa dela agerian dago. Gaztelaniaz «Modismo» hitzak arrakasta izan du. Orokorkiago *Idiotismoa* erabili izan da. Izen honekin esan nahi da honelako esaldiek aparteko modu batean hizkuntzaren norberatasuna agertzeraz ematen dutela. Izan ere, idiotismoak hain dira hizkuntza jakin bati atxikiak, non ez baitute itzulpenik —hitzez hitz ez, behintzat—. Horregatik esaerak izaten dira hizkuntza baten identitatea, norberatasuna gehienik salatzen dutenak.

Baina definizio batzuk beharrezkoak ditugu, alor honetan propioki zer sartzen den eta zer ez, jakin dezagun.

Julio Casares jauna izan da mundu hau berariaz eta hedatuki aztertu duena (2). Jaun honek «locuciones» eta «frases proverbiales» bi deitura hauen azpian sartzen du dena. (Baina, jakina, *lokuzio* izena juntagailu batzuei ere ematen zaie, eta hauek ez, ez lirateke hemen sartuko).

Lokuzioen definizio hau proposatzen du Casaresek: «Bi edo bi baino gehiago hitzen konbinaketa iraunkor bat, perpausaren osagai bezala erabil daitekeena eta zeinen esanahia (ezaguna, bestalde, hizkuntz komunitatean) ez baita argitzen osagaien esanahiak elkartzearekin soilki» (3).

Adibidez, *arto* eta *bero* badakigu zer diren, baina hori jakitea ez da aski *Artobero* lokuzioak zer esan nahi duen jakiteko. Aipa dezagun beste adibide bat Axular-en *Gero*-tik hartua: «Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia, kalte handiak gertatuko dira» (Ax 256). *Begia eduki* lokuzioaren esanahia ez da, beste gabe, ateratzen *begi* eta *eduki*-ren esanahiak jakitearekin.

Frase Proberbialak, hots, errefrau-itxurako esaldiak, berriz, zer dira? (4). Hauek entitate autonomoa dute. Ez dira sartzen perpausaren eskeman lokuzioak sartzen diren bezala. Esaldi hauek zita edo aipamen bat bezala dira, oroitzapen bat. Errefrau-itxura dute, baina ez dira errefrauak. Noizbait gertatutako pasaizo bat gogoratzen da orain gertatzen ari denaz antz edo zer-ikusia duelako.

Eman dezagun adibide bat: «Belea egondako esolan bustitako taloa baino gozoago». Esaldi hori ulertzerik ez dago behiala gertatu omen zen istorioa ez badakizu. *Aitonaren Uzta* liburuskan dator istorio hori (5). Berdin *Zakukoak athera* (6) etab.

Gertatzen da, ordea, behialako istorio horiek —esaldiari sorrera eman ziotenak— gaur erdi ahaztuak daudela eta liburuetan ere ez daudela behar bezala jasoak (7).

Oso atzeratuak gaudela euskaran honelako tresna eta bildumetan, esan beharrik ez dago.

Hala ere, izan dira gure artean bildumak egin dituztenak: Pablo ZAMARRIPA, *Manual del Vascófilo. Libro de modismos, onomatopeyas, elipsis etc.*, Bilbao 1914.— LANDERRETXE, «Erran zuhurrak» (Adages et dictons entendus), *Euskera* (1925-1928).— AZKUE, *Euskalerrriaren Yakintza*, batez ere 3. tomoan.— Diego DE ALZO, *Estudio sobre el euskera hablado*, San Sebastián 1961.— AITA INTZA'R DAMASO, *Naparroako euskal esaera zarrak*, Iruñean 1974.— Eta azkenik, Koldo IZAGIRRE, *Euskal Lokuzioak*, Hordago 1981 (8). Bilduma gotorra da azkeneko hau, baina esaeren esplikazioak murriztegiak dira eta ez beti zuzen emanak. Dakigunez, aspaldidanik dabil Aita Justo Mokoroa «Ibar» ere beste bilduma bat prestatzen.

Euskal literaturaren kalitateaz arduratu direnek esaeren mundu honi kasu eman behar zaiola aho batez diote. Pasarte batzuk aipatzea ez da alferrik izango.

«Ibar»: «Así, por ejemplo, ¿no hemos dejado disiparse casi del todo el espíritu del euskera en la literatura, por descuidar el modismo, el giro, la fraseología...?» (9).

Altube: «Creemos nosotros que los que en el euskera actualmente hablado no ven más que un idioma que por todas partes necesita aplicar el bisturí del gramático reformador, no se han detenido nunca a escuchar el lenguaje sonoro, expresivo, rico en modismos y hasta en el léxico (apropiado a las necesidades de su vida) de nuestros excelentes euskeristas, los gizonos de la mayoría de las aldeas de Bizkaya y de Gipuzkoa, sin ir más lejos. Ya quisiéramos para nosotros, los escritores euskaldunes, el dominio y la elegancia con que se expresan en euskera nuestros baseritarres! Ellos nos muestran la ruta a seguir...» (10).

«Larreko»: «Orrengatik euskaldun garbiekin ari garela, gutun zaarretan ari garenean, oartuago bear ginuke miletan, erraneri itzeri baiño; erranera eta itz zuurretan dago gure arbasoen jakitatea, guk uste baino aberatsago dena.— Oraí, gure gogoak arrotzu ondoan egin nai dugu euskara bat gure ortkoi edo moldetara, eta ori ez da bide zuzena. Gure gogoak biurtu bear ditugu euskararen moldetara.— Euskararen ortkoiak, moldeak, euskaldun utsen baitan ditugu» (11).

Jaun hauek ez dute, noski, arrazoi faltarik honela mintzatzean. Hizkuntza bat menderatzeko beharrezko da esaeren mundu hau ezagutzea. Eta hori lortzen da hizkuntza hartako hiztunekin har-emanean egonez eta ondo idatzitako liburuetarik ikasiz.

Baina neurriak gordetzen ere jakin behar da. Casares modismoaren *patologia*z mintzo da (12). Jaun honek beronek esaten digu modismoa gain-behera doala. Prosa-mota asko dago, zeinetan argitasuna eta zehaztasuna nahi baita oroz gain, eta orduan hobe dugu gauzak beren hitz zuzenekin esatea, ezen ez itzul-inguru eta pitxikeriatan ibiltzea.

Gorago aipatu genuen Mitxelenaren pasarte bat honako hau zioena: Xenpelar-ek Mitxelena berak baino hobeki zekiela euskaraz, baina hala ere Xenpelar-en hizkerak ez zuela berarentzat balio (14). Oker ez banaiz, Mitxelenak esan nahi duena hau da: idazleak bere nortasuna edo norberatasuna gorde behar duela. Bere orkoiera ongi heldu zaion hizkera-modua erabili behar duela, alegia, besteren orkoiera makurtu gabe. Baina horrek ez du kentzen ongi mintzo direnengandik ikasi-beharra dagoela.

Lokuzio eta esaldi hauen toki propioa elkar hizketan eta prosa literarioan dago. Asko esan nahi du, gainera, norberaren jite edo izaerak, kultur mailak, etab. Hala, esate baterako, Santxo Panzak atsotitzen bidez ez bada, ez daki bestela mintzatzen. D. Kijotek, aldiz, oso gutitan eta bakanka jotzen du horietara.

Hemen galde lezake zenbaitek: Eta zertarako erabili behar ditugu esaerok? Ez ote da hobe, esan behar duguna hitz sinple eta bakunen bidez adieraztea? Beste hitzez esanik: Non datza esaeren arrazoia edo gakoa? Zergatik jotzen du hiztunak horietara? Zerk eramaten du esaerok sortzera?

Esan dezagun, hasteko, hizkuntzak diren bezalakoak direla. Hor dago esaeren mundua, eta orduan beharko da hori kontutan hartu hizkuntza jakin bat nahi baldin bada menderatu.

Baina barnerago joaz, sustraira joaz, alegia, badira arrazoiak, eta arrazoi errutsuak, esaeren sorrera eta erabilpena esplikatzen dutenak. Lehenbizikoa: hizkuntzak ez ohi du gehienetan hitzik aski giza gogamenak moldatzen dituen ideia, plegu eta ñabardura guztiak adierazteko, eta urritasun hori nolabait esaeren bidez erremediatzen da. Adberbiotan, esate baterako, urriegia izan ohi da hizkuntza eta neurri batean esaerekin betetzen da huts hori. Eta hor dago, bigarrenik, espresibitatearen legea, hots, adierazkortasunarena. Gizona bere burutapenak doi-

doi eta txepelki adierazteaz ez da asetzen, nahi ditu horiek sarkorki, bizitasunez, piperrez eta gatzez azaldu. Esaerez gabetua den hizkera, argia, bai, baina motela izan ohi da. Ez du bestearen bizitasuna eta indarra.

Lokuzioen sailkapenaz.— Juntagailu huts direnak alde batera utzirik, gainerakoen sailkapena honela egiten du Casaresek: 1) Nominalak, hots, sustantibo baten balioa dutenak: *ahuntzaren gauerdiko eztula, azpijoko, sator-tratua...* 2) Adjetibalak edo adjetibo-balioa dutenak: *aho-zabal, astakirten, alegorri, erdipurdiko* 3) Aditzezkoak: *Kristorenak entzun, hautsak atera, buruan txoriak izan...* 4) *Adberbialak* (nolatasunezkoak, noiztasunezkoak, zenbatasunezkoak, nontasunezkoak etab.): *Aitaren egin orduko, aho batez, erdipurdi, ez hanka eta ez buru...*

Askotan esaera horien indarra edo espresio-indarra ulertzeko, ingurua ezagutu behar da. Esaera noriek, alegia, mundu-giro berezi batetik heldu dira eta hori ezagutzen ez duenarentzat ez dira ulergarri. Beste batzuk hizkera-mota edo maila jakin batean bakarrik erabil daitezke, etab. Adibidez, urari *narrasekoa* esatea irri-hizkeran —«lenguaje festivo»— bakarrik onart leike (15). Eta oheari *bardinbero* esatea (16).

Arantzazuko hiztegi horretan dator *txakurrillarra* «brusco» (17). Jakin behar da, hori ulertzeko, Arantzazu ondoko Arabako mendietan asta-ilar galantak daudela. Arbola edo landare arlote, bihurri eta zarpailen iduria dute. Horregatik, nonbait, gizon trauskil eta zakarra adierazteko ez dira bat ere desegokiak. Baina landare edo arbola horiek ikusi dituenak bakarrik ulertzen du hori...

Nolanahi den, arestian aipatu dugun bilduma —Koldo Izagirrerena— izugarri handi eta aberatsa da. Bertan bilduak daude euskal idazle askotatik eta lehenagoko bildumetarik jaso diren esaerak. Tamalez, esplikazioak murriztegiak eta eskasegiak dira, eta ez beti ongi emanak. Inprentako hutsak ere ez dira falta.

Euskal literaturak izan ditu, bai, alde honetatik ispilutzat har daitezkeen liburuak. Fraseologia aldetik horiek aztertzea, hots, horien lokuzioak eta esanmoldeak ikastea, biderik jatorrenetako bat da hizkuntza menderatzeko, beronen muina eta izpiritua norberenganatzeko.

Axular-en *Gero*-ko hizkera eta fraseologia ikasten irakurleari laguntza izan dakion, egin genuen *Axular-en Hiztegia* delakoa (Jakín, 1973). Hiztegi honetan, hitzak ere bai, baina hitzekin batean, esaldiak, lokuzioak eta fraseologia dator. Berriz ere esango dugu: euskara sustraitik ikasteko hizkuntza honen fraseologian murgiltzea bezalakorik ez dago.

Adibide bat edo beste, Axular-en Hiztegitik. Hartzen duzu, esate baterako, *Begi* hitza, eta gero segituan hitz honetatik sortzen diren lokuzioak: *begia eduki, begiak ibeni*, etab.: esaera hauek eta beraien esanahia ikasi beharra dago eta horretarako laguntzen dizu honelako liburu batek.

Berdin *kontu* hitza. Zenbat lokuzio ez dira hortik heldu! *Kontu eduki, kontu egin, kontu guti egin, kontu eman, kontu ona eraman, kontuak egin, kontutan hartu...* Honelako esaera, lokuzio eta idiotismoz josirik dago Axular-en liburua, eta, euskararen muina edoskitzeko, honelako adiskide batek egiten digun mesedea ez dugu sekula gehiegi eskertuko.

Aditz-lokuziotan batez ere ondasun ikaragarria du euskarak. *Heldu, Ekarri, Etorri, Gertatu, Egin, Izan* eta beste zenbaitekin, zenbat aditz-lokuzio ez dira sortzen! Ikus, esate baterako, Axular-en Hiztegi horretan *Kalte* hitza eta be-ronekin moldatzen diren aditz-lokuzioak (*Kalte egin, - eragin, - ekarri, - etorri, - heldu, - iasan, - izan, - pairatu, - sortu...*).

Gauza denetan bezala, hemen ere neurriak gorde behar dira, ordea. Egon dira (euskaraz ez dakit, baina bai beste hizkuntzetan) klasiko-zale amorratuak, beti horien esaldiekin janzten zirenak (Juan Mir, Moreu...). Irrigarri bihurtzen dira. Gure artean uste dut oraingoz beste muturrean dela arriskua: hizkuntzaren beraren guna ez dugula aski ezagutzen.

Batez ere euskaldun berriek, hizkuntz komunitatetik kanpo bizi direnek, nola beregana dezakete euskararen guna, fraseologia eta idiotismoen mundua ikasteko ez biderik eta ez gogorik ez badute? Gabriel Arestik uste dut hiru maisu aipatzen zituela, berari ate hori zabaldu ziotenak; 1) Altuberen *Erderismos* liburua, 2) Axular-en *Gero*, eta 3) Barandiaranek agertutako euskal folkloreko orritxoak (hots, herritik jasotako kontaerak: jentil, sorgin eta bestelako ipuinak). Hautapen ederra egiteko begi ernea eta esku ona izan zituela, ezin uka.

Baina hau ere esan behar da: bakoitzak bere nortasuna du, bere garaian bizi da eta giro bati loturik dago. Orduan halako oreka bat beharko da egin hizkuntz tradizioaren eta norberatasunaren artean. Larrekok esan digun hura: gure orkoia utzi eta euskararen orkoia hartu, «cum mica salis» hartu behar da. Idiotismoak, beste gauzak bezala, aldakorak dira. Hizkuntzak ez dira ezin aldatuzko atsolutu bat. Hiztunak dira, azken batean, kontuzkoenak; eta horiek, beren nortasun, kultur maila eta inguruko giroaren arabera, moldatzen dute mintzatzeko tresna. Honekin esan nahi dugu hizkuntz tradizioaren altxorretik ondasunak hartu, bai, hartu behar direla, baina gero norberak bilatu behar duela bere bidea.

Oharrak

1. R.P. OLAVIDE, «Lexicología y Lexicografía» in *I Congreso de Estudios Vascos*, p. 450.
2. *Introducción a la lexicografía moderna*, Madrid 1950.
3. O. cit., p. 170.
4. Ikus CASARES, o. cit., p. 185.
5. *Aitonaren Uzta*, Kuliska Sorta, 50 orr. Liburu berean datoz istorioak beste esaldi batzuk esplikatzen: Andre temosia 44 orr.; Gizona beti gizon, saskitik ere 45 orr.; Sapiñua 92 orr. etab.
6. Ikus Ax 118.
7. Gaztelaniari gagozkiola Jose M.^a Iribarrenek du: *El porqué de los dichos. Su sentido. Su origen. Su anécdota*. Aguilar, Madrid 1962.
8. Liburu honen kritika ikus *Riev* (1983), 273-277.— Anitz euskal esaera aurkituko dituzu Julian Alustiza «Aztiri»ren liburu honetan: *Euskal baserriaren inguruan*, Arantzazuko argitaletxean 1985.— Ikus baita ere *Hitz-elkarketa/1*, LEF batzordearen lanak, Euskaltzaindia, 1987. Eta *Habe*, Helduen alfabetatzerako programazioa 1983, 133.
9. *Genio y Lengua*, Tolosa 1936; p. 77.
10. *Erderismos*, Bermeo 1930, p. X.
11. «LARREKO» (Fermin Irigaray), «Nafarroako euskal esakerak» in *Prosistas Navarros Contemporáneos en Lengua Vasca*. Compilación de Angel Irigaray, Pamplona 1958; p. 160-161.
12. CASARES, o. cit., p. 227.
13. O. cit., p. 231.
14. *Euskera* (1968), 219.
15. Ikus Kandido IZAGUIRRE, *El Vocabulario Vasco de Aránzazu...*, 184.
16. Id. *Ibid.*, p. 73.
17. O. cit., 227 orr.

XII. Kapituluua. Itzulpenaren mundua

Laburpena

Itzulpena, gaur, hil edo biziko gauza.— Euskarak zeregin hori ez duela oraindik normaldua.— Itzulpen egitea posible ez dela diotenak.— Gertatzez, ordea, beti egin izan da, egundainoz geroztik.— Itzulpena, zientzia bat ala arte bat ote da?— Eritzi okerra: hizkuntzak izenen biltokiak baizik ez direla uste izatea.— Hizkuntza bakoitzak munduaren irudi berezia berekin dakarrela diotenak.— Itzul ezin daitezkeen gauzak.— Nondik sortzen dira itzulpen egiteko oztopoak?— Hazpegi makroskopikoak eta hazpegi mikroskopikoak.— Izakien arteko mugak ez dira berdin kokatuak egoten hizkuntzetan.— Amankomuneko altxorra Europako hizkuntzen artean.— Etnografia eta Filologiaren beharra.— Itzulpena euskal literatura zaharrean.— Gure aroan gertatu den etena.— Anaforikoen gaitzespena.— Euskal literaturako lanak erdaretara itzultzeaz.

Aurreko kapitulu batean ere ukitu dugu, zeharka bederen, gai hau, baina hizkuntzarentzat hain da hil edo biziko kontua, non berriro horretaz espresuki eta berariaz aritzea ez baita alferrik izango. Izan ere, hizkuntza bat ez da bere adin heldura eta larrira etortzen itzulpenen zeregin hau behar bezala normaldua ez duen bitartean, eta zoritxarrez euskara ez da oraindik horretara heldu. Eta ez du balio esatea: Halakok eta halakok —adibidez, Orixek— itzulpen miraritsuak egiten zituzten. Hala izango da, baina horrekin ez dugu auzia konpontzen. Hemen behar duguna da itzulpenak egiteko bide zabala eta arrunta idekia egotea, beste hizkuntza landu guztietan egon ohi den bezala.

Beste hitzez esanik: bi hizkuntzok —abiapuntukoa eta helburukoa— ongi dakizkien bat neurritz kanpoko neke eta itzulipurdi gehiegi gabe, itzulpenak egiteko gai izan dadila, alegia. Eta gure kasuan ez da hori gertatzen.

Gezurra badirudi ere, hizkuntza batetik beste hizkuntza batera itzulpenak egitea posible ez dela diotenak badira (1).

Mugimendua mugituz frogatzen dela dio erasia zaharrak, eta hemen ere berdin esan daiteke. Adibidez, Kristo jaio aitzinetik egina zen jadanik Bibliaren itzulpena heberkeratik grekora; esan izan da lan horretan 70 itzularik parte hartu zutela; hortik du itzulpen horrek izena: «Septuaginta interpretum», nahiz eta, itxuren arabera, itzularien kopuru hau ipuina izan. Geroztik, Biblia hainbeste hizkuntzatarra itzuli da eta itzulpen berriak etengabe egiten dira; beraz, itzulpenak egin daitezke. Baina orain ere Biblia lehendanik itzulia zegoen hizkuntzetara berriz itzultzen bada, horrek zerbait esan nahi du: esan nahi du, alegia, orain arteko itzulpenei hutsak eta eskasiak nabari zaizkiela edo zaharkitu egin direla itzulpenok, edo beti gelditzen dela itzuli ez den zerbait.

Erdi-Aroan sonatuak izan ziren Toledo eta Siziliako itzulpen-eskolak. Bi toki horiek bi hizkuntza eta zibilizazioen mugan kokatuak zeuden: arabiera eta latinaren arteko mugan, alegia. Eta itzulpen-eskola horiei esker, Europako kulturak astindu bortitza ezagutuko du.

Aristotelesen obrak, esate baterako, itzuliak ziren jadanik grekotik arabierara, baina Etzinaldeko Europan, Logika izan ezik, gainerakoak ez ziren ezagutzen. Orain, berriz, arabieratik latinera itzultzen dira eta Europan arrakasta handia izango dute. Bir-jaiotze bat izan zen hura Aristotelesentzat, eta dena itzulpenari esker, eta ez zuzenean, baizik bigarren hizkuntzatik hirugarrenera egindako itzulpenari esker. Beraz, itzulpenak posible dira, aspaldidanik egin izan dira eta zerbaitetarako balio izan dute.

Hemen galde dezagun, hasteko: Itzulpenak egiteko gai-tasun hori, zer da: zientzia bat ala arte bat? Horretan ere eritzi desberdinak daude (Fedorov, Vinay...). Itzulariek erantzungo dute zientzia baino areago, artea dela, baina, hori bai, jakitate batean oinarritutako artea. Pratkan, beraz, bietatik du.

Hizkuntzei buruz bada herriko ikuskera inozo bat, arras zabaldua. Ikuspegi horren arabera, hizkuntzak hitzen ontzi edo bildumak besterik ez lirateke izango, hots, hitzez betetako zaku bat. Hori hala baldin bada, itzultzea zer da? Izakien etiketak edo izenak aldatzea, zaku bateko etiketak beste zakukoekin trukatzeta, eta ez besterik. Orduan hitza aldatzen duzu eta egina dago itzulpena.

Baina gauzak ez dira hain sinpleak, bistan da. Denok dakigu hitzez-hitz eta mekanikoki egin ohi den itzulpenak ez duela maizenik balio. Hitzen esanahiek, esate baterako, ez dute izaten barruti edo eremu berbera hizkuntza batean eta bestean. Eta muga horien berri nolazpait jakin gabe ezin egin daiteke itzulpen egokirik. Eta gero hori dira hizkuntza bakoitzaren itzulika bereziak, esaerak, etab.

Esan izan da, baita ere, hizkuntza bakoitzak munduaren irudi propioa eta berezia eman ohi digula; hizkera bakoitzak, alegia, alde aurretik bere erara taxutzen edo moldatzen duela mundua. Aburu honen arabera, kulturek mundu desberdinak eta bereziak eskainiko lizkigukete, giza pentsakera bera hizkeratik sortu eta pentsakera hizkerari lotua balego bezala. Baina hemen, dirudienez, gauza asko nahasten dira. Gauza bat da adierazpide desberdinak egotea eta hortik itzultzerakoan oztupoak gertatzea, eta beste bat giza esperientziak mundua era desberdinez ezagutzen duela esatea.

Nolanahi den, itzultzailearen lehen legea hau da, noski: itzultzen duen autorearen gaia eta esanahia ongi eta osoki uler dezan.

Egia da, halere, ia hizkuntza denetan egon ohi direla ongi itzul ezin daitezkeen gauzak. Gaztelaniaz, esate baterako, «río» eta «ría» bereizten dira, euskaraz ez (nahiz eta Larramendiren hiztegian «ría» esateko euskal ordezkoa egon: *ibayonda*) (?). Euskarak, aldiz, *arriba* eta *ahizpa* bereizten ditu, gaztelaniak ez. Eta nola itzuliko dituzu hizkuntza bateko esaera bereziak? Halere, esaera bakoitzak zer esan nahi duen dakizunean, beste hizkuntzan hori guti gora-behera adierazten duen ordezkoa bilatzen eta aurkitzen da. Gaztelaniaz «tomar el pelo», euskaraz *adarra jo*, etab.

Hizkuntzalariek diote hiztegia dela estrukturalismoaren legeetara ekartzerik ez dagoen alorra. Hizkuntza bakoitzak hizkuntza banatan bere esanahi-eremu berezia du eta eremu horien mugak ez datoz bat hizkuntza batetik bestera, askotan behintzat. Horregatik Semantika omen da aurrerapenik gutiena egin duen saila. Gainera, hitzek, *denotazioaz* landara, badituzte *konotazioak*, hots, hizkuntza batean hitz batek badu kutsu berriazko bat eta hitz horren ordainak ez du horrelakorik beste hizkuntzan.

Koloreak eta koloreen izenak ere, dirudienez, ez datoz beti bat hizkuntzen artean, hau da, herri eta hizkuntza guztiek ez dituzte koloreak berdin bereizten eta izendatzen. Koloreen euskal izenak oinarri hartuz Txillardegik zerbait idatzi du horretaz (2).

Hitzen konotazioak, aldiz, guztiz aldakorrek izan ohi dira, ez bakarrik hizkuntza batetik bestera, baita pertsona batetik bestera ere. Itzulpena posible ez dela esaten denean, konotazioaren arrazoi honengatik esan ohi da batipat.

Behiala itzulpenak egiteko honako oztopo hauek aipatzen ziren, hots, estiloaren eta poesi kutsu aldetik zetozen arrazoiak: jatorrizko hizkeran hitzak indar berezi bat duela, esaldia itzulpenean astuntxo gelditzen dela, etab.; baina dena itzul daitekeela ez zen dudatan jartzen. Gero ikusi da oztopoak uste ziren baino handiagoak direla.

Hala ere, komunikazioa posible da hizkuntzen artean; gertatzez ematen da, eta hor dago. Zehazki mintzatzera, komunikazioa egiten da, gertatzen da, baina dena ez da komunikatzen, ordea. Zergatik ez? Bi *situazio* edo egoera erabat berdinak sekulan ematen ez direlako. Situazioek eta mezuek badute, ordea, komunikagarri den zerbait, hots, *hazpegi makroskopikoak*, eta horiek dira, hain zuen, itzultzen direnak; besteak, aldakor direnak — *hazpegi mikroskopikoak*— alde batera utzirik.

Hizkuntzak ikas ahal badaitezke, horrek esan nahi du itzulpenak egitea ere posible dela. Batzutan, itzultzea posible ez dela uste delako edo, beste muturrera jotzen da: gehiegizko itzulpena egitera, alegia, testua eraskinez eta gehigarri gehiegi zamatzera.

Maisu batzuek, irakatsi nahi dituzten hizkuntzen edertasunak eta korapiloak behar baino gehiago azpimarratzen dituzte.

Hizkuntza bakoitzak munduaren ikuskera erabat propioa eta berezia ekarri ohi duela berekin, hori —egia esan-ez da sekulan frogatu.

Hizkuntza baten barnean ere hitzun guztiek, bestalde, ez dute esperientzia berbera izaten. Hiriko haur batek ozta-ozta ikusi du txori bat, eta orduan *txori* hitzarekin bukatzen da harentzat mundu horren esperientzia guztia; baserrikoak, aldiz, badaki txori-mota asko bereizten, etab.

Mundua berdin ikusiagatik, izakien arteko mugak ez dituzte berdin eta toki berean jartzen gizonak, hizkuntzen eta zibilizazioen arabera: hori da kontua. Koloreekin hori gertatu dela dirudi. Berdin ikusiagatik, batetik besterako mugek eta izenek ez dute tarte bera hartzen.

Kulturaren aldetik, Europako hizkuntzen artean halako hurbilketa edo senidetasun bat gertatu da. «Standard Average European» (= Erdi mailako Europar Arrunta) izenaz izendatu ohi da errealitate hau. Zibilizatu deitzen diren herrietako hizkuntza modernoek makina bat hitz dute elkarrekin trukagarri direnak, edo, bestela esan, guztionak bihurtu direnak. Orduan, itzulpena egin behar duzunean, ez duzu burua asko nekatu beharrik.

Baina horrek ez du esan nahi hizkuntza horien gramatika berdintsua denik. Kultura bera neurri batean berdintsua izanik, eta elkarrekiko har-eman kulturalak ere handiak, hurbilketa bat gertatu da, noski. Europako hizkuntzen artean badago hiztegiaren puska handi samarra orokorra edo guztiona dena. Baina guzti hori elkarrekiko har-emanen ondorio izan daiteke. Dena den, gertatzez, batasun handi hori badela ezin uka. Eta eremu horren barnean itzulpenak errazago egiten dira.

Gainera, gaur-egun ia ez dago bakarti eta bereiz bizi den kulturarik. Herrien arteko har-emanak izugarri gehitu dira.

Halarik ere, lehen esana gogora dezagun: hitzen esanahiak, edo hobeki esan, esanahi horien mugak, ez dira askotan berdintsuak izaten hizkuntza batetik bestera. Hori dela eta, nahiz eta hizkuntzaren egitura ongi ezagutu, itzulpena ezin egin daiteke mekanikoki. Aspaldidanikoa da erasia hura: *Esanahia itzultzeko, hitzak ezagutzea ez da aski*. Hizkuntzaz gainera, kultura ere jakin behar da, hots, hitzen historia, kultur kontestua. Bestela esan, *Etnografia*. Beste zibilizazio bateko liburua itzuli nahi badut, hizkuntzaz gainera, jakin behar dut zibilizazio hartan hitzak duen balio zehatz eta konkretua. Horretarako etnografiaren laguntza behar dut. Ez da aski herri baten hizkuntza aztertzea eta ezagutzea: herri horren etnografia ere behar da nolazpait ikasi. Hitzak ez dira ongi konprenitzen, adierazi nahi dituzten kultur fenomenoei loturik daudenean baizik.

Eta ohar honi: haurrak nola ikasten du bere aurrengo hizkuntza? Haurrak hitz bakoitza egoera jakin bati loturik ikusten du, batak bestea argitzen duelarik. Gure Aita P. Arangureni (G.B.) entzun nion nola mendiko beren txabola bati *ellorra* deitzen zioten. Orduan berak — artean haurra zen— uste zuen txabola haren izen propioa zela hitz hori; izan ere beste inongo txabolari ez zioten ematen horrelako izenik. Ni ere ohartu nintzen behin, Urbiako artzainen haurrekin hitz eginez, haur horiek *erromes* hitzaz izendatzen zituztela hara igotzen ziren mendizaleak. Garai batean hara igotzen ziren jendeak zinetako erromesak izango ziren — Arantzazura edo Aizkorriko gurutzera erromes zihoazenak—; orain, berriz, ez da hala, baina lehengo izenak dirau, nahiz eta izana aldatua izan. Horrek erakusten digu hitzak nola egoera jakin batzuei lotuak egoten diren, nola estutzen, zabaltzen, aldatzen eta esanahi batetik bestera lerratzen diren. Mutrikun, esan didatenez, *amildu* erabiltzen da arruntki, gipuzkeraz *erori* eta bizkaieraz *jausi*-rekin adierazten denaren orde. Besteontzat, berriz, *amildu*-k erorpen-mota bat gertatu denean bakarrik balio du. Eta zenbat holako hizkuntzetan! Etnografiak, bada, asko lagun diezaguke. Itzulpena ongi egiteko beharrezko diren xehetasun asko eman ohi dizkigu.

Eta gaur bizirik ez dagoen zibilizazio bati buruz baldin bada itzulpena, orduan *Filologiara* laster egin behar, laguntza eske. Zer da Filologia? Etnografia bat, baina iragan denborena. Garai bateko edo zibilizazio bateko testuak irakurtzeko eta ongi ulertzeko behar diren xehetasunak ematen dizkigu Filologiak. Mota askotako xehetasun argigarriak: gramatika, historia, lege, ipuin, erlijio, mito eta alde orotatik hartutako argiak.

Sintaxitik ere atera nahi izan da froga bat itzulpena ezinezkoa dela esateko. Izan ere, esaldiaren elementuen arteko erlazioak era guttiz desberdinez adierazten dira hizkuntzetan. Baina hizkuntzen prozedurak arlo honetan bospasei kategoriatara bil daitezke, Martinet-ek dioenez; horrek asko mugatzen du itzulpenaren ezina. Hizkuntza bakoitzak badu, hori bai, esperientziako datuak antolatzeke era edo modu bat, eta hizkuntza trukatzenean, erlazioak adierazteko modua trukatu behar.

Oztopo guztiak gorabehera, itzulpenak egin ohi dira. Nun dago giltza edo sekretua? *Egoerari*, hots, *situazioari* kasu ematean. Gogoan har dezagun beti egoerari kasu emanez ikasten duela haurrak hizkuntza. Hain zuzen, hori behar da itzulpenak egiteko ere.

Giza esperientzia aldatuagatik, hizkuntzetan luzaroan bizi ohi dira, fosil antzo, esaerak edo esanmoldeak oraingo esperientziarekin ados ez daudenak; adibidez, *eguzkia irteten dela* etab. esan ohi dugunean.

Gertatzen dira, bai, itzulpena egitea posible ez diren kasuak. Baina neurri batean eta muga batzuekin, itzulpena posible dela esan behar.

Abiaturuzko hizkuntzan aurkitzen den zerbaitek helburukoan ordeko zehatzik ez balu, beti izango du itzultzaileak baliokiderik hurbilena eskaintzeko aukera.

Edozein modutan ere, itzulpena zerbait arrunt, egunoroko eta noraezeko bihurtu da gaurko munduan eta gure zibilizazioan. Gaur lan horretarako egokiturik ez den hizkuntza, beste gabe, bazterturik edo saihesturik gelditzen da.

Joan mendeetako euskal literaturari begirada bat botatzen badiogu, ikusiko dugu neurri handi batean itzulpen-lanak direla: Leizarraga, Beriain, Baratzart, Xurio, Haraneder, Mihura, Maister, Duhalde, G. Arrue, etab. Idazle zahar hauek lan hori egiteko behar den tresneriaz hornitua eta jantzia utzi ziguten hizkuntza.

Baina gero, XIX. mende hondarrean eta XX.ekoaren hasieran, zer gertatzen da? Purismo hertsia eta ikuste laburreko baten ondorioz, lan guzti hori txartzat jotzen dela. Kutsaduratzat jotzen dela, alegia. Arrazoiak? Latinetik hartutako ereduak etxeratu omen zizkiguten idazleok, eta hori, itxuraz, bekatu larria izan. Beraz, behar zen etxea izurrite horretatik garbitu.

Baina horrekin hizkuntza murriztua eta baliabidez pobretua utzi ziguten. Lehen normalki egiten zen itzulpen-lana, izugarri zail bihurtu da. Fenomeno hau garai beretsuan gertatzen da bi Euskal Herrietan, Ipar eta Hegoaldekoan, alegia.

Zailtasun berri hau anaforikoen enplegua gaitzestetik etorri da batipat. Gauza jakina da nola *periodoa* deitzen den hori —perpau nagusi batez eta bat, bi edo hiruzpalau perpau menpekoz osatua—, arruntki erabili ohi den Mendebaleko hizkuntza landuetan, eta hori aski erraz itzultzen zen lehen euskarara, idazle zaharretan ikusi ohi denez. Baina *anaforiko* direlako horiek gaitzetsi diren puntutik, ezina da hori. Itzultzekotan, erabateko konpontze, aldatze eta azpikoz gora jartzeak egin behar dituzu; baina orduan ez duzu itzulpena egiten, beste lan berri bat baizik.

Zertzuk arrazoi atera ohi dira anaforikoak galerazteko? 1) Enplegu hori latinaren eraginez sartu dela euskarari. 2) Berez galdetzaile edo interrogatibo hutsak direla partikula hauek, eta ez dela zilegi galderaz zer-ikusirik ez duten zereginetara horiek hedaraztea.

Egia ote dira, ordea, uste horiek?

Ikus zer dioten horretaz René Lafonek (3). Jaun honek dio, bada, berak ez duela bat ere garbi ikusten enplegu hori euskarari latinaren eraginez sortu dela. Beharbada, latinaren ereduak lagundu izan duela horretarako, baina berez ere euskal interrogatiboak ez direla interrogatibo huts-soilak; indefinido edo mugagabe kutsua ere badute, eta orduan aisa egiten da enplegu batetik bestera lerratze hori. Adibidez, hizkuntza arruntean honelako hitz eta esaldiak entzuten dira: *Nori berea, Ni ez naiz nor, norbait, edonor, noiznahi, zerbait, inor, nehor* (horietan denetan interrogatiboa oinarri hartzen da beste zerbait adierazteko). Lavieuxvilleren Katiximan pasarte hauek datoz: *Deitu behar dire cein bere icenez* (4).— *Norc bere herrico Eliça Nausian* (5).

Begien bistan da hitz eta pasarte hauetan interrogatiboak beste zeozertarako ere erabiliak direla.

Eta latinaren eraginez sartu zirela egia balitz ere, zer? Euskarari latinaren eraginez sartu zaion guztia kendu behar balitz, zertan geldituko litzateke euskara? Hizkuntzaren testurik zaharretan diren eta beharrezko gertatzen zaizkigun enpleguak, zer dela eta bota behar ditugu hizkuntzatik kanpora? Hizkuntza besoz eta zangoz katigaturik uzteko? Bada hemen logika hertsia bat, Kartesianismotik edo, erakarria, baina hizkuntzaren arloan tokiz kanpo dena.

Gainera, latinaren historia aztertu dutenek esaten digute han ere eboluzio bera gertatu zela; hasieran interrogatibo zirenak poliki-poliki beste zeregin horietarako ere jarriak izan zirela. Han gertatu dena eta zilegitzat jotzen dena, gurean ez da zilegi izango? René Lafon bera ere mintzo da latinaren eboluzio horretaz, arestian aipatu dugun lekuan.

Esan dezagun, azkenik, periodoa bera latinak grekotik hartu zuela eta gero latinetik orotara zabaldu dela.

Gurean beste makur bat egiten da oraindik, eta da: elkar hizketan erabili ohi den sintaxia hartzen dela eredu bakar edo orokor bezala. Jakina, elkar hizketan toki guti da anaforikoentzat; eta orduan, hor ageri ez dena, beste literatur motetatik ere erauzi behar omen da. Hala dirateke gauzak, mende honen lehen erdiko gramatikalariei sinetsi beharko bagenie.

Hertsikeria eta mozkeria berriz ere. Hizkuntza baten eremua ez da elkar hizketan bukatzen. Hizkera idatziak baditu premia batzuk eta eskuarte batzuk, hizkera mintzatuak ez dituenak — eta bai alderantziz ere—. Hizkuntza landuetan beharrezko da idazmota desberdinetarako aukerak egotea. Eta hertsikeriaren ondorioz idazmota bakarra gelditzen bada zilegi, itzulpena pratikan ezin eginezko gertatzen da.

Behin baino gehiagotan esan dugu: Hor daude azken Kontzilioaren gutunak (eta hainbat gutun, hangoak eta hemengoak, aipatu beharko lirateke!): euskarara ez dira itzuli, zati bat edo beste izan ezik. Zer gertatzen da? Periodoz jositako idazmotan idatziak daudela, eta orduan dena goitik behera berritu beharko zenuke. Hori, berriz, gehiegizko lana izanik, gauzak egin gabe uzten dira. Eta nork pagatzen du? Euskarak, kortse estuegia jarri diogulako...

Esango du agian norbaitek: Hor da *Orduen Liturgia*: Periodo direlakoak alde batera utzirik, apain asko egindako itzulpen-lana. Bai, noski, eta ez dugu horren kontra ezer. Baina guk esan nahi duguna da hori bide bat dela eta beste bideentzat ere zabalik utzi behar dela atea. Liturgian bertan ere Irakurpen-ofizioa ez da itzuli, eta hor leudeke segur aski istilurik gehienak.

Ihesbide bat ere ikusten da maiz gure itzulpenetan: Purismoagatik hitz bat erabili nahi ez dugunean, itzul-inguru, metafora eta parafraasiatar jotzea. Hori inoiz zilegi izan daiteke, baina ohizko baliakizun bezala ez dago hartzerik.

Bukatzeko, euskaldunok gogora behar genuke nahikoa ahazturik dugun arlo bat: gure literaturaren obrak erdaretara itzultzea. Askotan erostaka egoten gara gure kultura, literatura etab. kanpoan ezagutzen ez dela eta; euskaldunok kultura-sailean ezer egin dugunik inork ez dakiela eta. Baina nork du errua? Neurri batean geu-gerok, itzulpenik egiten ez dugulako (edo oso guti). Zinez, euskal-erdal itzulpen saila gehiago zaindu eta bultzatu beharko genuke (6).

Oharrak

1. Ikus Georges MOUNIN, *Los problemas teóricos de la traducción*, Ed. Gredos, Madrid.
2. «La structuration du champ sémantique de la couleur (en basque)», *Euskera* (1975), 221.
3. René LAFON, *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, I, p. 488-489.
4. LAVIEUXVILLE-HAROSTEGUY, *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima*, Euskaltzaindia, «Lekukoak», 8. atalean.
5. Id., 137. atalean.
6. 1980. urtean Euskaltzaindiak zabaldu zuen Itzultzaile-Eskola Donostian. Ikus VILLASANTE (L.), «Itzultzaile-Eskola zabaltzean», *Euskera* (1981), 147. Gaur Eskola honek badu bere aldizkaria, *Senex* izenekoa. Ikus, baita ere, X. MENDIGUREN, «Itzulpenaren mundua eta euskal itzultzaileen oinarrizko prestakuntzarako eskola», *Euskera* (1981), 933-1.003.

XIII. Kapituluua. Euskara eta euskalkiak (1)

Laburpena

Euskararen euskalkiek hartu duten pisua.— *Euskara* izenaren azpian anitz hizkuntza daudela diotenak.— Zer da lehen: euskara ala euskalkiak?— Euskararen jatorrizko batasuna adierazten duten zantzu eta aztarrenak.— Erromatarren denborako jendaki eta leinuak; horien eta euskalkien arteko mugak batera etortzeak adieraziko lukeena.— «Vascongado» hitzaren jatorriaz, eta hortik atera nahi izan den ondorioa.— Bizkaiera bederen beste hizkuntza bat dela diotenak.— Bonaparte Printzeak egindako euskalkien sailkapena.— Euskalki mintzatuak.— Literatur euskalkiak.— Euskara batua eta euskalkiak.— Maila klasikoa eta maila arrunta euskara batuan.— Euskaltzaindia euskalkiak lantzearen alde dago, baldintza batzuekin.

Euskararen auziaz ari den liburua badirudi ezin egon daitekeela euskalkiak nolazpait eta espresuki ukitu gabe. Izan ere, euskara aho-mihitan hartzen duzuneko, hor dituzu euskalkiak hitzetik hortzera. Gehiegikeria iruditzen zait neri, baina gauzak gure literaturaren historian horrela etorri zaizkigula, ezin uka. Beraz, ezin utzizkoa da gaia.

Bai. Euskararen munduan aparteko garrantzia hartu dute dialektoek, euskalkiek. Zenbaitek esango dizu, adibidez —eta hau ez da ipuina, neroni behin baino gehiagotan gertatua baizik— euskara ez dela hizkuntza bakar bat; izen horrekin adierazten dugunaren azpian hizkuntza desberdin askoren multzoa dagoela gorderik.

Nik ez dakit hori fede onez ala fede txarrez esaten duten, batasun-kontu guztiak «ad kalendas graecas» uzteko asmoz. Jakina, euskara deitzen dugun horretan ez badago jatorrizko batasunik, guztiz uher eta iluna azaltzen zaigu batasunaren auzia. Izatekotan ere, eboluzio luze, bitxi eta kasualitatezko baten ondorio izan beharko luke. Zaude eseririk horren esperoan!

Aita Larramendik bere garaian horrelako zerbait esatea, konprenitzekoa da. Hark defenditzen zuen euskara izan zela Espainia osoko hizkuntza jator bakarra. Eta nola Estrabonek esaten baitu Erromatarrek etortzean anitz hizkuntza mintzo zirela Espainian, bere tesiarentzat irtenbide bat bilatu nahirik, euskalkietan aurkitu uste zuen irtenbide hori: «Bai, euskalki asko daude, eta horiek ditu gogoan Estrabonek Espainiako hizkuntz aniztasuna gogoratzean». Eta lasai geldituko zen gure andoaindarrak ihespide honekin. Bere barnean irtenbidearen balioa onartzen ote zuen ala ez, hori beste kontu bat da (2).

Nolanahi den, gaur ere badira hasieran edo sorreran euskalkiak ipintzen dituztenak. Jaun horientzat euskara ez da behin ere existitu. Existitu dena euskalkiak dira, eta kito. Hizkera erreala, jatorra euskalkiak omen dira; euskara, aldiz, abstrakzio bat besterik ez da. Orduan, bistan da: oroz gain gorde, sustatu eta bultzatu behar dena euskalkiak dira. Batasuna, nonbait jartzekotan, mendeen buruan edo, eboluzio luze eta itsu baten emaitza bezala kokatu beharko litzateke...

Ametsetan ote gaude, gero?

Guretzat, behintzat, gauzak zeharo beste aldera dira. Euskara da enborra; eta euskalkiak adarrak, enbor honetatik ilkiak, noski. Garrantzitsuak direla den gutiena ukatu gabe, ezin jar daitezke halere enborraren gainetik edo aurretik, enborrak sortarazten eta biziarazten dituenaz geroz. Beste hitzez esanik: euskara euskalkien aurretik jarri behar da, bai kronologi eta bai garrantzi aldetik.

Euskara pixka bat sakonki ikertu edo aztertu duenak, uste dut duda guti izan dezakeela hizkuntza honen bere baitako batasunaz. Exenpluekin gauzak hobekiago argitzen dira eta, jar ditzagun bat edo beste, oso sinpleak (3).

Hemen Arantzazun, baserriarren artean ezaguna da *zu(h)andor* hitza (arbola kaxkar baten izena). Hitz horren eremua Azkueren hiztegian honela dator: G-ab-and (*ab* ez dakit zer den; beharbada errata da *al*-en ordeaz: Alegi —edo Abalzisketa?—; *and* Andoin da, noski). Eta gero L eta S (Lapurdi eta Zuberoa). Eman dezagun Azkuek esaten dituen baino leku gehiagotan ere ezagutzen dela hitz hau —Arantzazun, esate baterako, ezagutzen da, eta ez dakar—. Hala ere, ez dirudi zabalgo handikoa denik. Lhanderen hiztegian Lapurdi eta Zuberoako hitza bezala dator.

Oroit naiz Euskaltzaindia Altzurukura joan zenean (1981-VI-28), hango alkatearen ondoan afaltzea gertatu zitzaidala eta hitz honetaz galde egin niola. Baietz, ezagutzen zuela esan zidan berehala. Orain, bada, nola daiteke elkarrengandik urrunduak, bereziak eta har-emanik gabe diren lekuetan hitz bera ezaguna izatea eta bien bitartean daudenetan ez?

Lapurdi eta Zuberoa ez daude bata bestearen ondoan, bitartean Nafarroa Beherea dutelarik. Nafarroa Garaian ere, dirudienez, ez da ezaguna hitz hori. Gipuzkoan ere guti, Bizkaian ere ez —haatik Arantzazu bizkaieraren bazterrean dago, eta ezagutzen da—. Horrela hitz bat, hor-hemenka, bazter-aldeetan, elkarrekin har-emanik ez dutenetan, ezaguna baldin bada, horrek zer esan nahi du? Aspaldi batean hitz orokorra edo guztiona zela; emeki-emeki, toki batzuetan galdu eta beste batzuetan iraun egin duela. Beraz, lekukotasun horiek jatorrizko batasunaren sinestamenduak dira.

Hitz asko dauzka euskarak euskal eremu osoan erabiltzen direnak. Beste asko euskalki batean edo bitan edo hirutan ezagun direnak; baina hitz franko dira, *zuhandor* bezala, euskal eremuan tartekatuak ageri direnak, segidarik gabe eskualde soltetan ezagutzen direnak, alegia. Hori ezaugarri salataria da, garai bateko batasunaren seinalea. Marea behera doanean ur-putzu solteak nola gelditzen diren? Ba halaxe.

Aita Añibarro (1748-1830) frantziskotarra, herri-mixiolari, hiztegi-gile eta idazlea, aspaldi konturatu zen honetaz. Hara bere hiztegiaren aurreko Oharrean zer dioen:

«Y según he observado, ha habido tiempo que no había diferencia de dialectos bascongados: y que se han variado insensiblemente, por no usar y continuar con las primitivas voces. *Enzun* oyr es general en Bizcaya y Navarra y no en el interior de Guipúzcoa: pero se conoce que en algún tiempo usaban de este verbo, pues se valen de él para explicar el oyr misa: *mesa enzun: mecenzun*. Lo mismo digo de *Gura izan* querer; es común en Bizcaya; y en Guipúzcoa no se valen de *gura* sino de *nai*, a no ser para *logura* querer dormir o estar somnolento: *atzcura*, querer o tener ganas de rascar, y otros semejantes.— De *orria* hoja, para *tabacorra*, *libru-orria*; y en los demás usan de *ostoa*, *ostroa*. *Irazarri*, *irazartu* despertar, siendo tan común en Bizcaya y Navarra, es regular lo sería también en Guipúzcoa que está en medio y centro de estas dos Naciones, pero no hacen uso de *irazarri*, sino de *eznatu*. Y lo mismo sucede con otras muchas voces.— La misma afluencia de términos de que abunda el bascuence ha causado la variedad de dialectos Nacionales porque unas continuaron más con el uso de una voz, que con otra sinónima, y sin su uso se olvidó.— En mí mismo he experimentado, que por muchos años he tenido olvidadas varias voces que usaba cuando chico, hasta que casualmente las he vuelto a oyr, al cabo de largos tiempos. También ha dado motivo a la variedad de dialectos la falta de libros bascongados, que no los ha habido hasta mis días. Y lo mismo hubiera sucedido con la lengua castellana, si no hubiesen conservado los libros su uniformidad» (4).

Añibarrok pasarte honetan ematen dituen arrazoibide guztiak, segur aski, ez dira ontzat ematekoak, baina funtsean, bai; eta bereziki euskalkiak euskara bera baino beranduagokoak direla dioenean, zuzen dago, noski.

Nola Añibarro euskalki desberdinetako herrietan mixioak ematen ibilia baitzen eta tokian tokiko hitz eta itzulika bereziak jasotzeko ardura izaten baitzuen, fenomeno honetaz erasana gelditu zen eta aurki atera zuen ondorioa: elkarren artean segidarik edo har-eman zuzenik ez

du ten herrietan hitz bera erabiltze horrek esan nahi du garai batean batasuna egon zela; eta beraz, euskalkiak geroago sortuak direla.

Euskal Herriaren historia eta euskararen egoera mendeetan zehar zer moduzkoa izan den xeheki ez badakigu ere, gaingiroki behintzat eta lerro nagusietan ezagutzen dugu. Euskal Herria eskualdetan banatua eta zatikatua egon da, eskualde batekoek bestekoekin har-emanik guti izan ohi zutela. Euskara, berriz, berekasa utzia egon da, ofizialtasunik gabe, eskolan sarrerarik gabe; ez da landua izan, edo oso guti. Beti ere hizkuntza biziak etengabe aldatuz, zatikatuz eta eboluzionatuz baldin badoaz, areago gertatzen da hori hiztunak honelako egoeratan bizi direnean. Axular-ek jadanik bere erara esana du hori: «Eztituzte euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baitituzte diferent» (5).

Ezin ukatua da euskararen barnean desberdintasun ugari eta nabariak direla eta desberdintasun horiek batzutan edo inoiz zahar-kutsua dutela. Euskaldunak «gens» edo etnia bat eta hizkuntza baten jabe izanik ere, agian etnia horren barnean baziren tribu, estirpe eta leinu bereziak —eta etnia bereko guztiak ere, dirudienez, ez ziren euskaldun—. Leinu horietarik bakoitzak bere bizimoldea egingo zuen eta horrek esplikaturako luke euskararen barnean desberdintasunak ugaritzea eta nolazpait gogortzea.

Erromatarren denborako Ptolomeo idazleak Espainia aldean zeuden jendakien berri ematen digu, batez ere itsasertzean zeudenena. Orain bada, idazle honek honako jendaki hauen izenak eta mugak utzi dizkigu: Baskoiak, Varduloak, Karistioak eta Autrigoiak. Baskoiak gaur Nafarroa deitzen dugun lurraldean bizi ziren guti gora-behera eta baita Gipuzkoako sortaldea ere hartzen zuten (Oiartzun, Hondarribia, Irun). Hain zuzen, gaur-eguneon ere Gipuzkoako punta hori nafar euskalkiaren eremuko da. Gero Varduloak datoz Deba ibairaino, eta hau da orain ere gipuzkoar euskalkiaren hedadura. Gero Karistioak, Deba ibaitik Nerbioi ibairaino: berriz ere Ptolomeoren mugaketa hau bat datorrela dirudi bizkaieraren euskalkiarenaz. Nerbioi ibaitik etzinalderuntz Autrigoiak; baina hauei buruz dudak daude ea euskaldunak ziren ala zeltak eta edozein modutan ere badirudi aski goiz galdu zutela beren jatorrizko hizkuntza.

Lur-barruan, jakina, zailago da leinu hauen mugak non ziren jakitea. Badirudi Treviñon (Treviño = Tres Fines, hots, Hirumugarrieta) hiruok alkar jotzen zutela: Vardulo, Karistio eta Autrigoiek, alegia.

Euskalkien mugak Ptolomeok jendaki hauei egozten dizkienekin bat etortzeak froga handi bat dirudi. Horrek frogaturako luke, alegia, hizkuntza bat bera izanarren, mintzamolde edo dialekto bereziak sortu zirela tribu berezi horien arabera eta denboraren eraginaz.

Eta hau da kontua: Bisigotoen denboran ez dira gehiago izen horiek aipatzen. Baskoiak soilki agertzen dira. Esan nahi ote du horrek beste jendaki horiek suntsitu zirela? Ez. Itxuren arabera, orduan gertatu zen denek beren batasunaren kontzientzia harturik eta nolabait bat eginik, Bisigoto eta Frankoen aurka gudukatu zirela, eta hauek izen bakar horrekin izendatzen zituztela (eta berdin arabiarrek).

Baina —aurreko kapitulu batean ere ukitu dugu arazo hau— Schulten, C. Sanchez Albornoz eta abarrek bestelako eritzia dute hemen. Jaun horiek sostengatzen dute Baskoiak soilki zirela euskaldun, eta hauek beren menpean hartu zituztela Varduloen eta Karistioen lurrak, eta hala, lehen euskaldun ez zirenak, euskaldun izatera etorri zirela. Baina hau ez da sinesgarri Julio Caro Barojaren ustetan (6). Irriz esan du norbaitek: Nafarrak etorri zirela Bizkaira euskara ekartzera, eta kontxo! Horixe polita! Zer eta bizkaiera ekarri ere! Nafar

euskalkia ekarri baligute bederen... (Ateraldi hau irri egiteko ona da, baina ez dut uste auzia garbitzeko balio duenik, orduetik hona igaro diren mendeen herronka kontutan hartuz).

«Vascongado» hitza ere Schulten eta Sanchez Albornozen opinioaren aldeko argumentutzat atera ohi da. Ikusi dugu baskoiak nafarrak zirela. Orain bada, eta jaun horien ustez horiek soilki euskaldun zirenez gero —eta horiek ere ez denak agian—, sartaldeko hiru probintziez nafarrak jabetu zirenean —berriz ere jaun horien ustez—, hemengo jendea euskaldundu egin zen, hots, *vaskonizatu*, eta hori omen dago «vascongado» hitzaren azpian.

Baina hitz horren etorkia esplikatzeko ez dago bitxikeria horietara jo beharrik. «Vasconicus» hitzetik sortu da, zalantza gabe, «vascongado», «sermo vasconicus» (7) eta zer esan nahi duen garbi dago, hots, euskaraz mintzo dena.

«Vascongado» hitza gaztelaniaz eta *Euskaldun* hitza euskaraz guztiz baliokide dira eta berdin izendatu dira «vascongado» hitzaz bai Nafarroako eta bai hiru probintzietako euskaldunak. Kanpionek, nafarra izanik, ez ote du bere Gramatika famatua *Gramática Bascongada* izendatu? (Kanpoaldeko estalkian behintzat hala dio). Eta aitzin honetan ikusi dugu Aita Añibarrok dioen harako hura: «la falta de libros bascongados, que no los ha habido hasta mis días». Beraz, euskararekin du zer-ikusi hitz honek. Hori frogatzeko «ad nauseam» ekar daitezke exenpluak (8).

Eta Iparraldeko euskaldunak, zer? Hor ere Gregorio de Tours-en pasarte bat aipatzen da, Baskoiak han sartu zirela frogatzeko (9). Eta hortik sinest arazi nahi digute han ere euskaldunak berandukoak direla; hango euskara ere, sartaldeko probintzietakoa bezala, nafarrek sarrarazia dela. Baina Gregorio de Tours-ek dioena aisa uler daiteke ondorio horietara jo gabe. Hark dioena de Baskoiek erasoak eta sarrerak egin zituztela toki haietan, baina hortik ez da segitzen lehenagotik ere hango jendea euskaldun ez zenik.

Erromatarrek etortze-garaian Aquitania guztia euskaldun edo euskararen ahaide hurbileko mintzairadun zela pentsatzen da (horrek ez du esan nahi, ordea, baskoiak zirenik); gero erromartatu, eta erromantze berezi bat sortu zen hor, gaskoina, euskarakin lokarri sakonak dituen (gaskoina eta baskoina hitzak ere anaia bixkiak dira) (10).

Pirineo aldean, berriz, Nafarroatik eki alderuntz, oso berandura arte euskarak irauin zuela dirudi (Aragoien etab.).

Eta Hegoaldean —Errioxa eta Burgos aldean (11)— euskara zabaldua egon zela badakigu; baina hemen duda gehiago dago zabaltze hori ez ote zen gertatu Errekonkistaren ondorioz.

Dena dela, hemen ere erromantze berezi bat sortzen da euskaldun izandako jende artean, hots, gaztelania, euskararen markak dituen.

Baina gatozen berriz ere euskalkien arazora: bizkaiera bederen ez ote zen jatorriz beste hizkuntza bat? Egon da, bai, hala pentsatu duenik. C.C. Uhlenbeck hizkuntzalariak hori edo horrelako zerbait sostengatu duela dirudi. Horra jaun honen hitzak:

«Si fijamos la atención en las particularidades individualizadoras del vizcaíno con relación a los demás dialectos vascos, tenemos más bien la impresión de que hay que partir de los dialectos pirenaicos occidentales antiguos que, durante un cierto período, no eran vecinos contiguos, pero que, al entrar más tarde en contacto, se acercaron cada vez más el uno al otro. De uno de ellos habrá, pues, salido el vizcaíno; del otro, todos los demás dialectos tanto en territorio español como en el francés. El acercamiento entre el vizcaíno y el guipuzcoano, en otras palabras la atenuación de los límites que en otro

tiempo tuvieron que ser claros, es un proceso que está en marcha desde hace tiempo y que continúa todavía» (12).

Lacombek, bere aldetik, hara zer dioen:

«Il nous semble qu'il serait suffisant de distinguer deux grands groupes dialectaux: le biscayen (que l'on pourrait appeler aussi basque occidental) d'un côté, et de l'autre côté tous les autres dialectes (guipuzcoan, labourdin, souletin, parlers de la Navarre française et de la Navarre espagnole» (13).

Mitxelenaren pentsakera, ordea, guztiz bestelakoa da. Honentzat bizkaiera ez da euskalki bat besterik, besteen artean. Ez du uste lehen aldenduago zegoela eta emeki-emeki hurbilduz joan dela, eta bai alderantziz gertatu direla gauzak: lehen hurbilago egonik, gero eta urrunagotu egin dela beste euskalkietatik. Adibide bat aipatzen du: *ebazan* bezalako aditz-formak, inoiz jatorragotzat jotzen direnak —beste euskalkietatik aldenduago daudelako—, berriak dira, berandukoak, alegia, tradizio, erroztapen eta hedadura ttipia dutenak (14).

Euskalkiez mintzo garenean behar da jakin zertaz mintzo garen. Bestela gauzak nahasi besterik ez dugu egingo. Gauza bat dira euskalki mintzatuak eta beste bat euskalki idatziak (literatur euskalkiak).

Euskararen barnean —hizkuntza hau mintzaturik den aldetik— dialekto edo euskalkiak badirela, aspaldidanik dakite —eta aitortu dute— euskal estudioei kasu pixka bat eman dioten guztiek (Oihenart, Larramendi, Añibarro etab.). Baina zenbat diren euskalki horiek, non hasten eta bukatzen den bakoitzaren eremua etab. esate orduan, zehaztasunik gabe mintzo ziren. Mugaketa garbi bat egitea zaila edo ezina dela nolazpait bazekiten. Gero, zientifikoki lan egin nahiz, etorri dira euskalki mintzatu horien sailkapenak eta mugaketak.

L.L. Bonaparte printzea izandu da, noski, arazo honetan gailurtu dena, eta hark egindako banaketa aintzat hartu izan da, ez hutsezina delako edo eztabaidagarri diren puntuak ez dituelako, baina lan-tresna bezala probetxuzko den zerbait utzi digulako baizik. Bonapartek, jakina denez, 8 euskalki kontatzen ditu (horietako bakoitzak, bestalde, euskalki-zati edo azpi-euskalkiak dituelarik). Zortziok, sartaldetik hasiz, hauek dira: 1 Bizkaiera, 2 Gipuzkera, 3 Goi nafar hegoaldekoa, 4 Goi nafar iparraldekoa, 5 Lapurdiera, 6 Benafar sartaldekoa, 7 Benafar ekialdekoa, 8 Zuberera. Zortzi, beraz, Eta bakoitzaren mugak ere zehazki markatuak utzi zizkigun bere Mapa famatuan. Mapa hori xeheki eta arduraz egindako azterketen ondorio dela, ezin uka.

Baina aurki hasten dira auzi eta ezbaiak. Esate baterako, Azkuek parterik gehienez onartzen du Bonaparteren sailkapena, baina pixka bat aldatuz. Euskalkien mugetan ere ez datoz beti bat Bonaparte eta Azkue. Adibidez, batak —Bonapartek— esango du Elgoibar bizkaieraren eremuan dela, eta besteak ezetz, gipuzkera dela han nagusi, eta zenbat holako! Burundako euskara batak gipuzkoartzat jotzen du eta besteak goi nafartzat; Baztango euskara, batak lapurdieratzat, besteak goi nafartzat. Eta gero Azkuek Erronkariko euskara euskalki berezizat joko du; goi nafar iparraldekoa eta hegoaldekoa euskalki batean sartuko ditu, eta berdin be nafar ekialdekoa eta sartaldekoa. Orduan Azkuerentzat guztira 7 euskalki dira, eta ez 8, Bonapartek zioen bezala.

Eta beste euskalari batzuei galdetzen badiegu, esango digute badirela arrazoiak euskalki berezien kontua gehitzeko; konparaziora, Saraitzuko, edota Araban mintzo zena euskalki bereziak omen dira. Gero, euskalki bakoitzaren barnean euskalki-zati edo azpi-euskalkiak daude eta tokitik tokira desberdintasun handi xamarrek nabaitzen ditugu.

Orduan zer pasatzen da hemen? Dialektoaren kontzeptua bera ez ote da auzipean? Hala dirudi.

Gogora ekar dezagun Lafittek idatzi zuen harako hura:

«Or le basque n'est pas une langue unifiée, mais un ensemble de dialectes et de sous-dialectes, qui d'ailleurs se compénètrent inextricablement; les limites sont difficiles à déterminer, sauf si on se place à un point de vue très particulier, comme par exemple la conjugaison...» (15).

R. Menéndez Pidal-ek, aldiz, Bilbon 1921. urtean egindako hitzaldi batean, akats hau egozten zion Bonaparteren sailkapenari:

«Bonaparte, con el concepto unitario arcaico de los dialectos, delimitó, por medio de líneas únicas, los ocho dialectos con sus subdialectos y variedades. Pero sabido es que un dialecto no tiene un límite fijo como el de una provincia o un partido judicial; los muy varios caracteres que distinguen ese dialecto de los vecinos, no tienen todos en masa una misma extensión, sino que cada uno de ellos alcanza por lo común un límite distinto del de los demás, siguiendo cada uno direcciones muy diversas. La causa de esto es que cada evolución o alteración del idioma es un fenómeno o movimiento social, producido y propagado en la masa de los que hablan un idioma; la extensión que alcanza ese movimiento depende de la extensión de relaciones que aquel grupo humano donde el movimiento se produjo alcanza entre sus vecinos, y de la mayor o menor influencia que ejerce sobre ellos para imponerles sus innovaciones. Bien se comprende que como estas innovaciones no nacen en un idioma todas a un mismo tiempo ni en un mismo lugar, no pueden tener límites iguales, pues los límites de cada una dependen de las circunstancias especiales de expansión y de influencia que cada grupo innovador posee y desarrolla en cada momento especial de su historia. Casos hay en que una porción de límites lingüísticos coinciden entre sí; pero esto sucede, por lo común, no dentro de una misma lengua, sino cuando dos lenguas o dialectos colindantes se sienten como extraños el uno al otro. Si en el país vasco se hallan haces de varios límites lingüísticos coincidentes, este hecho indicará antiguo aislamiento o antagonismo de pueblos, separación profunda de una masa de población respecto de la otra» (16).

Mitxelenak esan duenez, Bonaparte beti eduki zuen preso hartua dialektoaren kontzeptu zaharkitu honek (17).

Eta jarraitzen du oraindik:

«Pues al lingüista de hoy, que desea saber no dónde termina el dialecto vizcaíno y dónde empieza el guipuzcoano, sino los únicos límites que se pueden determinar, los de hechos lingüísticos concretos (el de *alabea/alaba* «la hija», por ejemplo), de poco le sirve una clasificación de este género» (18).

Xehekiago esanik, *alaba* «hija» Euskal Herri osoko hitza da. «La hija» esan nahi denean, berriz, *alabea* (bere aldaerekin, *alabia*, *alabie*, *alabii*) esatea bizkaieraren ezaugarri bat bezala jotzen da, baina baita Gipuzkoako Goierriko zati dexente batean ere gertatzen da hori, eta eskualde hau ez da bizkaieraren barnean sartzen.

Orduan, euskalkien mugak jakitea baino gehiago interesatzen zaigu fenomeno konkretuak banan-banan non gertatzen diren jakitea.

Dialektoa edo euskalkia ez da, bada, askotan uste den bezala, izaki trinko bat, berez zutik egon eta bizi daitekeena, non hasten eta bukatzen den ongi dakiguna. Ez da, alegia, hartu behar erresuma edo probintzia borobil bat balitz bezala, bere muga eta guzti. Errealitatean gauzak askoz nahasiagoak dira. Oñati, esate baterako, bizkaieraren barnean sartu ohi da, baina zenbat gauza ez ditu berezi-bereziak, ez Bizkaiko eta ez Gipuzkoako euskarakin bat ez datozenak! Beste zenbaitetan gipuzkerarekin dator bat, eta ez bizkaierarekin, etab. (19).

Baina euskalkiek nolabaiteko errealitatea badutela aitorturik ere, egin dezagun azken froga; jar ditzagun euskalki guztiak bata bestearen gain, guztiak zertan datozen bat eta zertan ez, neur dezagun. Zein izango da ondorea edo emaitza? Zalantzarik gabe, aitortu beharko dugu guztiok bat direneko parte askoz ere handiagoa eta funtsezkoagoa dela, bestea baino.

Muina guztiotan bat dela garbi agertuko zaigu. Desberdintasunak eta diferentziak, aldiz, axalekoak direla.

Zer esan nahi du horrek? Hizkuntza baten aurrean gaudela, eta ez hizkuntza askoren aurrean. Lehen esan dugun bezala: arbola bat, nahiz eta adar askoduna.

Bestalde, guztiok dakigu gaurko bizimodua, bere jende arteko har-eman estuekin eta komunikabideekin ez dela aukerakoena tokian tokiko berezitasunok gordetzeko eta bizirik iraun arazteko.

Pasa gaitezen orain literatur euskalkien auzia ikustera. Zer dira literatur euskalkiak? Idatzizko zereginetan erabiliak izateko moldaturik dauden tresna batzuk. Tresna horiek euskalki mintzatuan oinarritzen dira, noski, baina berez beste zerbait dira.

Literatur euskalkiek literatur tradizioa izan ohi dute iturburutzat. Izan ere, idazleek, idaztera jartzen direnean, beren aurretik idatzi duten idazleei jarraitzen diete, eta hala sortzen da herronka edo sail bat, eta hori da, hain zuzen, literatur tradizioa deitzen duguna. Jakina, tradizioari hasiera eman dionak toki jakin bateko hizkera mintzatua hartu ohi du oinarri, eta ondotik heldu direnak, gora-behera batzuekin, hasierako itxura horri leial egoten dira. Hemen gauza bat hartu behar da kontutan: hizkuntza idatziak berdina izatea eskatzen duela. Nola lortu berdintasun hori? Akordio gisa. Idazleen tradizioari leial egonez, alegia.

Adibidez, bizkaiera literarioaren aita edo sortzaile Juan Antonio Mogel dugu. Honek Markinako euskara-modua hartu zuen oinarritzat; baina, jakina, bizkaiera mintzatuaren barnean badira era eta modu asko, gauza denetan Markinakoaz bat ez datozenak. Garai berean Mogelen kideko eta adiskide den Aita Añibarro arratiarrak beste tradizio zabalago bati ematen dio hasiera. Horregatik bizkaiera literarioaren barnean bi tradizio daudela esan daiteke. Baina Markinakoak —hots, Mogelenak— izan du lehentasuna (20).

Hortik ikusten da literatur euskalkiak hizkera batu batzuk direla, idazleen lanari esker eratuak, nahiz eta toki eta aldi jakin bateko hizkera mintzatuaren gain eratuak izan.

Hortik ikusten da, baita ere, zenbatetaraino erdizkako egiak baizik ez diren —eta erdizkako egiak sarri gezur galantak bihurtu ohi dira— esaten diren eta dogma antzo hartzen diren esamesa horiek: «Euskalkian idatzi behar da, zeren eta berau bakarrik baita herriaren hizkuntza; batua artifiziala da, ez da herrikoa».

Aitzitik esan behar da argi eta garbi, idazteko —eta eskolan ikasteko— erabiltzen diren hizkuntza guzti-guztiak, hizkera batu batzuk direla, neurri batean herriko —baina noizko eta nongo herritako?— hizkuntza mintzatuan oinarrituak, eta beste neurri batean herritik urrunduak —eta beharko izan, aipatu dugun berdintasun hori lortuko baldin badute—.

Andaluziar ume bati andereñoak irakatsiko dio berak «zordao» esaten duena, «soldado» idatzi behar dela. Zergatik? Erdararen literatur tradizioak hala eskatzen duelako. Hizkuntza mintzatuak tokitik tokira eta bai gizalditik gizaldira ere aldaerak jasan ohi ditu. Idazteko tresnak, berriz, bateratua eta finkatua egon behar du, eta horrelako aldaeren gainetik. Beraz, ez da posible alde guztiz herriko hizkeraz bat etor dadin (21).

Euskararen barnean orain arte lau euskalki literario izendatzen ziren: lapurdiera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Gogoan har Kanpionen Gramatikaren titulua: *Gramática de los cuatro dialectos de la lengua euskara*, 1884. Beraz, mintzatzeko —Bonaparteren sailkapenaren arabera— 8 euskalki ditugu; idazteko, berriz, 4. Batzuek aldarrikatzen duten dogma hori egia balitz, mintzatzeko bezain beste dialekto beharko lukete izan idazteko; baina ez da hala gertatzen, eta horrek erakustera ematen du zenbatetaraino diren ahulak arrazoiketa horiek. Bai lehen eta bai orain, euskaldun askok sortzetik berena ez duten euskalkian kristau

dotrina ikasi eta eliz predikuak entzun izan dituzte. Konparaziora, Lavieuxville Baionako apezpikuak XVIII. mendean agindu zuen berak eragindako katixima xoilki irakats zedila eliz barruti osoan; katixima hori lapurdieraz dago, ordea, eta lapurdierazko era horretan irakasten zen benafar euskalkia mintzaten zen tokietan ere (Baionako eliz barrutikoetan behintzat). Horrelako gertakarien aurrean batzuek soinekoak urratzen dituzte, nori bekatu larria balitz bezala. Haritschelhar benafarrak, aldiz, hara zer zioen: «Ez dut horren damurik. Aberastu egin naute».

Lau euskalki literario horien artean, denborari bagagozkio —eta denbora hemen monta handikoa da—, Lapurdikoari zor zaio lehen tokia. Lapurdieraren abiada XVI. mendean hasten da eta halako bir-jaiotze bat ezagutzen du Materreren inguruan XVII.ean (22). Alde honetatik lehentasun bat du, bada, euskalki honek, eta hori ezin da ahantzi guztiontzat euskara batu bat moldatu nahi dugun une honetan. Berrehun urte geroago, hots, XVIII. mendean, moldatzen da gipuzkera Larramendiren eraginari esker. Eta XIX.aren hasieran bizkaiera, Mogel eta Añibarroekin. Zuberoakoa, berriz, XVII eta XVIII.ean Belapeyre eta Maister-ekin.

Euskara batua eratzean lapurdiera ezin utzizkoa dugu, bada. Egia da, bestalde, gaur euskararen bizi-indarra Hegoaldean kokatua dela batipat, eta hori ere kontuan eduki behar zen. Zer egin? Ibon Sarasolak *standard idatzia* deitzen duen horren maila *klasiko* eta *jaso*-an Lapurdiko tradizioak edukiko luke toki berezi bat. Izan ere, hitz guztiak ez daude maila berean: hitz bat maila arruntean ongi egon daiteke, eta hortik kanpo, gaizki; eta alderantziz, maila klasikoan on dena, lagunartekoan bere tokitik kanpoan da. Idazleak idazmotari kasu emanek, jakin behar du zer hauta (23).

Dena dela, lau euskalki literario horiek zer dira? Euskara batu batzuk, idatzizko zereginetan erabiliak izateko sortuak, eta zabalera gehiago edo gutiago lortu dutenak. Euskalki mintzatu baten gainean eratuak izanarren, hortik kanpora ere zabaldu eta erabili izan dira. Euskalki horiek literatur tradizio bat dute oinarri.

Eta orain, euskara batua edo guztiona Euskal Herri guztirako egitean, euskalki horiek zeharo baztertu edo debekatu behar ote dira? Ez noski. Hemen ere esan behar da Euskaltzaindiaren jarrera ez dela beti ongi konprenitua izan, eta bi aldeetarik etortzen zaizkiola erasoak: batzuek diote Euskaltzaindia euskalkien etsai bihurtu dela; besteek, berriz, Euskaltzaindia gaitzesten dute euskalkiez arduratzen delako, hain zuzen. Baina berak —Euskaltzaindiak— uste du batak ez duela bestea kentzen: euskara batua bultzatzeak ez du esan nahi euskalkiak debekatu behar direnik. «Haec oportuit facere et illa non omittere».

Idazmota edo jenero batzuetarako orain ere, eta agian luzarorako, egokiagoak gerta daitezke euskalkiak euskara batua bera baino, mendez-mende bildutako kutsu eta lurrun hori dela kausa edo toki jakin bateko hizkeraren hurbiltasunagatik.

Euskaltzaindiak jarrera garbia du auzi honetan. Nahi du, alegia, euskalkiak lant eta irakats daitezen, baina baldintza batzuekin. Hara hitzez-hitz zer dioen hartako agiriak: «Euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aztertu eta landu behar direla uste du Euskaltzaindiak, ortografia eta hizkuntzaren azpiegitura zainduz». Beraz, ortografia bakarra hizkuntza osoan —ahal dela— eta euskararen oinarrizko batasuna zainduz. Hauek dira baldintzak (24).

Euskaltzainburuak anitzetan ukitu du puntu hau Euskaltzaindiaren batzarre ageri eta ospakizunetan. Hona hemen gertaldi batzuk:

Deban, Juan Jose Mogelen ospakizunean (25).

Azkoitian, Vicenta Mogelen mendeurrenean (26).

Donaixti-Ibarren Lopez idazlearen ospakizunean (27).

Altsatsun Aita Ondarraren sarreran (28).
 Lakuntzan, Blas Alegriaren omenaldian (29).
 Bilbon, Bizkaiko Aurrezki Kutxaren sariketan (30).
 Markinan, euskal festen mendeburuan (31).
 Aramaion, Barrutiaren omenaldian (32).
 Eibarren, Toribio Etxebarriaren mendeurrenean (1987).
 Beraz, *Euskaltzaindiari Epaiketa* liburuan esaten dena gezur hutsa besterik ez da.

Euskaltzaindiak, esate baterako, ez du gaizki ikusten bizkaiera irakats dadin, baina nahi du literatur tradizioko bizkaiera irakats dadin, eta ez edozer gauza, bizkaieraren aitzakiaz. Gainera parte hartu du Jaurlaritzak atera duen liburuan: *Bizkaieraren idatzizko arauak. Deklinabide eta aditza*.

Oharrak

1. *Bibliogr.* Julio CARO BAROJA, *Los pueblos del Norte de la Península Ibérica (Análisis histórico-cultural)*, 2.^a ed. Ed. Txertoa, San Sebastián 1973.— SCHULTEN (Adolf), «Las referencias sobre los vascones hasta el año 800 después de J.C.» *Riev* XVIII, 225.— Luis MICHELENA, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, Col. Auñamendi 36, San Sebastián 1964.— YRIZAR (Pedro), «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Estudio lingüístico-demográfico» BAP (1973), cuadernos 1-2-3.— ID. «Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo», ASJU (1973), 3.— MENENDEZ PIDAL (Ramón), *En torno a la lengua vasca*, Col. Austral n.º 1.301.— M.^a Jesús PEREZ AGORRETA, *Los Vascones (El poblamiento en época romana)*, Institución Príncipe de Viana, Pamplona 1986.— OMAECHEVARRIA (Ignacio), «Vascuence y Romance», *Euskera* (1986), 177-190.— LAKARRA (Joseba Andoni), «Bizkaiera zaharra euskalkien artean» ASJU (1986), 639.— (ASKOREN ARTEAN) *Euskara Euskalkiak*, Eibar 85.— MICHELENA (Luis), «Lengua común y dialectos vascos» en *Palabras y Textos*, p. 35.— C. SANCHEZ ALBORNOZ, *Divisiones tribales y administrativas del País Vasco en la época romana*.— ID. *Vascos y Navarros en su primera historia*.
2. Ikus *Diccionario Trilingüe*, Prólogo, cap. XXVI, p. CLVI.
3. Hitz-altxorretik hartutako exenpluok badakit ez direla froga erabakikorak, baina bere indarra dute, halere.
4. AÑIBARRO, *Voces Vascongadas Diferenciales*, Ediciones de la Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao 1963; p. 21.
5. Ax 8.
6. *Los Pueblos del Norte de la Península Ibérica*, p. 99.
7. MICHELENA (L.), «Los vascos y su nombre» *Riev* (Enero-Junio 1984), 9-29.
8. Ikus esate baterako Añibarroren «Catálogo de los pueblos vascongados de Vizcaya, Guipúzcoa y Navarra» BAP (1956), 433. Eta Juan Mateo de Zabalaren «Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi», San Sebastián, 1856.
9. Ikus CARO BAROJA, o. cit., 133 orr.
10. TXILLARDEGI, «Specificité de l'évolution des langues romanes de la région pyrénéenne occidentale», *Euskera* (1976), 51-73.— MICHELENA (Luis), «La teoría del sustrato y los dialectos hispano-romances y gascones» en *Lengua e Historia*, Col. Paraninfo, Madrid, 1985; 310.
11. Ikus MAÑARICUA, «La fazaña de Don Moriel» in *Homenaje a J.I. Tellechea Idígoras*, San Sebastián 1982, p. 85-103.— MERINO URRUTIA (J. Bta.), *El Vascuence en la Rioja y Burgos*.
12. Ikus MICHELENA, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, p. 63.
13. Cf. SOCIETE LINGUISTIQUE DE PARIS, *Les Langues du Monde* C.N.R.S., Paris 1952; p. 260.
14. Ikus *Sobre el pasado de la lengua vasca*, p. 64.— Mitxelenak uste du, antzina, Bisigotoen denboran edo, moldatu zela euskara batu bat (nolabait esateko) eta Bizkaia izan zela horren eraginetik aldendua egon zena. Ikus *Palabras y Textos*, 55 orr.
15. P. LAFITTE, *Grammaire Basque*, Preface, p. 5-6.
16. R. MENENDEZ PIDAL, *En torno a la lengua vasca*, Col. Austral 1301, p. 45-46.
17. MICHELENA, *Sobre el pasado de la lengua vasca*, col. Auñamendi 36, p. 26.
18. O. cit., p. 26.
19. VILLASANTE (L.), «Oñatiko euskera» *Egan* (1986), 80-94.
20. VILLASANTE (L.), «Markina, bizkaiera literarioaren sehaskea», *Euskera* (1984), 185-191.

21. Horrek ez du esan nahi literatur hizkuntzak beti geldi, geldo eta zirkinik egin gabe egon behar duenik; hizkuntza mintzatuaren berriztapen eta aldaketak harengana ere heltzen dira, baina ematuagoak eta batasuna hausten ez dutela.
22. VILLASANTE, «Donibane Lohizuneko Idazle-eskola XVII. mendean», *Gure Herria* (1973, n.º 3), 129-140.
23. Ibon SARASOLA, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*, A-Aurten, 35.
24. Ikus *Euskera* (1979), 103, 697.
25. Ikus *Euskera* (1981), 683.
26. Ikus *Euskera* (1982), 451.
27. Ikus *Euskera* (1982), 433.
28. Ikus *Euskera* (1981), 629.
29. Ikus *Euskera* (1983), 343.
30. Ikus *Euskera* (1983), 81-91.
31. Ikus *Euskera* (1984), 185-191.
32. Ikus *Euskera* (1983), 35-36.

XIV. Kapituluua. Maileguzko hitzek sortzen dizkiguten istiluak (1)

Laburpena

Maileguzko hitz berrien grafia eta forma finkatu beharra.— Mailegu zaharrak eta mailegu berriak.— Altubek 1933. urtean egindako proposamena eta Azkuek eman zion ezezkoa.— Altube berak Eusko Ikaskuntzako Batzarrean proposatzen zituen bideak (mailegatu behar ziren hitzei buruz).— Mitxelenaren aburua.— Euskal liburu berri batetik hartutako adibideak.— Aleman hizkuntza eta Fremdwörter direlakoak.— Kultur hitz mailegatuen grafiaz har daitezkeen bideak.— Maileguen kontu honetan gaur nabari den zabarkeriari nola neurriak hartu.— Euskal tradizioan auzi honi buruz zer aurkitzen dugun.

Jaun-Andreak: Egun on!

Lehenbizikorik, eta hasteko, eskerrak zuei, Euskaltzaindiaren deiari erantzunez, bilkura hauetara etorri zareten guztioi.

I. Bilkura hauen gaia eta okasioa

Duela urtebete, eta Hondarribian —Ikus *Eusker*a (1982), 271— Euskaltzaindiak erabaki bat hartu zuen, hots, Hiztegitzintza-batzordea sortu behar zela eta hiztegi hiritartua prestatzen hasi.

Baina lanean hasi orduko, oztopoa azaldu zen. Hiztegi hiritartu horretan maileguzko hitzak ugari samar sartu beharko direla pentsatzen da —gehiago edo gutiago, zenbat, zein, ez dakit, baina bai mordoska dexentea, dirudienez—. Hiztegitan, berriz, guztiok dakigunez, hitzek alfabetoko ordenaren arabera ondozkatuak agertu behar dute. Horrek esan nahi du maileguzko hitzen grafia nolabait erabakia eta finkatua ez dagoen bitartean, ezin daitekeela urratsik eman. Horra zerk ekarri gaituen bilkura hauen premia gorria ikustera —puntuko arrazoi hau alde batera utzirik ere, behar hori lehendik sentitzen zela ukatu gabe—.

Beste aldetik, Etxenike jaunak, Euskararen Aholku Batzordearen izenean, gure Idazkariari eskutitz bat egin zion (82-IX-10). Hara zer dioen bertan (azken zatia bakarrik irakurriko dut):

«Eta hortara dator, hain zuzen, Euskararen Aholku Batzordeak Euskaltzaindiari egiten dion eskea: Euskaltzaindiak erabaki ditzala, ahalik eta eperik laburrenean, honako puntu eztabaidatu hauek:

- Atzerriko izenen grafia eta ahoskatzea.
- Maileguzko hitzen tratamendu ortografikoa.
- Atzizkien tratamendua.
- Maileguzko hitzei buruzko oinarrizko kriterioak: zenbat, zein kasutan, nola, erakarpenak etab.

Oinarrizko puntu hauek erabakirik baleude, guziona lana izugarri erraztuko litzateke, eta erabaki horiek hartzea Euskaltzaindiaren lana dela uste dugu.

Eske hau gogoan hartu eta lehenbailehen Euskaltzainen eskuetan jarriko duzulako esperantzan, agur bero bat».

Ikusten duzueenez, eremu aski zabala da Etxenikek aztertzeke eskatzen diguna. Gaur eta biharko bilkuretan ezin dugu dena inguratu. Bigarren eta beharbada laugarren puntuarekin aski izango dugula uste dut.

Maileguzko hitzak dira, bada, gure aztergaia. Eta zehazkiago eta presikiago esanik, hitz horiek euskaraz nola behar diren ahoskatu eta nola behar diren idatzi.

Idazkera eta ebakera bata besteakin loturik daude eta ezin dira elkarrengandik berezi; halaz guztiz, nik esango nuke hitz horien idazkera edo grafia dela batez ere guk hemen aztertu behar duguna, ebakera ere neurri batean kontuan dugularik.

Baina horrek beste gauza bat nolabait mugatzea edo lehendanik erabakirik edukitzea eskatzen du, hots, zein hitz mailegatu behar diren, nondik hitzok hartu, etab. Bi puntu, zein baino zein zailagoak eta nahasiagoak.

II. Euskaltzaindiaren orain arteko erabakiak

Ba ote da honetzaz lehen Euskaltzaindiak emandako agiri edo erabakirik? Nik ez dut ezagutzen. Krutwig jaunak baietz dio. Berak dioenaren alde nik zerbait atera nezake.

Ene har-emanak Krutwig jaunarekin, dakizutenez, aspaldi samarrekoak dira, eta neure paper zaharren artean honako idazki bat aurkitu dut: «Sobre ortografía vasca y el vascuence escrito, por Federico Carlos Krutwig». Idazki hau irakurri hutsarekin ezagun da proposamen batzuk direla, Euskaltzaindiari zuzenduak, baina aurkeztu ote ziren, onartu ote ziren etab., ez du esaten. Krutwig jaunak baietz dio, eta hala izango da, baina hartako agiririk ez da ezagutzen. Idazki honen 5. partean eskatzen da kultura-munduko maileguak ingeles, aleman eta frantsesak ohi duten gisa, hau da, hitz horien jatorrizko grafia errespetatuz, idatz daitezela euskaraz. Idazki honek ez du urte mugarik.

Euskaltzaindiak euskararen ortografia arrunta edo normala Donostian 1920ko Urtarrilaren 8ko batzarrean erabaki zuen —Ikus *Euskera* (1919-1921), 64—. Han ageri den alfabetotik «C», «Q» eta «V» letrak kenduak daude; «Y» grekoa, ordea, ageri da; eta «H» ere bai, noski. Baina, esan dudanez, hau euskal ortografia arrunta da. Kultura-munduko maileguei buruz ez da deusik esaten.

«H» letraren erabilerari buruz, dakizutenez, Donostian 1979ko Azaroaren 30ean hartu zuen Euskaltzaindiak bere erabakia —Ikus *Euskera* (1979), 659—. Baina orduan ere kultura-munduko maileguetako «H» letrari buruz ez zen deusik erabaki. Euskararen hitz arruntak bakarrik hartu ziren kontutan (2).

Haatik, euskararen barnean, gaur egun, sail handi bat osatzen dute maileguez; kultura-munduko maileguez esan nahi dut.

Hasiera-hasieratik egin behar da hemen mugaketa bat. Euskararen hitz mordo ugaria dago, aspaldidanik etxeratua duguna. Hitz horiek euskara arrunt eta herrikoan bizi dira eta euskal ortografia arruntez idazten dira. Ez gara horietaz ari, bistan da. *Barkatu, bake, fede, kolore, familia, kantatu, errege, gorputz, itxura* eta hainbat eta hainbat, guztiz euskaldun bihurtuak daude, eta hori aspaldidanik; horiek euskararen ortografia arruntaz idatzi behar direla, ez du inork ere dudan jartzen.

Besteak dira problema sortzen dutenak: Oraingo maileguak. Izan ere, azken hamabost-hogei urte honetan erruz ikusten ditugu mailegu berriak euskal literaturan, euskara idatzian, alegia.

Ez noa izenik aipatzera, baina guztiok dakigu gaur badirela idazleak parra-parra hitzak gaztelaniatik artez eta zuzen-zuzenean hartu eta euskaraz erabiltzen dituztenak, askotan horien beharra garbi ikusten ez delarik ere. Gainera, gehienetan ez dira izaten hitz espezializatuak, zientzietako hitz bereziak. Uste dut inoiz Krutwig jaunak esan izan duela kolonialismo berri baten azpian jartzen ari garela euskara bide honekin. Horregatik edo, eskatu zuen Ibon

Sarasolak puntu hau ere ukitzeko gure bilkuretan, hots: noiz bai eta noiz ez den zilegi maileguetara jotzea. Puntu labana da, noski, ezen neurri batean idazleari askatasun zerbait utzi behar zaio bere tresna moldatze eta erabiltze kontuan, eta, gainera, gauza hauetan mugak ez dira bat ere garbi egoten. Hizkuntzak, oroz gain, bizi egin behar du eta bizitzeko gaiak sortzea nahiz maileguz hartzea, behar den neurrian, ezin galeraz dakioko. Baina, jakina, mugak dira orotan, eta muga horiek ere bizitzeak berak galdegiten ditu. Gaur *exigitu*, *abordatu* eta zer ez dugu irakurtzen!

Euskaltzaindiak 1959. urtean agiri bat eman zuen, euskal hitza zer den azalduz: «Euskaltzaindiaren agiria euskal itzei buruz» —*Euskera* (1959), 214—. Baina agiri hori ere aspaldiko maileguei buruz da. Aspaldi euskaldunduak diren hitz horiek, euskal hitz jatorrak direla, eta, beraz, kezkarik gabe erabil daitezkeela: hori da Euskaltzaindiak orduan erabaki zuena. Mailegu berrien arazoa ez zuen, bada, ukitu (3).

III. Zenbait iritzi

Gerra aurreko garaian Euskaltzaindia hiztegi bat egiten ari zen. Oker ez banaiz, Erdal-Euskal hiztegia zen. Altube jaunak proposamen bat egin zuen maileguzko hitzak hiztegi horretan sartzearen alde. Ikus «Euskaltzaindiari» —*Euskera* (1933), 263-265—. Proposamen honetatik hartzen ditut hitz hauek: «Los vocablos de origen erdérico que pueden ser incluidos en nuestro Iztegi se dividen en dos categorías: 1.^a Los de uso popular, 2.^a Los de carácter técnico e interlingual».

Lehenbiziko sailekoak Euskaltzaindiak 1959ko agiri horretan erabaki zituen berberak dira.

Bigarren saila da guri interesatzen zaiguna. Hara zer dioen Altube jaunak: «Palabras técnicas y de uso interlingual.— Consideramos de esta categoría todas aquellas voces que, por referirse a objetos y conceptos que primordialmente tienen su vida en el lenguaje científico o cultural, han sido incorporadas o adaptadas con pequeñas modificaciones fonéticas al léxico de la mayor parte de los idiomas europeos. Pueden agregarse a esa clase de voces las que señalan objetos de invención moderna, que son denominados en la mayoría de los idiomas con el nombre impuesto en el país de su origen.— Con respecto a esa clase de voces y otras de condición análoga, podría servirnos de pauta la práctica seguida por los idiomas de la Europa occidental: español, francés, italiano, inglés, alemán... en tal forma, que las palabras que hayan sido aceptadas por todos esos idiomas lo sean también en nuestro Iztegi, claro que con las modificaciones fonéticas que fueran necesarias en tal caso».

Hemen dei edo nota bat dator, honela dioena: «En esta categoría de voces cabe también utilizar los neologismos creados para aprovecharlos, acudiendo al procedimiento de la repartición; así, admitidas en euskera las voces *Matematika*, *Arimetika* (sería hasta ridículo rechazarlas por escrúpulos puristas) el neológico *Zenbakizti* podría significar «Contabilidad», *Zenbakiztilari* «Contable» o «Contador», etc.».

Eta segitzen du gero artikulua gorpuztean: «Proponemos que se siga la misma práctica en cuanto a la admisión o no de los sufijos derivativos (Filosof-o, Filosof-ico, Filosof-al...) que reciben esa clase de voces en los idiomas señalados».

Altuberen lan honi beste batekin erantzun zion Azkuek: «Observaciones acerca de Euskaltzaindiari de Altube'tar Seber» —*Euskera* (1935), 144-149—. Ezezko borobila ematen dio Altuberen proposamenari. Eta arrazoi nagusia hau bide da: «Estamos ahora en vísperas de la Escuela Vasca. Ella hará que a las futuras generaciones les sean tan familiares *gudaritaldea* como *ejerzitua*, *itzalaldia* como *eklipsea* o *eklixa* (que dicen los pescadores de Lekeitio), *argitaratzailea* como *editorea*..., etc. etc.».

Eta orripeko notan hau dio: «Estos tres neologismos están sacados del borrador del futuro Diccionario» (4).

Altubek aipatzen duen Filosof-o hitzari buruz, Azkuek hau dio: «y de *filosofo* que para nosotros sería *filosofu*, conforme a la general tendencia de nuestra lengua al aceptar vocablos que llegaron a ella por ingerencia del latín...».

Hala ere, Axular-en eta bai Lapeyre-n ere (Ikus Lekukoetan berriki agertutako liburua) hitz honek «o» bukaera du, ez «u»: *filosofo*, beraz.

Jakina denez, maileguzko hitzen arazo honek asko kezkatu zuen Altube, batez ere bere garaiko euskaltzaleengan ikusten zuen hertsikeriagatik. *Euskera*-n badu beste lan bat: «Erderatiko itzak, itz barriak eta aintxiña-itzak», *Euskera* (1919-1921), 44-54.

Eta Eusko Ikaskuntzako III. Batzarrean (Gernikan 1922.ean egindakoan) lan luze eta sakon bat aurkeztu zuen: «Euskal-itz barriak» (78-93 orr.). Bertan finkatzen ditu hiztegi-gintza-lanerako ezin utzizkoak diren printzipioak. Gure gaiaz denaz bezanbatean, lan honetan hauxe dio Altubek: Aspaldidanik euskaldunduta dauden hitzez gainera, euskarak bi motatako hitzak mailegatu behar dituela. Altube jaunaren beraren hitzekin esango dut: «1) Atzerritik orain agertzen jakuzan makina, erreminta, jostailu, soineko ta komertzijotako naiz arezaz kanpoko beste tresna ta arazo guztijai jagokezanak; 2) Erritar arazoez goitikoak: goi-jakintzai jagokoezanak».

Azkeneko hauetan —zientziei dagozkien hitzetan, alegia—, ingelesaren bidea hartzea proposatzen du, hobeki esan, sartalde osoan segitzen den bidea, hots, grezitar eta latinetiko gaiekin sortutako hiztegi hori erabiltzea guk ere. Jakintza-hiztegia, bada, Mendebaleko beste hizkuntzek bezala, latin eta griegotik har dezagula eskatzen du. Ez du esaten, ordea, hitzok nolako ortografiaz idatzi behar diren, baina zeharka ikusten da hori, berak aipatzen dituen adibideetatik: *kimika*, *botanika*, *zoolojija*, *fonetikia* (91 orr.). Horrekin Altubek ez du baztertzen —eta espresuki esaten du— euskal gaiekin sortutako izenen bat edo beste egon ez daitekeenik, eta zilegi izango da horrelako hitza, egoki denean, bestearen alboan ipintzea.

Aipatutako lan honetan Altubek ematen ditu, gainera, maileguok euskal lege eta jokeren arabera egokitzeko erregela nagusi batzuk. Damurik, gaztelaniatik hartzen du beti erreferentzi puntua.

Arrotz-hitzak euskarara egokitzeko, bada, zazpi erregela eskeintzen dizkigu. (Salbuespenak eta beste aldaera batzuk notetan dakartza).

Hona hemen erregelok:

- 1.- Espaineraz «R» letraz hasten diren hitzei «E» bat ezarri aurretik: *Erruperto*, *errenta*.
- 2.- Espaineraz «D» ala «R» letraz amaitzen direnei «E» bat ezarri atzetik: *abade*, *umore*, *kolore*.
- 3.- Espaineraz «L», «R» ala «N» letraren hurrengo «S» ala «Z» datorrenean, euskaraz azkenengo biok «TS» ala «TZ» bihurtu: *poltsa*, *dantza*.
- 4.- Espaineraz «ON» bukaera duten hitzei «OI» bukaera eman: *jaboi*, *orfeoi*. Baina «ON» horren aurretik «NI», «ZI», «JI» ala «SI» baldin badator, orduan «O» soilki da bukaera: *orazio*, *erlijio*, *komunio*. Aitortzen du, haatik, badirela beste bukaera batzuk ere, eskualdeen arabera.
- 5.- Espaineraz «O» letraz bukatzen diren hitzei euskarak gehienetan azken letra hori «U» bihurtzen du: *gobernu*, *pixu*.
- 6.- Espaineraz «I» letraren hurrengo «L» ala «N» datorrenean, euskarak, tokirik gehienetan, «LL» eta «Ñ» bihurtzen ditu azkenengo biok: *illara*, *makiña*, *piñu*.
- 7.- «AR» bukaera duten espainerazko aditzak, euskarak «ATU» azkentzen ditu: *kontatu*, *errezatu*. «ER» «IR» bukaera dutenak, berriz, euskarak «ITU»-kin bukatzen: *mobitu*, *konbentzitu*, *sentitu*, *prijitu*.

Gaur-egun guzti hau, jakina, beste batzuek zehazkiago eta zabalkiago aztertua dute. Esate baterako, Mitxelenak *Fonética Histórica Vasca*-n, edo Uzeik ateratako *Maileguzko hitzak* liburuan, etab. Baina ez da ene asmoa gai hauei buruz bibliografia osoa ematea, bilkuretan erabili behar ditugun puntuen ikuspegi orokor bat eskeintzea baizik.

Euskarak duen kanpoko hitzen beharraz eginberri du Mitxelenak txosten bat. Behar hori — esaten du— nondik datorren bistan da. Euskara, alde batetik, hizkuntza ñimiñoa da, eta, bestetik, menderen mende hainbat eremutan landu gabe dago. Ezina da orain itsumustuan hutsarte hori betetzea. Euskaldunak ez gara sortzaile izan. Ikasi duguna erdaraz ikasi izan dugu. Hizkuntza normalerantz jo nahi badugu, hesiak ipini beharko dizkiogu geure hiztegiari: mugarri aldakorrak, alde batetik, eta iraunkorrek, bestetik.

Euskaldunak —dio Mitxelenak— hizketan ari denean bi zaku izan ohi ditu aldamenean: lehenbizikoan euskarazkotzat jotzen ditugun hitzak daude —zakuto ttipia izan ohi da hau—; bestean erdararen (inguru hauetan, erdara baten) ondasun, iduriz azken gabeak, egoten dira. Eta hartan ez badugu aurkitzen bila gabiltzana, sarri askotan bestean sartuko dugu eskua. Baina jokabide honek ez dirudi egoki. Inork izatekotan Euskaltzaindiak saiatu beharko luke hitz-kontuak garbitzeko galbahe tapituagoa erabiltzen».

Kanpoko hitzek —eta hau da Mitxelenak bere txostenean ukitzen duen bigarren puntua— beste hizkuntzara aldatzean itxuraldaketaren bat nozitu behar izaten dute. Nola hitzok egokitu euskarara eta zein erdara hartu iturburu: hori da kontua. Aspaldidanik euskararen sartuak daudenak hor daude itxuraldaturik eta horiek ez dute ukitu berriren premiarik. Besteak dira, berri-berriak, problema sortzen dutenak. Zein da iturburua edo abiapuntua hitzok hartze orduan?

Iturburuari dagokionez, Mitxelenak lau joera aipatzen ditu:

Lehenbizikoa: hitzok jatorrizko erdaratik eta ahal den neurrian aldakuntzarik gabe hartu nahi dituenak: *paidagogia, psykologia...*

Bigarrena: Gaztelaniaren itxura edo erdua ahalik eta leialkienik gorde nahi duena: *texto, exakzio*.

Hirugarrena: Gaztelaniaren oztopoak erraztu eta xinpletu nahian dabilzanena: *testu, dotore*.

Laugarrena: orain bi mila urte euskararen barruan maileguez har zezaketen bidea hartu nahi dutenena: *ebaingeri, etab*.

Beraz, zein hitz hartu behar diren erdaratik, hitzok euskarara nola egokitu, eta zein erdara hartu iturburu: horiek denak behar dira kontutan hartu.

IV. Adibide batzuk

Juan Mari Lekuonak ateraberri du, dakizutenez, *Ahozko euskal literatura* liburua. Liburu honetatik 10 bat orrialde hartu ditut beroietan agertzen diren maileguen husketa egiteko. Adibide gisa eskeintzen dizuet. Hitz bakoitzaren ondoan orrialdea doa:

Jenero 219
iritzi estetiko 219
testu 219
liturgiko 219
antzerki kultura 219
krokisak 220
kontextu 220
estilo 220
teknika 220
estilizazio 220
artistiko 220
katalogo analitiko 220
deskribaketa 220

ordenu kronologikoan 221
zikloen kronologia 221
lan-metodoa 221
multzo dramatiko 221
historia 221
teatro klasikoaren 221
eskena 221
gai tragikoak eta gai komikoak 221
erritmo 221
hemistikio 221
desfile 222
gortina 222
errima (errime) 222
Heroiaren historian 222
emanaldi labur komikoak 222
usario klasikoa 222
Liturgian 222
xehetasun historiko kulturalak 222
kuadernoak 222
dokumentuek 222
ziklo 223
profanoa 223
tradizio 223
Errenazimendu 224
Erreforma 224
ezaugarri dramatikoak 224
dramaturgia 224
arte aldetik 224
literatura eta kulturaren aldetik 224
dekorazio-olerki 47
mundu poetiko 47
egiteko sozial zehatza 47
euskal poesian 47
teknika poetikoa 47
formula 47
estilizatuak 47
epifonema 47
hitzen deformaketa 47
elipsi 47
mundu arkaikoa 47
antropologia, psikologia 48
arte-historiaren aldetik 48
metodo 48
ikusmolde literarioak 48
autoreek 48
poesi mota 48
errondian 48
estrofa 48
poemagintza 48
natura eta izadiaren aipamena 48

partikula 49
kontzeptu 49
«Pre-logikoki» egindako lotura 49
dinamika 49
sinboloen 49
bereizkuntza teknikorik 49
intentzioa 49
naturako irudi-aipamenei 49
koerentzia 49
alderdi teknikoei 49
kapituloa 49
sinboloak 49
azterketa literarioari 49
erromantze epikoen 49
dialektikan 49
sinbolismo 49
hasiera sinbolikoak 49
literatur teknika 50
koerentziarik eza 51
Magia kutsuko koplak 53
lotura logikorik 53
etnologiaz 53
mitologiaz 53
«Majia-kultura» 54 (M. Lekuona)
Majia-giroan 54 (M. Lekuona)
rimak berak 54 (M. Lekuona)
eite modernoa 54

Bibentziak ere hor nunbait ikusi dut (orrialdea ez dut jaso)

Hemen, ene ustez, aski garbi dago iturburua gaztelania dela, eta hizkuntza horren bidea segitzen dela, haren oztopoak pixka bat xinpletuz, baina oso guti.

Alemanak garbizale delako fama du. Esan nahi dut, behar dituen hitzak alemanaren beraren gaiekin sortzen dituelako fama. Ingelesak, aldiz, batere muxinik gabe atzerritik hartzen dituen bitartean. Baina alemanak berak ere inoiz uste den baino ugariago hartzen ditu maileguzko hitzak. Kontsultatu ahal izan dut *Keisers Fremdwörterlexikon*, Heidelberger-en 1952. urtean argitaratua. Hitzaurrean esaten da miloi bat holako hitz badituela alemanak. Denak ematea, beroien esanahia azalduz etab., ezina dela; eta horregatik liburuan 30.000 soilki bildu direla, nondik hartua den hitza, zer esan nahi duen etab., laburzki esplikatuz.

Adibide gisa, zer moduzko hitzak diren etab. kontura zaitezten, mordoska bat jaso dut, han datorren grafia berberaz, noski. Maiuskularekin datozenak sustantiboak dira; besteak, adjetiboak.

Abandon
Abbreviation
Abdikation
Abdomen
Abduktion
Aberration
abhorrent
Ablaktation

Ablativus
Abnegation
Abortus
Abrogation
abrupt
absent
absolut
Absolution
Absolutismus
Absorption
Abstinenz
abstrakt
Abstraktion
absurd
abundant
Abusus
Acidum
Adaptation
Adduktion
Adept
adhärent
Adhäsion
adhortativ
Exsekration
Exspektant
Expiration
Exspoliation
Extirpation
Extension
Exteriorität
Extinktion
Fidelität
Departement
Dependance
Depersonalisation
Depilation
Deportation
Designation
Desinfektion
Deterioration
Dogmatismus
Insurgent
Inzipient
Inzision
Konfabulation
Konferenz
Konfession
Konfident
Konfiguration
Konfirmation

Konfiskation
Konflikt
Konfluenz
Konföderation
Konform
Kontemplation
Mythe
Perjuration
Perkal
Perkussion
permanent
perniziös
perpetuell
perplex
Persekution
Perseveranz
Persianer
Problem
profan
Program
Symbol
Kompilation
komplex
kompakt
Komparation
Transzendenz

Hitzik gehienek zer esan nahi duten esan beharrik ez dago, guk ezagutzen ditugun erdaretan ere erabiltzen direnez gero.

Ohartuko zineten, gainera, zer moduzko hitzak diren eta nondik hartuak. Ez dira zientzietako hitz teknikoak presiski. Gehienak latinetik hartuak dira, batzuk frantsesetik ere bai. Grafian kontu handiz errespetatzen da jatorrizko ortografia, baina egokitze batzuk ere egiten dira, aleman hizkuntzaren eskakizunak kontutan hartuz.

V. Maileguak idaztekoan har daitezkeen bideak

Alemanak, ikusi dugunez, ardura handiz errespetatzen du hitz hauek latinez daukaten idazkera edo grafia. Esan behar da, gainera, hitzok ez direla alemanean —eta ez beste hizkuntzetan ere— herri-bidez sartu; jende ikasiek edo landuek ekartzen dituzte hizkuntzara.

Fremdwörter deitzen zaie alemanez, hots, atzerritar hitzak, eta hizkuntzaren barnean halako sail edo esparru berezi bat osatzen dute. Ingelesak eta frantsesak ere jokaera berdintsua dute hitz hauek idazte kontuan.

Euskarak ere, honelako hitzak idaztean, bide hau hartu behar ote du? Bide honek bere abantailak dituela ez da dudarik. Bat, nazioarteko diren hitzok, guztiok berdintsuki idaztea. Beste bat, euskarak gaztelaniaren morrontza, itxuraz behintzat, astintzea. Hitzok gaztelaniatik zuzenean hartu beharrean, beste iturburu batetik zuzen eta artez hartuz, badirudi morrontza honetatik ihes egiten dugula. Hitz hauek beren jazkera berezi horrekin agertzera emango lukete ez direla hizkuntza batenak, nazioarteko kulturaren ondasuntegikoak baizik; guztionak, beraz, eta bai gureak ere.

Baina alde txarrak ere ikusten dizkiot bide honi. Eta lehenbizikoa, ahoskatzen ez diren letrez ortografia zamatzea, astuntzea eta zailtzea. Gainera, bide honekin itxuraz bakarrik astintzen da erdararen morrontza. Esan behar da ere gure kasua eta alemanarena ez direla bat ere berdinak. Euskal Herrian, gaur-egun, euskaldun guztiak elebidun edo bilingue dira; Iparraldean frantsesa ezagutzen dute, Hegoaldean espainola. Beraz, gure artean, *problema*, *gramatika*, *programa* edo horrelako hitzen bat esatean, inork ere ez du pentsatzen hitz hori kultismoa dela, gaztelaniazko hitz arrunta dela baizik. Eta hemen datza, nik uste, hitz horien alderako higuinaren gakoa, hots, euskaldunak bere nortasuna gorde nahi du, erdararen uholdetik hizkuntza babestu nahi du. Zer irabazten dugu orduan gaztelaniak hartzen dituen hitz berberak guk ere hartuz, baina hark ez dituen zailtasunak guk ortografian erantsiaz? Ez dut garbi ikusten.

Bigarren bidea: gaztelaniaren bide berbera segitzea. Baina hau itsu-itsuan hartzea ere ez da egoki. Lehenik, Iparraldekoentzat ez delako hain ezaguna. Gero, aipatu dugun morrontza hori azpimarratuago gelditzen delako. Eta azkenik, gaztelaniaren bide horrek ere ahoskatzen ez diren letrekin ortografia zailtzen duelako. Asko edo guti, baina bai zerbait, behintzat.

Hirugarren bidea izango litzateke euskarak bere bide propioa bilatzea eta hartzea. Italiarrek ere, esate baterako, badu berea, ez gaztelaniarenaz eta ez frantses, ingeles eta alemanarenaz ere bat ez datorrena. Guk ere agian tartekoren bat aurki dezakegu.

Eta zein hitz hartu? Badakit hori aitzinetik mugatu nahi izatea oso zaila dela, baina uste dut beste hizkuntzak ere ez dituztela beti hitz berberak hartzen. Matematikek ez dute hemen balio. Beharbada guk ere geure hesiak jarri beharko genituzke hizkuntza babesteko. Ez dakit. Gogoan har dezagun Altubek proposatzen zuen erregela: «Con respecto a esa clase de voces y otras de condición análoga, podría servirnos de pauta la práctica seguida por los idiomas de la Europa occidental: español, francés, italiano, inglés, alemán... en tal forma, que las palabras que hayan sido aceptadas por todos esos idiomas lo sean también en nuestro Iztegi...». Beraz, aleman, ingeles, frantses, espainol, italiara: bostok hartzen dutenean hitz bat, orduan guk ere har. Hau da berak proposatzen zuen neurria (5).

Atea erabat herstea mailegu berriei komeni da, posible da? Ez dut uste. Berriro ere Altuberen hitzak datozkit gogora: «Bakar bide ori artzea, inoizkorik kalteginena oraintxe litzakigu zuzen ere» (6). Hor dago gure tira-bira: alde batetik maileguak behar ditugu, baina bestetik gure nortasuna ere zaindu behar dugu. Nola irteera eman auzi honi?

Egia da, bai, *Campion-Broussain-en* txostenean harako hura irakurtzen dela: «Necesitamos cientos y aun miles de neologismos. El euskera los formará de su propia sustancia, sin acudir al griego, como es costumbre inveterada de los idiomas europeos» (7). Hau ameskeria da. Hizkuntzak bizi behar du. Eta bizitzeko behar dituen baliabideak ez dizkiogu gupidetsi behar.

VI. Egungo uholdeari nola neurriak hartu?

Gogoan dut Lafitte jaunari behin batzarrean hitzetik hortzera jaulki zitzaiona. Hemen Hegoaldean azken urteotan idazten den euskara-moldeaz mintzo zen. Eta hauxe esan zuen: «Euskara hori ulertzeko espainola jakin behar da». Uste dut min eman ziola zenbaiti ateraldi honek, baina, agian, bazuen arrazoirik aski hala mintzatzeko. Gaur batzuek bat ere kezkarik gabe hitzak parra-parra hartzen dituzte gaztelaniatik eta ez hitzak bakarrik, askotan baita esanmolde eta itzulikak ere. Eta horrekin, jakina, alde batetik gure hizkuntzaren izakera bera urtua eta desegina gelditzen da, eta, bestetik, gure eta Iparraldekoen artean berriz ere leizea handitzen dugu. «H» letra onartu zen Iparralde eta Hegoalde elkargana hurbiltzeko eta orain berriro osina handitzen ari gara. Gainera, gure hizkuntzaren azpiegitura gaztelania izango baldin bada, orduan akabo, gureak egin du.

Ez dugu ahaztu behar euskal kulturak Iparraldean frantsesaren eragina jasaiten duela eta Hegoaldean gaztelaniarena. Eta hegoaldekoek guztirako gaztelania hartzen badute iturburu eta eredu, eta iparraldekoek frantsesa, orduan berriro ibiliko gara zatikatuak. Horrek zer esan nahi du? Bai maileguak hartzean eta bai horien idazkera finkatze orduan ere, ahal dela, euskarak bere bidea bilatu beharko duela, etxean sarturik dituen hizkuntza horiei, ahal dela, loturik ibili gabe.

Euskal tradizio bat aski sendoa eta erabatekoa bagenu, hari segitzea izango litzateke onena. Baina ez dakit. Hainbeste aldaketa eta iraultza bortitz jasan ditu gure euskara ñimiño honek bere ortografian, hitzen kontuan etab! Jakina denez, Beraskoitzeko Leizarragak badu joera arrotz-hitzok bere jatorrizko ortografian emateko. Adibideak: *signo* Jo 3, 18; *templo* Jo 3, 19; *infirmo* Rom 14, 1; *verthute* 1 Cor 14, 11; *barbaro* 1 Cor 17, 11; *benignitate* Rom 2, 4; *abandonnatu* Rom 1, 26; *affectione* Rom 1, 31; *Evangelioa* Rom 1, 16; *infidelitate* Rom 1, 18; *philosophia* Col 2, 8, etab.

Axular, aldiz, askoz gehiago saiatzen da gauzak herriko hitz arruntez azaltzera, eta maileguzkoak erabiltzen dituenean ere halako egokitze bat egiten du horietan, baina ez beti. Eta kontuan eduki behar da, Leizarragak frantsesarena bezala, Axularrek gaztelaniaren eragina jasan duela. Axularrek ere *philosopho* idazten du Ax 78; *Theologoec* Ax 243; *templo* Ax 153; *contemplatcea* Ax 20. Liburuaren azalean bertan aurkitzen dugu *Lehenbico* baina *Imprimaçaille*, *Errotorac* baina *Doctoretaric*. Eta gero *conversatcea* Ax 216; *miembro* Ax 209; *imbidia* Ax 209; *pacientcia* Ax 77; *penitencia* Ax 341; *conciencia* Ax 38; *conciencia* Ax 34. Maiztasun handiko hitza da azkeneko hau Axularren liburuan, baina oker ez banago, «N/C»ren artean «T» jartze hori, egitekotan, bigarren multzoan egiten du bakarrik, sekula ere ez lehenbizikoan: KONZIENZA, ez KONTZIENZA.

Lapeyre-n *Dotor* aurkitzen dugu (n.21), *komplitu* (n.133), *impio* (n.15), *Ebanjelio* (n.157), *Bikario* (n.157), *Emperadore* (n.157), *membro* (n.157). Etab.

Ez noa segitzera. Ez dut uste gure tradizioan batasun handirik aurkituko dugunik, batez ere gure mendean gertatu den etenduraren ondoan.

Gorago aipatu dugu Altuberen hitzaldia Eusko Ikaskuntzako III. batzarrean. Han ikusten dugu idazkera hau: *zoolojija* «J»rekin. Gaur, jakina denez, *geografia*, *geologia* eta honelako hitzetan jatorrizko «G» errespetatzeko usarioa nagusitu dela esango nuke.

Beharbada, aldaketa honi bidea urratu ziona Aita I. Omaetxebarria izan zen. Honek *Euskera* izeneko liburua atera zuen 1959. urtean. Han hauxe irakurtzen da: «Así pues, se escribirá *Birjiña*, *Birtute*, *Ebanjelioa*, según la pronunciación corriente; pero se conservará la «G» de *Génesis*, puesto que, si bien en castellano se pronuncia *Jénesis*, no es preciso que tenga la misma pronunciación en euskera, ya que se trata de palabra no asimilada aún, cuya pronunciación se deja un poco al arbitrio del leyente» (8).

Arau hau segituz, nik uste, zabaldu da *geologia*, *geografia* eta holako, «G» letraz idazteko usarioa. Baina istiluak berehala sortzen dira: Zein hitz dira asimilatuak edo irentsiak, eta zein irentsi gabeak? *Agencia*, *genio*, *género*, *gestión* eta holakoak nola idatzi behar dira: «G» ala «J»rekin?

Oihan beltza da mailegu berriena. Egun hauetan dena inguratzerik ez dago. Gaien sailkapen bat egitea eskatu zitzaion Zalbide jaunari eta sailkapen hori hartu da oinarri bilkura hauetarako.

Bukatu baino lehen garbi utzi nahi dut bilkura hauetan ez dela erabakirik hartuko. Iritziak entzun, elkar hizketa egin, gaiaren egosketa on bat bilatzen saiatu: hori da egingo duguna. Erabakiak, hartzen badira ere, gero hartuko ditu Euskaltzaindiak, gaiak helduak ikusten dituen ber.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkitzuet batzarkide guztioi.

Oharrak

1. Azken Kapituluaren aurreko honetan Uztaritzeko Landagoienen 1983 urtean egin ziren Jardunaldien sarrera-hitzaldia jarri dugu. Izan ere, hitzaldi horretan Jardunaldi haien nondik-norakoa eta helburua ageri zaigu eta liburu honen azken Kapituluaz azalduko diren erabakiak ulertzeko sarbide bezala ere balio du. Mailegu berrien formaz eta grafiaz izan ziren Jardunaldiok. Hitzaldi hau 1983ko Urtarrilaren 7an izan zen.
2. Hala ere, *historia* hitza «H» eta guzti, ikusten dut zerrendan. *Istoria*, berriz, «H» gabe.
3. Esan behar da, gainera, Euskaltzaindiak ezer erabaki ez bazuen ere, orain baino lehen tratatu dituela bere batzarreetan hemen aztertuko diren zenbait puntu. Ikus, esate baterako, Mitxelena jaunaren txostenak Arantzazuko Batzarrean (1968) eta Bergarakoan (1978), Luis Mari Mujikarena Bergarakoan (1978), etab. MITXELENA (Luis), «Ortografia», *Euskera* (1968), 203-219; «Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz», *Euskera* (1978), 773-785. MUJIKA (L.M.), «Morfo-fonetika eta grafema batzuen arazoa hiztegitza kontuan», *Euskera* (1978), 643-664.
4. Magiar hizkuntzaren adibide batzuk ere ateratzen ditu Azkuek. Apezpiku batek XVIII. mendean hitz berriak sortu zituela eta gaur horiek finkatuak daudela, etab.
5. Mendebaleko kulturak —eta nahi ez nahi gu horretan murgildurik gaude— abstraktismorako joera izugarria du. Ideia edo kontzeptu abstraktuak maite ditu, alegia, eta horiek adierazteko bere hitzak ditu. Euskara, aldiz, urria da oso horretan, eta lehen bai lehen behar ditugu maila horretako hitzak. *Esencia, esencial, cantidad, calidad, factor, identidad, naturaleza, sustancia, condición, causa, carácter, complexión, aspecto*, eta hainbat eta hainbat holako. Ez dut esaten hitz horiek berak hartu behar ditugunik, baina bai horiei dagozkien hitzak. Bestela beti ibiliko gara itzul-inguru edo metaforekin edo poesi munduko irudien bidez gauzak esaten, eta azkenik zertarako? Hitzak elkarren gain pilatu ondoren, gauza okerrago edo guti gora-behera baino ez esateko. Tresna zehatzak eta hartarakoak edukitzea Beharrezko gertatzen zaigu. Sustantibu eta Adjetibu askoren beharrean gara, batez ere. Abstraktu kutsua duten izenen beharrean, alegia.
6. ALTUBE «Euskel-Itz Barriak», 90 orr.
7. «Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain sobre unificación del euskera», *Euskera* (1922), 15.
8. OMAECHEVARRIA (I.), *Euskara. Un poco de gramática y algo de morfología del verbo vasco*; Zarauz 1959; 149 orr.

XV. Kapitula. Lexiko-berrikuntzaren beharra. Mailegu berriak

Laburpena

Euskarak gaur bere hitz-ondarea aberastu beharra duela.— Etxinaldeko hizkuntza landu guztiek ez bezala, euskarak kultur hitzak bere baitako baliabideez xoilki sortu behar ote ditu?— Euskarak hitz berriak sortzeko dituen hiru bideak.— Mailegu berriak.— Zein da Euskaltzaindiaren egitekoa arazo honetan.— Kultur hitzak mailegatzean euskarak bere bide propioa bilatu behar duela.— Euskaltzaindiak 1984 eta 1985. urteetan hartutako erabakiak.— Euskaltzaindiak proposatzen duen bidea zer arrazoitan oinarritzen den.— Zortzi erabakiak bana-banaka.

Liburu honetan behin eta berriz egiten dugu topo euskal hitzen auziaz. Aipatu da, alegia, purismoaren arazoa, euskararen erroak eginik dauden erdaratiko hitzen arazoa, etab. Euskaltzaindiak, esan dugun bezala, 1959. urtean Agiri bat propio eta berariaz gai horretaz agertu zuen. Baina honekin ez dago dena esana. Euskal hiztegiari buruzko egitekoak ez dira hor bukatzen.

Gaur euskara bere hitz-ondarea aberastu eta zabaldu beharrean dela, nekez uka dezake inork. Mendeetan zehar hizkuntza hau landu gabe edo guti landua egon da, idatzizko zereginetan guti eta berandu erabili izan da, administrazioan, eskolan etab. ez du sarrerarik izan. Orain, berriz, eta euskararen iragana izan den bezalakoa izan delarik, ez gaitu gehiegi harritu behar mende berriak hizkuntza hau behar den prestakuntza gabe harrapatu baldin badu.

Gaur euskarak, bizi nahi badu, eta dagoen tokian kokaturik dagoelarik, XX. mendeko gizarte hiritarrak behar duen bezalako tresna izatea beste biderik ez du. Nonahi zabaldurik den kultura edo zibilizazioa adierazteko gai izan behar du. Eta horretarako —eta besteak beste—, hitz berrien premian da. Tradizioz heldu zaion hitz-ondareaz ez du aski.

Nola erremedia dezake euskarak hitz kontuan duen urritasuna?

Behin baino gehiagotan aipatu dugu euskara idatziaren batasuna dela eta, Campion eta Broussainek egin zuten txosten famatu hura (1). Txosten honetan, bada, ukitzen da arazo hau, hots, euskarak, kultur alorreko gaiak adierazteko duen hitz-eskasia. Eta bide bat ere proposatzen da han bertan eskastasun hori gainditzeko. Hara zein: Europako hizkuntza landu guztiek greko eta latinera jotzen dute kultur hitz horiek moldatzeko; euskarak, aldiz, beste horiek ez bezala, bere baitarik, hots, euskarak bere baitan dituen baliabideak baliatuz, sortuko lituzke hitzok.

Merezi du aipatzea Americo Castrok Bilbon 1920. urtean hitzaldi batean abelera honi egin zion irazkina. «Hori da Nerbioi ibaiaren ur guztia hiruzpalau pitxerretan sartu nahiko balitz bezala» (2).

Americo Castrok esan nahi zuena garbi dago: prozedura horrekin molda daitezkeen hitzak, behar direnen aldean, beti izango direla guti. Beraz, bide horrek —berak bakarrik— ez digula balio. Beti labur eta motz geldituko litzateke.

Bai. Kulturaren mundu hau izugarri zabala eta neurgea da, eta alor horretan behar diren hitz guztiak euskarak bere baitarik sor ditzakeela pentsatzea, amets egitea da. Gainera, hori egingo balu, euskarak beste hizkuntzokin lokarri eta zubi guztiak moztuko lituzke eta hori beretzat ere ez da on. Gaur hizkuntza guztien artean, Etzinalde honetan behinik behin, elkarmenpetasun bat dago.

Kultur hitz berrien premia edo eskasiaz ari gara, bada. Eta kultur hitzak esatean, ez dugu esan nahi, bakarrik, jakintza berezietako terminologia partikularra. Osin hondogabeko horretan sartu gabe ere, bada gaur Etzinalde honetan kultura zabal bat orotara barreiatua, orotara zabaldu dena eta gizarteko gizon arruntak ezagutzen eta erabiltzen duena. Kultura horretan badira hitz asko eta asko amankomuneko altxorrekoak direnak, gehienak latin eta grekotik eratuak edo erakarriak, eta hizkuntza landu horietan ia berdintsuki esaten direnak (nahiz eta ez beti).

Halaz guztiz, Campion-Broussain txostenak proposatzen duen bidea ez da erabat bazterrerat uztekoa, nahiz eta ez den eskusiboki hartu behar.

Hiru bide guttinez ditu euskarak hitz berrien sorketa-lan hau burutzeko: 1) Maileguak, esan nahi baita, hitzak beste hizkuntzetatik mailegatu edo etxeratu. Kultur hitzez ari garenez gero, eta kultur bidez hartzen direnez, latin eta grekoa izango dira gehienetan kontutan hartu beharko direnak —latina bereziki, zeren eta besteak ere latina dela medio hartzen baitira—. 2) Konposaketa edo hitz-elkarketa, hau da, bi edo hiru hitz elkarretaratuz, hitz berria sortzea. Prozedura hau bizi-bizirik dago euskaraz eta inolaz ere ez dugu saihestu behar. Kuestioa da bere legeak dituela, eta, ongi erabiltzeko, lege horiek ezagutu egin behar direla. 3) Deribazioa edo Eratorpena. Hitz bati atzizki edo aurrizki bat ezarriz, hitz berria sortzea. Oso aberatsa da euskara, batez ere atzizkietan eta hauen bidez sortutako hitzetan. Harrobi hau ere arakatu beharra daukagu, hitzen sorketa berriak egiteko.

Hiru ate edo bide horietarik ez zaio euskarari batño ere galerazi behar, denon beharrea da eta. Zer neurritan jo aurrengora, bigarengora edo hirugarrengora, hori aldeztu aurretik erabaki ezinekoa da. Askotan esan nahi du hemen hitzunen trebetasun, jeinu, asmamen eta joerak. Eta inoiz, gauza bat izendatzeko egon daiteke hitz bat maileguz hartua, eta beste bat eratorpen- edo elkarketa-bidez sortua.

Euskaltzaindiak ez du uste kultur mundu honetako hitz guztiak sortzea eta erabakitzea berari dagokionik, edo, beste hitzez esanik, berak bakarrik lan handi honi buru eman diezaiokeenik. Guztion zeregina da hau. Orain arte ezertxo egin ez denik ere ez dugu pentsatu behar. Azken urteotan bereziki, aldizkari eta liburutan agertu dena bildu eta ezagutu beharko litzateke eta probetxuzkoa dena atxiki.

Euskaltzaindiak ez du dena egin behar, bada. Baina hortik ez da segitzen ezertxo ere ez duela egin behar. Agian ez da gaizki helduko Euskaltzaindiaren Arautegiak zer dioen gogoratzea. Beronen xedeen artean honako hau dator: «Hizkuntza, gizarte-maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea» (3). Euskaltzaindiak uste du, bada, lan guzti honetan ere halako gidaritza bat hartzea dagokiola, gauzak batasun baten barnean egin daitezela.

Horretarako arau gidari batzuk eman behar zituela uste izan du, eta horretan ari da. Azken urteotan hauxe da eskuen artean darabilen zeregin nagusienetako bat. Mailegu berriei buruz erabakiak emanak ditu. Hitz-elkarketari buruzko ikerpen-lanak ere abian dira, eta, azkenik, deribazio edo eratorpenari buruzkoen aldia izango da.

Maileguzko hitz berriei buruz arauak emanak dira, bada (4). Sarreran esaten den bezala, arau hauek hiru urtetako lanen fruitu edo emaitza dira. 1983. urtean Uztaritzeko Landagoienen bi Jardunaldi egin ziren alor honetako gaiak aztertu eta eztabaidatzeko, alde aurretik txostenak aginduz.

Jardunaldion ondoren Euskaltzaindiak Adierazpen bat agertu zuen, aski landuak eta umotuak dauden puntuekiko erabakiak ahalik eta lasterren banan-banan agertuko zituela esanez (5). Hurrengo bi urteetan zortzi puntu konkretu Euskaltzaindiaren batzarrera aurkeztu eta han erabaki izan dira. Erabakiok mailegatuko diren hitzen itxura eta idazkerari ukitzen diete xoilki.

Mailegu berriez ari da, bada, liburuska. Mailegu zaharrak, euskarak aspaldidanik etxekotuak dituenak, ez dira ukitzen, bere hartan gelditzen dira. Horiek dauden-daudenean segitzen dute. Gaurko premiei erantzuteko behar diren hitzak, mailegatzekotan, zer-nolako itxuran eta idazkeran mailegatu behar diren: hori da arau hauek legeztatu nahi dutena.

Mailegatu behar diren hitzok batipat kultur hitzak direnez gero, eta kultur bidez etxeratuak, hitzaren eredia hartzeko zuzenean iturrira jotzea gomendatzen du Euskaltzaindiak, hots, latin eta grekora. Ez du nahi Euskaltzaindiak hitzok zuzenean frantses eta gaztelaniatik har daitezen, zuzenean iturritik baizik, gero egokitzen batzuk jasango badituzte ere. Bai euskararen batasunak eta bai hizkuntza honi zor zaion itzalak ere, honetan bide propioa, geure-geurea, edukitzea gomendatzen duela dirudi. Horrek esan nahi du, alde batetik, ez dugula egon behar auzi honetan ez frantsesak eta ez gaztelaniak egiten duenaren begira, eta, bestetik, latin eta grekoaren ortografi arauak ere ez direla nahi-eta-ez zorrozki hartu behar.

Frantses, ingeles eta alemanak etimologista deitzen den ortografia bat erabiltzen dute hitz horietan —nahiz eta beren artean ere beti bat ez etorri—. Euskaraz ere badira, noski, bide horren alde daudenak, baina guti dira. Izan ere, ortografia hori ikasi eta erabili beharra herriari zama astunegia leporatzea litzateke. Haritschelar jaunak kontatu zuen —Landagoienen izandako Jardunaldietan— berari frantses batek esan ziona: «Guk usuario hori tradiziotik dugulako eta orain haustea ezina edo oso zaila delako, jasaiten dugu; baina zuek, bide bat ala bestea hartzea aukeran duzuenok, zergatik hartu nahi duzue horrelako bide antzu-idorra?» (Hala ere, bide horrek abantail batzuk badituela ez da dudarik).

Beste zenbaitek, gure artean, euskararen lege fonetikoari hitzok erabat egokitzea nahiko luke. Hori ere Euskaltzaindiaren bidean kontutan hartzen da, baina ez alde guztiz edo zeharo, zeren hemen «optikak», hitz hauen itxurak ere bere garrantzia baitu.

Beraz, Euskaltzaindiak euskararentzat hautatu duen bidean halako oreka bat gorde nahi da usuario, hitzen itxura, etimologia eta lege fonetikoek eskatzen dutenaren artean.

Gauza asko ez dira oraingo erabakiotan sartzen, lehengo tradiziotik erabakitzen jotzen ditugulako, adibidez: «V»dun hitzak «B»rekin idaztea; «B» eta «P»ren aurrean «N», eta ez «M» jartzea; bi kontsonante berdinen multzoa sinpletzea; «C», «Ch», «Qu», «W» letrak baztertzea (zenbait izen propio, sigla eta arrotz-itxuran eman nahi diren hitzetan salbu).

Kultur hitzetan ageri den «H» letraren arazoa ere ez zen Batzarrean ikusi; Jardunaldietan, ordea, bai. Han esandakoaren arabera, hitz-hasierakoa eta bokalen artekoa gordeko dira; kontsonante-ondokoa ez, salbuespenen bat gora-behera. Baina bego garbi: hau mailegu

berrientzat da. Mailegu zaharretan «H» gabe sustraitu diren hitzek «H» gabe segituko dute. Kontua da zein den mailegu zaharra eta zein berria, ez dela beti garbi egoten.

Ez bitez, arren, arau hauek har Euskaltzaindiak hitzak kanpotik itsumustuan eta tropelaka hartzeko baimena eman balu bezala. Ez. Euskaltzaindiak nahi du hizkuntzaren nortasunari kasu eman dakion; eta ez du nahi samaldan eta zabarkeriaz hitzak nolana kanpotik har daitezen. Badaki, gainera, hitz berrien premiari erantzuteko, hor daudela, maileguez gainera, hitz-elkarketa eta eratorpena; baina maileguen bidea, halaber, Euskaltzaindiak baldintza batzuekin zabalik utzi nahi du. Behar denean, eta beste horiekin batean, hitzun eta idazleek balia ahal dezaten.

Arau hauek gida bat eskaini nahi dute, mailegu berriak hartzerakoan, halako batasun bat egon dadin. Jakina, ez da posible honelako arau orokorrek errealitate guztia kontutan edukitzea. Gerta daiteke, beraz, gero pratikan salbuespenen bat, edo bat baino gehiago, suertatzea.

Ikus ditzagun bana-banaka erabakiok. Zortzi dira guztira.

Lehen erabakia: Hitz-hasierak. «R» edo «S» gehi kontsonanterekin hasten diren hitzei euskarak protesi bokala jarri ohi die: *arrosa, eskola*. Mailegu berrietan ere lege hori gordetzea gomendatzen du Euskaltzaindiak: *erradiografia, erlatibitate, espeleologia*. Baina horrelako bokalik ez dute hartuko, baldin, elkarketa dela eta, jadanik beste bokalen bat, badaramate: *erreforma*, baina *kontrarreforma*. Salbuespentzat jotzen dira siglak, izen propioak, mailegu irentsigabeak —hau da, hizkuntzak beretakotu edo etxekotu ez dituenak—, berrikitan erabili izan direnak bereziki: *radar, stop*.— Euskararen aintzinako legea, hau da, *p-, t-, k-, b, d, g*, bilakaraztea ez da mailegu berrietan kontutan har-tuko, joera hori aspaldian galdua delarik.

Bigarren erabakia: Hitz-bukaerak. Agian hau zen erabakitzen zailena, hitzen bukaeran hainbeste kasu desberdin eta korapilatsuak azaltzen direlarik. Euskaltzaindiak onartu duen arauak ez ditu guztiak kontenplatzen, baina bai kasurik gehienetarako gida moduko bat eskaintzen.

Hona hemen arau hori laburzki azaldua:

Latinez «-ulus», «-atus», «-cretum», «-itum», «-utum», «-entum», «-idus» bukaera duten hitzek, euskaraz «u» bukaera hartuko dute, hala nola *dekretu, institutu, dokumentu*.

Latinez «-anum» edo «-anus», «-ivus», «-ernus», «-imum» («-imus»), «-versum» edo «-ter» dutenek, euskaraz «o» bukaera hartuko dute, adibidez *dekano, datibo, moderno, unibertso*.

Latinez «-arius» bukaera dutenek, euskaraz *-ari*, esate baterako, *bibliotekari*.

Latinez «-tio» bukaera dutenek, euskaraz *-zio*: *administrazio, manifestazio*.

Latinez «-alis» bukaera dutenek, euskaraz *-al* hartuko dute, hala nola *bokal, horizontal, plural*.

Latinez «-tor» dutenek, euskaraz *-ore*: *eskultore*. Latinez «-aris» dutenek, euskaraz *-ar*: *singular, militar*.

Latinez «-itas» dutenek, euskaraz *-tate*: *Unibertsitate, fakultate*.

Grekotiko hitzetarako, berriz, *o* bukaera hartu da: *dialekto, arkitekto, filologo, fenomeno*. Baina hitzak «s» bukaera baldin badu, «s» hori galdu egingo da, salbu «-itis» bukaera

dutenetan eta silaba bateko edo biko hitzetan: *analisi, katekesi, neurosi, metropoli*, baina *meningitis, kaos*.

Hitzen *a* organikoa gordetzea gomendatzen da, salbu hitz elkartu eta eratorrietan: *Geografia*, baina *Biologi ikerlanak, Filosofi fakultatea*.

Hirugarren erabakia: latinez «g» edo «j» duten hitzak. Orain mailegutzen diren hitzetarako *g* grafia hobesten da: *Biologia, Filologia, Dramaturgia*. Erdaretan «i», «j», «y» agertzen denean, bide honi jarraituko zaio: bokal artean beti *i* idatziko da: *proiektu*. Gainerako kasuetan, silaba-hasieran baldin badator, beti *j*: *janbo*.

Laugarren erabakia: x duten hitzak. Hitz-hasieran, hitz-bukaeran eta kontsonante ondoan, *x* idatziko da: *xenofobia, fenix, marxismo*. Bokal artean ere *x*: *taxi, sexu, oxigeno*. Kontsonante aurrean, berriz, *s*, honetan tradizioari jarraituz: *estradizio, esportazio*.

Ondoren datozen erabakietan kontsonante-multzoen kasuak hartzen dira kontutan.

Boskarren erabakia. Boskarren erabaki honetan bi kasu desberdin kontenplatu dira: 1) 2 edo 5 kontsonanteak *l, n*, edo *r* kontsonanteen ondoren gertatzen direnean, tartean *t* hartuko dute: *inertzia, esentzia*. Baina honetan salbuespenak egon daitezke, batez ere hitzak oso teknikoak direnean, adibidez, *katarsi, enzima*. 2) Bi sudurkari elkarren ondoan gertatzen direnean, berriz, bi kontsonante horiek diferenteak direlarik, biak gordeko dira: *amnistia, himno*.

Seigarren erabakia. Erabaki hau honako kontsonante-multzo hauei buruz ari da: *kt, pt, dv(db), kn, gm, dm, dj, bj*. Multzo horiek dituzten hitzak mailegutzen direnean, multzook gorde egingo dira, hala nola: *dialektika, kontzeptu, adberbio, sintagma, administrazio, adjudikatu*.

Arau hauek, beti bezala, mailegu berrietarako soilki balio dute.

Zazpigarren erabakia: Hiru kontsonantezko multzoak. Hiru kontsonantezko multzoak dituzten hitzak mailegatu behar direnean, mailegu berrietan hiru kontsonanteok gordeko dira: *konstituzio, institutu*. Lege honek ez du mailegu zaharretarako balio: *istant, sustantzia*.

Zortzigarren erabakia: sz, sch multzoak. Latinez «sc» multzoa «i» edo «e» bokalen aurrean gertatzen denean, euskaraz *sz* idaztea onartzen da, eta hitzaren hasieran baldin bada, *e*-protetikoa hartuko du: *aszetika, eszeptiko*. (Erregela honek, beti bezala, mailegu berrietarako soilki balio du).— Latinez «sch» multzoa «i» edo «e» bokalen aurrean gerta badadi, ordea, euskaraz *sk* idatziko da: *eskema, eskizofrenia*. Hitz zaharretan, beti bezala, ohiturari jarraituko zaio.

Hauek dira mailegu berrietarako Euskaltzaindiak berrikitan hartu dituen erabaki edo arauak. Urri, labur eta lehor gelditzen dira agian. Gerta daitezkeen kasu guztiak ere ez dituzte kontutan hartzen. Baina beren laburrean arau gidari batzuk eskaintzen dizkigute mailegatzelan hau batasun baten barnean egin dadin. Ikusten denez, arauok segitzen badira, kultur hitzok nazio arteko usuarioan duten idazmoldetik hurbil gelditzen dira; baina idazkera sinpletzeari ere begiratu zaio.

Gogoratu behar da hemen Lekunberriko bilkuretan (1986ko Urrian) esan zena: oraindik ez dela sasoiak Euskaltzaindiak hitzak bana-banaka erabakitzeko. Hiztegi hiritartua egitea da Euskaltzaindiaren aspaldiko asmoa, baina berak konprenitu du hori ongi egiteko beste zenbait lan egin behar direla lehenik: 1) Orotariko Euskal Hiztegia, 2) azken aldi honetan asmatu edo erabili diren hitz berrien bilketa, 3) Lexikologi Erizpideen Finkapenerako sailaren lana bururatzea.

Ekimen guztiok martxan daude, eta horiek menderatzen direnean izango da ordua Hiztegi hiritartu horri heltzeko (6).

Oharrak

1. Ikus *Euskera* (1922), 4-17.
2. Ikus «El elemento extraño en el lenguaje» in *Curso de Lingüística*, Eusko Ikaskuntza 1921; p. 59.
3. Euskaltzaindiaren Arautegia, Lehen artikulua, g).
4. *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren Erabakiak*, 1986.
5. Ikus Adierazpen hori libruskan, 19-20 orr., eta *Euskera*-n (1984), 261.
6. Ikus *Euskera* (1982), 271.

Aipamenak egitean erabilitako laburdurak

ASJU = Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo».

Ax. = Axular. Segidan datorren zenbakiak ez du orrialdea adierazten, testuaren atala baizik, Flors-en eta Jakin-en edizioetan eginik dagoen partiketaren arabera.

BAP = Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País (Donostiako aldizkaria).

E = Euskera, Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala.

FLV = Fontes Linguae Vasconum (Iruñeko aldizkaria).

Riev = Revista Internacional de Estudios Vascos.

Aurkibidea

Aurkezpena

Lehen Kapitulua. Burutik kendu beharko genituzkeen irudipenak

II. Kapitulua. Premiarik premiazkoena: hitzegin

III. Kapitulua. Purismoaren alde ona eta alde txarra

IV. Kapitulua. Tresnatasuna eta tresnakeria

V. Kapitulua. Euskararen hitzak

VI. Kapitulua. Hizkuntzaren normalkuntza egiteaz, edo euskara idatziaren batasunaz

VII. Kapitulua. Euskaltzaindia

VIII. Kapitulua. Prosazko tradizio sendo bat osatu beharra

IX. Kapitulua. Elebitasuna

X. Kapitulua. Irakaskuntza

XI. Kapitulua. Esaeren mundua

XII. Kapitulua. Itzulpenaren mundua

XIII. Kapitulua. Euskara eta euskalkiak

XIV. Kapitulua. Maileguzko hitzek sortzen dizkiguten istiluak

XV. Kapitulua. Lexiko berrikuntzaren beharra. Mailegu berriak

Aipamenak egitean erabilitako laburdurak

Pertsona-izenen Aurkibidea